



KARDABERAZ

EZPALAK

Estanislao Urruzola («Uxola»)



KARDABERAZ BILDUMA

1.º KARDABERAZ AITARI OME- NALDIA

(lan bilduma da). 15 x 21:
200 pg., 200 pta. (Lekuona,
Akesolo, Onaindia eta abar).

2.º NEURRIZTIA

(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg.
400 pta. (Teknika gaia).

3.º SUGE GORRI

(François Mauriac — Uxola).
15 x 21: 167 pg.

4.º EZPALAK

(Uxola). 15 x 21: 181 pg.

ARGITARATZEN:

SHAKESPEAREN'ren Bilduma osoa:

(Larrakoetxea'tar Bedita'k inge-
leratik euskeratua).

5/6 KOMEDIAK. 15 x 21: 720 pg.

7/8 DRAMAK. 15 x 21.

9/10 TRAJEDIAK. 15 x 21.

KARDABERAZ LIBURUXKAK

1.º KARDABERAZ

2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA

3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXI- KIAK (A. Arrinda).

13 661



KARDABERAZ BILDUMA - 4

E Z P A L A K

Euskal Biblioteka Labayru



1012723

LITERATURA / N. 2585

OARRA:

Gure asmoak aurrera dijoaz, teknika gaietan NEURRIZTIA'kin leen eta orain SUGE GORRI eta EZPALAK'kin. Auek biak illunpeetan galduta zeuden lanak dira eta guk ekarri dizkitugu argitara.

Badakigu idaz-lanik asko illunpeetan usteltzen daudela, aspaldiko urteetan egiñak; orduan argitaratzeko girorik ez eta gaur aukerarik ez. Eta orrelakoeri eskua luzatzea ere gure Bazkunaren elburuetako bat da.

Euskal-idazle, gure laguntzaren bearrrik badezu, aitzera eman.

KARDABERAZ

KARDABERAZ BILDUMA - 4



EZPALAK

"1971 - GARITAONAINDIA'TAR
GOTZON SARIA"n bigarren saria
irabazitako eleberri asmatua



Eskeintza :

Ene ama maiteari, bere magalean euzkeraren xamurra eman izan zidalako ta ene emazte ta seme-alaba biotzekoei, gure izkuntza eutsi ta aurreragokei eman dezaieten.

Irakurleari oarra :

Eleberri ontan gertakizun oro ta notin nagusienak asmatuak dituzu. Gipuzko ta Nafarro'ko mugan dauden edozein urietan jarri genitzazkean, bañan irakurleak barruratzen ba-da jabetuko da zer dala-ta iduritu zaigun ongien Oiartzun'en ipintzea.

Auxe garbi garbi jarri nai degu irakurleak ez dezan iñoren antzik artu, onelakorik asmotan ere ez dabilkigulako.

ATARI - IZKETA

Eleberri oni itzaurrea ipintzea eskatu zait. Eta erregua senitarteko eta adiskide maite batengandik datorrelarik ezin bada ezezkorik eman. Neure ezaguera nobela kontuan, ordea, motz eta urri dala aitortu bearrean nago. Ez natzaizute, beñere, eleberrizale amorratu orietakoa izan. Orrengatik azalduko dizkitzuedan iritziak balio gutxikoak izango dituzutela sinis dezazuteke alde zurretik.

Besterik ezean, ori bai, irakurle purrekatua nauzute eta areago liburua euskerazkoa baldin ba'da. Argitaratzen dituzten geientsuak begizatzen ditut eta nola ez bada "EZPALAK" deritzan eleberri mar-dul au?

Euskal-lurrean sortutako enborretik jalgitako printzak ditugu eta pozik irakurri ditut sartuaz nere gogo barruan. Ausnartuta gero zuei erakus eta eskeintzen dizkitzuet, egur oneko "EZPALAK" Euskal-Literaturarenganako zuen zaletasunaren sua piztu eta irazeki dezaten, aurrerantzean ere gartsu ta itzaldu gabe jarrai dezan.

"EZPALAK" eleberria irakur erreza dezute ipui tankera zalu ta argian idatzita. Elkarrizketa ugari samarrak dauzka ederki josiak eta bizitasuna aundia gertakariei ematen diotenek.

Guztia esaera eta gogai errikoiez aberastua atal bakoitza neurritz tajutu ta borobildua dago. Arian galtzeke jostuna konta-katillu tre-bea degu.

Egilleak, mendi-alde, erri eta inguru guztiaren ikusbegia zuzen eta zeatz ematen digu; eta gertakizun eta personen barrunbean sarturik so-egille zorrotz agertzen da. Irudimen eta asmamenez ondo ornitua. Euskeraz asko mintzatu, entzun eta ikasia dala ezagun zaio.

Gure izkuntzaren jabe dala esan diteke naiz erri-tankeraz eta naiz gramatikaren aldetik. Euskaldun buruz eta berriz idazle bezela uste gabetanik aukerako esanaldiak nola nai osatzen ditu, naski eta irakurleari begietatik sartzen dizkio kilikagarri agerturik. Amai-ka "nobela" erderazkoak bazterretan argitaratu ta saltzen dira askosaz motelago ta kaskarragoak diranak.

Euskerazko eleberrian artean "EZPALAK" batere lotsik gabe azaldu diteketako bat dugu. Geroa izango da lekuko.

Estanix Urruzola'k idazle doia bereziak bait ditu: langille, leia-tsu, etorri ugarikoa. Eta arian-arian garaipena ezagutuko du, ekiñaren ordainez. Ez du lanak beldurtzen eta gauzak begiratu ta ikusiaz eta giza-biotzetan zulaturik lumaren isuria ez zaio atertzen ez agortzen.

Onela "EZPALAK" eleberrian XX atal osatzen ditu zein baiño zein interesgarriagoak. Asierakoak "pantagrueliko" motakoak dira, tripazai oiturazkoak. "Mama gozoarenak". Sagardoaren goresmena Ramon Artola tolosarrak (Pepe Artola'ren aitak) aspaldian egin zu-naren antzekoa.

Oiartzun inguruko sagardotegian giroa agertzen du. "Zamalbi-de"-tik barrena oñez eta kotxetan joan oi zan "zizarzale" jendea nero-nek ikusia dut. Giputz sagardozale sabelaundiak! Irun'dik asita Goie-rrirraño ba-zan orduan jorea Tolosa'n bakarrik ba-ziran Ogei sagar-dotegitik gora, upel tantaiez beterik. Ez al da orain ere geiegizko zu-rruta euskaldunen griña eta ondamera?

Orretzaz gañera apustu ta jokurako zaletasuna gure argalkeriaren ezaugarritzat jo dezakegu; ta au baño okerragoa dana alkarrenganako gorroto ta ezin ikusia dakarzkiten burrukak auzo-errien artean. Ger-takizun orietaz naasi ta josirik dago "EZPALAK" irakurgai azkene-raiño. Erti-lanak eta poesigintzak guztia estaltzen dutelarik. Ikusbe-giaren ederra nun nai baiñan arra barruan dago eta sugea gorderik bere zuloan, garaiz drama sortuko dutenak.

Bitartean ipuiak jarraitzen du irakurlea zalantzan jarriaz nola bukatuko dan ezin antzemanik. Alare gazi-gezak ondoren azken zo-riontsua dakar. Emakumezko miztoak eta arrotz espirituak beren pozoi edentsua zabaldu dute baiñan xenofobiaren ziztada zorrotza ez da

makalagoa. Zer bada? norbaitek aurrez jakin naia ager dezake. Ez noakio, ordea, agertzera, irakurle bakoitzak bere kasa sumatzea obe bait da.

"EZPALAK" eleberri edo nobela motan zer sailletan sartuko nukean erabakitzea ez da arazo erreza. Nobelagintza izugarri zorro aundia bait dugu eta gai guztiak artzen dituan. Zenbait gauzetan Txomin Agirre'ren "GAROA" gogorazten du. Bestetan Polizizko No-belaren antza ematen ediot. Eta muga-lapur, kontrabandista ta kara-bineroen arteko ixtoriak azalduaz Pierre Loti'ren "RAMUNTXXO"-ren kutsua ezin ukatu zaio.

Alderatzen joango ba'giña beste eleberri asko aitatu bearko ge-nituke. Nola ez, ordea gogoan artu, bederik, J. A. Irazusta'ren "JONI-XIO" eta "BIZIA GARRATZA DA"; eta J. Eizagirre'ren "EKAI-TZPEAN" irakurgaiak?.. Tolosar ziran aldetik eta gure egilleak eza-gun eta adiskide izan zituan ezkeren aien izena berearen ondoan jartzea atsegin izango zaiolakoan gaude.

Ezin utzi diteke aitatu gabe gizalde onen asieran Aita Juan Ma-nuel Lertxundi Sch. P. eskolapioak argitaratu zuan "POLI ETA PE-LLO" nobelatxoa, Ameriketako euskaldunon bizimodua poliki erakus-ten diguna. Gai au bera azaldu digu beste tolosar batek: Zubillaga Jose Ramon bedaiotar baserritarrak: "LARDARKETA" liburu ede-rrean. (Ed. Auspoa 1964). Naikoa ez zala, pozez eta negarrez, orain-tsu-orain beste idazti mardula atera berri du: "EUSKALDUNAK ARJENTINA"-n (Buenos Aires, Ed. Ekin 1972). Zein baiño zein atsegiñagoak dira biak, baiñan "LARDASKETA" dala esango nuke Gurbil Aundiko semearen lanarik jatorrena. Auek guztiak Tolosa'ko idazleen lerroa ugaritu ta goratzen dute. Arrokeria pixka batekin Tolo-sa'ko idazleen lerroa ugaritu ta goratzen dute. Arrokeria pixka batekin tolosar "zuri-ederrok" esan dezakete Euskal-Erria'n uri gutxi dirala ainbat euskal-idazle eta nobelagille sortu dituanik. Tolosa'k gorapai-men ortan jarrai dezala luzaroan beste guzien ikasbiderako.

Eskola ortakoa degu, beraz, gure Estanix Urruzola idazle txuku-na, errizaltetasunez beti gañezka ari dana. Ontan ez digu utsik egingo. Ez da beñere ukakor, baikor baizik. Geiegizkorik baldin ba'du maita-sunak eragin arazitakoa izango da. Teknika, ta idaztankeran gauza

*berririk ez ba'du asmatzen, irakurle esku ta begien aurrean jarri ditez-
ken irakurgaiak eskeintzen dizkigu.*

*Eta au aintzat artzeko doaia da. Obeto egin dezakeanak leia dedi-
lla goragoko maillara irixten. Urruzola'k, beraz, inoren laguntzarik
gabe elburu goitar bat lortua du. Txalo eta zorion beroenak merezi
ta irabazi ditu. Ea noiz argitaratzen dizkioten idatzirik dauzkan beste
eleberriak. Eta onoko "EZPALAK" irakurle anitz izan ditzala ez bait
zaie damutuko ontan erabillitako astia.*

*Irakurle, sar zaitez idazlearekin, ain ongi azaltzen dizkigun
Oiartzun'go mendi ta bazter zoragarrietatik barna, euskaldunen izake-
raren muiñean, euskaldunen zenbait doai eta akatsen muiñean. Ez
zaizu alperrikakoa izango.*

ANTONIO MARIA LABAYEN.

I

UDABERRI

Egun artan, Oiartzun uri zoragarri aldera urratuta zeuden bideak
naiz eta txiurrak izan edo gurdibideak, ba-zuten bere gañean ibilkari
aski.

Udaberri zan; sagardo denbora.

Ba-dakigu euzkaldunak sagardoari diogun zaletasuna. Sagardo
onak igitu arazi du betidanik euzkalduna, eramanazi du euzkelduna
emendik-arat beste edozerk baño geiago. Sagardo ona izan oi da geie-
nean gure jokoak, idi jokoak, pelota, segalarien apustuak eta abar
aaztu arazi duana... ta sortu ere bai bein edo bein, gerora ikusiko
degunez.

Sagardo denbora ta sagardo urtea zan.

Sagastiak sagarretik erruz izan zuten. Igaliak gañezka, sagarrez
eztalirik, adarra eten bearrian bere zama aztunak egondu ziran
bere margo gorri, ori ta orlegiak motaturik sagastien zugaitz zapaiak...
Gerora, bildu ta bai gurdietan bere tokietara eraman zituzten, tolare-
tan lertu ta zukutu bere xalda gorri-gozo guztia atera ta orain, irakin
ondoren, kupel-sabel zabaletan urrearen margo dizdirakorra arturik
edaleen zai zeuden...

Ta onelakotan gerta oi dan bezela, ba-zan sagardozaileen artean
esan bearra. Asteasun'n berealdiko sagardoak ba-zeudela; Astigarra-
ga'n bikañak baño bikañagoño mama-goxoa ba-zala; Usurbil'en bai
omen ziran kupel batzuk zein baño zein ederragoak; Lasarte'n olakok
eta alakok txiritik "probatuak" ba-zituztela zenbait sagardo politikak;
eta onela, Ernani'n, Zubieta'n, Lezo'n...

Oiartzun'en ere bai. Ta urte artan inoiz baño obeagoak. Zarren

esanetara urteak omen ziran onelako sagardorik ezagutu ez zirala. Ta ederrenetakoa, liburu auxe irikitzen degun egunian asitakoa...

Gipuzkoa'ko sagardo-gizon berezienak ba-zekien egunez aurretik noiztxo saltzera jarriko zuten. Ta oien esanetara, ospea ta fama edatu zutelarik bazijoazten araruntz, bere ezpartzin ta alkandora edurberrri bezin zuriak soñean zituztela, makilla esku batean ta bestean, zenbaitzuk, jana sortuko ote edo beldurrez, bere kaxuelkada upar-zabalak.

Edatia ez zan besterik ere ba-zeramaten buruan. Sagardozale ezezik mendizale ba-da euzkalduna. Ta nolatan ez joan mendirik-mendi egun artako giro bikaña ontzat arturik? Beribilletan edo bultzian, patxada ederrian joan zitezkean, baño...

Udaberri asiera zan.

Itxas-aize epel eta aul batek muxukatzen zituan mendi malkarrak, doi-doi ta emeki dantzaraziaz zugaztietan jaioberritzen asiak zeuden orri borboillak. Aizearen garbiak bertaratzen zituan begientzat katalejoaren antzera muño ta mendi, zakon ta gallur, baso ta zelaidiak, nabarmendurik batzuek besteengandik eta bereziturik beroien muga lerroak. Igazitako negu luze artan eroritako euri ta edurrak, ba-zirudian garbitu zituztela mendi ta zelaietako orlegi mota guztiak, ederturik eta dizdirakorrago utziaz milla orlegi margozko zapiak-etxeakoandre maratzak oi duten antzo-ta mendi gallurretatik zintzilikaturik utziaz, eguzki ta zeru printzaz josirik, legortu zitezen...

Belardietan, San Jose loreak bete-betian altxatzen ziran, bañan agiri ziran beste lora batzuek naasirik, pinportatuaz belar gizenaren margoa, puluntpatzen ziradenian aizearen bultzada eme goxoaz. Xoxoa ta birigarroa txor-txor azaltzen ziran bide baztarretako sasi artetik eta ego bizian igesiten zuten, geriz zugaztietara, gerezi gorri goiztarren bat arkituko ote zuten edo...

Mendi ospel aldean ez bakarrik, bide baztarretan ere, eguzkia sartzen ez zan baztarretan ere oraindik goizeko intza dir-diraz betea azaltzen zan arripitxizko dir-dai ta edertasun emanik belar buru ta osto gazte garbiei. Iñoiziñoiz, lotsaz bezela bere arpegi zuri-gorritzen asia azaltzen zan baso-marrubi jaiio berrien batek, ibilkarien begien jolaserako ta ibiliak legortutako ao-zapaian atsegiñerako.

Aurrean zegoan Aia'ko Arria eskuz artu zitezkeala ba-zirudian; ain garbi, gertu ta lerdan ikusten zan! Bere arkaitz beldurgarriak

inguruetakoa aberastasunen ta edertasunen gordelaritzako altxeak zirala ba-ziruditen. Euren aotik xaltoka-xaltoka gain-beraka zetozten errekatxoak zillarrezko ariak ziruditen mendi orlegi, mendi orlegi zapien ertzak millaka zeruko aingeruak josi zitzaten. Ezkerrerago Jaizkibel mendia luze-luze zetzan zeru bidean, bertatik aldapa aundirik gabe igo ditekeala adierazi naiean bezela.

Bestaldetik, San Markos tontor lerdana ta atzean, Urdaburu'ko erpin ausarta, beste mendi arritsu ta aritzuen artean, bere gora-bidean...

Atzerago oraindik Ernio, Aralar, Aitzkorri tarteka-marteka zapi zuriaz jantzirik, negu asieran lañoetan zerutik milla aingerutxoek lorrean erakarritako zapiak, orain eguzkitan diz-diz zegitela, millaka uso txuri bere pagadietan betiko ezkurak jan naiean gelditu ta bertako egiñak bezela gelditu bailira...

Aldiz, gure ibilkariok, muñogain bideetan gelditzen ziran, begi aurrean zekusten ikuskai ederra arriturik begiratzeko. Orduan bate-donbategi, ustegabea irtetzen zitzaion biotzetik: Ederra dek gure Euzkalerria!

—Exeri gaitezen atsedena artuaz eta gure erriaren edertiak lasai-kirogo gozatzeko —esaten zuan beste batek.

Ta onela, exeririk, ango mendi ta zelai, ango baso ta baratz, ango ibai ta itxaso gozamenegaz begiraka, laister, iñor konturatu gabe, ustekabea orori batera irtetzen zitzaian euzkal abesti ezaguna:

“Ara nun diran mendi maiteak
ara nun diran zelaiak,
baserri eder zuri politak
iturri eta ibaiak.
Ementxen gaude zoraturikam
zabal-zabalik begiak
ara Euzkalerri, lur oberikam ez du Europa guziak”.

Izan ere izan, zeru urdiñean dizdirakor agertzen zan eguzkiak, lurrera bere argi xiparrak zekarzkitan nabarmenago, bereziago agertzen zituan basoetako itzalune ta argiuneak, mendietako aitz eta belardiak, ibaietako ur-uridin ta zillarrak ikusgarritzko edertasuna, iñoiz-besteko margazki lilluragarria mendizale ibilkariei emanaz.

Ta berriro, kanta baten ondoren bestea aotan zuten. "Añamendi azpian kantan ari dan erria da Euzkalerri", norbaitek esan ba-zun, egia esan zun. Sagardoaren bearrik ez du euzkaldunak kantatzeko, sagardoaz kantatuko ba-du ere. Gure ibilkariok, beste ibilkari askoren antzean, ez zuten sagardo bearrik kantatzeko. Egia esan, sagardoa probatzeke ba-zeuden ere, mozkor agiri ziran, bañan bere erriaren edertasunak zoratu ta mozkortuta. Ta beste egia esan, gero ondo jan da obetogo edanda ere, irrixtatuko zitzaien españetan amaika euzkal-kanta, bai amaika.

Ta asmo ontan altxa ta ibilleran jarri ziran berriro.

Oiartzun erri zoragarria aurrean polit ikusten zuten. Emendik zetozten zenbait gizakume ere bai ikusi, ta esan :

—Kaixo jaunak! Oiartzun aldera? Sagardotara, noski?

—Kaixo gizon! Bai, alaxe goazkitzu...

—Ederra sagardoa, bai eder! Txapelak jasotzeko erakoa...

—Orixe bear degu, orixe. Izena ba-dakarki, beintzat.

—Izena ta izana. Neroni atsegiñez geldituko nintzan nere egin-bearretara joan bear izan ez ba-nu... Nolanai ere, on dagizueta!

—Ezkarrikasko, ta ondo ibili. Agur!

—Agur!

Ta beste batek :

—Jainkoak atsalde on dizuela!

—Bai zuri ere!

—Damazuen kaxuelak sagardotegira zoaztela agertzen du. Ez zerate bakarrik izango, ez arranpola! Ori jendearen emana...

—Mama ere olakoa izango da ta...

—Bai alare mama goxua! Urteetan eta urteetan ez du Oiartzun, ek onelako sagardo ederrik eman. Ez zerate ez izango asarre...

—Ala nai beintzat. Euzkaldunentzat sagardoa baño edari obea-gorik bai al da? Ta sagardotegiko giroa, anaitasun ta alkartasunezko giro euzkal usaitsua baño giro jatorragorik nun arki munduz-mundu ibilita ere?

—Alaxen oi da. Onela jarraitu dezala Euzkalerriaren onerako... ta zuen probetxurako.

—Ezker milla, gizon, zure borondateagatik. Antxen arkituko gaituzu itzultzen ba-zera.

—Bai pozik itzuli al ba-nintze. Baserriko ikulluak txal bat ikus-tera bultzatzen nau...

—Agur bada gizon, agur.

—Agur ta ongi izan.

Ta onelako beste elkarrizketa batzuk izan ondoren bertaratu ziran sagardotegi aldera. Ez, baña, arratsaldeko azken-begiratu, euzkal lurraldeari beste begiratu aldi bat egin izan gabetanik. Izan ere ederra da gure Euzkalerria. Beti da eder, bañan batezere udaberri aldean.

Oi udaberri, udaberri!

Euzkalerriko udaberri!

Zerua lurrera etorri!

SAGARDOTEGIA

Etxaurreak Bidasoa inguruan altxatzen diran beste zenbait baxteen antza zun. Ate aldamenetan, arrizko aulki bi, oien alboan burnizko alper bat, bost-sei bedar, iñaurkin ta garo metak. Lur zabalean gurdi agaduna, ta goitara, intxaur abe tantai bi. Intxaurren kerizpean ta aulki ta gurdien gañean jarririk gizaseme taldeak ba-zeuden patxada ederrean izketan ta aopekotan kantari.

Basetxe-sagardotegi zan etxeak sagardoaren baliyoa agertzen zun letrerotxoa ba-zeukan zintzilik: "Sagardoa onenbestean...". Bañan ez zitzaizen aaztu oitu oi dan erramu ostoa atearen toki berezienean ipintzea.

Gure ibilkariak aurreratu ziran, ez lenago arratsalde-on eman gabe.

—Bai zueri ere-erantzun zieten— Ta ongi etorri!

—Obeki arkituak zaitezela.

—Ezkarrikasko...

—Ta...?

—Probatu gaberik, eztarriaren lakatza beraz leundu gaberik, ezin dezake iñork esan zenbaterañoakoa dan mama-goxuaren ederra...

—Orrenbesterañoakoa?

—Orrenbeste ta geiago ere! Orixe dezute sagardoa, sagaztiak sagardorik eman ba-dute...

—Ortaz, ba-goazke bideko neke ta autsez legortutako eztarriak bustitzera.

—Eztarriak bustitzera ta biotzak alaitzera. On dagizuela...

Sartu ziran barrura.

Illuna edo illun antzeko toki zabala, solairupe guztia sagardo ku-

pelak errenkadan ipiñita. Ixurkian ipiñitako kupel aurrean, maitxo baten gañean ipiñitako edanontzi garbiak driz-driz zegiten kanpotik zetorkien argi txirripaz. Ozta-ozta irakur zitekean "Edanala ordaindu" zion letrerotxoa. Nagusia antxen ari zan edanala ematen, ontziak garbitu ta txanponak jasotzen.

Aurreratu ziran gure ibilkariok. Eska baño len basoak bezeuzkaten eskuetan urrearen margo, xpirituaren txinpartaz...

Argitara begiratu, ao-zapaien aragi-ormetan erabilli, txastatu ta ondo pen tsatu ondoren esan zuten:

—Kolorez adiña ba-dek sagardo ederrez.

—Beraz, lagunok, gaitezen saia!

—Ez gaituk alperrik etorri, ez etorri.

Ta bigarren baso-sagardoa eztarripetik labaintzen zitzaizen arteaño, ez zitzaizkiguten oartu sagardotegi toki berezienean sagardo-gizon ospetsuenak, bildurik zeudela mai baten ingurura. Antxen zeuden, egon ere, Pausto Aundi ta Xapatier tolosar jan-edaleak; Eltzekondo ernaniar indartsua; Donosti'k "Pertza" ta "Botikax", tripazaiak; Errenderi'ko "Xanbuyo" ta Ondarrabi'ko "Xardin" ta "Prakax", sagardozale amorratuak, eta ebar eta abar.

Ixilik zeuden. Obeki esan, ez ziran ari kanta lanean mintzaketan baño. Ta au bai arrigarria an zeudena ikusita. An bai zeuden ere bertsolari ospatsu denak. Antxen zan "Prantxesa", bertsolari ospetsu bigoteduna, antxen "Txirrita" sabelaundi bezin etorri aundiagokoa, antxen Alkain-zarra, Urnieta, koa, fin ta me soiñez, baratzuria baño fiñagoa bertso esanetan; Azkoiti'ko "Zapel" ere an zan; bai ere egon "Zepai" errexiltar atertu eziñekoa; Irura'ko "Moxo" borondatetsua, ta beste zenbait bertsolari ere. Ez ziran bañan kantan ari. Kantan ariak izanak ziran lasai ta luze bazkal ostean, ta une onetantxe aopekotan ari zitzaizkiguten antziñako bertsolarien gertakizun ta ateraldi jatorrak goraiatzen. Bilintxen kanta maitekorrak, "Xenpelar", en bertso zakon ta ez tentsuak, Fernando Amezketarra'ren irtenaldi irritsuak, "Pello Errotaria", ren esakeña jator, ongi neurtu ta zorrotzak eta onen alaba-bertsolariaren zenbait jardunaldi pizkorrak...

Ai, bertsolariaren izena ta izana! Zuen izena beintzat ospe aundikoa degu euzkaldunok. Zuen izanaz gure oitura ta gure izkuntza euzkera goratzalleen gallur-gallurrean zakustegu. Zuek izan zerate euzkal kondairagille, euzkal xuxpertzalle, atsegin-emalle, antziña ta

gaur-eguna euzkeraz ta euzkeldunentzako lotu diguzutena. Liburuetan baño zuengana jo bear izandu degu sarri euzkeldun bizkortasunatzaz zerbait jakin nai izan degunian. "Bertsolai dek ori" esan oi degu, gizon baten trebetasuna, azkartasuna, zeatztasuna goratu nai izan degunian.

Ta egia esan, euzkal jai batean bertsolarrik gabe ez ba-da euzkal-jai, orobat ez da sagardo-jai batean bertsolarrik gabe jai, sagardotegia bai-da euzkal izaeraren adierazmen bizien, bereziki bai alde, bereziki bai alde bateko akatz eta utsuneak, eta bestaldeko anaitasun ta euzkaltzaletasunaren izaera eder; akatz eta edertiak neurturik sagardua irtetzen zaigun bezela indarraren txinpartak ontzitik gora igesi xaltoka-xaltoka, onela ere sagardotegian biltzen ziran euzkaldunen gog-indarrak-eta, xaltoka-xaltoka euzkal abesti goxoetan, bertsolarien esanetan, anaitasun jatorrean piztutzen zituzten euzkeldunen artean txepeltzen asitako euzko-biotza, zabaltzen zuten gure jatortasun egiazkoa, sagardotegia galduko danean beti-betirako tamalez galduko zaiguna...

Onegatik, berriro, zirikatzalleen bat edo beste izan oi dalako, berak naiko ez darian, laister ariko ziran kantu lanean...

Bigarren edanaldi bukatzeke oraindik, eta beste gizon taldeak etorri ziran multzoka. Ba-ziran errikoak, ba-ziran Lezoarrak, irundarrak, zarautzarrak, goierrikoak; ba-ziran zarrak eta gazteak, uri aundietako gizon jakintsu ta baserrietako gizaseme sasoiatsuak; naparrak ere bai, ba-ziran, Aia'ko Arria azpikoz dauden napar euzkal-errietakoak, zapi gorria lepoan korapillaturik, eztarriak uju-ujuka...

Ao ta eztarriko torrika sagardo goxo artaz errai barrenetan irentsi ondoren, laister ziran begiraka nortzuk zituzten egun jai-lagun.

"Xapatier" ta "Prakax", en ateraldi irritsuak bezenbat zituzten maite aurrean zekusten bertsolarien irteera pizkorrak. Lesaka, ko "Txokolo" izan zan bertsolarien guduari asiera eman izan ziona, ta gero, abiadan, mendierrekak ura bezela egarritsuak gozatzen, onela txukatzen zituzten entzuleen bertso onaz asetzeko gogo bizia...

Laister bildu ziran moltzo batean, pillo ikaragarrian, danak bellarriak luze. Bañan, sagardotegi txikiegia izaki zetorren jende guztia bere sabelean artzeko. Edan, ta geienak, etxetik at irten ziran lasaigo egon naiean, aize garbia bularretarau gogoz.

Ikustekoa zan ikustekoa, etxaurrea, orduantxe. Laister izango zu-

ten ordu arratsaldekoa egiteko ta, onegatik, tokian berezitu ta artzen ba-zijoazten. Batzuek gurdia zuten mai, besteak otarra; ok, kaja zar bat; ak kupel utsa; toki arrigarrienak billatzen zituzten tupiki ta lurrezko kaxuel upurtzabalak, artean kea zeriotea, utzi al izateko. Gero, geroxeago ongi atsedendu ta esteak ondo ikuzitakoan, ekingo zioten jan-sardea eskuetan xaltxa goxoetan izkutaturik zeuden okel puzkak kupirik gabe aoratzen

Bitartean, bañan, bertsolariak bere saioa ari ziraden bitartean, onoko taldeak, besteak eta besteak eta aruntzagokoak, beretzat baka-rik kantetan egingo zuten aopekotan.

Ez oso luze, ordea. Itxaso barea, iñor oartzen ez dalarik asarretzen dijoan bezelaxe, ta len olatuak legorra emeki jotzen ba-du gero indarrean da bitsa dariola jotzen duan erara, onela ere edan-ontziak eskuz-esku altxatzen asiko ziran, ta sagardoaren txinpartak eztarria ikututzean itxasoaren orroa ordez euzkal abesti jatorrak barratuko ziran sagardotegi inguru zabalean...

"Pasai'tik Oiartzu'ra aizia bezela
arrai prexkuarekin goizian-goiz-aldera.
Azten diradenian bizi-biziak dira,
sagardotegi guztiak irikitzen dira.
La, la lara, larala lara lara la la".

Jan ondoren igoko zan goi mallara anaitasuna, alaitasuna ta jatortasuna. Orduan, bai, danak anai, danok adizkide. Edanaldia, atergabekoa izaten zan, talde batean ango talde guztiak elkartu bai-lira. Kanta, bat izango zan berealdiko abesbatz osoturik, zuzendaririk gabe, bañan danak zuzendari, euzkaldunok gerez dakarkigun doaiak egiztatuz.

Euzkalerri'ko zeruan azpian dituan une alaienak orixek ditugu. Udaberri'ko eguzki epela igesi joanik arratsaldeko lenen intzari so dagionean, sagardotegiaren berezitasunak orduantxe oro euzkaldun euzkeldun utz biurtzen bai-gaitu.

Eguna eguzkipean gorderik, itxasazpian ixkututzen asitzen danean, alaitasunezko egun zoragarria ba-dijoakigu. Edozeiñi bai sortu orduantxe barruan naigabea ximikoka. An dator ordea Itxaropen, urrengo egunen batez onela biltzeko azkureka, ta onela berriro biurtu arte agurraren une txar au unerik goxo ta ez-titsuenean.

Urruti-urrutikoak lenen da gero bertagokoak abitzera dijoaz.
Txapelak eskuetan dituztela kantako dute goi-zabalera abesti zaarra:

“Nere etxian lau ollo daude
irubek dute kiyua;
ollarrak berriz kukurrukuka
zapai aldera dijoa:
Adiyo jaunak beste bat arte
aski da dibersiyua”.

Ta, gustiok zutiturik, biotza ikuturik, sentiera garbienean, oraindik antziñako beste abestia, zeruetara bidaliaz gogo-egaletan, izango dituzte bai lau aldiz espain lasa-alaietan:

“Agur jaunak, jaunak agur
agur t’erdi.
Danok Yainkoak eiñak gire
ni ere bai, zuek ere.
Agur jaunak, agur
agur térdi eiñak gire”.

III

ERRONKARIAK

Suspiriyo makala ez ba-zuan egin bada etxeoandreak sagardotegia jendez uztu zanean. Ba-zuan orratio nun lanari eldu ta bai ere ta gogotsu edanontzi garbiketetan jarri.

Ez bañan galdu etxeoandrearen antzi ura Txokolo lesakarren begiak oartu gaberik, eta onexegatik berialaxe itzegin zion:

—Familiyan geldituak gera etxeoandre...

—Bai ta ba-nun gogo. Onelako egunak lertzeko ta zoratzekoak dira.

—Egokiak bai ere txit, noski, kupelak uztu-ala kutxa diruz betetzeko... mintzatu zan Epelde, erriko sakristaua.

—Ba, ba, ba... —erantzun zion igeslari nagusiak, esanetara erne aldi onuratsuak ixilpean gordetzeko bezenbat.

—Ba, ba, babak guretzat gordetzen dituzu —esan zuan sakristauak— Bañan aurten sagardo txit ederrak dituzularik, ixkutatuko dituzu babak jakien tartean. A zer udara datorkizuna!

—Bai, ba-zatozkidake euliak kentzera etxeo isopoa eskuetan... bestela uuum!

—Nekez-neke, oraindik bertsoarako zioz nagusia. Ta i Epelde, arpajotzalle makala ez ba-aiz ere, ba-dituk orkestarako lagunak. Sakristian egon ba-intzan ixillean, otoiketean, kandela itzulketan ziririk ez ukan entzungo esan zion irritsu Larreko’k, mutil gazte sendo ta itxuraz indartsu zan ark.

—Olakotan, sagardo ederra ixurkian dabillanean txandalaria bear izaten diat. Ez dek beti ardo goxo mezetarakoa edatea; etorri aiteke olakotan nere tokira ni isopoaz natorkion nagusiari euli-ixutzalle—erantzun zion txantxari jarraituaz, sakristau alaiak.

—Urrengorako nerekin konta. Gaur-gaurkoz, badaezpada ere txastatu dezagun herrero mamaren ederra. Ia, etxeoandre, guk kanta ala bete emen gauden guztiontzat— jardun zan Larreko txantxazale.

Ta abesten asi zan, guztiak lagun zegotelarik kantuan :

“Goizian sartu sagardora-ta
ateratzen naiz azkena
egun guztian zurrutian da
etzait betezen barrena.
Au bai edari zoragarria
neri gustatzen zaidana
Maria Jesus biotzekoa
bete amaseigarrena”.

Abesti onen ondoren beste bat goitaratu zuten, gero bestea ta bestea. Bañan idazleak, abesti saio dariten bitartean, zeintzuk gelditzen diran sagardotegian adierazi nai dizutet, Ta egi esan ba-nun ordu, ementxen bildurik bai daude gure irakurgaia osatuko duten gizon berezienak. Egi egia da, Euzkalerriko edertiak mendian gureganaturik ba-gentozenian pentsamentu oetarako ez geneukala burua, bañan orain, Txokolo’k dion bezela familian gelditu geradenian, gureginbearra betetzen galerazten zigun lañoa gure luma zakarrez urra ta asi gaitezen bear-bearreko jardunean.

Gazte talde bi ikusten ditugu bereziki. Oiartzuar taldea ta Lesaka, koa, ta oietzaz gañera ale bakan batzuek ere, uriko sakristaua, baseritar urtetsu batzuk, errenderiar festazale bi ta naiko.

Danak ez, bai bañan geienak baserriko lanetan ezezik kontrabandoan dabilzazkigunak ditugu. Naparren aldrako buru dirudin Txokolo bertsolari onela degu, bai bere ezten zorrotzak goraiatu ta marukatzen duan Joxanton ere. Txikerra degu auxe bañan bai zalapartari bikaña, batezere egun bezela buruak berroxamar edo bustixamar dauzkatarik sagardoz. Ikus “Lekarotz” deitzen dioten gaztea, trebea itxuraz, eta ixillen dagon “Patxikorena”, bere begi ernaiak aruntzonuntz begiraka, ta bere soin lerdan zabala mai atzean gorderik, errege indartsuak bere agintaritz neurrigabea urrezko aulkian, nabarmendu nai ezik, izkututzen duan eran.

Oiartzuarren taldean bildurik dakusgunak naparren bezenbat jatorrian azaltzen zaizkigute. “Larreko”, esan degun bezela, mutil gazte sendo ta itxuraz indartsu. Arpegi eder ta biotzez ederragoa. Mendizale ta ibilkari arrunt bikaña ta bertsolari iaioa degu. “Gautxori” ezizenez otsegiten diotena, tankera erdiko, ez gizen ez me, ez motz ez luze azaltzen zaigun gaztea, ospea ba-du kontrabando ibilleratako here azkartasuna dala-ta, gautxori ezezik axari ere omen dalako. “Borbollo”, bere billeratako lagun; Larreko bezela kemen aundikoa gauak eta mendiak nekatu gaberik ibiltzeko. Ba-dago an ere, kontrabandista ez izanarren, “Muñoluzea”, ko seme zaarrena, gau-ibilleratako besteen lagun ez ba-da ere, bai kiroleko adizkide trebe, pizkor edozertan, jokoan, lanean, lagun arten... Ta “Epelde” sakristaua, zurra bere eginkizunetan, bai baño sagardozale purrukatua ere, antxen dakusgu zerbait borobiltzen asitako sabel-betia, poz-igurtzika, erne baño danetara, txantxaldian jai-zale ba-da zorrotza ere bai asarrearen ixpi txikiena nabari izaten duanean. Bere urteak, gazteen artean, beintzat, epaikari baten itzal ba-damaiote.

Esan ere egia esan talde biok antziñatik alkar ezagutzen zuten. Muga inguruko mendietan ixilpeko zama bizkarrez-bizkar eramana zuten bein baño geiagotan, alkarrekin une estuak jazan ere bai, ta jolasaldi ederrak igaro ere bein edo bein, gaur bezela, sagardo polit baten ingurura bildurik, edo naparroko ardo beltz indargarriaren alaitasunean. Ez bada arritu “Larreko”k bertso jardunen onoko bertso ezentsu ta bidebatez alaiagarria botatzea :

“Sei baso-zar aterata
sei tragotan uztu
beste sei edateko
lotsarikan ez du,
Edatia asko ez dala
pagatzia aztu
ola nagusi jauna
nola aberastu”.

Luzetsi gabetanik etorri zan Txokolo, ren erantzuna :

Edaten yayuak-ta
ordantzen obiak
ala egiten dute
diranak nobliak.
Naparrak txarrak baño
zuek ez obiak
ba-dira zuek ainbat
napartar jendiak.

Erantzuna atsegin izan zitzaizela sortu izan zan marmarrak adierazi zuan. Izan ere, Txokolo'k ez zuan ziriari beste ziria sartzeko beste asmorik, bañan, alabear ta sagardoak buruak berotzen dituanian, maiz oker bidetik jua oi dira ulertzea ta oldoztea. Ta, Joxanton, alderantzira jantzi ba-zuan bere adimenean bertsoa, ta bestalde-tik, bertsoatarako sarri azaldu ba-zuan bere doai eza, ara nundik mar-rulari ta zalapartari bertsolarien gudua eten zuan, esanaz :

—Ori duk ori, erantzun egoki ematea! Probintzianoak ainba-tean bagaituk nun-nai, ongi izan ere.

—Gizona, gizona, lepoa jarriko nitek jarri. “Larreko”k ez dula izan iñoiz asmo iñor minberatzeko, ez da gutxiago ere-zuzendu zion pakezale Borbollo'k.

Oraindik sutsuago jarri zitzaion Joxanton, ta oiu bizian jarraitu zuan :

—Iñoiz ez duzute minberatzeko asmorik, ez orixe! Bañan, beti gallen irten nai izaten duzute. Pelotan txapeldunak, aizkoran parega-beak, utikan...

Patxikorena, zentzudun, errikoa bezela ta auzokidea, mintza zitzaion :

—Zer dala-ta abil errotu ez dan utsa zuztarretik atera naiean? Minberagarririk ez dik, noski, esan nere ustez. Jolasaldi atsegiña ez dezagun urra orko itz mixkin bat dala bide. Ia, Larreko, bota beste! Txokolo, ik ere kanta pizkor!

Ta egin ere ala egin zuten oiartzuarrak bezela lesakarrak ere. Bañan, bertsoak itorik gelditzen ziran Joxantonek sortzen zuan zara-ta artan.

Ordurarte, ixilik eta umore ederrenean ziardutenak, mugitzen asiak ziran eziñegonez eta larritsu kupel errenkada bietan agiri ziran zurezko aulkietan.

Argia ere, argi-erdi toki zabal artarako, ba-zirudian urduritasuna-ren menpian txepeltzen zijoala, geiago nabarmendurik illuna, kupe-len ostean, zokoetan, bazter il ta aaztuetan.

—Zertan ote zerate bada zuek gu baño geiago-jarraitzen zuan, sagardoak bultzatuta Joxanton urduritsuak.

—Berriro ere, lengora al ator?. Ago ixilik ta alaitu gaitezen adiz-kide onak bezela— Borbollo'k.

—Minberatu gaituzutenean ixilik egon bear, lenago ez. Masalle-koa eman ta arpagia gorde, ori.

—Gu ainbat ba-zerate zenbait gauzetan, bestetan ez. Pelotan esa-te baterako... itzezin zuan “Gautxori”k.

—Ara pelota atera, betiko pelota. Ortan ere zuek ainbat eskuz ez ba-da palaz ba-gaituk —eten gaberik zion Joxanton'ek.

—Ta noiz izan duzute zuek aizkora jokorako gure Keixeta aun-diaren ainbatekoa - mintzatu zan lenengoz, ordurarte ixilik zegoan “Mendiluzea”.

—Keixetaren orpotik ibili zaizkigutenak izan dizkiagu. Bañan, konta, esan zenbat galdu izan ditun atzean utziaz, upurdia erakutsiaz gipuzkoar korrikalariei gure Lekunberri'k Txikiak, korrikalari antzik gabekoak, esan.

—Ori egi dek-zuzendu zion sakristauak, napar bero ura epeldu-ko zualakoan-Indarrean ere ba-dezute Otxoa burrukalari ospetsua...

Bañan, bai zera! Nork baretu gazte ura! Ez errex.

—Ludian zear zuen Uzkudun bezin goi maillean azaldu dana! Baldin ba-zatoz zu ere loxintxatu gogoz.

—Ez dek loxintxatzeagatik —erantzun zion Larreko'k pakezale— Guk baño urte geiago daramazkilako jaun onek, entzun akiok. Bola-raz-bolara batzuk gallen edo besteak ibili izan ba-gaituk, zer? Aia'ko Arri'en zimurretan jaiok gaituk zuek eta gu. Zuek goizeko lenen eguzki printzak artzen dituzute mendiz bestalde; guk, illunabarrean, azkenekoak, onuntzaldetik. Abizenak berdinxamarkoak, izkuntza ber-diñagoa ezin...

—Ara ixkanbil zortzaillea sermolari egin! Utikan! Garai ederrean astoari zopak! Ta jakin zak jakin, Larreko adizkide, bertsolari ona ai-

zen bezenbat aizela oker konpontzalle txarra! Nork esan dik iri urteen itzalera ez naizela makurtzen. Gurean ba-ziok zuenean ainbat errespetu ta begirune zer-naitarako-ebaki zion itzaldia Joxanton'ek, muturbeltz ta kopetillun.

—Onek aterako ditunak oraindik! Nun da noiz utsegin diat zuekin, esan? mintzatu zitzaion asarrearen asiera ezpañetan agiriki, Larreko.

—Oraintxen ta emen! Ta inork ateratzez kotan ik atera dituk eltzetikan babak! —Joxantonek.

—Egia esan, bai txirrist egin dizkitek itzak aoz-ona —oar egin zion Lekarotz'ek.

Bañan itz guduan ta txapaka ta eztenkadaka, ez da errex berotasun artan —gerora bai, adimenak zentzutu diranean— bide egokira biurtzea, bañan gutxiago milla bider edariaren indarrak bultza dagitenean, arin eraman oi dituan antzo aize gogorrak.

Gaua aurreratzen ba-zijoan, ta errikoak erbestekoak adiña, presarik ez etxera bidean jartzeko. Eztabaida ta norgieagoka artan, sagardoa ur-aparra bezela dabil ur-uxola aundi baten azpian antzo., “Len zuena”, “orain gurea” diotela konbidatzen lan ontan ere ez inor gutxigo izan nai. Zeñek zuzendu angio ixkanbilla ta zarata! Epelde'k egin zituan saio bi baño alperrik :

—Ia, abestu dezagun ao batez “Boga-boga”.

Asiera ere eman bai batek edo bestek, bañan erdibidean galtzen zan kanta zan ura. Gañera, azkarra izaki Joxanton, sagardoz beterik, edozein ta edozeri maratilla billatzeko.

—Ortan ere, itxasoa ba-genu, arraunian ere zuek ainbateak azalduko giñuzkea.

—Ba-leike... —espain azalaeen, esan zuan Borbollo'k.

—Ba-leikela? Ez kezkek izan ez. Zuek añian, edozertan ba-gaituk-oiukatu zion Joxanton'ek.

—Ez i, beintzat —latz ebaki zion Borbollo'k, asarrearen len-txinpartak begietan.

—I, bai! A zer nolakoa!

—Ara, itzezin dik Amalauzanko'k, Jaunak, txapelak ken!

—Zer txapeloker ta zer zankozar! Ba-nauk i ainbat nun-nai...

—Zein ote aiz ba, i?

—Ni nauk ni! Zer?

—Utsaren urrenagokoa, noski.

—Edozertan i añako. Pelotan, aizkoran, laisterka...

—Usteak uste.

—Ta izanak izan. Ez nauk, noski, ondo ezagutzen...

—Geiegi. I ez aiz ezer...

—E...?

—I, beste askoren gixara, kaka aizela uste ta putza izan ez, orixe!

Joxanton betisua bezela altxa zan bere aulkitik, eta Borbollo, ren-gana abitu zan ukabillak estu ta gora altxata. Beste batzuen artean sakristaua ere antxen zan pakea ez urratzeko alegindurik. Bein Borbollo'ri ta bein Joxanton'i onelatsu mintzatu zitzaion.

—Utzi itzazute izkera oiek, ikullu usaia zabaldu gabe. A zer nolako “kontranbadozko” perfumea” ekarri dezutela gaur Bidasoaz bestaldetik. Itzezin zazute gizonak bezela ta, bear bada, gizonak bezela apustua egin. Inor iraindu gabe.

—Nik inor ez nun nai iraindu-makurtu zan pixka bat esanetara, Joxanton.

—Nik are ta gutxiago —Borbollo'k.

—Zuek añian kirolean ba-gerala adierazi nai nian.

—Ta nik zuen beldur ez gerala.

—Edozertara jokatzeko prest gaudela jakin zak;

—A, ori beste gauz dek. I ez, ez da? —Ba-natxokean...

—Ni ez ba-nauk, ba-ziok gure artean egingo duna...

—Gurean ere. Zertara gogo dezute?

—Pelotan, aizkoran... nai dezute aizkoran?

—Guk, naparrok, Patxikorena.

—Bota “señalia”!

Oiartzuarrak patrikaretan billaka ibili ondoren milla peseta jarri zituzten Epelde sakristauaren eskuetan. Naparrak ere beste ainbeste bildurik zaindari berarengana jo zuten.

“Lekarotz” gazte trebea izan zan, argitu zuana :

—Noiz ta zenbat jokatu ez duzute erabaki.

—Ezkontza ta puzkantza berorik. Ongi al-derizkiotzute gaur zor-zirako? Ta bost milla peseta alde bakoitzeko? —galdegin zuan “Larreko'k.

—Ongi deritzaigu. Berrogeitazortzi orduko epea beste ainbeste

“señale” ipintzeko, Bein ordu oek joan ezkeröz, iñor azalduko ez balitz diruak galduak jo litzazke. Konprome?

—Konprome!

Gaberdia bertaraten ari zan, ta txuldarra lertzen danian bezela soiña atsedendurik gelditzen ba-da, onela ere gazte aien berotasuna apustuaren eltzekarian gelditzen zan, bere biotzak eta mingañoak atsedendu ta paketurik.

Izarrak begira zeuden ortze illunean, lesakarrak abiatu ziradenean mendi illunean sagardo zamaturik, katuak bezela, aldiz kontrabandoan bezela, illunpean ibiltzen, Bañan sagardoak makarrez bete ba-zituan aien begi bizkorrak, udaberriko gau ortzkarbi ura ez zan ez makala begietako zakarrak kentzeko.

—Agur laister arte!

—Agur etzi arte!

Ta itz oiek esanaz batzuk bezela besteak ere etxera bidean jarri zitzaizkiguten.

IV

APUSTUA

Patz-jario azken ondarrak ematen ari zan sagardo kupela apustua erabakitzeko izendatutako egunean. Ta apustu ura zala-ta zenbait maxio ta itzbide ipiñi zan baztarretan. Onegatik, sagardoaren inguruminguru erronka gauean ikusi genitunez gañera ba-ziran beste zenbaitzuk zer-jakin ta zer-gerta jakin irrikaz. Jakiak eta txitxiak lurkaxueletan edo ogitarteetan arturik, ortz-agiñak errotari bizkor zera-bilzkien, ta begi-belarriak jostun, apustuaren soñekuari neurriak ongi artuta ia ogei durokoren bat irabazteko bidean jartzen ote ziran edo.

“Muñoluzea” lengo egunetik joko-saiaketari lotu zalako ez zan azaldu, bañan gañerantzeko oiartzuarrak antxen zeuden, Epelde sakristauarekin ordua baño txit lenago. Ok eta jakinzale berriak, buruan galderatxo auxe zerabilten. Etorriko ote? Ziñez ba-zuten gogo etorri zitezen, etorri ez da naiz eta señañiak irabazita euki, batezere apustuaren usaiera etorri ziranak, txanpon batzuk irabazteko une egokia bai-bai-zeritzaien.

Zur ta txintxo, bañan, antxen azaldu zitzaien “Txokolo”, Joxanton ta Lekarotz beste lesakar batzuek lagun zituztela, makillak eskue-tan, lepoan zapi gorriak, “arratsalde-on”-ka.

Aize bolara ondoren sumeak burua altxa oi bezela, altxa zuten bere burua gertakizun ura ikusteko irrikaz etorriak. Ba-zan antxen urduritasun eta eziñegona.

Naparrak zuzen joan ziran Epelde ta apustu-lagunak zeuden mai ondora ta, baimena eska ondoren, maikide jarri zitzaieten.

—Beraz, emengo aldetik?— zerbait esan bear-da, galdegin zien Epeldek.

—Ba-dakuskezute, jaunak eta adizkideak-erantzun zioten naparrak.

—Ta... lengoan izango zerate, noski?

—Itz-egintzaz lengoak gaituzute.

—Ta...?

—Emen dituzu, Epelde, esandako diruak. Eta zuetakorik iñor ausartuko ba-ledi, beste ainbeste ba-dakarkigu...

Barruko zimikoa nabari izan zuten, orduantxe, entzuleak. Gogor bai-zetozten naparrak eta gipuzkoarren trebetasuna ikusteke. Jasoko ote zuten erronka diruz-diru, ausardiz-ausardi edo atzera egingo ote? Begiak larri zebiltzan bein oiartzuarren espāñetara, bein napartarrengana. Kezkak, ordea, labur iraun zuan. Epelde'k bekokia altxa zuan bere erritarrei galdezka bezela, ta berialaxe oien kiñua arturik, itzak olakotan gutxi erabiltzen diralako, erantzun zien :

—Ongi dago. Emengo aldetik, baiezkoan gaude zuek aitaturiko amar milla laurko arteraño. Onela al da?

—Amar milla arte, bai, onela da.

—Jokorako ordua? —galdegin zien sakristauak.

—Edozein ordu on zaigu. Aukera zeok...

—Datorren igandeko arratsalde laurak, ongi al derizkiotzue?

—Guztiz ongi.

—Epaikari, nortzuk?

—Oiartzun da Lesaka'ko alkate jaunak eta zu— sendoki esan zuan Lekarotz'ek.

—Konta, bada, nerekin— esan zuan sakristauak, eta gero azken galdera auxe— Ba-gera?

—Ba-gera!—erantzun zioten talde batekoak bestekoak bezela.

Txintik entzun ez ba-zan izan ordurarte, azken itzok altxa zuten antxen mar-marra ta esanbearra. Apustua aurrera zijoan ta edozein ari zan bere jokabidea gertatzen eta esaten. Bañan, marmarra onen artean, ta agian aurre- igandean utzitako txastamen txarra kentzeagatik edo, Joxanton ber-bera izan zan, gaizki esanak aaztuta, adizkide ta anaikor mintzatu zana :

—Euzkeldun jatorrak geraden aldetik, orain, gure utzegitiak baturik, arratsaldeko on bat dakarkigutela adizkidetasun onenian jan dezagun. Ta joko irabazleek ordaindu dezatela gure oraingo jan-saioa...

—Txit ederki asaturik. Aldiz gauzak. Oraintsu mai-ondoan adizkide; datoren igandean adizkide-etsai plazan; gero euzkaldun...

Orok, entzule ta jarduleak, ongi ar izan zituzten itzok. Berialaxe sagardotegitik euzkal-jaien erleen zurrumurrua irtetzen zan etxaurreko intxaur tantai gañetik zeru urdin izartsuara eresi batean igoaz...

Pozik bai-zeuden danak. Gure oitura zaleak, jokulariak eta txanpon batzun irabazia joko artan zekustenak. Sagardotegiko nagusia ere ez zan iñor baño asarreago. Pozik, txit pozik zegoan pake ederrezko bidean eztabaida ura jarri zalako ta, onetzaz gañera, urrengo igandean jai ura zala-ta jende asko etorriko zalarik, egokiera ederra bai-bai-zetorkion beste kupel berri bati asiera emateko. Onegatik, gure jokozaliengana urbildurik, mintzatu ziazaien onela :

—Etxeetarako biar zalduko ditugu kupel onen ondakiñak. Txas-ta dezagun orain, datorren igandean salgai jarriko dedan kupeleko sagardoa.

Txiria artu, ontziak bete, ta eskuz-esku asi ziran edanontziak txinpart dantzariak. Sagardoa, bestea bezin ohea, ederragoa ez esateagatik ba-zan.

—Auxe duk sagardoa, zeruko mama— esaten zuten batek baño geiagok.

Zabal igandea etorri zedin jai eder bat igarotzeko, kirolaren trebetasunaz lilluratzeko ta sagardo-jai bat gozatzeko, itxaropen osoz irtetzen asi ziran zerupe izartsu aren maindirepean suntzitzeko etxerabidean...

* * *

Sugea gain-beraka bere bidetik okertzen ez dan bezela, egibidetik ez ziran okertzen Oiartzun ta Lesaka'tik "Argia", ren idazle ziradenen esanak.

Uri biotatik bidalita argitara bai-zun euzkeldunok ain maite gennun asterokoak aizkora jokoaren berri. Gauzok, berez eta aixa barra-barra zabaltzen diran gauzak izanagatik, erbestekoak jakin zitzaten edo, onelatsu ziran mintzairan :

"Oiartzun'dik. Gogo hizia dago datorren igandean zeatuko dan aizkora joko ikusteko. Dakigunez, bai Lesaka'tik eta beste zenbait albo errietatik ere jendetza aundia etortzeko dala, baitipat sagardo eder-rran garaiean kirol-auzia gertatzen dalako".

Lesaka'tik, berriz, onelaxe zion :

“Ez dugu uste inor sasoidunik errian geldituko ote danik dato-
rren igandez. Sarri oi bezela, naparrak euzkal kiroletan zerbait ba-ge-
rala azaldu naiean dijoaztenei gure txalo beroak eta laguntza eskein-
tzera joango gera, bai joan ere, atsoak eta agureak gure erri maitean
bakarrik utzirik”.

Ara nundik, gauzok jakiñik, Lesaka aldetik ezezik Oiartzun in-
guruko errialdetatik jendea multzoka etorri jai eder bat igarotzeko
asmotan.

Ordua baño lenago askoz, begira enparantza ta bere erdian ebaki
bear diran egur enborrak bi errenkada sailletan ipiñirik, aizkora
zai, ta bere inguruan, plaza zabalean barna, luzeka enborren inguruan
ta etxeetako leio ta balkoi guztiak, mota ta urte-sasoi askotako jen-
detza.

Sagardotegian ta batezere plazako ardandegian ezagun zan bai
jendearen emana ta auek sortu ixkanbilla. Soil etorritako “korredo-
reak” marrukatzen zuten, eztarri-bizi, oiartzuarraren alde dirua. Ta
batzuk eta besteak agertzen zuten bere iritzia txarteltxo aietan bere
dirua izenpeturik. Beiñola, txanpon batzuk jokatu ezkeroz, ba-zijoaz-
ten enparantzara, ta emen, ezagunen bat gertaturik, egingo zuten
ere beste jokaldiren bat itzez-itx, zintzotasunaren babespean.

Ta ara alako batean, maiekoak etorri. Gizon mardulak biak, be-
re urietan itzal aundiko gizonak, Lesaka ta Oiartzun, go alkate jau-
nak, eta erdian badakarte Epelde sakristau jauna arturik. Jende ar-
tetik, toki egiñaz, sartu zaizkigute jende moltzoaren erdira ta enbo-
rren aurrez-aurre dagoen mai inguruan bildurik exeri zaizkigute,
euzkaldunok onelako gauzetan azaldu izan oi degun patxaraz eta aun-
ditasunez.

Oraintxe ordu da ta laister bearko dute jokoan asi. Alako ba-
tean, jendearen marmarra indartu da, ta danak pentsatu izan dute
jokalariak ba-datoztela. Ongi asmatu ere. Ara nun datozkigun, gor-
putza lerden, burua goitik, ibillera sendoa ta aizkorak sorbalda ga-
ñean, gure aizkolariak. Lagun dituzte, bein ta, sagardotegian txit ongi
ezagutu ditugun beren adizkideok.

Ikusleak txaloka diardute ta gure txaloak ere soñu egin bezate
burruka tokian. Bañan, txaloak eskuetan berotzen diraden bitartean,
dagigun begiratualdi bat jendetzari.

Napartarrak geien nabarmentzen diraden aldean, alako sabelaun-
di ta masail gorri, bigote luzeduna “Indianoa” izenaz ezagutzen dute
Baztan ibarrean. Emengoa izaki, bañan Ameriketara zenbait urtez bizi
izan dalarik, bertatik erakarrirako kate ta txanpon urrezkoak arro
agertzen dizkigu dirdai batean, bere txalekutik zintzilik. Txanpon
batzuk ba-ditu noski, astirik ere bai txanponik bezenbat, eta ortxe da-
rabilgu apusturik-apustu, “Baztan Zelai'ko Elkarte”ko zuzendari ta
lendakari bezela. Xixoriak goroldia ondolik bear izaten duan bezela,
ara ere ondolik, “Etxaleku”ko Don Pedro, Venezuela'tik etorria
aberasturik, orain urte kateduna bera ere, ta elkarteko bat diruz, go-
goz eta asmoz. Beroekin ere taldea danetarako osaturik “Argiñenea”
ta “Xoxuenea” baserri etxejaun aberatsak.

Ta bestaldetik, oiartzuarrak ugarigo azaltzen diran tokian, ale-
gia, arpegiz berezi bañan asmoz ta ustez besteen berdin dan taldea
argiro gure begiok ba-dakuste. “Arritxabalaga” baserriko “amerika-
noa” alakori dagokion urrezko zintzilikaio ta guzti; “Itzaibeltz” ne-
kazari diruduna, ta “Letrax” erdikaleume erdi-baserritar, itzontzia ta
diruontzia berorik ibili oi dituna.

Auen eskuak, aixin aitaturikoenenak bezela, ez dira kixkultzen
txaloen sugarretan. Auen eskuak eta mingañoak otsik ez dagite. Berak,
alabearrez, jokorako sortutakoak dituzute ta jokorako darabiltz. Nun-
dikbait, euzkal kiroletarako mutil treberik azaltzen ba-da, aratxe
joango zaizkigute beren diruaz. Berak elikatu ta berak lagunduko die
ala bear danian. Onegatik, ez daude geldo ta lo, ez orixe. Bere begiak
lanean ari dira, ta berak inork ezik, igarriko diote mutillen gora-be-
ra guziei, akatzak eta onurak, erorialdi ta goraldiak, kemenaldi ta
aulaldiak. Ziñez eta ajolaz begiratzen bai-dituzte mai aurreraño mu-
tillak bertaratzen diradenian, aukera-tokia berezitu bear duan txan-
pon zillarrezkoa egoan darabillenean arpegi-gurutz, toki-tokiak bere-
zitura tinkotzen diradenian, esku arteen aizkoraren artzea ta, ekiñal-
dia astean, soin-aspo soin-giar ta indarketaren gogorraz gorputz-zain
guztien nabarmentzea.

Sakristauak egan jarritako txanpona lurrera zanez, Joxanton,
lesakar biurria, egun artan “botillero” zalarik, mintzatu zan ozenki :

—Gurutz! Ez duk txarra asiera! Ipiñi aiteke “Patxiko” tokian.

Ta onelaxe egin. Bai besteak ere, berean. Batak eta besteak alde
aurretik ba-zekiten bai ongi nun jarri bear ziran aukeratzalle edo ar-

tzalle gertatzen ba-ziran zozketa artan. Alaz guztiz ere Larreko'ri geiegikeri ez zitzaion iduritu "Muñoluzea", ri azken oarra egitea, ta bizkarrean jota itz oek esan zizkion :

—Lasai, "Muño". Aruntzkaldeko enborretik ekin, bañan patxaraz eta lasai, asieran, Ez estutu. Gero, jokoak berak erakutsiko dik eginbearrekoa; ta egon esanetara...

Millaka begiak ikusi zituzten enbor gañetan, ankutsik jartzen. Plazan ixilunea nagusitu zan, illerrietan nagusi izan oi dan antzo; biotzak jarri ziran tau-dardarka, aizkorak beso indartsuen indarrez buru gañeko aizearen zea ebaki zuten, ta berakoan, lenengo zartadak jo zuan erreboteak ikusleen belarriak minberaz ipiñi zitun. Apustua asia zan!

Zazt! Zazt! aizkorak jotzen zuten egurra ta ezpalak, egur-taloak, lurrera erortzen ziran pilloan. Joera bizia zerabilten batak besteak bezela. Ba-zirudian gipuzkoarra asieran zertxo bait aurretik zijoakio-la, ta ala izan lenengo enborrean, beintzat, kraxketako bat lenago ebaki bai-zun. Ikustekoa zan "Arritxabalaga" oiartzuar "amerikanoa" ren arpegia irriparrak eraginda begietaraño biboteak igotzen zitzaizkionean, begian txinpartatsu, "Letrax" ek ukalondoaz jota, upurtarro, zesaionean :

—Ba-neon ba ni naparrak irabaztea! Ikus, ikus "Arri" zeñen ederki ari zaigun, emen danba an danba. Bere jokoa da au, iñundik ere!

—Ez, etziak gaizki, baño... —erantzun zion, ostera kopetillun jarrita, Arritxabalaga'k geienbat zer atearazi, oiartzuarraren jokoa zalako ustean bai-zan bera ere.

—Baño... al diozu?— berrirotu zion "Letrax'ek— Ez ote dezu ikusten zer kemenaz eraso dion bigarrenari? Ara, aurreratzen ari zaio, gogotik bai gogotik!

—Ori uka eziñekoa dek. Alare jokoa luzea dek eta ikustekoa aundia. Nolanai ere, mutil onek, egurrak ainbat ezpal ba-dik, ta bearkezun auetarako egokia txit izango dalakoan natxiok. Ez al da ala "Itzai-beltz"?

Gure "Itzai-beltz" itz gutxi esan bearrekoa zalako, mutualdia utzirik, arpegi borobil gorrian bere sentiera ziñez azalduaz, erantzun zion, belarri ondora :

—Mutilla degu bai "Muñoluzea". Galdu edo irabazi gaia ba-dago

or ta aberatsa; guri dagokigu arrubiari arri-gorria kentzea...

"Arritxabalaga" k besterik aditzeko gogorik ez zuan. Irripar gozo batez, arpegi guria itxura gabeko ta parrekarrizko arpegia biurtu zitzaion, masailak eta bibote luzeak okerka, txerriaren begi dirdaitsu aiek ia ezaltzen zizkiela. Onela oraindik eskubiko begia, ezkerreko begia jetxi ta kiñu biurri batean okertuaz, ingurueta koentzat geienbat eta abotsa zoliaz, esa zun maltzur :

—Poto egiten ez ba-du gero, orrek! Jokalari koxkorrena izan oi dek aurretik eraso gogorra ta gero pot, Bestela, itxoin...

Bañan esanak esan, aizkora-dema bere bidean jarraiki zijoan, batean naparra aurretik, geroa oiartzuarra. Aldi luzean nor garaille irten zitekenik jakin gabetanik, ba-zan antxen zer esana ta ba-ziran amaika iritzi bai amaika.

Danak ezinda, dakargun onera "Baztan'go Elkartekoak" orduantxe ziotena :

—Arrayua; —zion "Etxaleku" ko Don Pedrok— Oiartzuarra ustez baño trebeago ari zaigula, bai al dakizute! Lanak eman bear zizkiguk, bai lanak eman ere. Ez al da onela?

"Indianoa", rentzat bereziki izan ziran itzok. Au, kopeta goibel, muturra oker, ez oso ziur, bañan elkarte lagunei itxaropena itsatsi nai biziz, erantzuka zan :

—Pijoa mutilla! Milla deabruengatik edo ez degu auxe belearen ostikoa bezelakoxea, ez arranoa. Bañan, or ziok or gure "Patxikorena" oraindik bagerala erakusteko. Bestela, adizkideak, laister esango didazute...

—Orixe izaki gure naia, Don Pedro —españetatik labaindu zitzaizkion itzok, "Argiñenea" ko nagusiari— Bañan bañan...

—Bañan, diozu, adizkide. Onelako sasoia agertzeko, ba-dirudi astoaren gibel errea janez ibili zaigula giputz ori. —kezka uxa eziñean, zion Etxaleku'k—

—Zer gibel errea ta zer lukainka mutur. Baztango txekorren saiets-aragia indar emateko ohea ñuzute. Itxoin, bestela... —ots zegion, D. —Joxe'k—

—"Muñoluzea" k bigarreña aurren asi du ta jaten ari zaio gure mutillari. Onela jarraituki, gureak ameto eman bear. —uste osoz, zion "Etxaleku" k.

—Ameto eman? Nork digu ori? Zer dala-ta? ez arrayuak ez ba-

du? Ez nazute iritzi ortakoa— lenagoko asmoei jarraituaz, esan zun “Indianoa”k.

—Zer ote dakus gure Don Joxe Jaunak (Indianoa’ren izena)? Muñozea aurretik dijoakigu ta...

—Egia esan bigarren ontan, emengoa aurren darabilgu. Bañan, zaudete ernai. Bestaldetik enborrari ekitean zerbait ikusiko dugu. Korapilloren bat ba-darabil or, trakets ta zeken. Ta gañera, gurea zabal ta sendoa dugu, motx antzekoa. Bidea laburrago egin bear aizkorak eta, beraz, neke gutxiago ibillera gutxiagoan. Au egi da, nere burua txapela dagoan bezela. Ta bestea luzea da ta ez ditu gurearen bizkarrak-aundietsiz esan zuan Don Joxe’k.

—Indarrez gurea geiago izango da.

—Noski! Ez zazutela ezpairik izan ortan-jarraitu zuan “Indianoa”k, lasaiki— Ara, “Muño”k bere lenengoa ebaki! Gureak, orain, berea!— esan zuan abot biziz, orain bai egiz itxaropentsu gure “Indianoa”k— Esaten nizuen, esaten nizuen...

Ta geroxeago, onelatsu :

—Ta bestea, mutillak, moteltzen ari zaiguk irugarrenean, gurea pizten ari den bezela! Ikusteko guztiak ez ditugu ikusi, itxura danez.

—Ez dugu ikusi ez! Basurde zuririk gure mendiotan! Oriek zartakoak “Patxikorena”ren zartakoak! Ta besteak zer? Eziñean ari da “Muño”; ba-dirudi aantzarra itotzen ari danean; arnasa ar eziñik itotzen ari zaigu. Jan zak astoaren gibel errea ontarako...

Ango jendearen zarata ta ango deadarra bigarrenean lesakarra aurretik jartzen zanean. Ta, gero, oiartzuarra irrist eginda ia erori zanean, ba-zirudian plazako etxeen tellatuak goitik-bera egin bear zutela, ain zan deadar bizi-zabala lañoa bezela goruntz edatzen zana! Oraintxe bai galdu izan zula “Muño”k asti ederra, napparren zoriz eta giputzen zoritxarrez.

—Au tamala! —zioten auek— Oraintxe bai gal egin duala!

—Sasoi ontan gertatzeko atzerakada makala ez ba-da ba... —beste batek.

—Uuum! Gauza txartzen ari ote dan deritzait —onoko beste batek.

—Irristara ori! Garaituko al dik...!

Ta napparak :

—Nork dio garaitu? Bai zera! Eziñean dabilenaren irrista düzute ori!

—Bai, porrot egin bai du...

—Porrot egin ta pataldu! Garaitza gurea dugu! Gora gu ta gutarrak!

Etzeuden, bañan, oiartzuarra onelaxe gelditzeko. Udaran arnas lañoa aidean irauten bañan azkarrago, ba-zan onela itzegin zana :

—Porrot egin dula? Patal debillela? Garaitza zuena dala? A zer nolako ao-zabalak zuek!

—Adizu gizon. Kontuz gero itzokin. Nork nori aoi-zabal esan?

—Egi ez al da, arean ollaloka baño arrogo jarri zeratela? Oraindik, ebaki bearra ba-dago ba...

—Lenagoa moztean, joko gutxiago ez zan noski, bañan ao-zabal ez gaituzute gu ibili...

—Zea, ez gaituzu onelakoak!

—Ez gu ere. Bañan zuek besela errikoa aurretik ikusirik, poztu.

—Ongi dago, ongi dago. Naikoa da...

—Bai, naikoa dugu.

Ta geroxeago :

—Ara, ara! Irristara ondorengo ikara ba-dijoakiola dirudi; Bertaratzen ari zaio ta...

—Nork uka. Bañan azkentza ere bertaratzen ari da. Betarik badamaio parean jartzeko...

Ta ikusleak zirika ta mirika, onelaxe ari ziran bitartean, aizkolarriak bere lana aurrera ba-zeramaten. Len esan degunez, bigarrena “Muño”k lenago as bazuan zorioneko irristara zala-ta atzendu zan pitin bat, eta itxuraz, zerbait ikaratu ere bai. Onegatik, bigarrena napparrena izandu zan, bai irugarrena ere Bañan, oiartzuarra pixkanaka-pixkanaka osatzen joan zan, al zun tokitik indar atereaz. Ta irugarrena ezkeroz, ta batezere laugarrenean, saillean azkena egiten zunean, tarte jaten joan zitzaion, pixkanaka-pixkanaka, ta bukaeran iru zartakoren aldia besterik ez zuten izan.

Egiz, garaitza lesakarrarena zan, ta onegatik gure Epelde jaunak irabazlearen txapela jarri izan zion buruan, ikusle guztiak txalo ta txalo jotzen zuten bitartean. Ango oiua eta zalapartak ezin esaneakoak dira. Batezere, azkenaldian, gipuzkoarra bertaratzen ari zitzaiola zi-

rudinean. Orain txalo jotzen zuten, bañan ondo joa, garaitz garbia izan zalako. Baño...

Bañan "baño" ori argi jartzeko, goazen jende tartera belarriak zabal eta entzun ditzagun batzuk eta besteak diotena.

—Ago lasai! —esaten zion Larreko'k "Muño"ri txamarra bizkarrean ipiñiaz batera— Tamalgarria izan dek! Beste enbor bat ta nagusi irtengo itzan. Min diat.

Egiz, Larreko'k aizkolariak berak baño naigabe latzagoa nabaitzen zuan. Erriko izena ikusten bai-zuan aurrean ta naparrak, anaiak bezela ezagutuagatik, bere Oiartzun txit maite zuan. Onegatik, itxaropen izan nai zuan galdera zetorkion españetara:

—Beste baten gallen irtengo itzakela, ez al derizkiok?

—Ba-litekek. Egia esan, une txar bat izan diat, bañan luzatu izan ba-lute jokoa, beste txakurra batek zaunk egitea ba-zitekean. Bañan, tira, naikoa diagu jokaldi batez ta bizi gaitezen pakean.

Ta sinistu izan, bere biotzak onela itzegin arazten ziola. Olakotan, jokalariak baño alboan dabiltzanak izan oi dituzute burrukatzaileenak. Bai adizkide, bai jendearen ta batezere izparlarien aizeak eragindako orbela izan oi dituzute kiroltzaleak ludian zear. Kiroltzaleak ixo, besteak so.

Onelakoa zan ere "Paxikorena". Aizkolari jator bezin gizon jator ta ixilotxana. Beraren itza apalaren itz, naiz eta erraldoiaren egin-tza. Entzun bestela adizkideen galderetara zemaian erantzuna.

—Jator Paxikorena, jator! Gizonki jokatu aiz...

—Ba... ainbestean.

—Ainbestean al diok! Aixa, gizona, aixa irabazi duk.

—Aixa irabazi? Bai zera! Lanak eman zizkiak...

—Lanak? Gutxi! Berriz ere orrena laister egingo ukek.

—Ik ala uste.

—Nik eta danak.

—Balitekek onela izatia, bañan orrekin txantxetan aritzerik ez ziok. Yayua duk, yayua mutilla!

—Ez i añakoa. Ez ditek ez geiago jokatu, gaurko jipoia gogoraturik...

—Gutxi fia! Ez dituk gero edozein giputzok! Jokoa ez duk "errenta" ta etxean lasai egotea obe genikek...

—Poz aundia duk auri irabaztea ordea, bai poz aundia!

—Ala izango duk, bañan etxe paketsuan poza luzeagoa. Ara, ixo, ba-zetoztek Don Joxe "Indianoa" ta lagunak...

Paxikorena'k esan bezela, ba-zetorren "Baztan'go Elkartea" oso osorik, eta zetoztelarik, apustua amaitu bezin laister, onelaxe jarduntzen ziran.

—Zer nion? Bai ura gertatu! —zion "Indianoa" k parrak eragindako illargi arpegian zekarren izardia txukatuaz— Au duk izardia, baño bai gozoa! Bai gozoa izaten dala azkar dabillenean begia...

—Arranoaren begia duzu, bai orixe —zesaion Xozuenea, koak

—Ongi ere arranoaren begia. Ez lizukea errex usoak igesegingo. Asiera artan beldur nintzala aitortu bearrian naiz —esan zion Etxaleku'k oi zun leialtasunez itzegiñaz.

—Bai ala ziñan, ta bai beste batzuk ere. Ni berriz, lasai nengoan asiera-asieratik gure mutillarekin. Mutilla pijoa ta geiago ere lezakeana...

—Ala al deritzaizu? — galdetu zion D. Pedro'k betiko kezka azalduaz.

—Bai gizona. Or ba-dago gai ederrik.

—Ni ere ortan naiz D. Joxe.— eten zuan ixilaldia "Argiñenea" k.

—Besterik ez dut gogoan —zuzendu zion, berriz, Xozuenea'k.

—Orduan, gure babesean artzea bezelakorik ez dugu izango, ez da ala? —galudetu baño agindu zuan "Indianoa" k.

—Bai, bai, daramagun aurrera —ao batez erantzun zioten gañerantzekoak.

—Ederki! Oriantxe ondoan dugu ta itzegin dezaiozun berari.

Bizkarrean joaz, ondoan ziradenerako, itz eman zioten mutillari, oraindik paparretik bera zijoakion izardia oial batez txukatuaz ari zalarik.

—Bapo mutil, i etxerako. Ez ba-aiz bada jator jokatu...

—Alegiñak egin ditugu zea —erantzun zien betiko apaltasunez aizkolari gazteak.

—Orain ikusita nork esan orrelako saioa egin dukala. Berriz ere, ementxen asiko ukek beste apurtua —loxintxatsu, esan zion Indianoa'k.

—Beste apustua? Bai zera— Eroturik! Naikoa dut aldi baterako. Nereak eta bi ikusi ditut "Muñoluzea" azpiratzeko. Zain sendoak ditu berak ere...

—Ba dizkik bereak, bañan ez ik ainbestekoak. Amarretatik amar irabaziko iokek.

—Ez uste...

—Ezetz? Bai, jendeak bestela uste arren. Dirua ixurkian ikusten diat etorka. Beste apusturen bat egin naiko ditek eta ura izango duk guretzat garairik onena. Oraingo ontan, arranpola, ordaindu bearko dizkitek larrutik oraiñartean irabazi izan dizkiguten dirutzak. Jokatzeko prest ba-ago beñepein...

—Ez dut apusturako gogo aundirik. Egia esan, ontara ere Oiarzun'go sagardo eder onek bultzatuta izan da. Lakatz daukat eztarria, oraintxen ere, bere eske...

—Ua bada ire lagunekin sagardotegira. Txiripaz irabazi dekala esaten ari diranei onela bere ustean utzi? Ez eta ez! Oraingo ontan maltzur ibili bear gaituk, arrantzalea sarea zabaltzeko sasoi derizkionean antzo, gure saretan bere txanpon ta guzti ia arrapatzen ditugun. Biar illunabarrian, gure uriko Konsejuan, itzegingo diagu itzezin bearrekoak. Azalduko al aiz?

—Azaldu bai, azalduko nazute, bañan...

Beste bizkar estutu bat emanik "Baztango Elkarte", koak alendu ziran, arpegia alai, diru asko irabazteko itxaropen osoaz.

Joan ziran beraz Elkartekoak arratsaldeko onen bat antolatzeko gogoz. Joan ziran ere, Muñoluzea ta lagunak ostatu aldera. Arratsalde on emanaz, sartu ziran aizkoraz beteta zegoan gela argi batera. Oe gañean zabaldurik "Muñoluzea"ren jantzi legorrak azaltzen ziran. Garbitu ta ostera jantzi zanean, irten ziran sukaldera joanik. Emen zegoan etxeoandrea orain kaxuelari zurezko kutxara batez eragiten, orain Arritxabalaga'ri itz ematen.

—Arkumea xaltzan, diozu? Legatza ere bai? — zion Oiarzun'go amerikanoak.

—Txekor txuleta ederrik piper-morruekin ta tripakiak ere badiugu —luzatu zion etxeoandreak.

—Ez. Obea izango degu legatza errea ta gero arkumea xaltzan. Daramazute sagardotegira.

—Zenbat zerate?

—Amartxoren bat lagun, Emen nerekin dauden Letrax ta Itzabeltz. Epelde ta alkate jauna joan ditezen esanak daude. "Muñoluzea" ta bere lagunak ere maikide izango ditugu.

—Ederki! Zoazte, beriala eramango degu ta —esan zion etxeoandreak, lanari laga gabe— Ta ara, Muñoluzea ere emen degu, goitik-beraño garbitu ta aldaturik.

—Emen al zerate? —ots egin zuan Arritxabalaga'k— Oraintxe ari gintzaizuen aparti legia edo gertatzen. Zer moduz "Muño"?

—Osasunez ongi, gogartez ez ainbestean...

—Galdu dekalako? —zuzendu zion Itzabeltz'ek.

—Bai, noski.

—A zer nolako zozo alena! Galdu egin dek baño orok ikusi diagu orri irabazteko lain ba-aizela.

—Ez dakit bada...

—Bai gizona bai, ta ez ezpairik izan ortaz. Urrengo jokaldian ikusiko ditek nor aizen i, artara jarriko aizenean.

—Urrengo joakaldian? Noiz? Ez nere gogoz. Sagardotegian esana enparantzan emana dago. Aski degu apustutik eta gaitezen pakean...

—Tira "Muño" tira. Naparrora gaur eman diruak itzuli bearko dizkitek "erredito" ta guzti. Gaur galdutako diruak garranga ezaltzeko lain bear izaten zeboa dek. Bai. Gure babesean artuko augu ta aurrera atera. Ikusiko dek... —esan zion aizkolariari, Arritxabalaga'k, epaikari batek edo eginkizun aundiren bat egin bear dunaren jarrera artuaz.

—"Muño", Oiarzun maite oneri ospe aundia emateko jaioa aizela, askok ziotek gaur emen, naparrak beste iritzi batekoak izanagatik —mintzatu zan Letrax, oi zun bizkortasunez.

—Naspil batetik irten ta beste aundiagoan sartu bear ote? Ongi pentsa bearrekoa gauza, bai ongi! —Muñoluzea'k;

—Zuentzako ere aparti legea eskatu degu. Goazen sagardotegira ta, antxen, jakien aurrean, geldiro-geldiro gai oietzaz itzegingo degu aspertu arteño.

—Ezkarrikasko —aopean esan zion Larreko'k.

—Goazen bada. Agur etxeoandre!

—Agur!

Bañan irtetzeko jiratu, ziradenian, geldirik gelditu zan Arritxabalaga, nortzuk zetozten ikusita. Muñoluzea, ukalondoaz jota, aopeko azaldu zion:

—Donosti'ko izparlaraiak dituk. "Txaboleta" edo deritzan ori.

Zirika izango dizkiagu laister, bañan beste apusturako gogorik ez azaldu ta eza ere ez, ago tartean.

—Kaixo jaunak! Arratsaldekoa antolatzeraz etorri ta gure zoriona, ara emen Oiartzun'go apustularien buruzagi guztiak. Eta, zuekin, Muñoluzen aundia...

—Inork artzezkerotan bai zuek usai artu. Orain ere, atso berri-tsuk baño areago etorriko zerate gauzak jakin naiean.

—Ez gaituzute asmo ortaz etorri, bañan egokiera alakoa izan degularik, galtzen ere ez utzi nai.

—Nolanai galtzekoak ez zeratela, nork ez daki?

—Ez gera galtzekoak ez. Galtzalea emen degu, Muñoluzea...

—Zer egingo, besteak obeak diradenian...

—Obeak, obeak, al dakigu? Berriz jokatu ba-zenuteke agian besterik gertatu liteke, ez al da ala Muño?

—Ba-liteke, ortarako jokatu egin bear ta jokatzeko gogo gutxi.

—Benetan ez zenute beste apusturik egingo?

—Ezetz ez nuke esango, naiz eta gogo gutxi izan.

—Ta jokatu ba-zenuteke, ez ote zenioke irabaziko?

—Naiko lanez.

—Orduan egia da naparrok diotena. Ezur muñetaraño beldurra sartu zaizutela.

—Eeee... nola, nola?

—Baldin beldurrik ez ba-dezute beste ainbeste diru jokatzeko prest daudela, oraintxe esan digute Patxikorena'k, Indianoa'k eta Baztan'go apustu buruzagiak. Oraintxe esan digute ta berorik dakarkigu berria zuei ematera.

Esan bearrik ez da, Txaboleta izparlariak gezur borobil bat zaku-tu ziela ez bai-zuten itzezin Elkarteko'ekin. Izparlariak oituta daude gezurraz egiak bereganatzen, ta oi bezela, bere lanbideak aginduta onela zegiten. Muñoluzea ixilik gelditu zan. Larreko izan zan bere odol gazteari ezin eutsirik adierazi zuna:

—Oien beldurrez inoiz ez gaituzute izan, ez izango ere. Irabazteko ainbat almen eré ba-degula azkar erakutsiko diogu, gero.

—Begira "Txaboleta" —itzezin zion patxaratsugo Arritxabalaga'k— Oien beldurrez ez gera. Irabaziko genioken ez dakigu. Ta berriz jokatu ote genioken patxaraz eta denboraz ikusiko genuke.

—Ederki, jabetzen gera. Ta gai onetzaz ezer berririk ba-dezute, ba-dakizute nuntsu izaten geran. Agur jaunak!

—Inork abixatu gaberik ba-dakizute gauzak jakiten, bai eneoak. Nolanai ere, beste bat arte, agur!

Txaboleta ta laguna, pozik eskuak igurtzika irten ziran, ta Baztan'go Elkartekoak'k billaka asi ziran. Ta bai arkitu ere. Ta zer esanik ez, akullua gerturik zeramatela, ezteztat gipuzkoarren gezurre-tako esanak arturik.

—Bai, Don Joxe bai. Ala diote: Txiripaz irabazi dezutela ta nun-nai ta noiz-nai zer-nai jokatzeko gerturik daudela, diru berdiñean edo gaurkoen beste ainbestean. Orain zuek dezute itza.

—Orduan txiripaz irabazi degula? Ez ziok gaizki. Gurea baño geiago duk beraz "Muño"? Egokiera ederra izan dik bada gaur. Nun laga ditu bere kemen oiek? Askotan gerta izan oi da exereza mingain luze.

—Olakotan egin bearrekoa, ba-dakizute. Orain, beldur baldin ba-zerate...

—Oien beldurrez ez gera, ez izango ere. Ta jokatu, jokatu, ala beartzen ba-gaitue...

—Ikusten degu, zertarako zaudeten. Zerbait dezutenean oroi gutzaz. Orain berriz, agur jaunak, gariberrik arte?

—Agur!

Abitu ziran gure izparlariak. Ba-zekusten aldi baterako idatzkaia. Bañan on zeritzaen, jendeak berak azaltzen zuan iritzia zeatz jakitea. Sagardotegira jo zuten, ta, ixilik bazter batean, artan ez ba-laude bezela, tankera ontako jardunaldiak entzumenean ar zituzten.

—Ezetz, ezetz eta ezetz! Patxikorena ez da obea, ez alderako ere!

—Nor da bada obea? Galtzalea? Galduduna obea izan! Olakorik entzuteko geuden!

—Txiripaz irabizi du gizona. Beste enbor bat eto ¡kaixo motel!

—Gaixo esango zenun. Ia ito ez danean lertuta... zuena. Gurea, berriz, naiko tartea eramanez ez du nai izandu indarrik alperrik gal. Askoz obea da gure Patxikorena.

—Txingotan, ez aizkoran! Gurearen parean jarri nai naparra, erotuta ere!

—Gaur irabazi duan bezela, amar, eun bider ere jokatu ezkeroz irabaziko lioke.

—Berriro jokutzen ba-dute, ikusiko degu. Beti ez dira izaten irristarak.

—Ez dugu uste beldur izango dionik. Etxeko txanpon guztiak jarriko nituzke lesakarraren alde.

—Nik etxea txanpon ta guzti oiartzuarraren alde.

Ikusi zutenean alde orok zirikatuta ta zirikatu gaberik, egun artako jokaldian auzia ez zala erabaki, ta xaltxa ba-zegoala aski beste apusturen bat gertatzeko, joan ziran. Besterik ez zuten nai. Joko polit bat ikusi zuten ta beste ots aundiko jokaldia ari zan euzkal-kirolbasoan sortzen, mendi-basoan perretxi koa bezelaxe. Beraz, itxoitea eldu bitartean ta bere garaiean perretxikoa artu ta jatea gelditzen zan. Bitartean ba-zuten lan bere idatzien ur-zaparradaz apustuaren lurra gozaten. Ta, ara, nolatan pozik zijoazten etxeruntz.

Pozik ere ba-zijoazten ikusle guztiak. Sagardoaren ederra txastatu zuten ta bere sabela alaitu. Atsegiñez ere egondu ziran jokoaren ederra ikusten. Aien zora bearra gazte trinko biren biguntasuna ta trebetasuna ikusita! Aiek mutillak! Ta ba-zekusten aurrean beste apustu aundiagoren jaiotza...

Orain etxera bidean jarri diradenean, esan bearrean gera, bazala ikusle aien artean zoraturik begira egona zana. Ura emakume bat zan. Bañan, gañerantzeko ikusleak aizkolarientzako zituzten bezela begiak, emakume onen begiak “botilleroa”ren, Muñoluzea’reñ la guntzalle zan Larreko’reñ gorputz egoki-lerdena jan bearrean egondu izan zan, gogo beltz batek ikututa...

AUKERA TA MAUKERA

Ixpillu aurrian ordu erdi luze batez emengo koipe ta ango gantzak eta autsak arpegian zabaltzen ari izanagatik, gutxigi zerizkion ta oraindik ixpilluari erakusten zizkion bere atzekalde, aurre ta alboak, egazteren baten jarrera arranditsuan.

Berrirozzen zun bein ta berriz, bekain estu ta me aiek bear bezelako zuzen ote, ta oien azpian zintzilik ziruditen begi beltz-aundi-ederrak apaintzen zituzten betilleak ongi elkarturik eta nabarmendurik ote zeuden.

Ainbeste margo mota arpegian ta espain borobilletan ez zun bear, arpegiaren ederrak zan bezelakoa azaltzeko, iñundik ere, Soiñez ere ba-zun emakume ark oreiñaren liraintasuna ta sumearen biguntasuna. Berez-berezkoa zun egokitasuna, bañan alare ba-zekian soiñaren borobil-ertzak soiñeko extuak erabillaz nabarmentzen, ongi ornituta ko bularraldeak bezelaxe. Bere jantzi orok, bere apainketa, bere ibillera ta bere izate guztia gizonak lilluratzeko geienbat egiñak zirala, ba-zirudian.

Gazte-gaztetandik zetorkion buru-arin ta kalaxka-xamarra izatia. Bere gurasoak ta bera ere Villavieja del Moro’n jaiok ziran. Aita karabineroa zun, Adimenez, buruz eta gogoz motz-xamarra, ta ontatik zetorkion kanpoko kontrabandoak ikusten baño etxeokak sumatzen motelagoa izatia. Ama berriz, on puzka bat, zentzu gutxikoa zanez, ta bere errian oitutzen zan zirri-borro-naspilla guztiak ardu-ra ta ajolik gabe artzen zuna.

Bere lurraldean ezezik etxean ere orrela oiturik zeudelarik, ez zan noski arritzekoa izango, lentxo esan degunez, txoralda-xamarra izanik, mutilletarako ta apainketarako lei bizia ekartzia.

Beronentzat, ez zan gizon zar edo gazterik, itxusi edo ederrik, baldar edo egokirik, ez zan ere motel edo bizirik izketa biderako. Denentzat ba-zun zer esana, danentzan arpegi alaiak, guztientzat begiratu xamur ta labaiña. Onegatik, nexkatx erneberritu zanekoxe bazitun inguruan zenbait gazte aldrak, batzuk asmo onez zijoazkiotek eta beste asko suge gaiztoen grin azpikoaz zetorzkionak.

Aitaren ogibidea zala-ta, egun batez bere etxea artuta, edo etxe-ko tresnak apurrak artuta, karakolak antzean karabineroak ibili oi diralako etxea bizkarrean lorrean eramanez, Santander uri nagusi aldera jo zuten, bizimodu obexeagoa emen arkituko zutelakoz.

Ez dijoakigu guri asko jakitea zeatz edo meatz bere gurasoak errextasun ta irabazpide geiago edo ohea izan zuten bere aldaketaz. Dakiguna da, edo beintzat ala deritzaigu, zerbait ondu zutela bere bitza ta bizimaña obexeagoa zeramatela itxuraz benik ba-zan ere, gure ipuieko emakumeari begiratuki.

Arkitu zitun beñepein dantza ta jolastoki ugari ta apañoak. Idoro zitun zenbait motako jostundegi goi-mallakoak, ederki zekizkitenak txit bere soñaren egokitasunari zegozkion soñeko apain-dotoreak gertatzen. Ba-zekizkian, luzaro gabetanik, bere ille-beltz-ederdirdaitsua orraztu ta nai zituan illekixkurrak ipiñiko zioten orratzto-kiak. Koipe ta gantz usaitsuz soin-azala gurituko zioten etxe bereziak ere...

Uri aundietan zarpail asko izaten ba-dira bai ere izan oi dira gizaseme tajuzko ta apaiñak. Geiago oraindik uda-toki ta itxasontzi aundiak gelditu ditezen kai bereziak dituzten uriak.

Onegatik, ba-zitun neguan arrantzale larrubeltz alaiak; langille urduri, maitaleak; nekazari zakar, leialak; ikasle iztun, gezurti-loxintxazaleak. Udarak zekarren beroak urian biltzen zitun udazale berrizaleak; sendagille ta idazlangilleak; aberatsak eta txiro aberats-itxurakoak, agertzalle leial ta arropuzak, egiz-maitaleak eta eiztari pizkorrak. Inoiz ez zitzaion gizaseme lagun eza nabariko. Enparantza zabalean, karrika luzean, antzoki illunetan, ondartzak orixkan, itxas-ur urdiñetan, itxasertz eguraztokietan, mendi-bide bazter orlegietan...

Etxe berean ere, alegia karabineroan etxean ere ba-zitun berari begira larde-jario egoten zitzaizkionak, eta txorabiatuak joaten zitzaizkionak atzetik, urratsez-urrats jarraituki, orpoz-orpo edo txokoz-

txoko berarekin arkitzeko edo. Oietako bat, orain bere senarra zana. Amaika bider zaputzu ta loxintxatua, baztertu ta onartua, lurraspiratu ta goratua. Bañan andreak txorotik zun ainbatean berarengana zaeltasun ta maitasun azaldu oi zuna.

Amaika gizaseme jator ta etorkizun onak izan zitun. Ur-aparra bezela zetorzkion ta nun aukera ba-zun. Bañan ura makurtu maitasun batera, ez orixe! Bakarrak begiratu ta aintzaldutzeko ez zegoan ura. Txit atsegin izaten zun batek eta besteak bere gorputzaren edertiak agertzea. Txiro ta aberatsak, azkarrak eta traketsak, ez-jakin ta jakintsuak, itxastar eta mendikoak, uriko ta arrotzak, guztien itz goxoak entzutea zan bere pozik aundiena. Dan-danei itxaropen eman, dan-danak zaputzu, dan-danak ankazpiratuaz ibilirik izaten zan atsegiñen. Ura katepetu inorekin, zeñen aundia zan? Bai, zera!

Orrela, bere iritziz beintzat, gaizkitxa ez ba-zebillen bada! Dantzik dantzara, jolasetik jolatera, beso batetik bestera... Azke izan nai zun, mitxeletak bezelaxe ibili lorarik-lore, biotz bat eta bestea zirtatu, xurgatu maite-odol-txirripak, zakondu ta ausnartu mutillen gogoak, jolastu bere bizkarretik, oinperatu ta iraindu, maitasun agertu ta tati egin.

Ai! baño dan-danak egi esan esango ba-lioteke! Ai, din izan baltiz gizonaren esanak eta izanak bereizteko! Gezur asko entzuten zituzten bere belarriak eta bere adimenak ez aditu. Txorakeriz betia, bere arroxkeriaren ego-aize purrustatsuak altxatzen zitun autsaz begiak kandoturik, ez zekian berezitzen onbidez edo txarkerik zijoakiona, egi edo gezur zakatzen zioten, maitasunez edo maitekeriz azaltzen zitzaiona, egazti-zuri-garbi kabizalea urbiltzen zitzaion edo txarranpiña eztaltzeko luma margodunaz zetorkion egazti egaluzea zan.

Bere edertasunak burua jaten zion. Txoraturik, bere griñen mende, ba-zijoan amillaitzean bera. Ta egun batez, ustegabeen, ixil-ixilik atean kox-kox jo gabe, nundik eta nolaz jakiteke, erraietatik bazetorkion amatzako zijoalako deia, dei garrantzitsua, dei arduratsu arrun-garratza.

Orduan negarrak eta txilipitonak! Orduan artoa, umil; iztuna, ixilik; ergela, bare; pertxenta, lauz; Orduan gaztelu aundikia amilbera, ta beroietaz aundinaikeria, izen ona, gaztetasuna, senargai ugarriak eta adizkideak. Orduan txarrak on; egizaleak, egizale galduak; gezurtiak, gezurti irabazleak; xaloak, zaputzak; nardatuak izeka-

riak; Adizkide izandako orok bizkar ematen zioten. Etzeukan iñor bere alde arpegi emango zunik. Iñor... bai. An zegoan oraindik, bere karabinerotxo. Ainbat aldiz baztertu ta oinkozperatu izan zun karabinerotxo itxu-maitalea, jarraitzalle egizkoa. Iñor ez ta berarengana urbildu bear izan zun, ez maite zulako, ez atsegin zitzaiolako, ez eta etorkizun ona izan zezakealako. Bere onena ta bere okerra, bere erorkera negargarria zerbaitez ez tali al izateko baizik. Zer egin besterik txakurrak zaunk oker jo zionean?

Esaera zaarrak dion bezela "aukera ta maukera azkenian tran-
kera".

* * *

Eleuterio Quitol karabineroa, leio zabal batetik oparo sartzen zan argitara liburutxo bat irakurtzen ari zitzagun. Aldiz, liburuaren errenkada beltzetara zuzentzen zitun begiak; aldiz, bere emaztearen ixpillu aurreko bere jarduketara.

Lau bat egunez euri erasoia izanda geroz, goiz-goizetik eguzki be-
tea irten zan ta bere argiak mendi orlegi buztietan jartzean, oro mar-
godun, oro dirdaitu ipintzen zun, onelakotan euzkal-lurrak oi dun
edertasun goxoan bazter guztiak suntsiturik. Leioaren aurrez-aurre
zegoan ixpillura begiratu ezkeroz argazki eder baten bezela ikusten
zan Oartzun aldeko bazter zoragarri ura. Bañan Quitol jaunarentzat,
ixpilluaren dirdaian itsatsitzen zan argazki bakarra, beretzat ain eder
ta maitagarri zan bere emaztetxoaren argazkia zan.

Senar maitale ta osoa zan auxe. Bere emaztearentzat bakar-baka-
rrik zizkitzun begiak, arentzat bakarrik bere egiteak, bere asmoak,
bere izate guztia ere. Ez zitzaion bere emaztea bañon ederragorik
iñor, ez langillegorik, ez eta oberik. Ark zegina ondo eginda; ark zio-
na ongi esana; ark apaindu ta txukuntzen zun gela, gelarik apaiñena,
ta mai gañean lagatzen zun lore-ontzia margoz osatuena ta usaiez ez-
titsuena ta leunena.

Onexegatik bere emazte lirañak ixpillu aurrian zegizkin joan-eto-
rriak, ausi-osatzeak, marrazketa ta borratzeak, arpegiaren goibel-alai
aldatzeak, gorputzaren jiratzeak, ille estutzeak eta imintziyoak atse-
giñez artzen zitun txit. Beintzat, aurrean zegoan mai koxkorrean li-
burutxo utzita, tolestu ondoren pozaren-poz dagon senarraren jarre-

ra arturik, xamurki itzezin zion, zirakatzalle baño geiago kilimatza-
lle, alde zurretik onartu ta gozaturik emaztekiak emango zion erantzunak.

—Ori begiratu bearra, ori. Bai, andre bai, oso polita ez ba-zaude
ba...

—Zaude ixilik, olakorik esan gabe. Akullatzeko gogoz baldin ba-
zaude...

—Egi utsa diozut. Benetan polit eta eder zaitut.

—Itxurak ba-dagizkitzu beñepein. Ba-dira ugari lurraldeotan ni
baño ederragoak...

—Ez neretzat iñor. Zu zaitut ene lastana, ene biotza, ene begie-
tako ninia. Zu zaitut dan-dana. Zu gabe...

—Etziñake biziko. Ene tenteltxo! Ni gabe egingo zenukeana...
beste bat ederragoa artu.

—Ez orixe! Ez dakizu zeñen poz naizen zure apainketari begira-
tzean. Zure mugitze bakoitzak nere begientzat poza. Igitu zaitte...
orrela... orain bestaldera bira. Ene pertxenta gaztea! Ene gogoaren
bizigarria!

—Onela mugitzeko, diozu, onela? Atsegiñez al zera? Bai? Edo
gezur borobil diozu? Ai gexurti, gexurti... —esaten zion emazteak,
atzekaldeak eragiñaz ta begiak biurrian ipiñiaz.

—Ez det gezurrik zuretzat, ba-dakizu lendidanik. Ba-dakizu ere
zurea naizela oso-osorik, zu neretzat zerala nabaitzen zaitudan beze-
laxe. Onexegatik pozez naiz margozten ta apaintzen ikusten zaituda-
nean. Zureganatuta naukazula ba-dakizu, bañan oraindik al bait geia-
go zureganatzeko, geiago batutzeko dabilzkitzu apainketa oiek. Ez du
urretxindorrak basoan kanta bearrik egunero-egunero eguzkia irte-
tzeko, ta alazere goizero abestutzen jarraitzen du. Ez du ene biotzeko
urretxindorrak ene maitasun eguzkiari otsegin bearrik, dan ederrez,
dan aunditasunez azaltzeko. Bañan ene biotzeko urretxindorrak be-
re kabitxoa alaitu nai du ta apain agertu nai du, alai bere edertiak
nabarmendurik bere apain-kantetan, gure maitasunaren eguzkia dir-
daitu azaldu dedin. Neretzat bakarrik apaintzen zerala dakidanez,
jarrai onelaxe txorabiatu orain ta gero egon nadin zuri begira.
Ain zaitut maite, ene kutuntxo;

—Olerkari egiñik zaude gaur, ene txontxolio!

—Bai, olerkaria, biotz-olerkaria. Paperak ezin lezake jaso zuk
suma-araziko olerkia. Apaindu zaitetz bai, maitetxo. Zaitetz ene eguzki,

ene zeru, ene biotz, ene bizitz eta itxaropen. Orain, pixka bat zabiltz...

—Onelaxe?

—Orrelaxe, bai. Zeruetan enaren egaketaz; lurrean oreiñaren ibilleraz, uretan amorraien leuntasunaz. Zabiltz ene begiak asetzeko...

—Ai, ene senartxo! Ai, ene txontxolio; Ba-dakizu zuretzat bakarrik apaintzen naizela. Zu zaitudala bakarrik. Zu zerala nere izate guztia.

—Pozez zorutzen naukazu, emaztetxo. Zu aldegiñik zaitudanian utsunea bakarrik nabari ene inguruan.

—Bai, onelaxe nik ere. Bañan, joan bear izaten da, orain nik bezela. Ai, dan-dana etxian ba-lego! Ez dagon ezkeroz irten egin bear... orain bezela.

—Bañan, ene poxolin, laister itzuliko al zera!

—Beriala. Bañan, tori ene maitetxo, tori ene lastana...

Ori esanaz, Doña Lucila, joanik basakatuaren ibilleraz bere senarrarenganaño, besoaz lepoa lotu ta lastan bat eman zion masallaren erdian.

Au egiñik, eta agur esaka, ateruntz abiatu zan upurtarro.

Senarra zoraturik zegoan. Altxa ametsetan dabillenaren antzera ta jarraitu zion ateraño, ta bertatik begiraka jarri, lerdea dariola, ix kalleretan ixkutatu zan arteraño.

Egon zan exerlekuraño itzulirik, bertan jarri zan leiotik at begiraka, bere pentsamentu zorionsuetan suntsitua. Benetan, zorion betean dagon senarraren pake-igurtzia ba-zekarren bere arpegiak. Eta egiz, ala zan.

Leiotik at zekusanak baño indar geiago izaki bere oroitzak. Bere oldozmenak zapi bat ipintzen zuten zabalik bere begi ta kanpoko edertien bitarteko. Berak, oraintxe, begiratu-arren ikusteke, oroiberritzen zitun ezkonberritako lenen egunak. Maite izan zualako artu zun bere babesean lotsagarritz beteta zegoan une aietantxe. Berarentzat igaroak ziran egun aiek betirako, ta erakarri zion alde ona bakar-bakarrik ikusi nai, au da, berak ainbeste maite ta atsegin zitzaion emakume ura betirako bereganatzeko izan zirala, alegia. Onexegatik etzion aitatzan ere onelakorik bere emazteari. Egintza onak ixilpean gorderik ibili bear izaten dirala ba-zekian, ta egindako karidada aitatzan ta aotan erabiltzea, zordunari bere zorra paperetan jartzea

ainbatekoa zala. Ta gañera, bere emaztekiak ez al zion bada ongi aski azaltzen bere esker-ona ixilik baño egintzaz geiago, etxeko lanak eta eramanpenak alik eta ongien egiñaz ta artuaz, ta alik eta arpegi alaienez agertuaz?

Beraz, ontan ez zun kezkek. Andreak agertzen zion bere ezker ona ta egizko maitasuna ta, berak, ordaiñez, gañezka ixurkian zetorkion maitasuna ematen zion eguneroko egintza guztietan, ta onela, batek bestearen joera garbia ikusirik, gero ta geiago maitatu ta gero ta geiago elkartzeko izaten zala.

Gogoratzen zitzaizkion bai ongi aski Santander aldean joan zitzaizkion egun aiek. Arin egin zituzten ezkontzeko gorabera guztiak. Ezkondu ziran ta beriala erriz aldatzea eskatu ta Oiartzun erri zoragarri artara etorriak ziran. Santander, en jendearen mar-marra itzali bear zan. Bere maitasunak ba-zun ainbeste indar mar-mar oiengandik gora ibiltzeko ta ezereztutzeko, bañan bidebatez okerrik ez zekarkielarik bere bizimañari, baizik txori bi ba-zekarkitekeala bere kaiol berrira, aaztuketa ta pakea, alegia; ta ara berriz orain sagardo lurretan gauz oien oroiz bere burua ikusi.

Ezkondu lenen-lenen egunetik agertu zitzaion emaztea andre on, otxan ta apala. Bere egintza guztiak gozotasunaren mamia ba-zuten. Beti alai, beti arpegi on zeukan berarentzako. Ba-zirudian berak egin mesedea eunka ordaiñetan ematen zizkiola. Lengo txorakeriak, lengo baldanaldiak aazturik andre langillea egin zan eta umil eta me jantzitzen asi zan. Apainketak laga zitun, ezkongai aldietako apainketa geientxoena ezkontzak jan zizkion. Arpegia zerbait margozten ba-zun ere emakume zentzudunaren gixara erabilli oi zun. Ta ama izan bear artaz, etxekoi ta arretatsua biurtu zan.

Bañan, beti zerbait bear eta, zorionaldi onetan, naigabe aundi bat izana zuten, erditze egun larriak etorririk ikusi zituztenean. Egin-bear latza etzetorren nai bezin ondo ta aurtxoa illik kendu bear izan zioten. Oñazea, negarra ta naigabea berarekin izan zuten. Bañan egunok izan ezik, pake ederrean ta zorion betean bizi ziran.

Bai, alaxe bizi ziran. Bata bestearentzat izanik. Batak bestearenganako atsegin azaldu nairik. Batak bestearentzat lan egiñik eta ezkon lagunarentzat edertu ta apaindurik.

Onela ikusten zuan, beintzat, gure karabineroak eta egun batzuk aurretik bere emaztea jantziei ta apainketei lotuxeago ikusten ba-zun,



berarentzat moldatzen zala zerizkion, aurrik gaberik emakume ezkongaiaren edertiak berritotuz biotzez eskeñi nai zizkiolakoan.

Itz batean, ba-zerizkion bere egitazko maitasunak zuzendu zula zugaitz biurria ta, onek, bere egintz ona ta biotz zabala ikusirik bazemaiola oparo ezker onaren ezaupidearen igali-zuku-poz-alaigarriak.

Ba-zirudian pentsamentu onek zemaion pozak gorputz moxtaka luzaarazitzen ziola; arpegi beltz txikiz ta atsegiña alaitasunez gorriborobiltzen zitzaiola; ta begi beltz zabal aiek ille beltzagoren azpikoz drisdriis zegitela atsegin-maitasunezko txinpart beroaz.

* * *

Trujillo sarjentoa ta Torrechica karabineroa izketan ari ziraden etxaurrean, etxetik ateratako exerlekuetan jarrita. Izan ere egualdiaren ederrak gogo ematen zun ortarako.

Bere izketaldi ganoragabekoa eten zuten Doña Lucila, Quitol, en emazte pertxenta ate ondoraño etortzen ikusi zutenean. Arratsalde on eman zien bere senarraren ogibide lagunei, ta ate ondoan azken ikutuak bere apainketari eman ondoren, agur esan ta abiatu zan asmotan zerabilkin ibillera egiteko.

Karabinero biak ain lirain ta panpox zijoan andreari atsegiñezko begiratualdi luzexamar bat egin ondoren, kaxa ontako jardunaldia izana zuten, aopeakoz, Torrechica jauna ezkongai izanagatik, Trujillo sarjentoa ordesa ezkondua izaki, ta bere emaztea belarri-larri egon bai-zitekean bazterren batean.

—Emakume bikaña, Quitol'en andrea —mintzatu zan Trujillo jauna, arpegi illun beti bezela.

—Bai benetan —erantzun zion, besteak.

—Liraña bera bezelakoa. Putzotan xaltoka dabillen ur-txoria dirudi ta lorez-lore arin aldatzen dan mitxirrika.

—Alaxen dirudi.

—Arpegiz eder ta soiñez berdingabea.

—Bai, ederretik ez du aitzekirik.

—Iñundik ere, kanpotik ager zaigun bezin eder baldin izango ba-litz barrutik, pozik liteke Quitol jauna.

—Bai ongi. Ta onela izango da aspaldiko esaera egi ba da: "Gogoaren xpillu, arpegia".

—Esaerak, ortara ba-goazke, era ta mota askotakoak ba-dira. Oraingotan egi ba-dio zuk eta nik ezin esan iñolaz ere, etorri berriak ditugulako.

—Ta ezin ongi ezagutu genitzazkela orren denbora gutxian egia-
ren egia da.

—Dakiguna auxe da; Emakume pertxenta ta liraña dala. Ta alazere, etorri danetik, beti otxan, umil ta etxekoi agertu izan zaigula. Ta senarrarentzat beti izan dula emazte on batek bear dun begirapen ta itzal.

—Egi-egia.

—Ta nere iritzi au ez du itzaliko egun batzutik onuntza apainketarako ageriki darabilen zaletasunak. Erditze txar ori izan izan dutelarik, ezkongai antzera galdituak baldin ba-dituzu, legezkoa da apain ta lirain senarrarentzat azaltzea, poz pixka bat damaion bere edertasun ta gaztetasunaren larrosaz izan duten naigabearen arantz beltza eztaiaz. Ez da etxe batean edergallu oberik emazte on bat baño. Berak edatzen duan lillur-atsak esnatuko ditu ezerk baño obetogo lo datzaten biotzean xuxpergai dauden goi-doiak.

Itzok amaitze ontan, Trujillo sarjentoak ixilalditxo egin zuan, bere begi beltzak luze zuzendurik azken etxe-ertz ostean ixkutatzera zijoan Doña Lucila'ri. Gero, geldiro-geldiro bere lagunarenganaño begiak itzuliaz, mar-mar batean, asmoz baño esanaz kezka keiago zuten itzok zuzendu zizkion:

—Onelaxe apaindu izan oi dira betidanik nexkatx gazte guztiak len-maitasunaren ziztada biotz-biotzian nabari izan dutenian. Zerbait ezagutzen ditudalarik bai bera ta bai ere bere senar jatorra, ez det uste besteren bat maite mindutzeagatik dabilkenik. Etxerako izango ditula bere apainduri guztiak, ba-deritzait.

Itzok entzunda, Torrechica jaunak mingañari koxk egin bear izandu zion ixilik, gelditu zedin. Bere burua ezagutzen zuan ongi bere ustez, eta uste ontan josita zeukan Doña Lucila'ren akatzak eta zein oñetatik erren zebillen. Emakumeen konkistadorea izateko jaiok diran oietakoa zan aidanean. Soiñez luzea ta ongi egiña zan, me antzean geienbat. Ijitoen odola bere, saiñetan ba-zeramala suma zitekean bere arpegi ta illeen beltztasun dirdaitsua ikusirik. Espaiñ gañean bigote medar bat ba-zeukan, arkatzez margoztua ba-litzakean. Ta bigotetxu oien azpian ortz-zuri errenkada aiek oraindik zurigoak ziruditen, edu-

rra sasi-moltzo beltz batean txapla dagoanian bezelaxe. Berak ba-zekin auxe ta maiz zabaltzen zituan espain extu aiek irripar maltzur ta paltsoan.

—Ala bear, beintzat —azaldu zion onek, zerbait esategatik.

—Noski, bada. Ez dakar ezer onik auzoko lapikotik jan nai izatea, ez dakarren bezela ezer onik erri batek bestea jatea. Guda, egite txar onek, berarekin ba-dakarke. Etxe edo sendi batean ere zalduketta maltzur onen poxpolua piztutzen ba-da, ba-dakarke gudaren sua ta berrietaz gorrotoak, naigabeak, lotsakizunak eta aidanean odol zipriztin garratzak.

—Jainkoak zaindu gaitzala gaiz ortatik —erantzun zion kopetillun bezin maltzur.

Au esanik altxa zan. Ez zitzaion atsegin bide ontatik izketaldia ibiltzea. Izan ere bestelako asmoak zerabilzkin buruan, ta asmo oiek aurrera eraman zitzaion oinkari ibilia zan zerbait. Gonazalea zan ta gonetara zituan grin guztiak. Eta artzaiak bere ardiak elikatu ditezen aukeratzen dakin bezelaxe lar onuratsuen, onela ere bere begiak bere griñak bear zuan larrean oker aundirik gabe ba-zekin ezartzen. Mutilla ez ba-zan gero lanpide auetan. Ta bere begiak ikusi zuten emakume ark garbia ez zan zerbait ba-zula. Artean zertzuzan ez zekian, bañan bere grin gaiztoak arengana bidaltzen zuan. Ta asmo ontaz xurikatzen zun egokiera etortzen zitzaionean, Zaintzen zituan bere ibillera guztiak, eta doi-doi, azkarregi gabe, ba-zijoakion bere itz ezititsua sartzen ur tanta arrian bezela, loxintza ta leunkeria barratzen bai ere aizea basoan bezelaxe.

Onexegatik, eta berez arroxko ta usteaundikoa izanik, konkistadore guztiek oi diran antzera, ba-zerizkion Doña Lucila'ren dotore azaldu bearra, ta gazte agertu bearra beragatik zala, ollo beltzaren ziriña zirudian bere bigotexuagatik zala. Ara zergatik koxk egiñaz ixilik eutsi zion mingañari. Sarjento jaunak ez zekian bera zala Doña Lucila'ren maitasun berria, beragatik gaztetzen ari zala. Berak, bere goikoa uste ontatik ez zun iñundik ere kenduko. Zebillela orrela ametsetan bera ernai zebillen bitartean. Ta egun batean ezin ba-zun, ogeiean, illabetetan berdin andretxo aren maitasun osoa bereganatuko zun, iñundik ere. Etzion, beintzat, asiera-asierako arpegi zakar ura ipintzen. Ta gero ta geiago, orde, agertzen zuan gazte azaltzeko go-go. Norengatik, bera izan ezik?

Belaunetan euki zuan izkillua bizkarrean arturik, etxaurrean aruntzonuntzako ibillerari ekin zion. Trujillo jaunak bere lagunaren arpegian irakurtzen jakin izan ba-lu, jakingo zuan lagunaren arpegi alaiak eta irripar zabal-goak ;ni nauk! zegitela.

Bañan Quitol karabineroaren emaztetxo txarmagarriak ez zebillen ortik. Eukal-mendietako kimu berri osasuntsuak zitzaizkion atsegiñago...

SASIARI SU

Urrengo egunez illunabar eguzkiaren azken printzak urrez ozkatzen zuanean zeruaren urdiñean uriko kanpantorrea, ha-zetorren bere jaiotetxetik "Muñoluzea"ko mutilla. Menditarrak oi duten oinkada luze ta aundikia zekarren loraberri lenengoz pinportatzen ari ziraden sagastietako bidexketatik barna, bai belardi ezeak zatitzen zutenetatik eta bai gurdiak txirriatuaz igarotzen zituzten bide zabalgotatik.

Etxeko eginbearrak oparotsu bete ondoren izaten dan pozaldi garbia agertzen zuan bere arpegiak. Etxeko abere ta egazti, etxeko alor eta soroak, etxeko baso ta mendiek ez zioten noski igarri aurreguneko apustu-nekea. Ta ez zion igarriko iñungo kistarrak ere neketan ibili izan zanik, bere ibillera gartsu ta sendoa ikusirik. Bestetan beze-la ibili izandu bai-zan langille, saiati ta neka-eziñekoa.

Zuzen-zuzen plazaruntz jo zun ta, konsejupean gazteek zebilkien pelota jokua aintzakotzaz artu gabe, ezagun zaigun ostatico barrura sartu zan.

Erdiz-erdi mai luze bat zutela, ta maiaren biotzean ardoz betetako pitxarreko botella, zabal ta patxara ederrean zeramakiten bere itz-jardunaldia. Bertan zeuden adizkide guztiei arratsalde on bat opatze-ko bere españetan sortutako dardara oraindik iltzeko zeukan, "Arri-txabalaga"k, indianoak alegia, eman zionean mai gañetik artutako izparringia, par-antzera ta abots lodiaz zesaiolarik :

—Toitzik izparringiok, len irakurri ez ba-dituk beintzat.

—Gureraño ez dira iritxi, ta iritxi izan ba-lira ere nun arkitu be-ta orretarako? Gurera doi-doi datozte paperak...

—Orduan, ikus. Iruña zarreko ta Donosti berriko "Astelenekoak" dituk, izparringiok. Irakurri lasai, ta gero mintza.

—Ia, dakartzu bada...

Dan-danak berari begira gelditu ziran, oro begi zerbait antz artuko ziotelakoan edozertan irakurgaiak aizkolariari zer burutapen zortarazten zion. "Letrax", "Itzaibeltz" eta indianoa mai batean gaizkille bat epaiketean ari diradenetakoak ziruditen. "Gautxori", berriz, mendiaren illuna urratzen dun karabineroari begira dagon kontrabandista. Besteak ere, lendik ezagun ditugun adizkideak, ernai zeuden etorri berriaren igitze ixpi txikienetara.

"Gautxori"k ardo botella arturik edanontzietara ixurka asi zan, bañan bere adizkide miñari begiak galdu gabe.

"Muñoluzea"ko semeak izparringiak artuta astiro-astiro, ezer besterik egin bear ez duanaren antzera, berekiko irakurtzen asi zan, auxe :

Donosti'koak :

"Oartzun'go uri zoragarriak jendetza ederrik ikusi zun atzo Oartzun'go Muñoluzea ta Lesaka'ko "Patxikorena" aizkolarien arteko aizkora-dema ikusteko. Jendetzak ez zun alperrikako ibillaldia egin, burruka latz eta gogorra izan bai-zuten. Lesakar aizkolari indartsuen garaitza gertatu zan, bañan geienak diotenez aixa irabaziko omen lioke gipuzkoarrak bigarren aldiz jokatuko baluteke. Ez litzake beste jai makala sortuko bigarren apustua eratuko ba-luteke. Ez da izango, beintzat, diotenez, emengo aldetik gogorik ez dagolako orretarako.

Ta, Iruña'koak :

"Napar ta probintzianoen arteko apustu jokoak beti izan dute bere gatz eta piperra. Onegatik joan giñan Oartzun'go erri atsegiñera bertako "Muñoluzea" ta gure Lesaka'ko "Patxikorena" aizkolarien burrukara ikustera. Ez giñan alperrik joan ta uste genun bezela gurea ikusi genun garaille irtetzen. Gure mutillaren indarra nagusitu zan ta lan geienean aurretik joanik ibili zan. Naparrak beti eman izan diogu naiko lan gipuzkoarrei aizkoran ta, orain ere, garbi ikusi genun lesakarrearen nagusitasuna. Oraingoa ikusirik uste osoan gaude, erre-xago irabazi lezaiokela beste bein edo bein jokatuko ba-luteke. Gipuzkoarrok, oiartzuarra baño oberik arkitzen ez ba-dute, beintzat..."

Izparringi tolesteari ekin zionean ikusi zuan begiak ez ziotela kentzen. "Letrax" okotz igurtzika zan; "Itzaibeltz" buru arraskaka;

“Arritxabalaga”ko indianoa sabel-aurre ta erdi-parrez bigote zorrozketan ta Larreko ta gañerantzekoak arpegi-masallei eskuak itsatsita. Izparringia artean maira biurtzeke zan, “Letrax”ek oi zun bizitasunez esan zionean :

—Zer derizkiok?

—Ez dago gaizki —erantzun zion, aizkolariak.

—Ez dagola gaizki? Bai arrayuak ez-pa-du!

—Ez bada. Gipuzkoarrantzat ni bera añakoa. Naparrentzat berea ni baño trebeagoa. Alde biok pozik. Ez deritzaizue ongi?

—Ongi? Ez iñolaz ere! Sarri gertatzen dek alde bi pozez euki naiak alde bietako naigabea irixtea.

—Bai, alaxen izan oi da askotan. Bañan...

—Zer bañan ta zer bañondoko! “Patxikorena”ren nagusitza garbi dakustela? Ta, ongi, diok? Berak obeak, beraz.

—Berak diotenean...

Ontan, “Arritxabalaga” parra barruan gordeaz, berak zekian astirotasunez itzegin zion, galdezka :

—Ta, ik zer diok?

—Ezer ez.

—Ezer ez ta festak! Bueno, ikusi dezagun...

Entzule guztiak upurlarri jarri ziran bere exerleketan. Indianoa’ren itzak iñoiz irtenak bezin ongi neurtuak izaten ziralako. Bere jarrera-itxurak zerbait erabakitzekoa ba-zerabilkila adimenean, adierazten zuan.

—Errex, ain errex irabazi al zian atzokoan? —jarraitu zuan, indianoak.

—Ez ain errex.

—Geiago egiterik bai al-ukan?

—Bai.

—Ta egun geiagotan zailtzen jardun ezkeroz, geiago saiatu ta artarako prestatu ezkeroz, ez al derizkiok atzoko “marka” gutxietsita utziko ukela?

—Artara jarri ezkeroz...

—Artara jarri ezkeroz, bai. Ta beste galderatxo auxe; I baño geiago al dek “Patxiko”?

—Ez det uste.

—Ez, ez dek i baño geiago, baizik bestalde. Ziur gatxeudek saio

berdiñetan, epe berdiñetan biok apusturako gertatzen jarri ezkeroz, errexago, askoz errexago, berak atzo i baño, jango iokela.

—Bost lepa-zintzur ba-nitu bostak bere alde jarriko nituzke —biotzkor esan zuan Larreko’k.

—Orixe! —otsegin zuten, esan baño, Borbollo’k eta “Gautxori”-k.

Indianoak berriro bigotea zorroztu, itz egin baño len dan-danei begiratu, ta esan zion “Muño”-ri.

—Naiko diru irabazteko egokieran gaudela ba-deritzaiak. Bañan ortarako gaur bertatik asi gindezke gertagizunak moldatzen. I, artarako ba-ago asi inteke biartik zailtzen ta indartzen. Gure laguntza izango dek diruz eta zernaitara. Apustu berria ezagutuko degula ziur izan. Bañan, entzun ondo auxe, naparrak bere garaitzaz arroturik eta gauzak errexago ikusten dutelarik, bere goitasunean txorabiatuta, gu baño zabarrago ibiliko dituk apustu gertakizunetan. Ara emen koxka! Ortxe daukagu ordaiñak artzeko egokiera, jipoi ederra emateko zioa... Orain, Muño, i aiz izketan. Gerturik al ago?

Oiartzuar aizkolariak ixilik gelditu zan, oldozkor.

—Begira zak gutxietsi autela ta irekin gipuzkoar aizkolarien txapelta ta ere kondaira gallena. Ik ba-dezakek ainbeste. Ik nai ba-dek gure izen ona berrirabaziko diagu. Zer diok? Bai ala ez?

—Bai, Konta nerekin.

Bejondeikela! —borboillatu zuten batetsu ao guztiak.

—Zer dagiket orain? —galdetu zuan, gartsu, “Muño”-k.

—Oraingo zaildu ta indartu. Gerora, apustua zerratzen degunian, esango zaik zeatzago egin bearrekoa. Bañan, oraingo ontan, antziñako elikatze ta ibillerak alde batera utzirik, bide berrietatik joko diagu, englandar eta atzerritar orok darabilzkitenak arturik. Zaudete ziur, apustua berritotuko dala, ta guk orretarako ezer aundirik egin ga-berik.

—Bai, bai —esan zuan Letrax, ek— ez ba-dira bada makalak izparlari auek sasiari su emateko.

—Itxoin dezagun, bada, patxara ederrian, plaza-gizonen antzera-itziirrist egin zuan Gautxorik’k.

Emendik aurrera, billerako dan-danak izketaldi alai batean naasi ziran. Bezperako gertakizunak, baten ta bestearen akatzak eta onurak txit itzulipurdikatu zituzten. Akatz oiek zuzentzeko ta obetutzeko esan zituzten amaika iritzi. Zer ta nola jokatu bearko zan; noiz eta no-

la ekin; zer egin ta zer ez egin, au da burrukarako antolaketa guzti-guztiak aozpetu zituzten. Alai zeuden urrengo jokoa aixa irabaziko zutelakoz, ta uste ontan, españak eta begiak alai, apalordua zetorkielarik banan-banan irtetzen asi ziran ta etxera bideko gau illunean suntsitu.

* * *

Bañan Oiartzun'goak ezezik Lesaka'ko "kontsejuak" ere jaso ziztuan bere jan-gela zabalean gizonetik bereak. Ezagunak zaizkigutenatzaz gañera ba-ziran an beste batzuk jai usaiera etorriak. Ezagun dezagun ere Lesaka'k erdi jai egin zuala egun ura bere garaitza aitzaki artuta.

Garai artan apari eder bat egiten ari zitzaizkiguten. Ta txitxi ta mama aoratuz batera, ba-zuten ere zer esana. Gutxi gora-bera oiartzuarrak garai berean diotena oiek ere diote. Bañan, ok ba-dute beste alaitasun bat, beste itxaropen bat. Garaitzaren erpin-erpiñetik dakuste aurreko ta atzeko gertakizun oro ta, beraz, ez dago kezki ez zalantzarik. Itxaropen ziurra, garaitz osoagoa ikusten dute etorkizunari begiratuaz ta beste aizkora-joko berriari buruz. Apustu berriari diogu ta alaxen da. Ok, oiartzuarrak bezela, beste apusturen bat sortuko dala ziur daude, ta ziurrago irabazle irtengo diradela. Auen artean ere, noski, aizkolaria bera baño aurrerago dabiltza bere jarraitzalleak. Onexegatik Iruña'ko izparringiak ziona amaika bider muxtatu ondoren, lagun artean au ta ura sei bider berrirotu ondoren, ba-dijoaz ere etxeruntz alai, biotza aufika ta adimena eupaka. Baikor dira. Bere izatearen zeruan ez dakuste laño xiparririk.

Bañan garaitza bere neurrian jasotzekoa da. Garaitza, zenbait aldiz, kiroltzaleen opioa da. Aldiz sendagai izan liteke bere neurrian; geienetan bere gozotasunean murgildu ezkeroz gorputza ta adimena mozkortze luze ta sendakaitzean galdu lezazke. Ok, garaitzaren opio pearen arrixkuan zeudela ezin uka. Beñepein baikortasun itxuenean erroituak zeuzkaten bere usteak. Ta usteak uste beti.

Onegatixek baikor eta alai jaso zuten bere uste aiek egiztatzeraz edo zetorren izparra. Onelaxe zion:

"Egia ote? —idatzpuruak zion, ta mamian, onela— "Txit zabaldurik dago erriaren artean, lengo batez Oiartzun'en Patxikorena ta

Muñoluzea'ren artean egindako aizkora-apustua berriz laister jokatu-ko ote dan. Onetarako, gauz oietan oso sarturik ibiltzen dan jaun ba-tengana jo degu, ta bai berak baieztatu ere. Zenbat jokatu-ko dan ere esan digu ta ogeita bost milla peseta omen dabilkie alde bakoitzetik. Onela ba-da, laister ba-degu jai ikuskarriren bat, euzkal kiroletarako zaletasun bizia degunok. Laister emango al diogu irakurleari, ain go-goz gai onetzaz artuko ditun izparrak. Txaboleta'k".

Onelakotan gertatzen dan bezela bai sortu ere izpar onek marmar ta maxio, ta ez makala! Batzuk, lasa-lasai ta ao-zabalez irentsi zuten Txaboleta'k sortutako izparra, beiak ura askatik bezela. Beste batzuk, kezkatuago edo jakinzaleago, aizkolarien inguru-minguru zebiltzenetara jotzen zuten galdezka.

Bañan oek ez zuten erantzun zeatza eman gogorik. "Diotenean...", zioten. Ta ori bai, irripar gozo batez jazten ziran beren españak. Kezkaren irriparra zan; ezezkoarena baño baiezkorena adizkideago-ko parra; par ura zan kezka baikor eta alaiarena, gogoak zekarren itxaropen edo naia bizitzen zuna. Onegatik pozik zijoaizten galde-lariak "zerbait ba-ziok" esanaz; ta erantzule bear zutenak, ixiltasunaz izketaz baño geiago adieraziaz, ba-zijoaizten bere bidetik ere poz-pozez "zerbait ba-zetorrek" bere kolkorako esanaz.

Lanok guztiak etorriko zanaren gertatze-lanak besterik ez ziran. Artoak bere emaitzak emateko bear ditu bere gertatze lanak. Onelaxe, izparrok eta geroagokoak apustu-emaitzaren billa zebiltzan lengo atxurkadak ziran. Giroa ederra zegoan ta aize bereak esnarazitzen zitun napar ta gipuzkoar kirol-soroak.

Tankera ontako beste zenbait izpar argitara eman izan ziran urrengo egunetan. Guztiak zio bera, guztiak ongi artuak. Gogoko tokian azkurerik ez. Ta azkureak ere atsegin aldiak ba-ditu. Bestelakoak ba-ditu ere.

Ta onetakoa izan zan, egunen batez, izparringiak ziona:

"Jakín-jakín degu Patxikorena ta Muñoluzea aizkolarien arteko bigarren apustua zertu naiean zerbait ibili dirala. Bañan, zerbait bakarrik. Esan digutenez, gogo-eza nabaiturik alde biotan utsean gelditu dala. Tamalgarri zaigu euzkal-kiroltzalei, bañan alaxen da. Ta alaxen artu bear".

Arrotu zituan izpar onek lurrak "atomikak" egin lezakean baño geiago. Askoren poza ta naia lurrarpira zetorren. Berealdiko apusturen

bat ikusi bear zutela iritzirik zeudenean ara zeekin zetorkien. Egia izango zala iñork kezketan ez zun jarri, Oiartzun'go ta Lesaka'ko talde ain bereziak izan ezik. Asieran ain gogotsu jardun ziran izparringiak ez zuten, bere ustez, orain bestaldeko izparrak eman bearrik.

Itxurak, onela bearko luke. Bañan bestalde izaki. Ezezko izparra ere apustu-gertatzearen puxkatxo bat zan. Sarri, senarrak emaztearen aurka itzegin oi degu, ta emazteak senartzaz ere. Beste zenbaitetan ere ori gertatzen da. Maitaleen artean; neskame-etxeakoandreen artean; nagusi-langilleen artean. Bañan senarra betirako galtzeko zorian ikusi dutenean zenbait xuxpirio izan ditu emazteak bere senar gaixoa sendaturik ikusi duanean. Orduan ikusi bai-du txarkeria zegoan tokian ontasuna; zitalkeriaren ordeztz itz-erakuslea; gorrotoa zekusan tokian maitasuna. Beste begirapen bat ere izandu du ankapirata ta izekaka zebilkin neskamarentzat bere etxeakoandreak; bai zabaldu ere nagusiak ostikoa zerabilkin langilliantzat bere diru-kutxa, gizarteko ate-zabala ta biotz zartalaria. Onelaxe izanik orainarte gerora ere ala izango.

Osasuna zein eder dan ikusi dezagun Jaungoikoak gaitzak emana izango digu. Neguko izotzarentzat eguzki epelaren goxoa bezelaxe.

Jakin ba-zekiten gauz auek izparlariak, sukaldariak gatz-piperra eltzeari botatzen bezela, ta bere eltzea idazkiz bete oi diralako, orain to ta gero ar ba-zebiltzan. Ta barratu izan zuten izpar txarraz ereindako ezezko garratza, urrengo egunetan jaso izan zuten bere emaitz oparotsua. Jendetza guztiak len baño adore geiagoz, len baño zaletasun geiagoz jarri izan ziran. Ta len baño maizago ta len baño nekagarrigo joaten asi ziran apustu-taldekoengana zerbait jakin gogoz. Bañan oengandik lendikako ixil esalari ta irripar zirikatzailea baizik ez zuten artzen. Zenbatez naspillarigoak idazleak azaldu ainbatez ixillago Baztan'go Elkarte'koak eta Oiartzun'go Indianoa ta lagunak.

Bañan, artean, poxpolua azaltzeko zegoan. Sasia antxen zegoan igartuta ia su bihurturik. Poxpolua piztu bear zan ta sasia sutu. Ta poxpolua pizturik agertu zan izparringien orrietan, onelaxe:

“Bai apustu ez apustu? Naparrak atzera ote?” —galdera auek ziran idazpuru ta barrundik onela irakurtzen zan— “Euzkal-kiroletarako zaletazuna dun edonork ba-daki zenbat eta zenbat itzegin dan Naparro'ko Patxikorena ta Oiartzun'go Muñoluzea aizkolarien artean jakotzeko zuten apustu-berri-berri edo apustu-ordain. Guzti-

guztiok arrera onena egin zioten iñoiz-aldian ikusi ez dan jokoa ikusiko zutelakoz. Bañan, izpar onak pozarren aizetu ditugun bezelaxe bestelakoak gaur aizetu bearrian gera. Tamalgarria txit izango da euzkal-kirolzaleertzat bañan egi. Ez omen degu apusturik. Esan esaten ziran bost milla duroak baño beldur geiago ematen omen naparrei Muñoluzea'k edo onek egin ta esaten diran markak. Eta alde batekoak galtza-plost azaldu ezkeroz, besteak... ameto egin bear”.

“Atomika”k, Hiroshima'n baño pupu geiago egin zuan izpar onek napar errietan. Guztiak sor ta lor gelditu ziran. Bañan, batezere, Don Joxe “Indianoa”. Plaza-gizon izena zula aazturik, telefonoa artu ta “Aitarena” esateko betarik gabe Donosti'ra otska zan.

—“Euzkal-egunkaria”?

—Bai, jauna.

—“Txaboleta” kirol-idazlaria or al-da?

—Bai jauna. Nor da galdezka?

—Baztan'go Elkarteko, bat.

—Zaude pixka bat, arren, otsegingo diogu berialaxe ta.

Urrutizkiñean entzun izan ziran urrats batzuk joaten tapakoka ta geroxeago, beste tapakoa etortzen. Ta gero ariz bestaldetik:

—Nor zaitut? “Txaboleta” idazlaria emendik izketan...

—Baztan'go “amerikanoa”. Don Joxe nazu. Bada...

—Esan Don Joxe, esan. Garrantzi aundiko berririk ba-darabilkizu esateko onela deika zeradenian. Oro belarri nazu, oro atsegin —loxintxatuz, esan zion Txaboleta'k, parrez ariz bestaldetik.

—Zer izpar ta zer gezur darabilkizue gaurko izparringian —lakatz, esan zion Indianoa'k.

—Gezurak? —esan zion, besteak— Ez gaude ortan...

—Gezurak eta borobillak, gañera. Egiak nik esango dizkitzut jakin-gogoz ba-zaude.

—Egia besterik ez degu nai izparringian. Uste bai-det izparringirako izango dituzula esan naiakoak.

—Egi edo gezur nai dezuten edo ezer ez, neri bost ajola. Orretzaz or-konpon! Nai deguna da aize guztietara zabaltzea, izparringiz, irratiz edo aldanetik ez gaudela gezurra aotan artzeko. Ez genduke besterik bear. Entzun ondo ta nai ba-dezu artu auxe paperean.

—Egon pixka bat, arkatza ar bitartean. Bai, emen det. Orain... jarrai ta esan esan bearrekoak.

Erlejuak takada gutxi egin zituan, bañan Indianoa'ri orduak iduri zitzaizkion. Masailak gorriz kolorez ta ler zorian dagonaren gixara, izketari eman zion berriro.

—Esan garbi, Txaboleta jauna, guregan ez dala oraindik gipuzkoarrik etorri apustu zorioneko ori berriz jokatzekotan. Ta baldin etorri ez ba-dira ezin esan ez ezezkorik ez baiezkorik. Eta bere saiketetan Muñoluzea'k egindako "markak" ikaratu ta beldurrez pattalduta gaudela are ta gutxiago. Ez diogu beldurrik, ez inolaz ere. Prest gaude jokatzeke, nai duten tokian ta nai duten erara. Bost milla duro ta beste ainbeste ere gogo ba-dute, jokoan jartzen ditugu. Zortzi eguneko epea ematen diogu ondo pentsatu dezaten. Zortzigarren egunian Donosti'ko "Joxe-Mari"n itxoingo diogu, zu buru zaitugula. Ea, beldurriak zeintzuk geran, gu edo besteak.

—An izango nazute, Don Joxe. Besterik esan bear al didazu?

—Ez. Bai, bai! Izki aundiz azaldu esandako guztia.

—Ongi dago. Ez al dezute, beraz, galtzeko beldurrik?

—Ez da, ez da... au ere! Len baño errexago irabaziko diogu.

—Azkenean au jarriko al det?

—Berdinxamar zaigu. Ipiñi.

—Agur, Don Joxe! Ezker anitz. Urrengorarte!

—Agur Txaboleta! Ongi bizi.

Iruña'ko izparringietarako ere tankera ontako esan bearrak izan zitun. Bere esan nai guztiak barrena uztu ondoren, erriko "kontsejura" abiatu zan, zerbait lasaiturik, ibillera patxaratsu sendoaz. Txintxin batek otseginda bezela etorririk ziran Elkarte'ko jauntxoak, Patxikorena gaztea ta jarraitzalleak. Igarri zitekean aien arpegietan bazekitela azken izparra.

Indianoa, aurreratu zan jan-gela luzean ta zuzen-zuzen joanik egunero-egunero oi zuan tokian exeri zan. Urrezko ordulariari begiratu ta geienetan oi zun patxaraz-uztualdi artaz berriro jabetu zalarik— zakatu zien :

—Irakurri al dezute "Euzkal— egunkaria" k diona?

—Kirtenkeri oiek? Bai, irakurria degu.

—Zer deritzaizue?

—Esan degu. Kirtenkeriak! Orainarte ixilik egonak ba-gera oraingoan ez degu ixildu bearrik. Izparringietara deitu bearko degu ta esan garbi ez degula atzeraka egin ta ez egingo. Oien beldurrez gera-

la? Kaiku alenak! Datoztela, datoztela! Inoiz artu duten jipoi aundiena artzeko daude-ta. Zuk, Don Joxe, alaxe itzezin degu emen, zuk deitu izparringietara ta esan bearreko guztiak. Ez gaudela beldurrez. Ez degula...

—Esanak daude.

—Bai? Noiz ta nola? Mintza, jakin irrikaz gaude ta. Ba-geunden bada ez-ajolean ote ziñan. Mintza, Don Joxe, arren...

Ta Indianoa'k konta bear izandu zien Donosti ta Iruña'ko izparringietara esandako guzti-guztiak. Zeatz eta meatz. Azkeneko izkia ta azkeneko izki-tantoa jakin nai zutelakoz.

Ao-zabalka eduki zitun alditxo batean. Bukaeran txaloak eta bizkar jotzeak sumatu zitun. Indianoa'ren oro esan aintzakotzat eta egoki zeritzaie. Don Joxe'k egindakoa ondo egiña. Ez zegoan beldurrik. Ez orixe! Indarberiturik etxera joateko irtetzen asi ziran. Urrengo egunez irakurriko zutenaz ametsetan zijoazten. Ta gipuzkoarrik ar bear zuten akullukada artaz esango zituztenak pentsatzen. Bati baño geiagori luze joan zitzaion gau ura izparringiak irakurtzeko zai.

Urrengo eguna eldu zan, gauz guztiak bezela, ta egunkariak ere.

Alde aundirik gabe, ara zer zioten :

"Beldurrez nor?" Irakurleak ba-daki aizkora apustu famatu onetzaz atzokoan zer genion. Batzun-batzuei ez zaie izan atsegin. Atzo bertan Baztan'dik deika genitun naparrak atzerakada egin ez dutela adierazteko. Naparrak ez omen dira beldur. Ez Muñoluzea'ri ez beste aizkolari gipuzkoarrei. Inor baldin bada eguzkiaren azpian ta bellarraren gañian bere Patxikorena'rekin jokatu nai duna, azaldu dedilla. Bost milla duro edo geiago prest egongo dira "Joxe-Mari" ostatuan, gaur zortzi, eguordiko ordubatean. Beldurrez inor ba-dago ez dedilla azaldu. Bañan obe luke etxean gelditu. Adizkide oarra. Aixa irabaztekoan gera, atzo, biar ta etzi-amu, noiz-nai ere. Ollasko erreak ijito goseti mordo batean baño gutxiago irauñ lezake ausartu ba-ledi. Ia, bada, nor dan beldur. Ez naparrak".

Irakurleak ikusi dezakeñez, izparlariak Indianoa'ren esanak aunditu, borobildu ta gazitu zitun. Bai sasiari su eman ere.

Lenengo atxurkadaz eten ta lurrari kendutako sasi igartuari.

ARDIA LARRERA BIDE

Izparlariak idazlan aiñean ari ziran gure aizkolariak ixil-lanean.

Eguna joan ta eguna etorri aiek bere izpar intensioz beteak zabaltzen zijoazten orri zurietan, kiroltzaleen gogoa pil-pil edukitzearen. Beste ok, berriz, apustua erabaki urrengo egunetik, zatorrak oi dun antzera, ixil-lanean ba-ziarduten.

Gorputza zaindu ta zaildu egiteko oiturazko ziraden saiaketetan murgilduak ikusten genitun, bai alde batekoak bai bestekoak. Bañan batezere oiartzuarra. Apustua gertatuko zala uste ziurretan ziran ta batak bestia gaizkixeago gertaturik arrapatzeko ba-zebiltzan. Naparrak, len esan degunez, bere garaitza zala-ta zerbait obexeago zirala iduriturik, ez zuten, noski, besteak bezin gogorki artu auzia, gogor artu ba-zuten ere alde biok. Oiartzuarren talde, bañan, ordain-garitzaren billa zipoazten, ta ler egitekotan ziran bere ustea irixteko.

Euzkal-kiroltzaleak ordurarte ibili oi zituzten oiturak zerbait bazterturik beste berriak artu zituzten obe-bearrez. Antziñako elikatzea aazturik, au da, aragi ta arrautz jan-saioak utzirik, aragi errea, igaliak eta "vitaminak" zuan janari Muñoluzea'k. Enbor gañean aizkora saio ugari-luzeak orde, motx ta doi-doi ibiltzen zan, bai baño "jinasia" ta batezere mendi-ibillera osasungarriak. Onelaxe, Muño giartzen ta zailtzen zijoan. Aizkora lanean, lenen aizkora artzen duan bezela asi zan, poliki-piliki ta xuxen-xuxen ebakitzen, alperrikako takakoa ez ematen, indar-arnas txikiena alperrik ez galtzen. Baña onegatik, egun batzuk igaro ondoren, beste zan bere ebakitze tankera, besteak ziran bere "markak", bestea bere nekaldia. Garbi-garbi ikus-

ten zuten auxe bere saio ta bere elikatze ta gertatzearen berri zekite-nak.

Guztiak itxaropen bizienaz betetzen ari ziraden. Batezere India-noa'ren zoria ez zan nolanaikoa, bere zori ori ederki eztaltzen jakinarrren.

—Bai ederki uala —esaten zioten bere adizkideak, begiak poz.

Benetan poz ziran guztiak bere aurrerakada egunero-egunero ikusirik. Bañan danak pozez ba-ziran, ba-zan bat poza aizken mallara igotzen zitzaiona. Auxe, Larreko bertsolari gazte indartsua zan. Bañan Arritxabalaga'k, Itzaibeltz eta Letrax jaun aberatsak bere zoria zati bitan erdibitzen zuten bezela, erdia diruontzian ipiñirik eta beste erdia erri-maitasun-ontzian, Larreko'k poz osoa zun, aundia, neurrigabea. Dirua ta erritarraren poza bere adizkidetasun poz-garbian itorik gelditzen zan. Egiz-egizko adizkidearen poza zan, bere egite ta igite guztiak aintzakotzat artuta jarraitzen zionaren poza, irakasle ta anai, adizkide ta ongille, jarraitzalle ta aldeko izan nai duanaren poza. Berarekin pozez izango litzakena zorialdian, berarekin naigabeturik litzakena bere erorialdian. Noiz-nai aazturik izango zituna lagunaren alde jokaturako xoxak. Oroitz bat izango zuana bakarrik; bere lagunaren ospea ta onura. Itz batean, bera zan jarraitzalle zintzo, leial, jatorra. Gora-bidean bezela berakoan. Irabazitakoan galtzean bezelaxe.

Onexegatik, lenengo egunetik etxeko lanak astirik zemaion aldioro, ba-zijoan bere billerara, Muñoluzea, rekin itzegiteko, beraren egite ta aurrerapenak orduero al-ba-zun jakiteko.

Egunero-egunero, aizkolari adizkide ta Borbollo ta Gautxori adizkideekin ere itzezin ta eginbearreko guztiak ausnartu ta gertatzeko. Bada, Itzaibeltz, Letrax eta Arritxabala buru-zuzendari baldin ba-ziran, beste iru aiek, ta batez-ere Larreko bai-ziran ekintz-zuzendariak. Bazter guztietan zeudenak, mendiko ibilleretetan laguntzalle, aizkora saioetan erakusle, enbor aukerale ta oargille. Epelde sakristaua ere, buruz ta ekintzaz, bere alde zuten, beti tajuzko esaera esanean, beti biotz borondatetsu.

Egunero bide berea zeramaten guztiok. Oiartzun, go ostatu bidea. Bañan ba-zan bat bide ontatik askorik urrundu gabe ibiltzen zana ere.

Ardia barruti batian bere mazka egiteko beartzen dutenian, an-

txen egongo zaizu zintzo aski. Bañan barrutiko atea edo langa zabalik jartzen ba-zaio bere kixa ba-dijoa larrera bide. Ardiak eta abereak adimenik ez dute, alare bi bider ez dute jotzen arri batean. Bañan gizonak adimena, zentzua ta beste zenbait doai izanagatik ba-dakigu bi bider baño geiagotan toki batean ostropo egiten. Bai bai-ditugu gurekin arrokeria, aundinaikeria, itxukeria ta beste okerkerirako grin gaiztoak. Grin auek beltza zuri ikusarazitzen digu; txarkeri besterik ez dagoan tokian ontasuna ikusarazi; guda ta negarra dakarkigu poza ta jolasa erakutsiagatik.

Doña Lucila ere, etxe ta sendi barrutiko langa zerbait zabaltzen ikusirik, ba-zirudian mendia malkarretatik abitzeko zaleturik jartzen ari zala, bere griñak ezarritako mendian larraz gozatzeko.

Esana degu, oso etxeko ta oso biurturik zegoala. Egia da. Bere erorkerak gauzak beste era batera ikusteko doaia eman izan zion. Egin izan zuan aldaketa ez zan txantxetakoa. Siniskaitza egingo zitzaien emakume onen lenengo aldi bakar ura ikusi zutenei. Guretzat, ordea, ez da siniskaitz. Alde biak ezagutu ditugu berari jarraituki ta ederki ikusi degu ba-zitekeala ori. Izan ere indar aundia bai-dute tankera ortako erorkerak dakarzkien larriak, aldigaitzak eta pake-min eta zorion-leiak.

Siniskaitzago deritzaigu notin batek izan liteken utsegite aundiena izan izatea, ikusi litezken aundienak ikusita, aazturik ezagututako baztertze, umiltze, izekak eta parrak jazan izatea negarrean odola egiterañoak, ostera bide okerretik jotzea utzirik pake ta zorion bideak. Siniskaitza da bañan gerta litekena.

Onela ari zan gertatzen, beñepein, Larreko aizkora-jokoan Muñoluzea, ren "botillero" ikusi genunetik.

Doña Lucila, beste askoren antzera, egun artan plazaraño joanik zan, denbora zerbaitetan galtzarren, zerbait berri ikustearren. Doña Lucila'k gañera, bere errietan onelako oiturarik ez da, ezagutu ta ikusi nai zitun zer-nolako kirol ta joko darabilgun euzkaldunok. Aditzera ba-zun euzkaldunen indar ta trebetasunaz zerbait eta egokiera ederrik ba-zetorkion bere begiz jabetzeko. Ez zegoan gauz txikiena ikusteke gelditzeko. Onegatik, oro begi zan aizkolari ta lagun-txalleen mugitze txikienetara. Bere begi beltzak aizkoren gora-bera bide berdiña zeramaten. Epaikari maiekoen arpegi ben-bareak. Laguntzalleen zalapartak eta larriak. "Korredoreen" makakorro latz

eten-eziñekoak. Bere begiak ba-zegiten lan guzti-guztia artuko zutelakoan, kinemalari bat bere tramankuluaz ba-litzakean. Bañan laister begiak nekatu zitzaizkion ibillera artan.

Ba-zan bat an jator ta gazte agertzen zana. Aldiz, pikotxian zegoetik altxa ta aizkolariarengana urbiltzen zan limonada botilla bat eskuan, onek edan zezan. Aldiz, zumitz txotx batez, Muñoluzea, ri erakusten bezela jarduntzen zan, nun jo ta nun ez jo, esanaz. Gazte ura aizkolaria aurren zijoalarik alaiturik ikusten zan, arpegi-gorri-osantsuan zoriona erakutsirik. Ordez, atzera egiten zuanean bere aizkolariak, itun, naigabeturik eta larritasun-pipiaz jota ageri zan.

Bañan noiz-nai, pikotxian edo zutik, geldirik edo eziñegoniam, alaialdian edo naigabe-aldian agertzen zun bere-berezko egokitasun ta lerdentasuna. Izan ere Larreko gizaseme gazte ta egokia zan. Soiñez luze-antza, gerriz mea, garbirogo ikusteko bere bizkar zabalak eta bularralde sendoak. Belaun, iztar ta beso zaintsuak gaztearen indar-agertzalle garbiak ziran. Ondo ornitutako lepo gañean eta ille oridun buru artean, arta-puzka zirudian arpegi ondo-egin ta egokiena bazeukan.

Onek, bada, itzularazi zizkion begiak berarenganaño. Ta itzuliaz gero, ez zizkitzun iñora alda. Lilluratuta zegoan berari begira mugitzeke, txoria sugearen aurrean bezelaxe. Bañan ura bere ondamen bidea zan. Bigarren aldiz ostropo egin ta betirako galtzeko arkitzen zuan arri-konkorra zan.

* * *

Torrechica karabinerotxo bigotedunak besterik ustearren, Larreko zala-ta asia zan Doña Lucila panpoxatzen. Galdera aundirik egin gabe, apustuaren berri, apustularien bizitza ta apustu berriko gertakizunatzaz jabetzen laister asi zan. Bazter guztietan ta jende mordo guztietan besterik ez baizan entzuten. Onela jakin zituan Larreko, tzaz jakin-gogo zun guztia. Nun bizitzen zan; nundik-nora ibiltzen zale zan lan egunetan ta jai egunetan; ezkongai edo ezkondua zan; nun eta noiz biltzen zan bere lagunekin ta abar. Eta, noski, sendibarrutiko langatik atakak kentzen asi zan, ta tartetxo bat arrapatzen bere gogoko bidetik arturik.

Karabaineroen etxaurrean izketan ikusi genuanean ere bide on-

tatik abitu zan. Jakiñik zein ostatutan egunero-egunero biltzen ziran Larreko ta gañerantzekoak, eta zein ordutan biltzen ziran, ararauntz abitu zan. Ba-zekian ere Larreko etxetik zein bidetik etortzen zan, noiz etorri ta noiz joan. Antxen inguruan ikusten zuten geienean Larreko'k eta lagunak, batezere Borbollo bere adizkide ta auzokide-gaikaldetik bat eta bekaldetik bestea biziarren- alkarrekin bidearen erdia egin bai-zezaketean. Iturriotz auzorako bide gurutzean "Gautxori" agur egiñaz utzirik, biok alkarrekin joaten ziran aldi batean etxerakoan, kalerakoan bakoitza bere bidetik eta bakoitzak al zuanen etorriagatik.

Karabinerotox arroxkoak maiz apaindurik irtetzen ikusirik beraxegatik irtetzen zala zerizkion. Aldioro-aldioro bere zaletasunaren ur-tanta ixurtzen zuan Quitol'en emaztearen maitasun arri-gogorrean, bañan alperrik. Doña Lucila'ren maitasun-arria bigundu zezakean bakarra Larreko zan ta, beraz, Larreko'ren billa irtetzen zan.

Ta Larreko arkitzen zuan batzutan bidean. Aldiz ere joango ziztaion Irun, go ta Ernani'ko perira joan al izateko artu bear zuan beribilletara ere, bai periratu ere bein edo bein erosle zijoa aitzakiaz.

Asiera-asierako ikustaldietan begiratzea bakarrik egiten zuan. Gerora, agur egin.

—Zein degu emakume au —zioten.

—Karabinero baten andrea, itxuraz —batek.

—Bai, ala izango dek -besteak.

—Emakume bikaña! Bere arpegiaren xarmanta! Bere gorputzaren liraña!

—Ez ba-litz... dan bezelakoa: Gañera, jenero debekatua, kontrabandua!

—A, bai! Ta, noski, gu kontrabandistok bide batetik ibili bear, karabineroak bestetik... —zioten, Gautxori'k eta Borbollo'k.

—Dijoala, bada, dijoala orduan pakean. Larreko'k.

—Agur biar arte!

Au esanaz, Gautxori banatu zan iribidetan. Pixka bat ibili ondoren, orobat egin zuten Larreko'k eta Borbollo'k bakoitza bere etxera bidean ipiñirik.

Bañan len esan degun bezela, gerora agurka egiten ausartu zan. Ta doi-doi ikusten zutena maizago zuten aurrean ta, azkenean, esaera dan bezela, babarrunetan ere uraxe azaltzen zitzaien.

—Ba-dakizute agurlari azaltzen zaigula?

—Ta ba-dakizute oso alai ta xaloa darabilela gure aurrean?

—Ori batedonbaten billa zebillek.

—Ago ixilik, kirtenkerik esan gabe. Emakume ezkondu batek, orlakorik ote?

—Ez bear, baño...

—Ez gatxeudek oiturik karabineroen kontrabandua pasatzen. Or-konpon Maria Antxon! Lengoaz gañera naspil ori bear genikek. Utikan!

—Ia, bada, ia, denboraz jakingo al-diagu nor dun bere maitea. Kezkik ezin baigenikek izan guretako batedonbatengana txoraturik dagoala. Nor dan? Ez jakin. Egunak maixurik onenak...

Itxura ontako izketaldiak ia agunero izaten zituzten. Emakumea agurka ta arpegi alai ingurutik ibiltzen zitzaien. Iru adizkideok arkitzen zituan geienetan. Bere agurrak eta bere irripar gozoak gutxietsita, izketan biurtzeko zaleturik zegoan. Ba-zun gogo itzegiteko bere kutunarekin, bañan bakarka. Ausardi ba-zun irurak zirala itzegiteko ere, bañan ez zuan egiten olakorik. Egia zan bere irriparrak ta bere begiratu atsegiñaz nabarmentzen ari zitzaienta norentzako zaletutzen zan andre eder bezin txoralda aren biotza. Ta biotzaren taupadak bultzatuta bere billa asi zan, etxera bidean ezezik, peri bideetan, kirol irtereetan ta nora-nai zijoalarik. Beribillean, bultzian, ostatu bidean, meza ondorenean, arratsaldean ta eguardian, euri zanean ta eguzkik berotzean.

Bañan egun batez etxeko lanak Errenderi, raño joatea beartu zuten. Aita baso bateko egurrak saltzeko gogotan zegoan ta ontarako itz batzuk ere eginda bazituan. Uri ontan bere azken-itza eman bearrean zan ta bera xar-xamarra izaki bide luzeetan ibiltzeko. Zein egokien arazo ontarako bere Joxe, seme zarrena baño?

Argatik joanik zan bere eginbearrok betetzera. Guztia erabaki ondoren alde bien atsegiñaz, ba-zetorren itzulian etxeruntz. Giro ederra izaki, oñak ere bai onak eta beribillari itxoiten bear zuan aldian Oiartzun'era elduko zala iduriturik, urrats biziz ibilleran jarri zan. Emakumeak amaika milla demonioak berekin daramazkitela esan zuanak, gertu-xamarrean ibili zan. Erria baño lenago antxen topatu zuan gure mutilla egurazten zebillelarik. Ikusi ote zuan joaten? Ta ikusiaz geroz, oñez etorriko zala asmatu? Ez dakigu onenbeste. Dagi-

guna da onelako emakumeengandik beñere atarramendu onik ez da-
la izaten. Ta antxen zegoala, beintzat, arratsaldeko eguzki -urre-ja-
rioaz ille beltzak dris-dris; bere soin lerdena jantzi apain batean eba-
kia; bere espain-arro-marrubitsuak alaiki irripar batean zabaldurik,
ez dakit atsegin irriparrean edo griñari deika dagonaren irriparrean
edo biak batera izan litezken irripar biurrian.

Mutillaren etorreratzaz aguro asko jabetu ziran bere begi beltz
ederrak. Ixtar-masallak eragiñaz, begien leioak alaitasun dizdizeraz ta
espain gorriak xorgin-ederren limurkeriaz, inguratu zitzaion, esaka:

—Arratsalde on!

—Arratsalde on!

—Ibilkari e?

—Bai, zerbait.

—Zuretzat ez da nekerik.

—Ezetz? Ta zuk nolaz jakin ori.

—Aizkora apustua ezkeroz. Luze aski begira egon nintzaizun.
Nekerik ez zenun arat-onat ibiliagatik. Badakizu neroni ere ez nin-
tzala nekatu begira ta begira...

—Atsegin zitzaizun, orduan, jokoa. Ala obe.

—Txit atsegin, bai. Jokoa, jokalaria eta albokoak...

—Ala obe, ala obe. Ongi da, ongi da...

Mutillak egin zuan alako zea bere bideari jarraitzeko. Andreak,
oartuki, esan zion:

—Presaka zoaz. Zoaz bada pakean. Izena Larreko dezu ez da?

—Bai! Ta nolaz dakizu?

—A! Ori nere kolkorako daukat. Agian, esango dizut beste ba-
tean.

—Agur bada, andre, agur.

—Agur Larreko. Lagunekin zoazenean ere orixe esan naiko du
nere agurrak. Agur Larreko!

Onela aldendu ziran, bata bestearengandik. Emakumearen arpe-
gia pozez zan. Larreko, rena ez ainbestean. Arriturik zegoan ta, egia
esan, ez zuan izketaldi aren mamia edo zioa iñundik ere ikusten.
Eroaldiren bat eman ote zion edo andreari pensatzen zuan.

Urrengo egunean ere topatu zituan iru lagunak ostatutik etxera
bide. Bai beste urrengo egunetan ere. Bañan orain, betiko irripar go-
xoaz ta betiko agur atsegiñari bertsolariaren izena josten zion.

—Agur Larreko ta lagunak - otsegiten zuan.

Lenengo aldiz euzkal izen au borobildu zuanean ta Borbollo'k
eta Gautxori'k entzun, arriturik gelditu ziran. Larreko'ren begi ur-
diñak bere begiz jo, arpegiz arpegi jarri ta erdi-parrean, indar batek
akullututa bezela, bik batean esan zioten:

—Aizak i! I zer abil?

—Ni, ezer ez!

—Ta nolatan zekik orrek ire izena?

—Zuek añian zekiat.

—Ago ixilik. Etzekiagu i ere kontrabandoan ez ote aizen asi.
Ireak, ikusten diagunez, gureak ez bestelakoak dituk. Ba-ago bai i
porru-perrejil xorta ederra!

—Egiz diozutet. Aditu...

Orduan edestu zien Larreko'k lagunei bezperan gertatutakoa, itzik
aldatu gabe. Sinistu zioten egia ziola, arriturik gelditu ba-ziran ere.
Nolanai ere andik aurrera ba-zuten zerekin illea artu. Ta txantxetan
bost bider bai esaten zioten:

—Beraz, karabineroen adizkide,e? Esaten genian guretako baten-
gana zaleturik egongo zala andretxo lirain ori. Ta i izan Larreko, gu-
re adizkiderik onena. Beti zaiok on kontrabandistei karabineroen adiz-
kideen adizkide izatia...

Gure mutilla eraman aundikoa izaki ta txantxan ere jarraitzen
zuan. Ta onela, algara ta parra izaten zuten etxeko lanak eta aizkora
apustuak eman tartean.

Astelen arratsalde euritsu artan Irun'go perira joanik, beribilla
barruan exerita zegoan Larreko eguraldiari begira. Euria suillaka zan
ta irundarrak laisterka igarotzen ziran bere lanetik etxerakoan. Lais-
ter abitu zuan beribillak Oiartzun alderuntz, eta beste lanik ez
da, euriak kristaletan uzten zuan lañoa eskuaz kenduta jolasa ba-zun
laisterkari aien joera guztiak begiratuaz. Ain zabarturik zegoan bere
exerlekuan, ez bai-zan konturatu ere aldamenen batedonbat jartzen
zitzaiola. Itzezin bear izandu zion beretara etorri zedin. Aldamene-
ratu zitzaiona Quitol'en emazte panpoxa besterik ez zan. Eztiz bete-
tako irriparren artean, esan zion:

—Arratsalde on Larreko. Ikusgarri asko dabil ortik orren zoratu-
rik egoteko.

Orduan itzuli zuan burua Larreko'k eta nor zan ikusi. Ez zun

pensatzen ere ura an ikustia ta arriturik gelditu zan. Arritasun au ez-tali eziñik, erantzun zion :

—Oi! Zu al ziñan, andre? Arratsalde on...

—Ez zenun ni emen ikusterik uste, ez da?

—Egia esan, ez. Bañan emen zaude...

—Emen nago. Ez al dizut ostroporik egingo, bestela...

—Ez, ez, egon zindezke.

Beriala, beribilla kurrunkan asi zan ta euri zaparradak ipintzen zuan sarebustia urratuaz, Oiartzun alderuntz jo zuan. Gure bikoteak aldi bateko ixilla izan zuten. Andrea, batezere itzegin zale zan, orduan iñoiz baño geiago, Ziur aski egokiera ura berak aspalditik billatzen zebillena zan. Zaindu zituan aspaldian mutillaren ibillerak eta perira joaten zala jakiñik, araruntz jo zuan berak ere. Itzegin bearra zuan. Itzegin ta bai bere asmoak garbixeago azaldu. Bañan, berarentzat, mutil ura egokia bezin ixilla zan. Nork atera ari itzik? Ba-zuan bai aditzera euzkal menditarrak itzak urrea baño obeki gordeago edukitzen ba-zekitelata. Ta egiz ala zan. Mingañetik tiratzen ez ba-zion ez zitzaion itzik ere irtengo. Beraz, berak itzegin bearra zuan. Ta mintzatu zitzaion.

—Peri ona izan al da?

—Ainbestekoa.

—Zer? Aixkorak erosten apustu berrirako?

—Apusturik bai al-da? Nik ez dakit deus.

—Ba-dakizu ta ez gutxi. Ni ez nazu euzkalduna ta ba-dakit. Erri guztiak daki ta zaleturik dago ala izan dedin. Ni ere bai...

—Nolaz, gauz oietzaz ezer ez baldin ba-dakizu?

—Dakidana da, an inguruan batedonbat ibiltzen dala. Ta ori nor dan ba-zeneki...?

—Ez dakit bada.

—Etixerako izan gor nunbait. Nik bai ez dakitela zure izenaren esatea.

—Larreko itzak mendikoa esan nai du. Goi-mendietako belar gozoa dagon alderdi basakoa.

—Ardia ba-nintz mendiruntz igoko nintzake. Mendikoa izan nai nuke, larrekoa. Mendian giroaren ederra! Antxen txastatu nituzke belar-kixkur-gizenak; antxen elikatuko nintzake ta pozez bizi. Larrean, pozean, azkatasunean. Ta emakume naizelarik, mendikoa ere

izan nai nuke. Mendi-larreko Larreko'rena... bai pozik izan nintetekeala bere inguruan beti, bere edertasun ta maitasun giroaz aseturik.

—Larra, baño, azke dan ardiarentzat izan liteke ez arditegian loturik dagonarentzat. Esi gogorrek dauzkatzu aurrez-aurre...

—Ez dakit esi orren berri.

—Zure senarra.

—Maitasunarentzat ez da esirik. Nik zu maite zaitut.

—Zaude ixilik Jaungoikoa'gatik, edozeiñek adituta ere. Zer esango luke zure senarrak zer diozun ba-leki.

—Bost ajola. Ez det maite.

Au esatean beruntz begiratu zuan. Ba-zirudian oldozmenetan zebillela bere burua. Bañan, berialaxe, burua altxa ta beribilleko gutiei begiratu ondoren, len baño adoretuago berritatu zion :

—Ez, ez det maite. Iñoiz ba-zeritzaidan maite nuala bañan ez det beñere maite izandu. Ezagutu berria naiz egiz maite, oso-osorik maite dedan gizona. Berea naiz... berak nai ba-du.

Larreko ixilik gelditu zan, txundituta. Ulerkaitz zeritzaion andre panpox arek zabaldu ziona. Ez zekian zer esan, zer pentsa. Etzekian zer egin ere. Ezkerrak Oiartzun laister zala. Espetxetik ateratzen dan gizona zirudian beribilletik irtetzean. Arnas betea artzen zuan. Alare, emakume txorabiatzalle ark zemaion agurrarentzat izan zuan berea. Ustegabekoa, konturagabekoa. Ez bai-zan konturatu ere, agur egiterakoan, andrearen eskuak bereak loturik zeuzkala.

Etixeratzekoan, mutillak ba-zun burua nun neka. Bere oldozmen oietan suntsiturik, ez zitzaion ostatura sartzea oroitu ere. Bere bidean zihoan, bere oroitzetan, bere oldozmenetan, bere burutapenetan.

Emakumearen arrigarria! Emakumearen ausarta! Senarra, sendia ta dana itzulipurdikaturik bere oiñetan jartzen zitzaion otsein. Arrigarria ote andre ura? Edo bera ez-ikusia ta ez-jakiña? Eztabaida au zerabilkin biotz barruan. Izan ere ez zegoan onelako gauzak esaten ta ikusten oitua. Bera menditarrá izan. Ta mendian aize garbia bezela, esaera garbiak eta izaera garbia ikusi izan zituan. Gauz txarretarako ez zuan arkitu iñoiz tokirik bere barruan. Ez eta ere maitasunerako. Aren begiak ez ziran egundaino emakume baten soiñean gelditu ta, gutxiago, luze iraun. Orain, berriz, emakume ezkondua loxintzaz zertorkion. Bañan, zein emakume. Eder, polit, egoki ta alaia!

Borbollo ta Gautxori'rekin izandeko txantxak orain pensatzen jartzean illunagoak zeritzaizkion. Jostaketik ez zegoan an.

Etxe ingurura ari zan urbiltzen. Urruti gabe ba-zan errekatxo bat udaran negar pitin bat bakarrik ekartzen zuana. Bañan egun artan, euriaren indarrez burrundaran zetorren. Larreko bere pentsamentutan suntsiturik, belaunetarañoko uretan sartu zan. Ez esnatu baño. Bere barruan, kristau ta gizatasunaren deiak nabaitzen zituan. Bañan gizonak gerez dakarkigun grin txarrak ere oiuka zitun, ta aurre-ra bultzaarazi nai.

Au guztia emakume bat tarteko zalako. Ardi galdua. Bere biotzeko gau illun artan ardi billa irten ezkeroz artzaia betirako gal zitekean.

VIII

“JOXE MARI”, NEAN

Eguardi inguru zan ta “mostradore” aurrean edaleak ugariak ikusten ziran. Apadaoretan zutik zeuden edari botella aukeratuak, atzeko ixpilluan drisdri agertzen ziran. Mostradore atzean, nagusia, txamar zuri garbi batez jantzia, naiko lanez ba-zebillen egarriz agertzen ziran guziei txikitoak ateratzen.

Ardo txuriak urrez betetzen zitun mostradore gañean edanontziak, ardo gorriak, herriz, odol garbi dizdirakorraz. Naasian, azpil zabaletan txotxetan sartutako zenbait janari goxo gogoaren esnagarri ikusten ziran, mostradore gaña margotuaz sukaldariak asmatutako margo ta quadro bizi usaitu xuxpergarriaz. Edanik talde batzuk irtetzen ba-ziran, bai beste batzuk ere sartu ta eskatu :

—Nagusi, bete zortzi txuri.

—Beriala.

Ikusgarritzko errenkada luzean ikusten ziran baxo utsen gañean, uso zebiltzan botellak ixurika. Eskatutakoak bete ta mostradore busti gañean irrist bidaltzen zitun txikitoak eskaleengana, irristalariak izotzetan baño arego.

Edariak mingañoak arindu ta luzatu. Danak ba-zuten zer esana. Kirolak, politika, irabazpideak, etxeakoak, kanpokoak, Donosti'koak, Ameriketakoak ere aotan zebilzkiten. Sortzen zan mar-marra ez zan nolanaikoa ta millaka erleen egaketaren otsa ba-zirudian. Tarteka ere, aopekotan benik, eguardi zalako ta gaberago eztarria gordetzeagatik, kanta bat edo beste kantatzen zan.

“Quisiera ser alcalde
Donostiya’kua
daría yo a los pobres la, ra, la
patarra naikoa, ai, ai, ai
daría yo a los pobres la, ra, la
patarra naikoa”.

Ta berriro marmarra, erle soñua, itz-ixurkia. Arpegi alai aiek, margoz ta itxaropen betekoak, begiratu neurrigabekoak, ikuskizun zabalekoak, españetan zerabilkitenean abestia egiz, asmoz eta gogoz kantatzen zuten. Izan ere txikitoen garaia, alaitasunaren garaia zan, biotz-zabaltze garaia. Orduantxe dago biotza ere poz. Edariak ba-du neurri bat goragarria dana. Dan-dana garbi, dana biotz, dana zabal ikusarazitzen duna. Gozamen oson dago orduantxe ta itxuskerirako ta gaiztakerirako begirik ez ditu. Gozamen, alaitasun ontan berak bezela ikusi nai ditu bazterretan dabilizan beartsu ta arloteak baxoerdi batek eskeintzen dien zoraldia ar eziñik. Ta asmo ori, gogo ori, irudi ori gogorarazitzen dion abestia entzun ordukoxe itz-jario da, leialki ustea izatean biurtu bai-lezakean. Ta bein itz ta pitz asi ezkeroz, bere biotzaren ibar zabaletan barratuko da bere jardunaldia, ustegabeko tokietara iritxirik, oraingo ontan gure begi aurrean dakusgun txikitozale batzuok bezela.

—Orixe bai kanta! Jabetzen al aiz orren zea guztia?

—Bai gizona, bai. Alkate izan nai nitek ere nik.

—Nik ere bai. Xox baten jabe ez diranei ludiko poz zabalena emateko. Izan ere ardoa dek atsegin aundi ta luzeena lurtarrontzat. Ardoa dek aurtxoan indargarri, gazteen sasoigarri, gaxoen xuxpergarri, zaarren bizigarri, ez il bai il dabilzanentzat piztugarri.

—Bai, egiz abil. Bere neurrian ardoa atsegin osoa dek, alaitasuna, goxotazuna, amets ezta. Ardoa dek naigabeen aaztutzia, samintasunen eztagarria. Ardoa dek zeruko lañoak lurrera darioten antziñako “mana” zoragarria. Onexegatik, ba-diagu elkartasun bat emen zurrutian gaudenok. Ziur natxiok emen gauden guztiok alkate izan nai diagula gure poza beartsu guztiei itsatsi al izateko, itsatsi al ba-ledi. Eta ez bakarrik emen gaudenok, baizik euzkaldun guztion naia izango dek.

—Txikitoen oitura au euzkaldunok degun oiturarik onena dek.

—Onena, onena, orrenbeste ez nitek esango. Onenetakoa agian...

—Onena ezetz? Oituretan ederragorik ikusten al dek?

—Sagardotegia dek billerarik onena.

—Ago ixilik, olakorik esan gabe.

—Zer dala-ta ixilik egon? Sagardotegiko txolartea euzkaldunen biotza. Ez adi aaztu aspaldi batean euzkaldunoi erbestekoak “sagarduas” esaten zigutela. Egiaren urren esaera au dagola ezin uka. Sagardotegian nabari izaten dek ongien euzkal lurrik jatorra; gure sagastietako sagarren usai gazi-gozoa; basetxetako txillar ta garo meten usai meea; gure oitura jatorren iturria, gure abesti ederren batzokia ta gure euzkera eder-maitagarria nagusi erabiltzen dan “Parlamentoa” izan dek gure sagardotegia.

—Emen ere nabaitzen dek mendi usaia, euzkera ta euzkal abestia. Ez ote zan atsegiña abesti ori?

—Bai, baño ez. Atsegiña dek, bañan erdizka, titia euzkeraz artu degunontzat, beñepein. Erdizka bai-dik mendi usaia, erdizka abestia ta euzkera. Bañan ago ixilik. Beste abesti bat kantatzera ba-ziazatik ta entzun akiogun.

Ardo kupel zar baten inguruan, edanontzi ta azpiltxo ondo ornitutakoen inguruan bildurik zeuden talde batekoak, ekin zioten abestiari. Bigarren arnasaldi oraindik emateko ziralarik, ardandegiko guztiak akullu batez zulatuta bezela, lagundu izan zioten gogo ta ao batez.

“Aquí estamos los “barbis”
que los fules ya se han ido
les hemos “dao” la patada
porque no les gusta el vino.
Lo que no les gusta a esos
es el gastarse los cuartos
y se gastan cinco reales
a la entrada de los campos”.

Entzun al dek ongi? Lenengoan euzkera ta erdera naasian. Bigarrenean erdera utsa. Abesti alaia dala, nork uka. Ederra dala otz-otz. Ezin uka, bañan, txikitoen oiturak poliki-poliki erdera sartzen digula gure oituretan. Ezin, beraz, arkitu iñolaz emen sagardotegiko jatorrasuna. Sagardotegia gure-gurea dek; beste oitura au ez natxiok oso

ziur. Gure sagardotegiko patxara, gure asabek zugaitz-kerizpe-batzarretan oi zuten patxara jatorra. Patxara jakintsu, egizalea. Euzkeraz jaio, bizi ta iltzekoa. Euzkeraz ere erabakitzekoa. Sagardotegiak itxizten dijoazen bezela euzkera ere amilbera. Beraz, lengo esanera, oitura ona bai txikitozaleena, baño ez... ainbestekoa.

—Atseginaldi onek lenagoko patxararik ez dula egia, egia. Egia dan bezela gure oitura bat dala. Larria, eziñegona ta bizi-naia dakarzkiguten egun oietan ezin izan antziñan bezela...

—Ori ere alaxe izaki. Lenago, edozeiñek, etorkizun lasaiagoa ikusten zian ta gogo aundirik ere ez ibillera zoroetan bere burua arrixkatzeko. Onegatik, zerua zeritzaioteken sagardotegiko patxara. Alare, sagardotegi batetik bestera doi-doi mugitzen ziranak ba-itukan, sagardo berriak, giro berriak, jolasaldi berriak arki nairik. Ontatik ba-letorkek “txikiteoan” ibiltzeko oraingo oitura au. Orretzaz gañera Euzkal-Erriak aurrerapen aundiak egin dizkik langintzetan, teknika ta negozio guztiei buruz. Gaur, ala bearturik, geiago mugitzen dek txanpon bat legez irabazi al izateko, ta askotan legerik gabe ere. Larri oneri begiraturik ez zegok guztiz gaizki.

Lenago, sagardotegian, edan, ipuiketan ta abesten jarduntzen giñukan. Exerita edaten genian. Orain zutik edaten diagu, baita abestu, ipuiak esan, ta lenago ainbeste egiten ez geniana eztabaida milla sortzen dizkiagu, ta baita ere, sarri, negozioak antolatu ere. Ura jatorragoa zala, euzkaldunagoa, bai. Al egiñik ura iraunarazi bear, lenen. Bañan bide oni eutsi eziñik gertatuko ba-giña, oraingo oitura berri oni eutsiko genioke, berarekin gure erriarenganako maitasuna zabaldu al ba-geneza, gure oituren galtzea galeraziko ba-genu, gure izkuntzaren ederra españetan esnaraziko ba-genu.

—Euzkeldunen izateari ba-dagokio oitura onek, goazen berarekin. Sagardotegiko giroa garbigoa dala? Konforme! Bañan gaurko aurrerapenak bide ontatik bultzatzen ba-gaitu ez dezaiogun muxin egin, goazen bide berritik. Txikiteroak deitzen zigutek kanpoan. Ez dan bezela oitura ain traketsa...

—Ez, bañan sagardo giroa nagusien.

Nagusiarri txalo joaz:

—Nagusi, beste errenkada bat, oni paperean idatzi bitartean sagardotegiaren nagusitza...

Ontziak bete baño lenago batedonbat asi zan kantari:

“Montañas de Guipúzcoa
paisajes de esplendor
os canto en mi zortziko
con toda mi alma y el corazón...”

Ardoa-ontzia españetan erabilli ondoren, lengoak lengo ariari jarrai nairik, ekin zion izketari onelaxe:

—Esandakoa garbi dago ta...

—Or geldirik, adizkide! Alda dezagun itza. Zer derizkiotzue bilbotarrak ostiko jokoan?

—Yayoak! Meritu aundia dala bizkaitarrak bakarrik erabiltzea taldean.

—Ta beste gauza, irabaztia. Bañan donostiarrak ere, ez pentsa, aberatsak ez diralarik ba-dituk zerbait.

—Bai, noski. Ikasbide ederra euzkaldunak ba-damaioгу ludiko bazter guztietatik diruz jokalaririk ekarri naiean dabiltzanei.

—Ori, euzkaldunak ain gutxi geraldarik. Ta ain banatuak...

—Norbait ba-dabil azpi-lanean alkaturik izan ez gaitezen. Kata-luña'k bere “Federazioa” ba-du, Levante'k era bai, ta besteak ere. Gu, berriz, gipuzkoarrok xoillik emendik, bizkaitarrak bakarrik andik, gañerantzeko euzkaldun kiroltzaleak zakurren arkakosoak baño tirtirikuagoak.

—Ta alare, naiko lan ematen txirringan, estropadetan, ostikoketan ta abar. Ori ezer esan gabe gure arrijasotzalleetzaz, segalariatzaz, aizkolariatzaz...

—Aizkolariak aitatu dekan ezkeroz, zertan degu “Muñoluzea” ta “Patxikorena” arteko apustua?

—Nere iritziz utsean. Urrutiko intxaurrak soñua...

—Ba-ziotek bada milla gauz izparringiak...

—Esan bai. Batean baietz, bestean ezetz. Gaur geiago dala bat, biar bestea. Señaliak bota dituztela. Ez dituztela bota ere bai. Nork jakin?

—Dana gezurra, orduan?

—Asmatu bear dik, alazankoa, ainbeste gauz!

—Oi! Izparlariok asmatuko ez lutekena bai al zio?

—Egi dek ori. Asmamen gizonak dituk. Bañan orrenbesteraño gezur esatia ere gaitz dek sinisten.

—Ez dezute, bada, apustu ori ikusiko. Lepoa jarriko nuke ain maitea ez ba-nu.

—Ez geiegi aurreratu, adizkide. Axariak baldin ba-dira izparlariak, mutillak dira ere apustularien batzar nagusikoak. Erbiaren saltoa azkar egingo dizute gero oiek...

—Oraingo ontan, bai zera...

—Bai zera? Osoa aitatu, osoa azaldu. Begira zeintzuk datozten.

Arpegia itzuli zutenean mostradore aurreko gure izlariok, barruan ikusten ziran Baztan'go Indianoa ta Etxeleku'ren gorputz aundi mardulak. Bañan ez zetozen bakarrik. Bere atzetik, egun onak emanaz sartu ziran ere "Argiñanea" basetxeko nagusia ta "Patsikorena" bere adizkide min ta trebea zan "Lekarotz"ekin.

—Nortzuk dituk bada oiek?

—Gazte jator ta umil ori dek Patxikorena aizkolaria, len ik aitatutakoa. Besteak bere adizkide ta zuzendariak, noski. Esaten ziteken bai, gaur zirala erabakitzeke, ta itxuraz ez dek gezurra.

—Ik ala uste?

—Kezkik gabe. Alper ibilleretan ez dituk oiek ibiltzen. Ara, komedorea zijoaztik. Luzatu gabe baietz azaldu besteak ere...

Bai ala gertatu ere. Minutu asko baño lenago antxen sartzen ziran oiartzuarrak. "Letrax" aurretik, egun on alaiak danei barraturik, Gero, Arritxabalaga "amerikanoa" txilborreko erleju, kate ta guzti, bere soin zabala baño zabalagoko par gozoaz. Atzetik, ardi galduak bezela, Epelde sakristaua bere arpegi gozo-paketsuaz ta, atzeraxeago, ixkindoiako azken ollaskoak baño umillago, bere izketa arduragabe koan, oiartzuar aizkolari gaztea ta onen adizkiderik egiazkoena, gure Larreko.

—Aizak, lepoa burua jasotzeko dek. Al ba-dek dirurik ez jarri apustuan. Ikusten dekanaz, are gutxiago lepoa...

Lepa-zintzura igurtziaz, txantxa bizian, bere lagunak erantzun zion.

—Lepoa ederki galdurik nian, bai ederki galdua. Ta or sartu dan jende orrek zortzi arrobako ollaskoa ezur ta guzti jateko iñoren beldurrik ez. Beraz, goazen bada, badaezpada "Sport"era azken-aurreko baxoerdia muxtatzer. (Ta tabernariari) Nagusi, zenbat degu zor?

—Ainbeste.

—Tori bada ta illunabarraraño. Etorriko gatzazu oien erabakien berri jakitera. Agur, danei.

—Nai dezuteneño! Agur!

Taldeak artu zuan atera bidea. Bañan, atera baño len, ate kirtenari elduta artean zeudelarik, ongi jantzitako gazte bat sartu zan.

—Kaixo Txaboleta! —esan zioten, bizi-bizi, irtetzera zijoaztenak.

—Kaixo, jaunak! Zer, zuriketana?

—Itxuraz. Igeltzero bihurturik gabiltzazkizu. Ta zu zer? Or, barru ortan dauden oiek zuritu edo larrutzer al zatoz?

—Ja, ja, ja! Orren gaizto jotzen nazute? Iñor zuritu ta larrutzen al det bada? Paper zuriak zipriztin beltzez bete ezkeror ortxen nunbait nabillena naiz?

—Ta bestela izanda ere, guri zer?

—Villabona'koak ote zerate orrenbeste arpa jotzeko?

—Donostiarrak, donostiar kaxkariñak.

—Aaaa! Gaitzerdi! Zoazte, abi, zuen musikarekin. Agur!

—Agur, ongi izan.

Izparlariak oinkada zuzenak eman zitun komedorearuntz. Basotxit ezagunean dabillen eiztaria zan nunbait. Onen abiada ikusirik, kalerako zan taldeko batek, txantxa zaparradean, onela itzegin zuan:

—Ba-zijoakiek falta zana: Txaboleta jauna!

* * *

Oiartzuarrak komedorean sartu ziradenian, ostatuko neskamearekin lesakarrak izketa bizian ari ziran. Izketaren tankerari buruz erritarrak edo txit ezagunak zirala ikusten zan. Ala iduritu zitzaion, beintzat, oiartzuarrei jan-gela txukunean sartu orduko. Ta izan ere ala zan. Neskame, neskatx polit ura lesakarra zan. Ta ezagun zaigun Jaxanton'en arreba. Eukal baserriko lege zarrei amor emanaz etxetik aterea. Batetik, senide guztientzat tokirik ez da, bide emanaz, ta bestetik, bere lanaz ta bere nekeaz gaur edo biarko emakume langille ta etxe koandre maratz izateko ikasten.

Esan ere esan bearrik ez dago beren basauri-koxkor artako aspalidiko gora-berak kontatzen ari zirala, ta batezere neskatxa ta bere anai Joxanton'en etxe ko berriak ematen. Arriturik bai-zegoan neskatxa

gazte ura, aiekin bere anai zarra ez ikustearekin. Bañan, garbi azaldu zioten ez zala onelakorik etxean gaitzez zebiltzalako, baizik anaia etxean lan askoz zebillelako zala.

—Emen ditugu gure oiartzuarrak —zuzendu zion Indianoa'k nes-kameari, oarzale, bere eginkizunak zuzendu zitzen.

—Ok al ditugu? Mai luze ontan ar zazute toki-esan zion neska-meak, beatzaz tokia bereziturik.

Toki au, jan-gelako mairik luzeena zan. Azpil eta ontzi, zapi eta beste, toki-tokitan alde-zurretik ipiñirik zeuden. Lorontzi ta apaindurik ez zan geiegi, bañan azpil-saillak mauka oneko bazkaria emango zala adierazten zun. Maiak ezezik, gela-ormak ere ez zeuken zintzilik apainduri geiegi, ari buru bat eta doi-doi jan-gaiz kuadro batzuk baizik. Dana apala, dana umilla, dana baserri usai ta giroa zekarrena.

—Zer jango dezute? —galdetu zien, neskatxak, oitxanki begiratuaz.

—Bada... Zaude alditxo bat, Txaboleta izparlaria ba-datorkigu ta...

—Kaixo gizonak!

—Kaixo Txaboleta!

Garai ederra.

—Ezin bestez ohea. Oraintxe genun neskamea zer nai genun galdezka. Aukera zedorrek gaurko gure bazkari legea.

—Nik aukera bear al det? —galdetu zun Txaboleta'k. Ta berialaxe, erantzunaren zai egon gabe— Eska dezala Epelde jaunak. Eleiz-gizon aukeratu ez dira motelenak-eta janari goxoak aukeratzen.

—Ia, bada, gazte. Argizkilla ezkeroz lanean ta gosean nabilzuesan zion sakristauak— Dakarkiguzu, oraingoz, zerbait xuxpertu gaitezen, ollo salda bero ederra txitxi kazkarrez betia. Bitartean ikusi dezadan ta aukeratu, dakarkidazu eskuan daukazun txarteltxo ori. Arrayua! Ba-dago emen zer aukera!

Neskatxa sukaldaruntz joan zan ta gure gizonak izendututako maiean jarri ziran. Ez bañan bereziturik erri batekoak eta bestekoak, baizik naasirik. Baztan, go Indianoa ta Oiartzun'go "amerikanoa" alboz-albo jarri ziran, bazkari luzean Pampa, tako gertaerak eta bizimaña berritortzeko edo; orobat Etxaleku ta Argiñanea lesakar nekazariak Epelde sakristauarekin; Patxikorena, Muñoluzea, Lekarotz

eta Larreko gazteak ondoz-ondo, ta mai buruan Txaboleta izparlaria, alboan Letrax itzontzia, beraren iritiz ala zegokiolako.

Ollo salda ekarri ta nexkatxak mai gañean laga zuan, nork-berak bere gogo neurrian artu zezan. Ala egin zuten. Otoitz egin ta ekin zioten. Ez batek, baño. Larreko'k zerbaiten eza nabaitu zuan ta otsegin zion neskatxari.

—Aizu... itz-motx gelditu zan mutilla, aurrean zeukan aingeru polita ikusirik.

—Zerbait nai zenun ala? —galdetu zion apalki, neskatxak, lora-gorri biurturik.

—Bai, zerbait, bai... —borbolloka esan zion mutillak, aora zetorkiona jaiotzean itorik. Bañan, berialaxe, barruan nabaitutako zarrada ura nabari ez ba-lu bezela, jarraitu zuan— Bai, kutxarea.

Itzok bakarrik egin izan zituzuten. Baña itzok, edo itz oietaz naasturik nabaitu izan zuten keñu izpia, edo itzaren larritzea edo igartzeak, sortu zun gazte bi aien artean alkarrenganako zaletasuna, alkarrenganako begirapena, alkarrenganako zea, guk euzkaldunok esaten degun zea zer dan argitzen ez ba-dakigu ere.

Une artatik neskatxaren eginbear bakarra ez zan jana maieratzea, mutillarena ez zan bezela neskamiak zekarzkian janariak aoratzea. Baten eta besteen begiak lanean ziarduten. Lan berean, alkar begiz topatzen. Ta beren mingañak ez zuten itzik ematen. Bere biotzak, bañan, itza uraparra zekarten ur-erortze batean bezela bazter guztiak gainberatuz, ezezagunaren arkaitz lakarra bigunduaz, gogo ezaren sasi-moltzo arantzaduna eztairik eta ezezko esi oiek joaz, zeruko ur-tanta xeenetan bañan ongarrienetan eroririk, euri-jasa ixillean, irri-par-goxo, begiratu xamur, gorritze deigarrik, ixiltze izlarik, igitze ernagarriz betetako euri-jasa xeean.

Iñundik ere euri-jasa ixil ura, maitasun baratza beratu, berotu ta gozatu bear zun ixurkia zan. Berak, biak ustegabea, konturatu gabe, itzik esan gabe, alboko adizkideak oartzeke, bere biotzeko baratza zabala gerturik zeukaten etorkizunerako. Bai al-zekian igalirik emango zunik? Ez, noski. Maitatzen aasten zirala ere oartzen ez ba-ziran, ezin igalirik ikusi begi aurrean. Maitasunak ez ditu begiak; maitasunak entzumena du ta zerbait entzun ezkeroz otsaren atzetik dioa itxu-itxuan, nora jakin gabetanik, zorionera ala zorigaitzaraño elduko dan jakin gabetanik. Gure bikotea, bide ortatik ba-zijoan nora-ezean...

Bañan ango bazkaldarrak ba-zuten zer esana, gazte oien maitasun esnatzeaz oartu ta jaramonik egin gabe. Bazkaria luze-xamarra zan ta ongi ornitua, gure jale izenari dagokion bezelakoxea. Bazkari eder, aundia. Sei edo zaspai janari mota, zein baño zein obeagoak. Maitasun zartadaz zulatuta gelditu diranei begira, ez ditugu ikusi zertzuk ziran.

Bazkan ari bitartean, amaika gauz azpikoz-gora jiratu ta amabi esan egin digute. Bañan, bearrezkoena, alegia ara bultzatu arazitako zioa, batzuk eta bestek, azkenerako lagatzen dute. Bazkal ostean, txokor eder bat erreaz ta kopatxo bat edanaz, biotza alaiago egoten da txit. Orduan, garairik onena da auzi guztiak zuzentzeko; orduan erabakitzen dira gauzak zabalago.

Bazkari ondorena luzatuko zan arratsalde erdiraño Txaboleta'k bere eginbearretara joan bear zualako, esan ez ba-lu, txokorrari ke purrustada bat kendurik eta alde bietako jauntxoei begiratuta:

—Ba-dakizute zertara etorriak geran. Atsegin al zaizue bertatik gauzak erabakitzea?

—Goazen'bada — batzuk esan zuten.

—Ezkontza ta buzkantza, berorik— besteak.

—Orduan zenbat diru dezute jokorako? —galdetu zun Txaboleta'k.

—Bost milla duro, bai-esan zun, erritarrei begiraturik, Arritxabalaga'k.

—Amar millaño ba-ditugu gure aldean-erantzuan zion, Baztan'go amerika noak.

—Egiña. Ez gaude gu ere exkax gelditzeko asmoz.

—Egiña dago —esan zuan Txaboleta'k— Bai al du iñork beste zerbait esateko? Letrax altxa zan, ta itzaldi bat eman nai ba-lukean, mintzatu zan:

—Jaunak. Amaika zer esana ba-dago aspaldi ontan gai onetzaz. Bat geiago dala ta bestea geiago dala. Ongi al deritzaizue joko baka-rrik, erakustallerik gabe egin dezaten, botillerorik gabe, alegia, ia nor dan nor?

—Guregatik ez dago ezetzik —naparrak erantzun zioten.

—Ederki! Ta, noiz? Ori ez dezute garbitu... —Txaboleta'k.

—Gaurtik iru illabetera, ongi ba-deritzaie jaun auei —esan zuten naparrak.

—Konforme? —galdetu zun izparlariak astiro-astiro ta banan-banane danei begiraturik.

—Konforme; —erantzun zioten, batetsu, maikide guztiak.

Txamarrean artarako zekarzkian orritxo batzuk atera zitun, zabaldu zituan mai gañean ta idaztortza goi-sakeletik eskuratuaz, idazten jarri zan. Agiria bukatua izan zanean, alde bakoitzetik bik izenpetu zuten. Señaliak, ostatu nagusien eskutan lagata Txaboleta jauna arpegi alai irten zan. Ba-zun egun batzutako zer idatzia.

Naparrak irten ziran urren. Azkenean oiartzuarrak. Bañan oietan izan zan bat azken-azken irten zana. Ura Larreko zan. Ontzi biltzen ari zan neskatarangana urbildu zan. Bazkariaren onak ausardi pixka bat eman zion, bestela ez bai-zan ausartuko. Basokoa zan ta basotar guztiak bezela lotsatia. Alare, itz dar-daraz, osatu zituan itzok:

—Agur, gazte! Azkenengoz ez nazu onera etorri, noski... Agur!

—Esan... esan dezu. Gogo izango dezun arteraño... Agur!

Gorriaren-gorritz arpegira zetorkion lotsa ez tali nairik, ontziak artu ta sukaldaruntz abitu zan. Sukaldari gizenak, zerbait-zerbait oarturik, keñu biurri bat egiñik, ala esan zion:

—Edurne! Maitasun eguzkia arpegian dakartzula esango nizuke...

—Lelokerik ez esan. Or dagon beroa ta kea...

Bañan biotz artan, erne zan zerbait berak ere asmatzen ez zuna. Irten berriaren mutil gaztearenean bezelaxe. Maitasuna, lapur-eskalea bezela ate joka sartzen da; atea iriki ezkeroz nagusi egin ere bai.

KUKUAK KANTATZEN DU

Ez baldin ba-zuten, bada, zer esana urrengo eguneko izparringiak. “Azkenean apustua egin”, zioten idazpurutzaz eta izki aundienaz. Idaz-barruan, berriz, irakurtzen ziran onelakoxe esanaldiak: “Askok uste ez ba-zuten ere atzo egin zuten apustua naparrak eta gipuzkoarrak, aiek Patxikorena’reñ alde ta ok oiartzuar Muñoluzea’reñ alde, noski. Amarna milla duro aurreratuak dituzte alde bakoitzetik. Beraz, gauza aurrera dijoa ta zer esana sortuko da. Apustua zerratu-takoan bertan giñan ta alde bietakoekin itzegiñak gera. Gaurkoan’bañan, itz bi bakarrik; ez daudela bata besteen nagusitza aitortzeko. Urrengo egunetan, bañan, ta astiro-astiro, joango gera zenbait ixil-kako izparrak irakurleoi ematen. Poztu zaitezte bada, euzkal kirol-tzaleak, oraingo apustu onek txinpartak aterako bai-titu aldi luzean”.

Esan bezela, izparlariak astindu zituzten etxe bazterrean gordeta zeuden zatar guztiak, eta poliki-poliki, auzokoak ikusi zituzten zabaldu zituzten lau aizetara. Batzutan egiak ziran, iturri onekoak; beste batzutan, ongi zeritzaiotenean, jendeak mar-marka zebilzkien gezur esaerak aizetzen zituzten; ta zenbait aldiz, besterik ez —da, berak asmatutakoak ere argitara ematen zituzten.

Izparringia indar aundia da gaur-egunotan. Naia, opa ta ametsen biotza da. Ta biotza dan ezkeroz, gogoaren odola garbitu-ta gogoa jartzen du ibilleran, ekintzan, izatean. Ta ekintz ori, bazter guztietara barreiatzen da gure izatea nabarmenduaz ta gure iritzia berezituaz. Eta ez arritu urrengo egunetan izparringiak ibili izan zituzten maxio ta itzak jendea ez berotzea. Guzti-guztiak artu zituzten bere asmo ta iritzia. Zein zeinen alde jartzen asi ziran, ta nor noren aurka. Izparringien esanetara bere asmo ta iritzia sendotzen zijoazten ta besterik

ez zuten aotan, bere apustua baizik. Txanpon batzuk ba-zijoazten jokatzten ta irrika bizian zeuden apustu eguna etorri zedin Bañan egun au etorri arteraño leiatzen ziran ardandegietan, sagardotegietan ta non-nai bere gogokoen alde, bere izeneko bezela ezartzen zizkioten esanak, markak eta gañerantzekoak goratzen.

Jendea ez zan baña bakarrik urduri zebillena. Apustularien bilerakoak ere, len baño zaletuago ta len baño gogotsuago zebiltzan, errex ez baldin ba-zan asierako nai bizia obetzen. Ba-zuten, ordea, zer egin ta zer obetu, bere ustez. Mutillen elikatzea, langintza, nekea, atsedana, saiaketak, mendi-aize garbia, eraman bear zuten bizimodua, aizko-raren-saio-orrazketak eta abar. Artu zituzten, naiz plazan erabilli bear ez, ikasteko beintzat, ezagutzen ziran aizkolari onenak edo izen aundikoenak. Batentzat “Agiñeta” zuten berezi; besteak, berriz, ez makalagoa.

Ta orduak joan ta orduak etorri; egunak jaio ta egunak il; illa-beteak igaro ta berriak asi, berak bere ariari so. Izparringiak artu, irakurri ta itzez-itz aztertu; aurkalarien aldetik zetozten esan, izpar, berri ta gañerantzeko entzun ta ikasi, ba-zuten arduradunak eta zuzendariak nun arretatsu ibili, mutillak bere eginkizunari loturik zeudenean egunetarako ta egunetarako. Izan ere bakoitzak bere leloa darabil ekintzetan. Ta lelo oneri jarraituaz ibiliko ziran aritzekoak eta ikusle-bearrekoak alik eta burrukaren gañdik garaille garbia agertu.

Bañan ez uste izan oek bakarrik zirala bere leloari jarraika. Bakoitzak bere gogoan du bere leloa. Kiroltzaleak bere zorion edo zoritarreko aizkora apustuan; beste batzuk, bere maitakerietan-edo, ere bai. Ok eta ak berera zijoazten. Bizitzaren legea da bere asmoetan nagusi irten nai izatea. Jaungoikoa’reñ legea da asmo oiei bideak osoro ixtea, edo asmo oien bitartez, bide pixka bat emanik, bere ta bear zigorra ematea.

* * *

Doña Lucila ez zegoan osorik beretan. Bere asmoen hideari jarraika zebillan aspaldian, bañan ez zuan deus aundirik aurreratzen. Berak ere, beste askoren gixara, aizkora apustuaren gora-bera guztiak bereganaturik zebillen, onela Larreko’reñ zenbait ibillera jakingo zulakoan. Jakin ere jakiten zitun, bañan mutillak betidaneko bi-

ziera zeramakian. Etxetik kalera ta kaletik etxera. Bein edo bein, len baño sarrigo irteera batzuk egin ere egiten zitun Donosti alderuntz-edo, bañan gure emakumeari irteera auk alabearreko gauzak zeritzaizkion, apustuaren gertakizunak ere aurrera xamarrean zijoaztelako. Jakin izan ba-lu txori maitaleen lenengo egaaldiak zirala, egian beste bide bat artuko edo gutxienez zalantzan jarriko zan. Bañan berak onelakorik pentsa? Bai, zera! Berak bere leloari jarraitzen zion gero ta sutsuago. Len bezela irtetzen zitzaion bidera, len bezelako oles alaiak ba-zegizkion, len bezelako begiratu xamur-goxoz ezaltzen zuan ikustaldi orotan. Itzak ere ba-zitun, ikustaldi bakoitzeko eguzkiak bere espain marrubitsuotan ernetzen lorak loretegietan antzo. Oar ere oartzen zan Larreko'ri bere adizkideak egiten zizkioten zirikadak. Bañan inñundik ere, gazte ura mokor gogorra zan. Menditar geienak bezela lotsatia zan, ta lotsa onek bere gogoa burnizko jantziz eztaia zeukan. Ez zan noski, errex beraren jabe irixtea, bañan ez eziñezkoa. Mutilla lotsaren jantzi indarrez jantzia ba-zebillen, berak ba-zun giltza, burni gogorrezko jantzien morrolloa irikitzeke.

Ta olakotan gerta oi dana, mutillak jartzen izaten zizkion esiak bere gogo biziaren zirikatzeke ziran. Ba-aiz ta ba-nauk bat zan bere naia. Zaletasun geiagoz, amorru geiagoz billatzen zun. Ta amorru geiagoz, kiroltzaleak apustu eguna antzo, itxoiten zun bere auzi okerra erabikitzeke eguna. Ta asmo ontan, ez dirurik, bañan bai bere buru ta adore, bere gogo ta kemen jartzen zitun jokoan. Bere pentsamentua lelo ortan murgildurik zegoan osorik.

Etsi zuan mutilla ez zitzaiola aurreratuko oker-elburu ori irixtera, ta erabaki sendoa artu zun ber-berak erein ta ber-berak jasotzeke auzia zula Noiz eta nola ez ba-zekian bai ordea jakin egokieraren bat izango zula bein edo bein, eta, beraz, egokiera ori zetorkionean ez zegoan uzteke, airean aizea uzten dan bezela. Egun batez ez ba-zan eun egunetako izatea ba-zitekean. Dan-dana pasientzin emateko gauza zan, lasai artzekoa. Etorriko zan eguna ta, orduan bai, mendiko etxoletan gorderik dagon eiztaria usoen zai bezelaxe, zuzenduko zitun begi onenaz bere izkilluak, su artuko zuten bere edertien suautsak eta egazti basatia zauriaz ikustean jausiko zan lurrera bere beso bero maitatiaz jaso ta laztantzeke. Ta egun ori iritxia zan, itxura zanez...

* * *

Udara egutegia orrazten ba-zijoan azken-orri-zuriak bere ortzetan eramane. Bañan, nagiz betea, egun luzeetan berarekin oraindik zeramazkian eguzkia ta beroa.

Izanak izan ziran Donostia, udaran eratzen ditun jai señalagarriak, ez bañan guztiak. Oraindik estropadak egitekotan ziran. Uda-zaletik aski oraindik Donosti'n zeuden uda azken egunak gozatu zitezten. Aitzaki makala ez zuten, bertan-goxo gelditzeke, laister jokatuko ziran estropadak. Otsa ta zalaparta ba-zan gipuzkoar kai bazter guztietan, batezere, Orio, Pasai, Ondarrabi ta gañerantzeke itxas urietan. Sonatuak txit izateke ziran urte artakoak, eta udazaleak bezela Gipuzkoa osoa egun ori etorri zedin itxoiten zegoan. Ta gauz guztiak bezela, bere garaiean eldu zan eguna.

Egun eguzkitsua, laño batzuk ikusten ba-ziran ere arin igaroaz zeruaren urdiñean. Alde guztietatik jendea multzoa zijoan Donosti' runtz. Tximist-gurdi, bultziak, trolebusak eta beribil mota guztikoak jendea zintzilik zeramazkiten. Inñork ez bai-zuan nai ikusi gabe gelditu, batezere itxasaldekoak. Bañan legorrekoak ere ez zeuden etxean gelditzekeotan. Oartzuarrak ere, egun batez, aizkora apustua aaztuta bezela utzirik Donosti'ratzeke irrikaz zeuden, bañan batezere gure Larreko.

Bañan, onek estropadaz gañera, beste asmo bat ba-zeraman. Bere Edurne maitia ikusteko gogo bizia. Estropada ikusita geroz "Joxe Mari"nea joanik bazkaltzera, antxen ikusiko bai-zun, beti bezin lerdan, beti bezin alai begiak lore alaiak jantzia ta españak irripar zorionsuz betea. Guk lenengoz ikusi genunetik iru-lau bider izana zan, aidanean. Joanero, zoratuagorik etxeratzen zan, ain zoratua etxean batezere gurasoak— antz artu bai-zioten maitasun pipiak jota zebillela gizajoa. Izan ere, nexkatx ura aingeru bat zirudian, zeruko odeietan jetxia. Gorputz trinko ta liraña berea. Mendiko oreñak ere enbidi artuko zioten bere ibillera. gartsua ikusita. Urrea zirudian bere illeak, urre dizdirakorra zeraman neskame-burukote artaz nabarmentzean, eta oparotsu erortzen zitzaizkionean neskame-soiñeko beltz aren gañetik. Jantzi onek, neskame ta erregin batera zala iduri-arazitzen zun. Izan ere, bere arpegi zuri-gorri ederrak jantzi illun artaz berezitzen zan gaua egunetik bezela, emanik neskaxari alako aundi-

tasun bat, alako zoragarritasun bat gizonak ezin esan alakoa. Aingeru on baten arpegia zan, arpegi gozoa, ezta, aundikia, paketsua ta zorionsua. Ta arpegi menditar ontan, ba-zeuzkan begi bi zeruko leioak ziruditenak, itxaso ta zeruko urdiña naasian zituna; itxasoko aunditasun ederra ta bidebatez zeruko zabaldi ta barea agertzen zuna.

Larreko'k begiotan begiratzen zun aldioro kokilduta gelditzen zan, indarge. Joanero, zaletasuna geiagotzen zitzaion ta maitasuna indarberritu, indarberritu baldin ba-zitekean. Ba-zun gogo bere maitasun egiazkoa agertzeko, bañan beldur izaten zan. Egia da neskatxak abegi ezin bestez ohea egiten ziola ta alai ta xalo agertzen zitzaiola beti. Egia zan ere, batzutan, neskatxaren espain maitaleak baiezko zoragarria emango ziotela adierazten zutela, bañan beldur zan, oso beldur. Edurne'ren begi-aundi-zabal-gozaok berarentzat geiegi ote zitekean, itxasoa gizon ontziz-galduari bezela edo ta zeruaren zabala ego gabeko izadiarentzat bezelatsu.

Bañan etxetik irtetzen zanean itxaropentsu izaten zan. Izaten dan bezela bizia galtzeko zorian daukanean ta alboan egur gaizkatzallea. Gero, berarekin egonik eta bere begien ederrak ikusirik patalduta gelditzen zala? Egia, bañan bere asmoak bestelakoak izaten ziran. Ta estropada egunean ere asmo oietaz bere baita beroturik, bakarrik joateko asmoak artu zitun. Bakarrik, lagunik gabe, lotsatzen ba-zan bere lotsaz iñor jabetu ez zedin. Bestalde, bere garaitza irixten ba-zun ikusiko bai-zuten ongi aski. Berebil arturik Donosti, runtz jo zun.

Donostiko Boulevard'eko arkuen aurrez-aurre jetxi zan.

Boulevard gustia txingurretegi bat zirudian, ain zan aundia jendearen emana. Bertan gelditzen ziran beribil eta bestetatik jendea parraztadan irtetzen zan, ta barratu ere bai ongien zerizkien tokietara, Kontxa gañeko eguraztokia, ondartzza bera, Paseo Berria, Ugarteia ta Igeldo ta Urgull mendiak ere.

Bañan ba-zan bat arkupearen itzalean gorderik zegoana, Oiarzun'go beribillen zai, begiak zabal eta biotza urduri. Ura Doña Lucila zan. Onek ere, Larreko'ren antzera, asmo batzuk artuak zitun aspaldidanik. Bere maitakeri arazoa aurrera eraman nai zun. Ta egokieraren bat itxoiten zularik, ezin bestez ohea iduritu zitzaion estropada eguna. Bai ba-zekian egun artan gipuzkoar uri geienak uztutzen zirala Donosti, ratzeko, batezere gaztedia. Ta ainbeste maite zuan Larreko bide ori artuko zulakoan zegoan, egun batzuk aurretik. Be-

raz, ez zegoan jai ori uzteko ta baldin bere pentsamentuak bezela mutila joaten ba-zan ez zegoan alako egokierarik alperrik galtzekoan. Asmo sendoa artu zuan onetzaz.

Eguna etorria zalarik, gauzak uste baño egokiago irtetzen ari zitzaizkion. Senarra, bere lagunkide Torrechica'rekin mendira egun guztirako joan bear izandu zuan goiz-goizetik. Ez zuan izango, beintzat, senarraren begiak zaintzeko. Ta irteeran ere, ez zituan entzungo Torrechica'k jaurtitzen zizkion loreak. Gero ta sutuago jaurtitzen zizkion ta gero ta ergelago arkitzen zuan gixontxoia. Tonto zarrak bere bigotearentzat orrazten zala idurituko zitzaion! Menditarra nai zuan ark, menditarra. Gazte sendoa, indartsua, gorputz eta arpegi ederrekoa, maitasunean ibili gabekoa ta erori gabekoa.

Zeñen ilusioz ari zan bere apainketetan! Zeñen pozkiraz begiratzen zuan leio irikiatik goi-goizetik azaldutako eguzki argiari! Eguzki arek, ikusi bear zuan, iñundik ere, bere asmoen garaitza. Eguzki aren berotasunaz irakiten jarriko ziran bere biotzak, eta eguzki artaz edergallu onenaz jantzirik Donosti'ko itxaso ta bazterrak izan bear zuten bere maitasunaren kuadro ura apainduko zun bilkurik onena. Ixpillu bidean eun bider ibilli ondoren, irteten zan txit goizetik irtetzen zan beribillean. Eiztari onak bezela, goiz nai izan zuan zain-etxolan egon, usoa bereganatzeko. Etxeko eskaratza uztean, Torrechica oroi izan zun ta berekiko onela esan: "Ikusiko ba-niñu zeñen dotoretasunez ni joan, zer ez ote lirake esango arroxko orrek". "Ba-leki zein maite dedan ta barabineroa ez dala?".

Egiz maite zun, egizko maitasuna ezkondu batek izan ba-lezake. Ta, onegatik, beribilletik jeixten ikusi zuanean biotzak zarrada ederra egin zion. Mugituko ziran ere arkupea jasotzen zuten arriagak sentierik izan ba-lute. Bañan ez zuten olakorik. Berak, bai, ba-zun ezin esan añakoa. Ta zualako jarraiki jarri zitzaion, egokiera etorri arte.

Bata bestearen atzetik Kontxa'ko eguraztokiraño joan ziran lenen. Ikusleak multzoka zeuden eta ez zegoan giro antxen. Guztiak ikusi nai ta lepoker egon bear zerbait ikusiko ba-zuten. Ondartzan ere ibili eziñean zegoan, bai ur barruan ere. Zabaldu zuan bazter guztietara bere begiratu ta beste tokiren batera joateko asmo sendoa artu zun, bere urrats arin-luzeak eragiñaz. Kai aldera jo zun. Emen, olakotan gerta oi bezela zarata ta ixkanbilla ba-zan. Arran-

tzale andreen erritak eta asarreak, korredoreen makakorro ta oiuetaz naasitzen ziran, berealdiko ixkanbilla sorturik. Kai-uretan arrantzaleen ontziak eta txalupak jendez betetzen ziran ta itxas zabalera irten. Kaien beti sortzen diran eztabaidak eta zalapartak ikusteko bereziki etorritako jendeetatik barna, aldamenka ta bultzaka, oni bide eskatu, ari bultzaka egin, Urgull aldera jo zun, Quitol'en emaztea urruti gabe zijoakiolarik.

Urgull'en ere jendetik ba-zan nai aña baño geiago. Alare utsune batzuk ikusten ziran ta oietako batean toki artu zun. Ango abe tantaien kerizpean eguzki galdetan bañan giroago zegoan. Mendiko usaia burrukan zebillen itxasotik etortzen zanakin. Aize parratzada batzuk etortzen ziran zugaitzetako ostoak pulunpatuaz eta kantaaraziaz. Zugaitz artetik ibili-bear-itxaso geiena ikusten zan, arrantz-ontziz, txalupaz eta bestelako ontziz betea. Oien artean, diz-diz eguzkiak jarritako ur-urdiñean estropalariak bere azken saioak egiten ari ziran. Ontzien artetik, arraun apañean ba-zebiltzan bere alkandora ori, urdin, larros eta gañerakoak nabarmen erakutsirik. Errietatik etorritako arrantzaleek oiukatzen zituzten bere aurretik igarotzen ziradenian beren erritako estropalariak. Laiter zan jokia asteko. Urgull mendian bilduagatik jenderik paketsuena, ba-zan alare zer esana ta zer oiukatzea. Irriatatik, ots egin zuten, estropalariak gerturik zitezen. Antxen ikusten ziran sokatik elduta bere trainera zuzen euki nairik, zuzen garaitzarako bidearuntz...

Larreko begira zegoan. Une aietantxe estropadarako bakarrik zegoan bere pentsamentua. Sanjuandar oiek, zion. Sanjuandarren aldekoa zan ta oien igitze guztiak begiz-begi jotzen zitun. Ba-zijoazten abitzera. Ura txanpa sanjuandarrena! Ez txarragoa oriotarrena! Zein aurretik? Orio? San Juan? Ondarrabi?

—Oriotarren jokia izango da —esan zuten bere ondoan.

—Ba-liteke... sanjuandarrak uzten ba-diote-erantzun Larreko'k.

—Iduritzen al zaizu lanik eman lezaiokela San Juan'ek? —galde-tu zion, lengoak, kezkatsu.

—Bai orixe! Arrunt onak omen daude sanjuandarrak aurtent! —Larreko'k.

—Alde batera poztuko nintzake. Beti Orio, beti Orio ere...

—Viva San Juan! —oiukatu zun, alboan, zegoan emakume batek.

Isatsa zapaltzean txakurrak burua jiratzen dun baño agurogo ji-

ratu zun berea Larreko'k, emakumearen abots ura txit ezaguna zitzaiola iduriturik. Ta izan ere alaxen zan. Antxen zegoan Doña Lucila saatsa baño apañago. Etxean zitun edergallurik apañenak soiñean zeramazkin. Orrazkera ere berria zekarren ta goitik beraño zeraman guzti-guztia bereziki aukeratuta zeuzkan bere gorputzaren liraña ta bere arpegiaren polita nabarmen ager zedin. Mutillak begiratzean, emakumearen irripar eztsuak zalatzen zun esanaren intenzio bizi-biurria. Ta bere begi beltz eder aundiak biotzaren nai bat eta, bidebatez, eskaera baten mimikoi-goi-zalea.

Larreko'k arpegi ark opa zion eztiar lilluraturik, ozta-ozta asma-tu zun esaten :

—Zu al ziñan?

—Bai Larreko, neronixe nazu. Estropada ospatsu auek ikustera etorria...

—Zerbait ikusten ba-dezu. Ainbeste jende dago bazterrotan.

—Nai bezin ongi es det ikusten ez. Bañan...

Ta begiratu xamur batean aizetu zituan bere izkutuko naiak. Biotzak itzmutu mingaña, iñundik.

—Zatoz bada onuntz, aurrera, txit obekiago ikusiko dezu-ta.

Ez zuan bi bider esan bearrik izan. Larreko'k, gizonki, eskaera egin zien ingurutakoei ta Doña Lucila begiak poz-poz aurreraxamar-tu zan, oiartzuarraren alboan gelditurik. Mesede ori ziotenei bere ezker-ra agertu ondoren, Larreko, rentzat izan zitun itzok :

—Sanjuandarren aldekoa nazu bai, ta ez arritu.

Ta au esatean, bere espain gorriak arrotu ziran irripar tentatza-llan, Berak jarraitu zuan :

—Zu bezela!

—Nork esan dizu olakorik?

—Ai! ori neronek dakit. Gutxi jakiten al du amak bere semeen esan ta egintzaz? Ni ere, zure itzetan ta zure egintzetara arretaz egoten ba-dakit. Baso ortatik jarrai egin bear. An, itxas-urdiñean burrukara dijoazten estropalari bikañei begiaz jotzen ez ba-diezu, ez zenuke jakingo zein lijoaken garaitzara.

—Ala da ori.

—Bai, noski. Ori egiztatzeko ordua ba-datorkizu. Ara, nun dau-den, arraunak luze, soiñak sume ta besoak sain, irten-dunbadari zai. Ara, jo dute. Badijoaz...

Itxas-ontziak egiñikako kaletik txanpa bizian orduntxe ba-zijoazten. Trainera guztiak batetsu ta itxas-ontzietatik marrukatzen ziztuzten bere estropalariak gogo bizian joan zitezzen, almen guztiak bota zitzaten, indar guztiak utzi zitzaten burruka gogorrean. Kai, itxaso zabal, ugarte, ondar ta mendiak, oiartzun biziak ziran. Otsak ba-zijoazten ikusle batetik bestearengana, itxasotik mendira, ondartzatik kaira dunbuluka. Batzuk "goraka", besteak "aupaka", besteak erronkaka, trumoiaren orroa edatzen zuten bazter orotan. Eztabaida ederrik sortzen ziran ta parregarritzko gertaerak ere bai ikusi.

Irratiak burrukaren berri ematen zuten. Orain bat aurretik, gero bestea. Ziaboga ematen alako aurreratu zala. Itzulera olakok bizitasun geiagoz asi zula. Ta ba-zetoztela, ba-zetoztela alegin guztian azken-tokiruntz. Guzti-guztiak, arnasa eutsiaz, erlejuak eskuetan, azken txanpari buru-belarri zeuden. Burruka gogorra! Orio ta San Juan, alboz-albo, ba-aiz ta ba-nauk, ba-zoazte ta ba-giak, azken indarrak ematen ari ziran. Arraunlariak zumitzak ziran, txalupak, berriz, iguin batetik bestera xaltoka-xijoazten kiyoak. Ta Azkenik, gairaitza: San Juan Irabazle!

Zumitzak, orduan, nekearen udaldiak zanpatutako sasiak ziruditen; txalupak, berriz, egazti zaurituak egoak zintzilik; arraun-lumak zarpildurik; ta arraunlariak kiyoak bere ur-bidean utzitako odol tantak galdurik itxasoaren urdiñean.

—Pozik izango zera? —galdetu zion Doña Lucila'k.

—Pozik izatekoa da.

—Ni ere pozez naiz, pozez gañezka —alaiki esan zion andreak, argizaia urtuko zun begiratuan laztandurik.

Mutilla ixilik gelditu zan. Zorabiatuta zegoan izan ere. Begira jarri zan estropada bukaturik jeixten ari zan jendeari. Bere tokitan pillaturik zeudenian jendetik asko zala iduriagatik, urri gelditzen zan orain barratzean goitik berako bideetan etengabeko saillean ikusitakoaren ondoan. Zer egin etzekila zegoan. Doña Lucila igarririk bere pentsamentuan zerabilkina, ezti-ezti esan zion:

—Beko atetik nolaz igaro bear dun jende guzti onek pensatzen ari zera, ez da ala?

—Bai, alatsu nintzan.

—Presaka ez ba-zera, zer deritzaizu jendearen joeraz-bestalde abitzea, geldiro-geldiro? Bultzaka ibili gabe, bestelako patxaraz ibi-

liko giñake, ta gure tokietara ez giñake iritxiko beranduegi —ta esanaz batera, Doña Lucila'k besotik eldu zion.

—Goazen bada, Paseo Berri, runtz, berdin ba-zaizu.

—Goazen, bai.

Ibilian jarri ziran, geldiro-geldiro. Emakumearen arpegia poza zerion. Bere asmoak aurrera ba-zijoaztela ikusten zuan ta ontatik zertorkion poz ori. Bere gaiztakeria, berari gaiztakeria ez ba-zeritzaion ere, erroitzen zijoan. Onegatik, alaitasuna ezin eztairik zijoan. Bere alboan, berriz, besotik loturik, Larreko seriyo zijoan, bañan ez okerbidera zijoala ikusten zualako, baizik arrituaren-arrituz memelduta zijoalako. Emakumeak itzegin ta berak entzun, ba-zijoazten jendearen artetik oien begiratu esankorretara oartzeke. Bai, bada, txit bikote egokia osatzen bai-zuten, eta emakumearen ezta ikusirik, kiñu, irriparrak eta esaerak ba-zituzten geientsuenak.

Mendi mokor batera iritxi ziran arte. Piñu baten kerizpetik itxaso zabalean ikusten zan. Ikuskizun bikaña uraxe. Ontziak ba-zijoazten bere errietaruntz orru ta txistuen artean. Ontzietatik, zapiak eskuetan agur zegoiten Paseo Berri ta kai gañean zeudenei.

Gelditu ziran, ta astiro-astiro bere begiak amaigabeko itxasoan ezarri zituzten. Mututurik zeuden. Jendearen emana igaroa zan ta biak bakarrik, uri aundi batetik basamortura eramane dituztenen antzo zeuden. Ba-zirudian amets goxo batean suntsiturik zeudela. Quitol, en emaztea izan zan lozorro ontatik lenen berera itzuli zana, ta be-soa estuturik, leunki esaten ziola:

—Bai alderdi polita Donosti'ko alderdi auxe. Itxaso jauna, mendi orlegiak, zugaitz lerdanak, bazter pinpiriñak...

—Lur barrenekoa izango zera, noski, ta itxasoak lilluratzen zaitu.

—Lur barrenekoa naiz, bai orixe. Gurean ez da mugitzen olaturik garietan ez ba-da aizea arrotzen danean. Bañan itxaso ezaguna zait txit, Santander aldian bizi izandu naizelako. Emen, ordea, dan-dan atsegiñago, ederrago nabari det. Al dakit zergatik?

—Emengotarrok loxintxatzegatik, onenian...

—Ez, ez da orregatik —ta bere bi eskuz mutillarenak artu zitun, gogotsu, sutsu— Ba-da ere beste gauz bat biotza eragiten didana iñun beste tokitan ez bezela.

—Zer gauz ote da ori? —galdetu zion Larreko'k nora-bide zebillen igarri gabetanik.

—Ori gizaseme bat da. Geien maite dedana. Dan-dana aaztu arazitzen nauna.

—Quitol jaunaren zoria...

—Ez, ez da bera. Ez gaizki artu —esan zion emakumeak ia besarkaturik, gorputzez-gorputz ia loturik. Neretzat gizonik bakarra zu.

—Ezingo det sinistu...

—Sinistu bada, egiz diozut-eta. Larreko, zure-zurea nazu...

Ta au esaten, estutu zuan mutillaren gorputza gorputz bereaz. Emakumearen aragi kizkaliaz erre zuan mutillarena. Ta asmorik ez ba-zuan ere, aragikeria esnarazi zitzaion. Goizeko asmo zuzenak okertu ziran asmo okerretara izaera guztia bor-boil. Parrastu zuan emakumearen gorputz liraña bere beso indartsuetan, estutu zuan sagarra tolaean bezela, ta begi beltz eskaleak maitasunerako nabarmantzen zuan arpegi eder, polit eta leun artan, muxu bat ezarri zuan, iñungo emakumeari emandako lenen muxua, muxu bero, luze, zaratatsua. Zentzua galdurik, abere bihurturik gelditzen zan, andre aren edertasun morroi.

Bestalde, Doña Lucila'ren arpegia pozaren iturria zan, eta maitasunen su-mendi, ta milla asmo ta pensamentu biurrien lur-ikara. Lerdea, zerion, arpegira begiratuaz, esan zionean :

—Larreko biotzeko ori. Ba-zeneki zeñen poz naizen. Begira, begira astiro-astiro ene begietara ta bertan irakurri...

Begiratu zuan, bai, Larreko'k. Doña Lucila'k eska bezela. Geldiro-geldiro begiratu zuan bere begi beltz eder aien argitasunean. Bañan begi aietan ez zuan deus onik ikusi. Begi aietan zekustana grin gaiztoa, etorkizunerako ekaitz lañoak eta maitekeria baizik ez zan. Bestelakoak ziran Edurne'ren begiak. Urdiñak, itxasoko urak eta zeru garbia bezela; paketsuak, berak bezela, eguraldi on ta garbian; lasaiak aintziran urak bezela; garbiak edur berria bezin; ta leialak gudari zintzo baten berdiñean. Guzti-guztia unetxo bat izan zan. Unetxo ori naikoa izan zan zetorkion lotsakizuna ta galbidea garbiro ikus-teko. Naiko izan zan aragikeriak bere izatean iritxitako nagusitza lurperatzeko, ta oi zun gizatasunera biurtzeko. Begi aiek ikusi ta Edurne, ranetzaz oroitu berealdiko nazka sortu zitzaion. Ta nazka ori ezin eztairik zakarki bultzatu zuan, beragandik aldendu arazirik, bidebategi esaten ziola :

—Alde!

—Larreko!

—Alde esan dizut. Zoaz zure bidetik barna ta ez geiago nere ondora etorri. Nazka, benetako nazka ematen nazu-ta.

—Ez al naiz egokia, bada —esan sion emakumeak, zerbait esateagatik.

—Bai, egokia zera, gorputzez, bestela ez ba-zera ere. Bañan nolainai jakin zazu menditar bat ez dala orrazten zu bezelako batentzat.

—Zer ote zerate bada menditarrak gu baño geiago?

—Gu gauza utsa gera. Bañan gure utsean, gure mendietako aizea bezin garbiak gaituzu. Diruz urriak baño biotzez aberatsak. Gure basoetako pakean bizi nai degu, ta pake ortan bizitzeko naikoa degu emakume on ta garbia, ta leiala bere senar ta sendiarentzat. Utzi nazazu, bada, pakean nere bidetik joan nadin. Agur.

Bere senarrari egiten zion zaldukeria arpegira botatzen ziola, konturatu gabe ez zitzaion igaro. Emakume txaldan ura amorratzen zijoan bere bidetik Larreko'k beretik zijoan bitartean.

Abesti zar bat ba-degu euzkaldunok maiz kantatzen deguna :

“Kukuak kantatzen du

Mayatzian kuku.

Andriak ba-dituzte

milla matrikulu

.....”.

Doña Lucila'k ere bere milla matrikulu ba-zitun. Ta mendira irtenik zan bere grin gaiztoen sakela asmo txarrez betea. Bañan kukuak oker jo zion...

* * *

Burua makur ta kopetillun sartu zan Larreko “Joxe Mari”, nean. Ordurako, batzuk ba-ziran bazkaldutakoak eta mai koxkor uzitu berri batean, bakar-bakarrik jarri zan..

Edurne joan zitzaion ikusi bezin laister. Sukalde leiotik sukaldariak eta beste neskameak irriparra ta kiñuak ba-zituzten. Bazkaria ekartzen asi zitzaioten, bañan bazkari guztian Larreko'k itzirik ez. Ba-zijoazten ere bazkaldarrak beren tokietara. Bañan Larreko'k bazun zer erabilli buruan. Bazkal aurreko gertakizunak zitun oroitze-

tan. Biotz maitalea erne egon izaten da edozer uskeritara. Edurne ere konturatu zan Larreko'k itun jartzen zun zerbait ba-zula. Bere ondora joanik, eztiki mintzatu zitzaion, biotzaren garbia izuriaz:

—Zer dezu gaur Larreko onen itun egoteko?

—Ezer ez.

—Bai, zerbait ba-dezu ta neri esan bear ez. Bañan nere begiak, goibeltzen zaitun zerbait ba-dakuste. Dirutzan bat galdua dezu edo...

—Ez Edurne ez. Xoxik ez det galdu. Ia, ia...

Esaten asi zan bañan itz-jarioa ebaki zuan. Buruan zerabilkin ordu batzuk aurretik egin ta esandakoak. Edurne, bere arpegi ta begi argitsu gaiztakeriaz garbiak antxen zitun. Bañan au bai emakume leial ta otxana! Emakume garbi au betiko galtzeko egon izan zala ta sekulako naspil ta lotsakizunez betetako bizitzan ia sarturik egon izan zala-ta, biotza gal-gal ipintzen zitzaion amorruren-amorruz. Bere izate ta biotza jatorrak lotsaren-lotsez ipintzen zitzaizkion, neskatx zintzo aren aurrean. Zer esan zezaiokean orain gizon azaltzeko, ez bazan barkazioa eskatzeko? Ta merezi ote zuan beñere gezurrik esateko, zabaldu ez ziran espain polit aiek, orain zabaltzea berari barkazioa emateko, lotsaturik leizulo batean gorderik egon bear zuanean? Orain bai, Edurne'ren izate garbia ikusirik, gorrotagarria zitzaiola Doña Lucila emakume baldan ta kalaxka aren joera, izaera ta esaerak. Ez, ark menditar bat bear zuan bere kabirako, euzkal menditar bat, asaba zaarren lotsa ta begirunea gordetzen jakingo zuna ta bere espain gorri-marrubitsuetan euzkera goxoa erabilliko zuna, bai berarekin ta bai ondorengoei Jaungoikoak ematen ba-zizkion.

Ta askotan gertatzen dana, iñoren indarrak ez bai-tira ikusten egiz beartzen dan arte, itxasoan ako gizon ura erdi itorik zegoanian bezelaxe, azaldu zitzaion itxaropen emango zion enbor gaizkatzallea, Edurne'ren aotik. Eta berari lotu zan zertara zijoan jakin gabetanik gal-zori ber-berak bultzaturik.

—Zergatik ez esan neri, Larreko?

—Esango nizuke gauz ba-nintz, din ba-nintz. Ez naiz, ordea, din zuri ori agertzeko.

—Zure iritzipenak dituzu. Biotza gogoa da sarri...

—Edurne!

—Larreko!

—Zuretzat bakarrik izan nai nukela, Edurne. Ez, ez det beste

emakumerik euki nai zu ez ba-zera-esan zion, goizekoa oroiz —Edurne nere, zu, zu maite zaitut.

Bai bizi ta sukor esan zitula itzok. Ba-zirudian bere oroimenetik uxatu nai zitula betirako, aspalditik Doña Lucila'k sortaraziko pensamentuak, eta batezere, goiz artakoak. Emakumearen zitula! Bere bizitz guztian eraman izan zun bizitz garbi jatorra emakume gaizto aren griñak ia galdu. Etorkizun berri bat zekusanean ori, antxen bere basetxean, mendi ta basoetan, sendi berri bat osaturik pozik, bere izkera goxoa sentia ta eramatekoa...

Edurne'k ezin zezaiokean igarri bere buruan zerabilkina. Ark, bakarrik bere biotza dar-darka igarri ta mutillak ere onelatsu zera-bilkila iduritu. Bazekian mutillak egiz esandako itzak zirala aiek, biotzean sortutakoak, bañan alazere, emakume burudunak betidanik dun kezkatxuari, edo lotsari, edo oinkada luze-zale azaldu nai-ezari, apalki esan zion:

—Itzak politik egia ba-lira.

—Edurne! Sinistu egidazu! Zure-zurea izango nazu ala nai ba-dezu...

Ta au esatean, bere eskuaz neskatxaren eskuak artu zitun. Bere españak luzatu zitun neskatxaren españetaruntz. Erdi bidean gelditu ziran, baño. Doña Lucila'ri emandako muxua gogoratu zitzaion. Oraindik, españetan nabaitzen zuan emakume ark emandako muxuaren be-roa. Ta ez zuan bere Edurne, emakume gaizto baten pozoiaz kutsutu. Ederki eman ere, orduantxe galduko zuan, beti ezaugarritzat izan zun gizatasuna ta jatortasuna.

—Maite zaitut! Maite al nazu? —esan zion, itzak dar-daraz, biotza gal-gal.

—Bai!

—Oraintxe muxu bat ematera ba-ninjoakizun. Oker ninjoan. Nere-nerea izango zeradenerako utziko det...

—Ala bear ere. Ausartuko ote ziñan bada... —esan zion neskatxak, arpegia gorri-gorri lotsez egiñik, bestalderuntz jiratzen zala.

—Burua galdutakoan edozein ausartzen da edozertara. Ontatik ba-dakit zerbait. Zuretzako ez det nai burua galdu, biotza zure maitasun alorrean galtzen ba-det ere. Zuregatik galdu bai-det biotza, ene maitaño...

Neskatxak askatu zituan mutillak loturik zeukazkion eskuak. Ji-

ratzekoan oartu bai-zan sukaldekoak oro, begira zituztela. Mai gañetik ontzi bat arturik, aopean esan zion oiartzuarrari :

—Guri begira daude...

—Urrengorarte, bada, Edurne. Etorriko natzaizu patxaratsuago...

—Ta itxoingo dizut.

Mutilla kaleruntz jarri zan. Neskatxa, ontziak artuta, sukalderruntz. Igarririk sukaldekoak nabari izan zutela zerbait beren jardunaldiatzaz, lotsaturik zijoan, gorri-gorri, urduri ta eziñegonez, eskue-tan ontziak. Oinkada oker bat egin zuan ta ontziak ¡plast! egin zuten lurrean.

Sukaldariak par egiñaz, esan zion, eztenlari :

—Maitasunaren larriak dituzu oiek, Edurne. Bañan ez izan ikarra; ezkontzeko gozopilla neronek gurituko dizut eta...

Par algaraz gelditu ziran gañerantzeko serbitzariak.

Eta Edurnetxo'k baldin arpegia gorri-bero ba-zeukan lotsaz, biotz-gogoa maitasunaz kixkal.

X

GORROTO BIDEETATIK

Ondorengo egunak bai egun larriak Quitol'en emaztearentzat. Ez zitzaion iduritzen gerta zitzaiona gertatzekoa zanik, bañan alaxe izaki. Amets egin ote zun ere ba-zeritzaion, bañan amets ez zala adierazteko, berritxoak oraindik ziraden mutillaren itz latzak belarrien izkutuan tun-tun jotzen ziarduten, tuntunlari illezkor ta azper-eziñeko bat barruratu izan ba-litzaio bezela.

Asieran belarrietan zeukan mintzurria, bañan geroa, ots aspergarri ura ito eziñik, bere pentsamentuetan murgildurik il da bizi, burua ere oro mintzurrituta zerabilkin. Zenbatez eta geiago erabiltzen zuan adimenean gertutakoa, ainbatez zitzaion mingarrigoa mutillak egin izan zion oinperatzea. Beste emakume batek, agian, nolanaiko baztertze bat bezela artuko zuan, bañan Doña Lucila zan bezelakoxea zanik, aundikeria ta arrokeria gañez zularik, irain bat bai-litzan artzen zuan, bañan ez nolanaiko iraiña, baizik irain aundi ta gogorra bai-litzan.

Irakurleak ba-daki ezkongaietan izan zuan erorkera. Egun larriak eta estuak ezagutu zitula ere bai. Orduan, emakumearen izate oro loi biurtu, galdu bai-zun emakumeak galdu lezaken gauzik ederrera: emakume garbitasuna. Izan zitun bere aldarte txar eta onak. Aserretu ta birau egin izan zun gizonezkoen aurka. Ezin ikusia ta nazka ere bai artu pixka bat, bañan or nunbait ibili zan bere lotsakizuna ezaltzeko alegiñetan, ta pozik ere izan zan oraingo bere senarrak bere biotza ta bere beso gaizkatzallea borondatetsu eskeñi zionean loikeri artatik atera zedin betirako.

Bañan oraingontan ez zitzaion sortu ola-olako ezin-ikusia ta nazka. Oraingontan, gorroto bizia, neurrigabekoa, gorroto arrun latza

sortu zitzaion. Ta zenbat eta geiago ausnartzen zuan bere oldozmenetan, orduan ta biziago, orduan gorroto gorriagoa nabaitzen zuan bere barrunbean. Gorroto arek azken-muga eriotza izan zitekean, edo ta bestela eriotza baño latzagoa izan zitekean apentza.

Gorrotoa biotzean ernetutako zugaitz muker bat bezela da, bere adar-ostoak indartzen dijoaztenak biotza, adimena, begiak eta eskuak ere bere mende artu arte. Sarri ere izan oi da maitekeriak sortzen duan ekaitza; gorrotoa.

Doña Lucila'ri ere onelakoren bat ari zitzaion gertatzen. Ezkon-gaietako bere erorkeraren lokatzak lau malkoz garbitu izan zitun. Orain, begietako malko guzti-guztiak eta biotzeko odol-tanta guztiak txit gauz gutxi ziran bere gorrotoaren plastada uraxe garbitzeko, Izan ere, orduan ez bai-zuan iñor maite; orduan ez bai-zitzaion iñor atsegin izan. Bañan, orain, ez zan onelaxe. Orain, arkitu berria zun nai lukean gizona ta ura maitatzen zuan biotz-biotzez, almen guztiaz. Ez zitzaion ajolik ez senar, ez sendi ta are gutxiago gañerantzeko jendeen esanagatik. Gizon onetxegatik edozertara joan zitekean, lege-eskontza etentzera, jendeen esamesak birrintzera, edozertara, ta ala bearrik eriotza bera irixtera ere. Bañan, orain, onelaxe oinperatzen zutelakotz maitasunaren aundia gorroto aundiagoan biurtu.

Bere ustetan, gorrototan artu bearrekoa zan, noski. Ura bezelako emakume eder bateri lotsakizun ori egitia! Gizon geienak begira gelditzen zitzaizkion, berari begira, txantxangorriaren ibillera zoragarriaz zijoanean. Gizon geienak, ba-zutenean zer esan bere albotik igerotzean. Ba-zituztenean españetan lorak, eztiak eta gorantzak. Ba-zituztenean begietan naiak ere. Ta berak, ala nai izan ezkeroz, aukeran eskuratu zitzaizkenean, menditar arlote batek zapuztu, alajañetan.

Ta ori noiz eta bera makurtu izan zanean, morroi, bat bere erregearen aurrean bezela. Noiz eta bere edertasunak, bere izate guztia bere oñetan ipiñi zuanean apalki, Buda'ri bere sinisleak bezelaxe. Noiz eta bere berekoitasuna menderaturik, apal eta leun jartzen zanean bere agindupean, bere esanetara, zakurra jabearen aurrean antzo.

Ezin zezakean ez ura utzi, ez ola-ola. Asmatu bear zun, al-zun azkarren bai, bañan astiro-astiro ondo sumatutako apentza. Edozein apentza gañera. Zenbat eta latzagoa, zenbat eta minberagarrigoa, zenbat eta zalduagoa, obe. Leñ zuritaz zuri ematen ba-zion, orain beltza emango zion; maitasuna ematen izan ba-zion, gorrotoa; apalki azal-

tzen ba-zitzaion lenago, orain aundikeriz eta arro agertuko zitzaion. Zer iduritzen ote zitzaion baserritar trakets ari? Berak bakarrik zekitelara bere gauzaz arro azaltzen? Ez zezala uste izan basati arek, bes-tetan ez zala lotsik eta norberetasunik!

Onelako oldozmenetan suntsiturik bere arrokeria ta bere aundinaikeria indartzen zijoazten. Bai apentzako bere gogoa ere. Estropada eguna ezkeroz, bein gertatu zan bere aurretik igaro bearrian, ta orduan ere, mutillak ankazpiratze ederra egin zion, arpegira bestaldera jiratuz eta agurra ukaturik. Arro alena! Ori ere bai! Bañan etorriko zitzaion eguna negar egingo zuna. Elburu oneri buruz lan gogorra zegin, beintzat, bere adimenak. Eta goiz edo berandu eguna etorriko zan, urte guziko egunak etortzen diran antzera. Bitartean Doña Lucila erne egongo zan zer-naitara...

* * *

Beste atzeraldi bat ezagutu zuan, oraindik apustu arek. Bertaraten ere ari zan eguna, kiroltzaleen poza eragiñaz. Egun batzuk besterik ez ziran tarteko.

Onexegatik, bai Lesaka'n ta bai Oiartzun'en aizkolari biak azken-saioetan eta antolaketan ari zitzaizkiguten.

Izparringiak aztintzen zituzten baztarrak. Atzeraldia, zer-nai esan izanak edatzen zituzten lasaiki bere izparringietan bere iritzi-penetara biurturik, eta ereindako azia indar artzen ba-zijoan berealdiko igalia emanik; aizkora apustu artarako iñoiz ezagututako zaletasun bizia. Euzkal erri guztietatik ba-ziran etortzeko jai ura ikustera.

Alako zaletasuna zabaldu zanez eta izparlarien laguntzaz alako garrantzi aundiko jokoa gertatu bear zunez, aizkolarien zuzendari talde bietan, ernetu zan larria ta bere-buru-jabetasuna. Egiñalak egin bear zirala, alegia, ainbeste milla notiñen aurrean poto ez egiteko. Aldi bateko apustua izan bear zun itxura zanez; aldi bateko nagusitza, beraz, bateri ta aldi bateko berantza besteari ekarriko ziona. Dirua ere alaxe jokutzen zan, ta aizkolariak ez zuten zapuztu bear bere jarraitzaileak, beregan jarritako itxaropen osoa beti-betirako galdu baitzitekean. Ta bein itxaropena galdu arazi ezkeroz, noizko xuxpertz osterara eman itzala. Jator jokutzen ez ba-zuten, gizonki ez ba-ziran azaltzen dema-orduan betirako gaitzespena ar bai-zezaketean.

Letrax, ek zuan baratz barrutian zeuden. Muñoluzea'k bere saioa bukatu berria zun ta ukalaondoaz legortu nairik zebillen izardiaren ixurkia. Enbor bi ebakiak ikusten ziran ezpal pilloen artean. Beste saiaketa baterako itxoiten zetzaten aritz enbor batzuetan exerita, Arritxabalaga "indianoa" ta Letrax, eskuetan zeuzken urrezko erlejuei begiraka zeuden. Erakuslariak bere irakaspenak ba-zemaizkion mutillari. Itzaibeltz, Borbollo, Gautxori ta Larreko bera, ixilik zeuden, erlejudunei begira bein ta Muñoluzea'ri ta erakuslariari beste bein. Orduantxe, Oiartzun'go eleizako torrean kanpaiak "Aimariak" jotzen ari ziran, Epelde sakristauaren besoak sokari eragiñaz.

Arritxabalaga izan zan ixilunearen mingotsa urratu zuna, abots lodiaz eta alaikiro, ziola :

—Bejondeikela, Muño!

—Marka polita egin dek —esan zion, berriz, Letrax'ek.

Aizkolaria ba-zijoan galdetzera zenbatian egin zun lana, bañan Larreko ta Gautxori, batetsu, aurreratu zitzaien, onelako galderaz :

—Zenbat bear izandu du enbor bakoitza ebakitzeko?

—Bataz-beste sei bat minutu —erantzun zion "indianoak".

—Oso ondo dago —erantzun zioten besteak.

—Ta, nola arkitzen aiz? —galdetu zion Muño'ri Itzaibeltz'ek.

—Ondo, oso ondo. Egunetik-egunera gutxiago nekatzen naizela, esango nuke.

—Itxurak, beintzat, ala dituk —esan zion Larreko'k— Begiratu besterik ez zioke ire lasaitasunari. Zea, Arritxabalaga, —esan zion, begiraturik, indianoari— iduritzen al zaizu naparrak jan lezaio-kenik?

—Bere lanak izango dizkik, aidanean. Bañan; ixo; ba-degu gaur emen zer itzegin bearra-ta.

Au esanik, enbor gañetik altxa ta arrizko ormarano joan zan. Gaztain aroan gaztain zugaitzetara igoteko bazter batean zegoan ixkallera bat arturik, ormaren ondoan jarri ta bertatik orma gañera igo zan. Ixkalleraren egurrak karraxk egiten zuten gizon sabelaundi aren zama-aztunaz. Poliki-poliki jetxi, ta polik-poliki ere itzegiten asi zan.

—Jaunak —zion— apusturako antolaketak gudarako antolaketak bezelakoak dira. Ixilik erabili bearrekoak. Orregatik begiratu det or goiko orma ortatik, ia iñor ikusten ote zegon edo entzuten ote dagon. Ez zegoan, itxuraz, iñor. Obe, bada, guztiontzako. Ta ba-

nioa nere arira. Alegin guztiak egin bear ditugu mugaz bestaldeko anaien —orain etsaiak— ibillerak jakiteko. Ta beste ainbeste ere egin gureak jakin ez ditzaten. Ontatik datorkiguke aizkora-joko onen borobiltzea. Bai, diruz poliki jokatuak gera, bañan geiago jokatzeko prest gaude. Bañan dan xeetasun guztiak jakin bear ditugu besteak dagizkiten markak, ibillerak, eta "arma sekretak"...

—Guk ere ba-ditugu gure "arma sekretak", euzkera jatorrean, izkutuko izkilluak —eten zion itzaldia Itzaibeltz'ek.

—Bai! Ongi dakizutenez. Ez dezala baño iñork jakin emendik at. Guk aien gauzak jakiten ba-ditugu ta aiek gureak ez, nai aña diru irabazteko zorian gerta gindezke. Bañan, ortara ninjoan...

Arritxabalaga'k ixilune batean gelditu zan. Eztul lakar bat ibili zuan eztarrian ta, gero, bere itzaldiari onela eman zion jarraipena :

—Ba-dakizute zenbatean egin dun, Muño'k, gaurko bere lana. Marka ederra guztiz. Ezer jakin ez ba-genu aixa irabaziko geniokelako ustean izan gindezkean. Pozik gaude Muño'rekin, oso pozik, bañan bestaldetik otsak ba-datozte guk baño gutxiagoan ebakitzen ditula egurrak Patxikorena'k.

—Bai ote liteke ori —galde zuan, orduan, Gautxori'k— Zenbatez gutxiagoan?

—Une batzuk, segundo batzuk besterik ez, bañan naikoak lanak eman ta irabazteko ere —erantzun zion "indianoak".

—Ziur al-zaudete esaera ortaz? —berriz, esan zion Gautxori'k.

—Itzegin dezala Letrax'ek —mintzatu zan, lasaiki, oni begiratuaz, Arritxabalaga— Bera da berriaren ekarlea; berak esango dizute oberen.

Letrax igitu zan enbor gañean, oi zun aundiki itxura artuaz, berebiziko itzaldia egin bear ba-lu bezela. Ta ekin zion iztun.

—Gaur goizean jakin det. Artu-eman batzugatik Baztan'go tratalari bat etorria zait etxera. Etxeko neskamia lesakar omen du ta onek esana daki, itxura danez bere etxekoei adituta. Sei minutura ez omen da irixten enbor bakoitzean. Au egi ba-da, pentsa zer egin bear degun. Astean saio bat egiten omen du, ta zein menditan ibiltzen dan bere saiaketetan ere ba-dakigu.

—Arranea! Denbora ortan egiten dun edo ez jakin bearrekoa degu, ez da? —galdetu zuan, bizikiro, Borbollo'k.

—Ortara ginjoazen —artu zuan berriro itza "indianoak"— Zuen

artean iñor joan nai ote luke ori egi edo gezur dan ikustera?

—Bai! —oiukatu zuten, bertan zeuden gazteak, batetsu.

—Ederki! Ori zerbait ba-da. Zuen borondatea ez da makala. Bañan naikoak izango zerate bi; bat zaindari ta bestea txeletari izan zaitezten. Ortarako, nere iritziz, Gautxori ta Larreko ongien izan litezke.

—Izango gaituzu! —ebaki zioten itza, ao batez, gazteak— Bañan noiz dagizki saioak? Eta nuntsu?

—Ostegunetan, aidanez. Eta eguzkia goratzen asi berri darian. Nuntsu? Ara, biok mendiok txit ezagunak dituzute, ta errex arkitu dezazuteke tokia. Pagolleta mendietako basoetan, antxe Endara ibaia jaiotzen dan inguru xamarrean da. Mendi-zimur-txolkonean ta egu-tera alderuntz... Ariztian azken aldi ontan egindako ebakiketaz egin izan dan argiune batean.

—Naikoa degu, bada —esan zioten mutillak.

—Dakizutenez biar degu ostegun. Biar bertan joango ba-ziñateke obe. Bidea zeok aukera; gogo ba-dezute Arritxulegi zakonetik, ber-tago; edo ta bestela, pixka bat jiratuaz, Elurzulo'tik.

—Bidea geok aukeratuko degu. Bertan egin bearrekoa ere.

—Ongi ibili bada.

—Orain, azken oarra —esan zun Arritxabalaga'k— Goazen orain ostatura. Kokotxa batzuk xaltxan maniatuak eukiko ditu, onuzkeroz, etxeoandreak. Auek jan, txurrupt egin, ta ezer gertatu bear ez ba-lu bezela musean ere ibiliko gera.

Egin ere ala egin zuten. Ta illuna ere bai etorri, izarrez tantoturik.

* * *

Egun artan ez zan giro Doña Lucila'ren inguruan. Purrutzada ederrik entzun bear izandu zitun Quitol bere senarrak, eta Torrechica karabineroak ere. Biok arriturik zeuden, batezere Torrechica. Aspaldidanik, estropada eguna ezkeroz, txit abegi ona egiten ziola emakumeak oarturik zegoan, antzik artuko ez ba-zion ere aldaketa aren zergatiari. Bere iritziz, bere eguneroko lore tanta jaurtitzek erakarritako aldatzea zan. Txit arpegi alai, txit xalo ta batezere txit arreta aundiaz egoten izaten bai-zan bere lelokeriak entzuten.

Bañan egun, zer zan ura? Amorru bizia agertzen zuan ta ez

zegoan ezer entzuteko, loxintxa apañenetan bildurik ere izanagatik itzak. Bañan arriturik zeuden karabinero biak deus ez zekitelako emakume lirain aren errai-barruan gertatzen zana.

Gorroto bizia ernetu zitzaiola ba-dakigu, dakigun bezela apentzarako bere adimen ta gogoak neketan zeudela. Egunak joan ta egunak etorrira ere, nai bezelako egokiera ez bai-zetorkion. Bañan au gauz utsa litzake. Aldi luzeenean ere itxoingo zuan egokiera ori etorriko ba-litzaio. Bañan onelakorik ez zekustan etorkizunean ta, beraz, apentz orreri buruz bere itxaropena iltzen ba-zijoakion. Egon izandu zan, bai, egun batzuetan itxaropentsu, jakin zunean jakin Larreko'ren adizkide min ziran Borbollo ta Gautxori kontrabandoan ibiltzeko txit zaleak zirala. Ta Larreko'ren adizkideak ziradenez, bera ere bide ortatik ibiliko zala gauzik zuzenena iduritzen bai-zitzaion. Beraz, bide ontatik etorri zitekala apentzaren eguna ta mutillaren ondamentia, buruz jota zegoan. Onegatik zaindu zituan bere ibillerak, entzun zituan mutillaren bizitz jatorratzaz zerbait, eta oarturik bide ortatik ez zula bere atzaparretan arrapatuko, aren itxaropena amorru bizi biurtu. Ta amorru ori egun ontan azaltzen gellen. Aren purruzadak eta aren zakarkeriak! Zerbait esaten ba-zioten gaizki artzen zuan, bere pensamentuetan suntsiturik egon nai zualako. Artarako bai-zegoan, here gorrotoaren naia aurrera eraman zezan. Edozer uskeri here oldozpenen aria eten nai zutelako zala iduritzen. Ta pensamentuak millaka zerabilzkin. Mota guztitakoak. Eta azkenean, orregatik, erabaki bat ere bai artu. Sukaldera joanik, burni-kako batetik zintzilika zegoan gerriko artatik, senarraren pistola arturik, bertsolariak ia egunero joan izaten ziran bideruntz artu zuan.

Ate ondoan, orduan ere zaindari zegoan Torrechika'k esan leloari egundano purruztarik zakarrena egin zion. Ao zabalik gelditu zan karabineroak ikusi zuan gauaren illunean izkututzen.

* * *

Ostatutik mutil biak irten ziran. Betiko bidea artu zuten. Bidean zijoztelarik, izarrez tantotutako gauak entzun zituan beroein izketaldia. Urrengo goizean eginbearrekoa zuten aotan. Gauaren ixilean, iñungo entzulerik gabe, zer ta nola egin bear guztia eratzen ba-zijoazten. Erabaki zuten bein naparren saio tokira eldu ezkeroz, Larreko'k

igo bearko zula zugaitz tantai batera, izkutaturik egon ta emendik ikusteko ta, bidebatez, erlejua eskuan egin marka artu zezan. Etorri aurretik, saioa egin ta lesakarrak aldendu bitartean Gautxori egongo zala zeletari, kontrabandista zanez oituta zegoalako gauaren illunean ikusten, ots txikienetara oar egoten ta edozer uskeritzaz konturatzen. Itzegin zuten ere, Pagolleta'raño alkarrekin egin bear zutela bide guztia. Ta goiz ori, eguna zabaltzeko saio-tokian izan zitezzen. Ontarako, etxazpiko erreka bazterrean, elkartzeko ziran.

Ontan, bide gurutzeraño iritxi ziran. Egunero banatzen ziran tokira. Emen gelditu ziran azken zeetasunak erabakitzeko.

Gurutzeraño, bañan, gaua izan ba-zuten entzule bakarra, emen ba-zan bat belarri erne egon zana.

Doña Lucila'k bere erabaki zoroa aurrera ateratzekotan zan. Larreko garbitzeko asmoetan. Bai-bai-zekian emen banatzen zirala, emendixek jarraitu ta tiroz botatzeko asmoa artuta zegoan. Ori egin, beintzat, eta gero gerokoak. Bere gorrotoari atsedean eman nai zion, ta apentzarik emango ez ba-zion bai eriotz bat. Pistola eskuetan, antxen zegoan zai, larrixamar, bañan zorutzen ta pozez bere gaiztake-ria nagusi irtetzeko ordua ba-zetorkiolakoan.

Mutil biak astiro-astiro zetozten. Presarik gabe zetoztela zirudian. Bide gurutzera iritxi ziradenian ixilalditxo bat egin zuten. Lasai, ez bai-zekiten okerkeririk ba-zanik ere ludian ta antxe, oinkada batzuk aurreraxeago, sasi pillo baten atzean gordeta zegoala kalte aundiak ekarriko zien emakume bat.

—Orduan esan bezela.

—Esan bezela, bai.

—Maindiriak laga garaiz.

—Bai gizona, ez kezkek izan.

—Esandako gauzak ez aaztu.

—Ez.

—Ta esan bezela, goizeko bostetako Elurzulo'n bear gaituk izan. Beti obe guretzat bidean ez iñor arkitzea. Ta, ba-dakik, Arritxulegi inguruan zaindari geiago izaten dala. Karabineroa erruz zebillek ortik...

—Elurtzulo'n, noski, zeatzago zuzenduko dizkiagu gauzak.

—Ez besterik, oraingoz. Agur, gero arte.

—Gero arte, bada.

Doña Lucila'ren belarri ernaiak ez zuten itzik ere galdu. Ara ustegabeen txoria eskuetara etorri. Egun guztian ibili izandu zun amorru gorria ezegin zitzaion, entzundakoaz, illuna eguzki argiaz bezelaxe. Itxaropena erne zitzaion osterata tan zentzumen apur bat ere. Berealdiko astakeri bat egiteko zorian egon zala oartu zan, bañan bestaldera, astakeri orretara zekarkioken asmoari jarraiki jakin izan zitula jakindakoak ere. Beraz, Larreko ere bere mozolo arpegi artaz kontrabandista izaki! Bada, jakingo zuan Doña Lucila nor zan, ta bere izatea ez zala edozein moduz ostikoperatzen. Eriotza gauz motxa zan. Orain, egunetan ta egunetan gogoratu bearra ta damutu bearra emango zion. Eskuetan zeukan pistola kolkoan sartu ta pozez zorutzen etxerako itzulbidean jarri zan.

Etxe atadian, len bezela, an zegoan Torrechica. Len egin purruz-tadaz beldur eta kopetillun zegoan, ezer esateko ausardirik gabe.

—Gabon Torrechica! —esan zion emakumeak, irriparez ta ki-ñuka— Orain ez al dezu lorerik...

—Lorerik...

Ixilik gelditu zan, arrituta, andretxoari begira. Bañan onen arpegiaren alaiak berpiztu zuan bere ausardia, ta esan zion:

—Pentsatzen nengoan, alegia iztegi batean ez dala itz egokirik zeraden bezelakoa adierazi lezakenik. Ain zera eder!

—Ezkarrikasko, ene Torrechica!

Ta oi zuan ibillera liraiñaz emakumea barruratu zan.

Ta Torrechica'k berekiko onelaxe zion: Ez ote zaigu atso au burutik pixka bat joaten ari!

Ari zan bezela. Gorrotoak bai-zeramakion lorrean bere zentzumenena. Erotzen asia bai-zegoan. Ta ero-gaiztoen joerak zizkitzun maite.

Kakoan zintzilik utzi zuan gerrikoan pistola laga zuan.

Une batzuk geroxeago Trujillo sarjentoaren lan-gelan kox-kox jo zun atea. Ta sarjentoari, iñundik, kontrabando aundiren baten berri eman zion...

ILLUNPEAN DUNBATEKO BAT

—Eup! Emen al aiz?

—Emen nauk.

—Ez aiz nagi ibili jekitzerakoan.

—Lo-kuluxka egin bai-diat, oituta ba-nauk ere lorik gabe ibiltzen. Edorri ere txintxo etorri aiz. Goazik?

—Goazik!

Abitu ziran arru beetik zijoan bidetik. Oro ixilik, izan ezik errekatxoaren mur-murru ta, udazken bukaera egunak ziralarik, ostu igartuen otsa zugaitzetatik azkatzean lurrera erortzeko. Bañan ots oiek eztali ziran gazteak zeramaten oinkada azkarren tapakoaz. Ortzkarbian, izar pitiñiak, konta-eziñala, nai-eta ezin zuten eman illargi zatiak, ala zanez ukatutako argia. Begiak eta belarriak zabal-zabalik zeramazkiten illunean irakurtzeko ta ixilean entzuteko, ta itxirik zeramaten aoa tutik esan gabetanik, baldintz ba-lutekean bezela, beren abotsa zalatari izan ez zedin.

Laister ziran Arditurri, ko meatzetan. Emendik begiraturik, beldur ematen zuten illunpe artan, Aia'ko Arria'k. Ba-zirudian edozein unetan araño erortzeko jarriak izan bear zutela, bazter guztiak eta izadi guztiak, oraindik gau illunagoan azpiratutzeko. Ta ontarako, esan zitekean bere muturra oraindik gorago igo nai zutela, izar pilloak sakabanatu ta gorago, bertatik indar ikaragarrienean jausi ta eriotza ta negarra zabaltzeko.

Ez zuten uste, ordea, orrelakorik gure mutillak, ez eta ere galarakizunen bat ba-zetorkietela aitz aien zimur baztarretatik. Bere as-

moak bakarrik zizkitzuten oroiz, ta bere gogoan zana irixtea. Ez bazuten, bada, gogor ekin meatzetik ezkereruntz, mendi-gora, abitzen dan bidetxiur aldatsuari Pikoketa izena dun basetxeraño. Al zuten ixilen igaro ziran emendik, eta goitan ziradelarik, zabalago ikusten asi ziran zeru izartsua. Asiera-asierako ibillera azkarrean, gañik-gain Elurzulo, runtz jo zuten.

Geldiunerik gabe joanik, laister zuten begi aurrean mendi ta zeru ertzak ebakitzen zuten pago tantaiak, Elurzulo inguruetatik naparroruntz ain ugari ziran pagadiak. Bein emen, izkutuagoan ibiliko ziralakoa zeuden. Izan ere, izarren argi urria gauz gutxi zan ango basoetako illunpea argitan jartzeko. Gautxori, beintzat, zaleturik zan, bietan geien, basa-piztiak bere eizarako illuna nai izaten duten antzo. Zerbaitegatik ipiñi izan zioten zeraman izengoitia.

Ez dira, bañan, beti gauzak pentsamentuen erara edo naien erara irten. Illunpe artan bai-zegoan, besterik uste zutenarren, bere galbidea. Ez zekitelarik, zelai-antz artan oraindik biziago ta ausartuago sartu ziran. Pagoen adar zabalak izar aterkiak ziran. Onegatik zegoan bidea argi-euriaz legor. Ez zan ikusten ez ikusi begi aurreko sudurra ere. Pago-azpi bakoitza gaizkille batzuen leizulo gordelariak ziruditen. Gure mutillentzat ere gaitza ekarri zezaitekenak. Eriotza baño ixillago antxen zeuden zai. Ta bere aurreraño iritxirik, aurrera-bide igarotzen asi ziradenian, abots sendo batek urratu zuan mendiaren ixilla, arru-beetik Txurrunurru tontorreraño abotsarea oiartzuna dantzaraziaz aruntz-onuntz.

—Alto! Alto! —oikatu zuan norbaitek.

Torrechica karabineroaren abots gardena zan. Ez zan bakarrik. Bere lagunkide Quitol jauna zun bere aurretik. Biak Trujillo sarjentoak agindurik etorriak ziran. Ta dana Doña Lucila zalatari izan zalako. Berealdiko kontrabandoren bat karriatzeko gaua omen bai-zan gau ura. Egia esan, sarjentoak ez zion garrantzi aundirik eman andre txoralda onen itzei, pixka bat ezaguturik bai-zeukan. Bañan zalaketa izan zalarik ezin uko egin. Onegatik bidali zitun gizon hiak bakarrik. Itzez-itz sinistu izan ba-lío beroiekin ere bera etorriko bai-zan. Ta ez pentsa, bai oientzat ere badaezpadako irtenaldia zan ura. Agindu ta joan.

Bañan sinismen aundiaz ez artuagatik, egiaren izpia bururatu

zitzaioten lenengo urratsen otsak nabari izan zituztenean. Doi-doi ere ikusi zituzten illunpe artan gure mutillak, naiz ezagutu ez.

Aidanean esandako guztia betetzen ari zan. Elurzulo'ra iritxi-garaia; zenbatzuk bear zuten izan; norantza joko zuten. Beraz, egi-egia zitzaien.

Ta bere eginbearra bete bear zuten, gogoz, batezere sari baten itxaropena ba-zutelako. Asmo ontan bere albotik aurrera oinkada batzuk ematen utzi zieten, etxerako itzulbidean jarri ez zitezten. Ta bein onela ziradelarik, ixillaren larria bazterturik, bai gogoz eman izan zutela ¡alto! ura.

Bañan beti gertatzen dana, iñor ez bere egintzen jabe. Beingontan ere ustekabea gerta zitzaien, batzuei bezela beste ere. "O" izkia mendi zuloetan oiartzunak borobiltzeko, artean, dunbateko ikaragarri bat entzun zan, ta ¡ai! samingarri bat. Soil-soilla, bat-batean iltzen diradenak jaurti oi duten berdiñekoa. Oiuaren ots samingarria bertakoentzat bakarrik gelditu izan zan, urrutian itzali bai-zuten bere otsa dunbatekoen oiartzun lakarrak, mendiz-mendi trumoiak bai-lirakean.

Zer gertatu zan? Gure mutillak, beintzat, ez ziran gelditu pentsatzen, ta al-zuten tokietatik eta al-zuten bezela uso igesegin zuten.

Zelataka edo entzuten gelditu izan ba-lira entzun izango zituzten Torrechica'ren esan minberagarriak. Bere ondo-ondoan zegoanak, ordea, ez zun entzuten ta ez zun geiago ludiko otsik entzungo. Zerraldo zetzan lurrean, odol putzu baten erdian. Biotza zatitu izan bai-zion dunbatekoak, ai! bakarra esateko beta bakarrik emanik.

Aldi batean, Aiaa'ko Arria'k jaso zuten soin-odol-ustu-berria, ta izarrak argi xipi bat eman Doña Lucila'ren senar zorigabeokari.

* * *

Jaungoikoak bakarrik daki zenbat denborako laisterketa egin zuan Larreko'k. Onek berak ere ez zekian. Ori bai, iritzirik zegoan, iritxi orduari buruz aurrerakada makala ez zuala egin. Bañan, Gautxori, nun zan Gautxori? Bera zan bezelakoa ta azaltzen ez! Berau bai-zan gertakizun latzetan milla bider ikusitakoa; gabeko pizti azkarra; laisterkari arrun trebea. Bañan egia zan ere bera ere sasoi ederean zegoala ta abiada bizienean etorria zala. Azalduko zan bai, beranduxeago ba-zan ere, oi zun azkartasunaz, basakatuaren antzera.

Ta zer bait gertatu izan ba-litzaio? Dunbateko ikaragarria ba-zizun oroiz, irakurle, ta karraxi zulagarri ura.

Gautxori zauriturik ote zan? Ezin zitekean. Ongi aski ikusi zuan aurrera bidean, laisterka. Ez zuan ark zaurituaren itxuratik artu. Ta olakorik gerta ba-zitzaion, dana utzirik, joango zitzaion laguntzera, naiz eta gero bere aitzaki egin. Ta deadar ere egingo zion, laguntza eske. Ez, ez, olakorik ezta pentsa ere. Bañan zauritu bat izan zan, ta apika eriotzaren bat ere. Nor izan zitekean, baño? Ta nor iltzallea? ez zion, beintzat, Gautxorik onelako asmorik ere azaldu. Karabineroak zirala bide-irten ura egindakoak, kezkarik ez zuan. Beraz, karabine-roak bear zuten izan tiralariak. Eta karabineroak izanik tiroa egindakoak, Gautxori ta bera bizirik. Zer naspil zan ura? Ta nola jan? Ikusi ez ba-zitun bai, naiko, izar argietara, argi txirripa batean ebakita. Bañan zertara etorri araño ta zertarako ¡pum! egin? Gauza, gero ta arrigarriagoa zeritzaion. Arrigarria benetan.

Bañan, Gautxori, ez etortzen...

Onelako oldozpenetan zegoan pagozar baten upurzabalean exeririk. Bere ondoan, txit ondoan, iturriño batek bere negarra ematen zuan eresi aspergarri batean. Izardia joan zai zegoan txurruptat egiteko. Bitartean, bere adizkide Gautxori'ri itxoingo zion, bai itxoin. Eta berriz ere, jira ta bira, lenagoko oldozpenak berrituzten. Gauren illunean abots zolia, dunbateko latza ta eriotzaren atzaparretan erori danaren oi uñazekorra. Ta adizkide miña, etortzeke...

Etsipenetan sartu zan arte. Garaia ba-zan laguna etortzeko. Ez zetorkion ordea. Itxoingo zion, alditxo batian, ta gero beste alditxo batian. Alperrik. Oro alperrik. Lagunaren zantzurik ez zan entzuten baztarretan, belarriak luzatuta ere. Nun gorde ote zan? Arrapatu ote zuten? Bai zera, Gautxori arrapatu! Uraxe buruaren neka bearra! Bera, beintzat, ba-zijoan bere asmoak egintzetan biurtzera. Ba-zitekean ere, beste batetik lagunak artzea. Itxoingo zion toki-tokian, ta azalduko zan. Ez zan ez edozein Gautxori!

Mutilla trebea ta ausarta!

Ta joan zan. Berrirotu zuan bere ibilaldia. Berriro ere egon-larri egondu izan zan lurra bere oñetakoen igurtzi azkarraz. Gau izartsua bai, baso itzal illunetik barna, bai illunak bere pensamentuen bezin, illunagoak, orduan, gertakizun negargarri aietaz. Basoan, zulgaitz-arpa eresitan ipintzen jarraitzen aizeak. Eta ostu oriz garbitzen.

A zer nolako garbitzalea bera; goitan, igurtziaz garbitu ta lurrean zabaldu legortu zitezen. Onegatik, karraxk zegiten karraxi- negarrez bertsolariaren oñak zapaltzean bere garbitasuna zikintzen zutelako.

Iritxi zan, beingo batean, joan bear inguruetara. Oraindik gau beltza izaki. Egun-sentia etorri zedin itxoin egin bear. Etorri zan bezela, urre-sagar gorriaren margoz, emakume otxanen leuntasunaz. Pixkanaka-pixkanaka, goi-mendietatik erreka beetaraño jeixten asi zan, ta bere argiaz goizak zillarrezko intzaz josiritako maindire mee artan dizdizera ederrik barreiaturik.

Bere begietarako ere izan zan argia. Gutxi-gora-bera esandako tokian, ba-zekusan, kalpar baten ondotik, alako oian-larrutze bat. Ura zala tokia biotzak baiezkoa eman zion. Ta alaxe izaki. Jetxi zan bertaraño ta bazterrak artarrikatu zituan. Lau-bost enbor jarri al iza-teko añako zelaitxoan, sastraka ta orbelez ezalirik jendeen begietatik gorderik egon zitezen ta, baita ere, bide-batez, gauko intzatik, lau enbor txukun ipiñia gerturik zeuden, saiaketari zai.

Ez zan motel egon Larreko. Aritz bat begiz jo zuan. Lodi ta luzena bai an zeudenen artean ta, gañera, alako toki berezian gaikaldetik, gerturik gabe ta urrutirik gabe naparren saio ta ekintzak ongi zaindu zituan. Eldu ta bere zimur-konkorretan bere oin arinak ipiñiaz katagorri batek bezin arin tantairaño igo zan. Bertatik, zabaldu zituan bere begi ernaiak napar errietaruntz eta bideetaruntz. Artean, ez zan iñoren zantzurik. Loarekin ziran baztandar erriak... Itzuli zituan, gero, etorri izan bideetaruntz, goiko Aia'ko Arri'en azken ertzetaraño, bañan bere lagunaren aztarrenik ere ez. Zer gertatu ote? Berriztu zituan oraingok oldozmenak. Ezin etorri bañan berak bear argirik. Ori bere alegiñak egiñagatik. Ta iduriturik oraingok guztiz urruti izango zirala Patxikorena-ta, aritzetik jetxi ta ikustaldi bat eman zuaan len etorri bideari. Berriro ere alper-alperrik. Azkenean, gaitzetsita, bere zugaitzaraño itzultzea erabaki zuan, ta, oster, goi-adarretaraño igo. Bakarrik lan artan bear al zun? Bakarrik egingo zuan bada. Ark eman itza ez zun jango ta billerakoak izango zuten naparren berriak, ber-berak emanda. Gautxori'ren joera geroz jakingo zuan, galdurik ibili ba-zan edo elbarriturik arkitu bazuten.

Eguzkiak bere epela barratzen asitzeko zan, nabaitu izan zua-nean, an beetik, bidexka batetik ba-zetoztela batzun- batzuk. Biotza zimikoka jarri zitzaion aiek ziralakoa. Ta izan ere ala ziran. Ba-ze-

tozten Baztan'go elkartekoak, tapa-tapa, goruntz. Laister izango ziran berak an eratu tokian ta, beraz, Larreko, al-zun patxada onenaz egon zitekean adarpea berezitzen asi zan. Gero, lasai, itxoiten jarri...

Azken aldatzaren asieran laguntxo bi aurreratu ziran. Ez zitzaion begietatik joan Joxanton ta Lekarotz zirala. Oinkada luze-bizian, menditarrak oituta dauden antzera, laister eldu ziran enborrak gorderik zeuzkaten tokiraño. Sastraka, adartxo ta orriak kentze lanean gogor ez ba- ziran, bada, asi iritxi orduko, arnas-auspoak oraingok berenera itzultzeke. Amar bat minutu geroxeago, ba-zetozten urrats motelagoan, gañerantzeko lagunak. Patxikorena aizkolariarekin Don Joxe "indianoa", izardi-patzetan blai-blai, bere sabeltzara erakarri eziñik, "Xoxuenea"ko etxe-nagusia ta Txokolo bertsolaria.

Don Joxe izan zan bere soin aztuna lendabizi etzan zuna, enbor baten gañean, sudur-zapiatz ixurkian zetorkion izardia txukatu nairik edo. Joxanton ta Lekarotz an ari zitzaizkien, bitartean, adartxo baten azken-xarpaz enborrei kentzen azken zakarrak. Patxikorena, berriz, oi zun bezela, nagi zerabilkin mingaña bai bañan bizkor bere begi urdiñak lagunena arira.

Joxanton izan zan lenengo itza borobildu zuna, oian txoko ixil artan.

—Jaunak! Auek gerturik daude aizkorari itxoiten.

—Ederki. Egon gaitezen, bañan, lasai alditxo batean, auzoko zakurrik ez datorkigu-ta ozkaka.

—Bai, orixe! Nai dekan arte, Patxiko. Ire lana duk. Beraz, edorek aukera noiz.

Ez ziran luze egon alperrik. Bañan aldi ontan, gutxi edo asko, guztiak izan ziran iztun. Larreko'adar artan, belarri ta begi utsa zan. Patxikorena ere larri zan bere lana egiteko. Aurretik, bañan, arnasa bere neurrira biurtu nai. Ta bein biurtu zualarik, iduriturik atsedan apur arek jatorrera itzuli zula, kementsu altxa zan ta enborretaraño joan. Ikutu zituan sendo jarririk ote zeuden, igurtzi zituan bere eskuaz leundu nairik bezela, eldu zion lagunak ekarritako aizkoretatik bati, ta axaria bezela enbor gañera jausi egin zuan, esanaz:

—Jaunak, gertu euki ordulariak. Eta asierako ezaugarri-otsa nai dezutenean eman.

—Egon, bada, erne— oarez, itzegin zion Don Joxe'k.

—Ia, bada —aizkolariak.

Eskuetan zeuzkaten erlejuak. Baita zugaitz adarretan izkutuan zegoanak ere.

Don Joxe asi zan esaka :

—Bostgarrenean, jo. Bat, bi, iru, lau, bost.

Eroso egiten zuan ibilaldia, buru gañetik enbor muñetaraño, Patxikorena'ren aizkora zorrotzak. Emen zirt eta an zart, or drist eta drast, ezpalak, zabalak azpillak bezenbat erorka ziran. Enborrean ebakiak bide artzen ba-zijoan, bere indar eta sasoi guztiaz aizkolariak eraginda. Bere soin aztal altsuak, bere gerri bigun zumitsuak, bere lepo indartsua, bere izate guztia agindu batez bezela, zituzten guztiak ematen zituzten, oparotsu. Antziñako greketar kiroltzale aietatik berezitua zirudian. Ain txukun, ain arrex, eta ain kementsu ari zan. Lenengoia ebaki zuan, bestea, ta bestea... Bere saioari bukaera emanik zun.

Torontxa edo naranjaren salda betetako botillatxoia uztu zuan. Lurrean tolestuta utzitako txamarra artu ta, exeririk, izardiaren emanari aurka egiteko sudur-zapia eskuratu ta legortzen asi zan. Neke aundietan ibilitakoen itxurarik ez zeukan. Beintzat, esandako guztiek, onelatsu egin zien galde :

—Zenbat jotzen duzute gaurkoak?

—Bakoitzak sei minutu ta laurden.

—Ba-nengoan ortan. Igarri diot bestetan bañan gutxiagoan egin dutala.

—Bai, ala duk. Ongi al-derizkiok?

—Ongi, bai. Oiartzun'en jokatu genunetik onera ez dut bada aurrerakada makala egin.

—Bai, alaxen duk. Ortik bera ez duk ibiliko Muño, erronkaz-erronka ibiliagatik.

—Naiko lan.

—Lanak arenak i menderatzeko.

—Ikusiko dugu, ikusiko dugu —esan zuan Patxiko'k biotzetik irtenik kezka— Probintziano auekin ez fia gero...

—Ago lasai. Naparrentzat ikusiko diagu garaitza.

—Obe. Ta orain, saiorik geiago egin bear al dut?

—Ez gaurkoa azken. Egun gutxi gelditzen dituk. Aizkorak atsedenean euki ditzazkek. Ori bai, egunero-egunero betiko mendi-ibillera, laisterketa koxkorra, jinasia...

—Ta eguna datorrenean ¡zapla! ustekabea... —txinpartaka, esan zion, Joxanton'ek.

—Ez zekik gizarajoak zer egur eman bear dizkiogun —esan zuan Xoxuenea, ko, nagusiak, apustu egunean naparrak eraman egurrari buruz— Oian auetan egurrik biurri ta gogorrena aukeratu zizkioagu...

—Bere gurinezko eskuak ¡parrast! urtuko al dituk...

—Nuntsu dituzute egur oiek? —galdetu zuan Joxanton'ek.

—Ortxe zeudek gurutzaz bereziturik —erantzun zion “indianoak”.

Altxa zan Joxanton beroiek ikusteko asmoz. Orpoz-orpo ere bai jarraitu Lekarotz'ek. Kuzkuzean jarri ziran. Abe tantaiak upurditik goi-muturretaraño ikusmiran, banaz-bana. Larreko gorderik zegoaneraño iritxi ziran. Onek ere makarrazto zuriz egindako gurutza ba-zeukan. Beetik goraño begiraka jarririk, onelaxe esan zion Joxanton'ek lagunari.

—Au ere ba-duk ale ederra!

—Aundia. Bai gogorra ere ala izango duk. Begiz ongi ornitua zioke...

Ixilaldi bat izan zan, azken muturreraño begiak kentzen ez ziela, xeetasun guztiak ar al-izateko. Alako batian, urduritsu, oi garden bat egin Joxanton'ek.

—Mutillak! Zatozte azkar! Norbait ba-da emen zeletari!

Laisterka etorri ziran danak eta goitara begiak zuzendu. Egi-egia zan. Ba-zan an batedonbat bere saioen ikusle ta bere esanen entzule izan zana.

Lekarotz izan zan lendabizi ezagutu zuana.

—Madarikatua! —otsegin zuan, esan baño— Oiartzun'go Larreko dugu-ta!

—Arrayo madarikatua! —oiukatu zuan, sugarrez, Joxanton'ek— Ori ere bai al-dugu!

Ta zugaitzaren gañean zegoanari :

—Jetxi adi ortik tiroz botatzia nai ez ba-duk! Zerri zikiña! Ixilkakoen lapur!

Ez zirudian, goikoak, presa aundirik zuanik. Beintzat, lengoak, osteria oi garden egin zion :

—Ez aizela jetxiko? Eddorrek aukera! Edo or goian otzez il edo ixkixua bezela tiroz erori!

Larreko, bañan, bertan-goxo zegoan. Au ikusirik, beetik guztiak

on-esanian asi zitzaien, batezere Don Joxe'k eta Xoxuenea'k. Mintza ariz-ari sartu zioten barruan ta baita ere jetxi. Lur jo orduko naparrak eltzen asi zitzaien ta bera indar egiten.

—Ez zak indar egin alperrik. Iretzat kalte. Eskopeta au ta aizkorak ire aurka dituk. Eta basoan ba-ziok gorputz bat nun gordea —esan zion Joxanton'ek.

Azkarra zanez etsi zuan. Jabetu zan indarrean deus ez zula atarako. Bost gizon batentzat txit mauka geiegi zan. Gañera, beste pentsamentu batzuk bururatu zitzaizkion. Alegia, gau artako gertakizunak. Esandakoa egiten ba-zuten ta bere gorputza arkitu, lenen gauza esango zutela. Alegia, gauaz gizona il ta gero damaturik berak bere burua zuritu, bere bizia kenduaz. Ongi artuko zutela egokiera ura erru guztia berari botatzeko. Eta, bera, illik ba-zan ere, zeñentzat eta bere etxekoentzat lotsakizuna. Ez, olakorik ez. Ez zuan onelako biderik emango. Beraz, zetorrena zetorrela aien eskuetan gelditzen zala adierazi zien, kiñu batez, esanik :

—Emen naukazute bada.

Aizkora xorta lotzeko ekarritako sokak Txokolo'k arturik Joxanton'eri eman ta, onek esku-lotzen ekin zion. Gogorki lotu gañera, min eman arteraño, Eskuak atsekaldean loturik, beste sokari zugaitzari ere lotu, ederki lotu ere. Ta bein onela, par-antzean era bai esan :

—Ba-agokek onela alditxo batean. Baso-lapur bezel a etorri aiz, lapur bezela artu bear. Gure txanponak, eta ez bakarrik gureak, napar errietako txanponak ik galdu arazi ditzazkek. Beraz, ago emen guk irekin eginbearra argitzen degun bitartean.

—Iñor bai-al-zerate zuek ni lotzeko?

—Ba-geran edo ez geran gero ikusiko.

—Urde zitalak!

—I, berriz, lapurra!

Len exeririk egondako tokietan berriz jarri ziran. Arpegi illunak erakusten zituzten. Ta, aidanean, erabaki gogorren batzuk artzen ari zirala igarri zitekean, izketaldi gartsuari buruz. Ortxe amar bat minutu egon izan ziran. Larreko, rengana itzulirik zugaitzetik azkatu, ta esan zioten.

—Goazen!

—Nora?

—Ez zegokiok iri ori jakitea. Jarrai, bestela... uuum! —ta Joxanto'ek izkillua aurrean jarri.

—Urde zikiñak!

—Urdeak, beraz, e? Ongi ez ibiltzeak zekarkik onelakoak. Ain zuzen ere iñori errurik ez eman ta jarrai aurrera berriketa gutxirekin —latz, guztiz zakar zuzendu zion Joxanton'ek.

—Eskuak atsekaldean loturik, arkumetxoak perirako bezela, an eramam zuten aurrean arturik Lesaka'runtz.

—Ez gero iges-egiterik pentsatu! —oar egin zioten.

Itzik ez zum erantzuñ. Itzak galbidea besterik ez ziolako ekarriko. Ixil-ixilik, beti atzetik zitula, maldaz-bera ba-zijoazten...

JOXANTON'EN JAIOTETXEAN

Egurrez zamatua, kurrinkaz basotik ekarritako gurdinari bei biak kendu ta elikatzera ta atsedentzera ikullura eraman ondoren, egur pilla sokaz azkatzen ari zan etxe atadian Joxanton'en aita zaarra, Kepandon.

Ba-zun basetxeak bere orma sendoen inguru xamarrean irmo altxatzen zan lizardi bat, eta onuntz erakarririk eta bere babesean, alzun txukuntasun obenean egurrak pillatzen ari zitzaigun, negu zai egon zitezen, iritxirik otzak sukalderaño tokiz aldatzeko pixkanaka-pixkanaka.

Leiaz ari zan bere jardunian. Txistuka, aldiz, "Idiarena" ta one-lako txistulari eresiak. Bere gogozko jardunian oartu ere ez zan egin emaztea etorri zitzaiola ateraño ta esaka zeukala, begiraka.

—Gizon. Ez ote duzu etorri bear? Gosari-legea gerturik daukazu mai gainean...

—Et, et, et. Nere laanean arituki ez nintzaizun oroitzen ezertaz —esan zion senarrak, beingo-batian esnaturik bezela— Berialaxe or nazu...

Ta, berrero, alik eta azkena eman arte, lengo lanari lotu zan. Kepandon'ek, bañan, ez zun egun ura berealaxoxean gosaltzeko eguna. Berriz ere bere lana utzi bear izandu zuan jende ots ta zantzuak entzunik. Bai bai-zetozten, gaikaldetik, basotik irtetzen ikusitako gizonak tartean lotutako Larreko zutela. Begi-begira zegoan Kepandon bañan ezer berririk ez zuan ikusten talde artan. Izan ere aurretik zetorren bere semea ta onentzako zituan begiak oro, eta bai pitin bat ere beste erritarrentzat. Bañan ez-ta bururatu ere erbesteko bat zekarte-

la, Larreko zekartela. Onegatik, bere buruarekiko, onela zion: Ara itzuli bere saaioa egin ondoren. Noiz bukatuko ote dituzte ibillera auek?

Eta biotz-egiz zion auxe. Ez bai-zan apustuzalia. Errikoentzat garaitza ta goresmenak nai ba-zitun ere. Bañan erritarrak naspillean zebiltzalarik, eta bere semea ez gutxien, berari ere orduantxe erri-zaletasunak zimikoa egin. Onexegatik, inguru xamarrean nabaitu zituanian, galde egin:

—Zer, marka txarrak?

—Markak... —marmartu zuan betedonbateg.

—Bai, marka txarrak egiñak dituzute. Besterik ez diote zuen bekoki zimurak.

—Markak eta kolpeak ardanegi zuloetan izan oi dira jai gaetan. Ez gaude txantxetarako, aita —esan zion, asarre, Joxanton'ek— Begitu zein dakargun...

Orduantxe jabetu zan Kepandon zintzoa gizon gazte bat loturik zekartela Irrika bizian galdezka zan:

—Nor duzute ori? Baso-lapurren bat?

—Ez ori. Ixilkakoak lapurtzen dabillena. Oiartzuar zeletari bat.

—Besterik ez duzutela-ta? Eroturik!

—Ez gaude eroturik, aita. Bearrezkoa zaigu egitia. Ondamendia litzake naparrentzat, bestela.

—Ez duzute gauz onik iritxi bear zuen apustuaz. Ez milla bider esan izan ez ditelako jokia ez dala errenta. Euzkal-errietan negar ta odol darión ixurkia duk.

—Orain ez gaude malkotarako, aita. Gure jaiotetxean giltzapetu bear daukagu alik eta aizkora-jokia bukatuko dan arteño.

—Olakorik ez gure etxean. Loiaz ez dik zikin bear gure izen ona. Ez arrayoa! Beñere ez dukela ekarri bear gauz onik etxera! Ta, orain, lenaz gañera, oraingo itxillu au. Aski diagu, seme!

Ixil-ixilik entzumena, larri-larri begiak egondu ziran entzule guztiak aita-semeen arteko izketaldia entzun ta oien igitzeak ikusiaz. Indar bi ta bai gogorrek zebiltzan leian. Semearen edozertarako ausardi ta trebetasuna, ta gurasoaren zentzumena ta adimena.

Izan ere Kepandon'en etxe au ez zan izandu iñoiz tirriki-tarratako etxe oietakoa, nolako Peru alako Maru biltzen diradenetakoa. Antziñatik, asabengandik zetorkion etxeari etxe sendo-sendo izate,

ta bere biztanleak, Kepandon bizi zan artekoan, beintzat, beti itzal ta begirune aundiko gizonak bezela ezagutzea.

Ba-zekian au guztia semeak. Ba-zekian burnia okertzen baño zallagoa zala bere aitaren zuzentasuna okertzea. Ba-zekian au ta geiago ere ta, bere egintz guztietan bezela, erabaki latz bat artzeko ordua zala. Beraz, aitarengana zuzendurik, zorrotz itzezin zion :

—Zeletaria gordea euki bearrean gera. Au da mendiotan basetxe izkutuena ta emen da egokien gelditzea.

—Ez duzute emen gordeko!

—Atoz nerekin aita, arren. Ba-dago zerbait garrantzi aundikoa emen.

—Goazen. Bañan alperrik izanen duk!

Ta besotik elduta etxearen azpikaldera eraman zuan, etxeke soro geienak lenen ta, urrengo, an urrunean, Baztan'go zelaidiak eta uriak ikusten ziran tokiraño.

—Zer derizkiozu gure jaiotetxea, gure asaben-asabengandik datorkiguna betiko utzi bear ba-genu? Zer derizkiozu soro ta baratz auek laga ta or zelai orretara jetxi bear ba-genu auek utzita ogi puzka bat irabaztera? Zer derizkiozu...

—Ago ixilik, arren. Zer esan nai duk? Esan garbi!

—Etxeko aberastasun guztiak Patxikorena'ren alde joka ditutala, aita. Ori ta besterik ez.

—Ori ere egin al duk? Ik ondatu bear duk etxea. Ik gure sendia loitu...

Burua makur, ixilik, gelditu zan. Gizona zan ta ez zuan negar egin begietaz. Bai ordea barruan, biotz-odol-tantazko malkoak ixurkian zituan. Ez bai zan gutxigorako. Bere aberastasuna ta batezere bere zentzutasuna goraiatuak izanak ziran, betidanik. Orain, berriz, bere seme kalaxka ura zala bide bere aberastasuna, ta geien maite zuna, bere izen ona galtzeko zorian zekusan. Guzti-guztia kinema batean bezelaxe azaldu zitzaion bere adimenean. Ta irudi onen azken-muturrean bere ondorengoan lur jotzea...

—Nai dukana egin zak! —esan zion asarre, une larri ta txar ura eten naiean— Egin ba-duk egiña. Bañan biar ez nere aitzakirik egin, datorrena datorrelarik.

Burua kolkoan, arpegia itun, biotza eri, etxera sartu zan gosaltzeko asmoz. Bañan ez zegoan gosaritarako. Bekokiaren zimurrak

eta espaiñen josteak bere barrengo ekaitzaren zalatari ziran. Emazte gaixoak, zerbait latz ba-zerabilkila igarririk, erdi dardarka galde egin zion :

—Zer goibeltzen zaitu, Kepandon?

—Gure Joxanton'en egintz txoroak. Betiko kalaxka orrek!

Ta ia negar egiñik emazte arrituari kontaka ari zitzaion atadian gertatu zanaz eta semeak esanaz. Orduantxe, igaro ziran Larreko, rekin sukaldeko ate aurretik, maindiotik zapai eskalletaruntz jende mordoak. Kenpandon'en emazte minberatuak begiratu zuan katamotz-amak bere umen bat lapurtzen nai dutenean bezela. Alazere, ama izaki, ta semearen okerrak zuzendu edo ez tali ein naiaz bezela, senarrai mintzatu zitzaion :

—Gure semea dugu! Gurea...

Ta ontzik garbitzeko askara joanik ontzi garbiketara ba-lijoa bezela egin zuan. Bañan, egiz, etxeke-mantalaz legortzera barra-barra ixurkian zetorkion malko garraz-mardulak.

* * *

Joxanton'en jaiotetzeko zapai edo ganbarak ez zuen alde aundirik euzkal errietan beste basetxekeogandik.

Enbor ta aga lodiak jasotzen zuten tellatua ta tellak ezin ezta-lian jasotzen zuten egurrol-txatxuak. Bazter batean, ederki pillaturik, usai zeriotea ba-zegoan belar goxo usaiduna, maindioak artu eziñik, gora ekarritakoa. An-or ere ikusten ziran urte artako uztak oparotsu eman igaliak. Artaburuak, lursagarrak, babarrunak eta abar zabaldurik ikusten ziran. Tartean ere bai lan-tresna batzuk kakotik zintzilik, kutxa zarren bat, otar eta beste. Alare ba-zan tokia oraindik antxen, zapai aundi zanez.

Onaño ekarri zuten oiartzuar bertsolaria. Beti eskuak loturik. Belar pillaraño eraman ta bertan utzi zuten. Joxanton'en lagunak, onen gurasoaren esanak zerbait ikaraturik, ixilik zeuden itzik esateko ausardirik gabe. Bañan an zegoan Joxanton, betiko zetatsu ta gogor, Larreko'ri esateko :

—Tamalez, bañan au izango duk ire bizitokia apustua egin arte.

Larreko'ren begiratu tximist izan ba-litz ikatz biurtuko zuan, ain asarre zegoan. Ba-zekian, onuzkeroz, ezer ez zuala lortuko, bañan odolak kixkal zeuzkan ta ezin izan zun mingaña ixillean lotu.

—Pizti gaiztoak!

—Atsegiñeko berritsu ta marmari ago! Nai baño obetogo egongo aiz-ta. Oial ta berogarririk ekarriko dizkiagu, gau beroa izateko. Zer jan ez zaik faltako. Atsedena, berriz, nai baño geiago. Zer geiago bear duk? Pasientzi pixka bat, aidanean... egun batzutan. Gero... azke izango aiz.

—Ta, orduan zuek espexera. Ez pentsa au onela geldituko dala...

—Ba, ba, ba -esan zion, berriz, Joxanton'ek irritsu ta akullulari. Gero ikusi bear ori. Ta nola egiztatu dezakek ori?

Larreko'k ozka egin zion mingañari. Izan ere ala zan. Nolaz egiztatu? Goizeko odola nolaz garbitu? Ta nolaz argitu bere goizeko ige-sketa? Xagua kaiolan bezelaxe zegoan. Alperrik bere burua urra kaiol-burniaz. Etzegoan egiterik besterik ixildu ta ausnartu baño; Zi-joaztela, beintzat, pake ederrian ta astirik izango zun buruan zerbait zuzentzeko. Petral aiek ez zuten bere bizkarretik par egingo. Zi-joaztela, bai, txakurrak totuak egin zitun tokiraño.

—Zoazte, madarikatuak, zoazte ene begi aurretik!

Ura begiratua egin ziena guztiei, ta batezere Joxanton tirtirikuari. Auek ere ulertu zuten alperrik zeudela an arekin izketan ta abiatu ziran eskalleretatik beera. Bañan, ez azkenekoz Joxanton'ek oar egin gabe giltzapetuari:

—Igesegiterik pensatzen ba-duk, begira orko leioetatik beera. Tokitan zeok lurra! Orain, ire ezurrak maite ez ba-dituk...

—Joateko esan dizutet, urde alenak!

—Agur, gizon, agur. Egonerak emango al dik baretasuna ta zentzutasuna. Ta apustu ori ezik, adizkide ta anai gaitukela, oroi izan...

—Adizkide? Anai? Ez dago gaizki, maltzur alenak!

Irten ta galdu ziran eskalleren illun-erraietan. Atean karraska otsa nabai izan zan, atea itxitzean. Joxanton izaki ataka sendo batez indartzen atea. Gero, ixilla. Ta gizon bat ate atzean zeletari. Ura etxeko semea zan. Ikusi nai ba-zuan oiartzuarraren egikera, an ganbara zabal artan bakarrik gelditzen zanean. Arnasa gorderik, ateko zirrikitutxo batetik igarotzen zituan begiak bestaldera irrika bizienaz.

Geiegi luzatu gabetanik zan aldia gure Larreko igitu zanean. Oinkada bi eman ta geldirik gelditu zan ots txikienik entzuten zun edo. Itxuraz ez zuan deus nabaitu. Ta, orduan, iñor begira ez zualakoan aurreratu zan ausarditsu leio aldetaruntz. Ta begira jarri...

Iñundik ere begiratualdi ark ez zion itxaropen aundirik itsatsi. Beintzat, len baño kopetillunago itzuli zan bere tokitxora. Len baño itunago bere begiak itunaren-itun latzen ta oñazekorraren leioak ziruditen. Etsipenez beteta dagonaren keñua itzal artan marrazkatu-rik, orbel-pillan laga zuan bere soin nekatua ta buru nastua.

Joxanton, berriz, ixil-ixilik, irripar eztitsuz lagazu zuan bere zele-leta lekua...

* * *

Ainbestean joan zitzaizkion egun ta gau ura. Nekea alde batetik, bañan geienbat ustegabeko gertakizun latz aiek ezur guztiak minbe-raz laga zioten. Aoa lirdinga bat egiñik zeukan egarria zala bide. Ardo, sagardo ta ura zer-nai ekarri zioten. Aueri ekin zion zerbait bere egarria itzaliko zualakoan. Janaria, berriz, ura zan jaliarekin!, muxin eginda bazterturik zeukan. Egarrria zerabilkin buruan. Bañan, geienbat, giltzape artatik azkату zedin eginbearrekoak. Oi! zenbat gauz ibili zituan adimenean; zenbat asmo ta zenbat eginkai tajutu!

Alde egin bear zalako asmotan bai-zegoan, bai egon. Ark utzi, ola-ola, bein ekitako arloa. Ez orixe! Ez zegoan ontarako. Euzkalduna zan ta euzkaldunak ez du ain errexki itzik jaten. Jatorrizko euzkaldunen antzera motela aasteen, azkarra ta leiatsu bukaeran. Ez zun ez zaldi laisterkariaren irtetzea ta asto motelaren gelditzea. Itz eman ba-zun beteko zuan, naiz eta bide arantzatsuetan aragia zatika utzi; naiz eta odolez bide orixkak gorritu. Ortarako zan euzkalduna, zetsatsua beti, elburu aundiatarako, uste ta asmoz onerako, beintzat, naiz eta oker egon.

Oldozpen oiek itxaropen apur bat ba-zemaiotela ba-zirudian. Alaixeago agertzen zan, aidanean, urrengo goizean, bere arpegi leu-na. Itzal artara ere oitzen ba-zijoan ta, orduan, egun berriaren argiak mendi ta sakonak alaitzen ditun bezela, bere pentsametu eguzkiak nunbait uxatzen ba-zijoan bere erraietan sortutako kezka. Alarik, zerbait ari zan borobiltzen...

Ez ziran, bañan, oraindik bukatu bertsolariaren naigabeak. Ortze garbi da ta lañoak uxu dakarte ekaitza. Larreko'ren errai ta pentsametu argitzen zuan eguzkia izkutatuko zion lañoa nai baño lenago etorriko zitzaion. Ate ondoan, trumoi jo zun, atakaren karraskaz.

Joxanton, bere aita Kepandon, Baztan'go indianoa ta Lekarotz gaztea sartu ziran. Beroien arpegi goibelak zerbait garrantzi aundikoa ba-zekartela motelenak ere igarriko zien. Ba-zirudian batzar orokar baten erabakiak iñori eramatera zijoaztenak zirala. Ta izan ere ala zan. Etxeko sukaldean itz jardunian egonak ziran.

—Ongi lo egin al duk? —galdetu zion indianoak.

Larreko mutu gelditu zan. Ate ondoan nabari ordukoxe gauak eman alaitasun ixpia aienatu zitzaion. Osterantzean, odolak irakiten bor-boil jarria zitzaizkion. Sartu berrien goibeltasuna ikusirik, ezer onik ez zekarkiotela igarri zien. Onegatik, al zula, itzik ez egiteko erabaki artu zun, batpatean. Alik eta mingaña azkatu zezaten, beintzat.

—Igesegitekotan al aiz orain ere? —galdetu zion Joxanton'ek.

Len bezelako ixilla berrirotu zan. Españak ariz josita zitula, bazirudian.

—Lokarriak azkatzeko erabaki artu berriak gaituk.

Auxe sesaiolarik, indianoak, begira zeuzkan guztiak. Nola begira, ordea! Bañan oiartzuarrak dardarrrik ez zuan arpegian.

—Igesi egingo al ukek?

—Bai! —jardetsi zion, soilki.

—Nora, ordea? Espetxera ta agian eriotzara joateko. Nor il duk?

Begiratu zorrotza egin zuan orduantxe bertsolariak. Mataxa azkabidean jartzen ari bai-zitzaion. Ta mataxa azkatutzean bere gurutz-bidearen asiera besterik ez zekustan.

—Nik ez det iñor erail?

—Sinisten diagu ta irekin gaituk ortan. Bañan, to, irakurri zak auxe.

Baztan'go Don Joxe'k orduantxe luzatu zion eskuetan bildurik zekarkion izparringia. Aurregun arratsaldekoa zan.

Larri, biziro, artu zuan orritxoa gure Larreko'k. Eta bai irakurzen asi ere.

“Karabinero bat illik” —zion idazpuruak, eta gero: “Bart gaueko goiz-aldean berealdiko kontrabandoren bat karriatzeko zirala “Aia? ko Arri, etatik barna Oiartzun'go karabineroak zalatari batzuegandik jakin izan zuten”.

“Legearen aurkalaria bere gaiztakeria eraman ez zitzaten bear ziran erabakiak artuak izan ziran, igaro-bideetan bear zaindaria ipi-

ñirik. Azaldu ziradenian izendatutako ta orduetan, karabineroak jalto! eman zieten. Gaizkilleak, bañan, ameto egin bearrian dunbaka ekin zioten ta karabinero bat illik igeseketari ekin zioten.

Txit ezagunak dira Oiartzun'en batzuk eta besteak. Quitol karabinero jauna txit maitea beti bere buruzagiengandik, bere eginbearra betetzen gizonki il da. Igesleak, berriz, txit ezagunak dira bere kontrabandozko ibillera okerrak dirala bide.

Laister atxilotuak izango diralakoan gaude zuzentza maite deguonok”.

Larreko patalduta gelditu zan, mangatuta. Zer egin, zer esan ez zekiala.

Joxanton'ek eskuko sokaka azkatu zizkion. Bai esan ere:

—Ba-uake orain...

Oiartzuarrak begiratu ere ez zion egin. Ain zegoan zorabiatuta.

—Larreko, adi zak —zuzendu zion etxeko semeak—. Ba-zekiagu i ez aizela iltzallea, zer gerta dan ez dakigunarren. Euzkal kontrabandistak ez gaituk erailleak. Ontan, ire lagunak izango gaituk nai baduk...

—Ene lagunak? —jardetsi zion itz tatarrez oiartzuarrak, bere ezezkoa agertuaz.

—Ire lagunak, bai. Ez duk iñora aldegerik. I asarre aiz gurekin, bazekiagu, bañan jabetu adi ire onerako izan dala i zeletan arrapatzea. Ago emen, gurekin, egun batzutan, aizkora apustua erabaki arte. Ez zaik bitarte ortan ezer faltako. Ta orduan, mugaz bestalderako igeseketan geok izango gaituk ire laguntzalle, ta ala bearrik irekin utziko genikek bizia.

—Ez det zurerik ezer bear.

—Ainbat okerrago iretzat —erantzun zion, biotz-minberaz, Joxanton'ek.

Lesakar gazteak au esatean bere gau ibillerak zitun oroiz. Bera ere kontrabandista zan, ta ontan beste zenbait gauzetan bezela oiartzuarra anaitzaz jotzen zuan. Bere lanbideak, bere arrixkuak eta bere ibillera larrietan zebillenen alde bere bizia egiz emango zukean. Mutil ona bai-zan. Kalaxka xamarra, tirtiriku xamarra, bañan asmo onez zebillena edozertan. Larreko'k ez bezela, azkarregi, ongi aausnartu gaberik ekiten ziona edozeri. Bañan ekin ezkeroz, zeñiek atzeraarazi? Itzeko gizona lendabizi, gero gerokoak. Ta au ez zion

ulertzen, noski, oiartzuarrak. Apustu arazoan lepa zintzurreraño sartuta zegoalarik bere etsai izango ontan, bañan emendik kanpo, nor bera bañan adizkide ta laguntzalle oberik? Min artzen zun, biotzez min, oiartzuarraren joeraz.

Banan-bana, guztiak berrirotu zioten eskeintza bein ta berriro. Don Joxe'k oi zun patxaraz ta ludia ongi ezagutzen dutenen antzo. Kepandon zaarrak ia belaunikaturik, arrenka, egindako gaitza onela zerbait zuzenduko zutelakoan ta bere biotz zaurituari pakearen atsedenean biurtzeko. Lekarotz, trebeak, bere kontrabandisten zenbait ibillera urduritsuak gogoraaraziaz.

Larreko bañan berean zegoan. Ez zun itzik egin nai, ez eta ere iñoiz kontrabandista ez zala izan adierazteko. Zertarako? Gauzak okertzen ari zitzaizkion, egia. Bañan aurrean izlari zeudenen laguntzarik ez zuan bear. Naiago zuan bakarrik, bakardadean zearo ondutuko ba-zan ere. Zerbait asmatuko ote zun?

Ez jakin. Nolanai ere ikerlariak naigabez aldegin zuten, batezere Joxanton, guztiz biotz-ikututa. Bere aita zaar Kepandon bezela, buruari eragiñaz...

XIII

AIXTIN-ONDORENAK

Berri onak nekez zabal oi dira, bañan txarrak burrundara bizienan barratzen dira bazter guztietan. Quitol'en gorputza, artean ekartzetxe zuten ta jendea pilloka zegoan kale ertz ta bazter guztietan. Karabineroen etxaurrean, berriz, zer esanik ez.

—Bai al dakizu azken izparra? —esaten zion atso zar batek beste bati.

—Ez.

—Emakumia! Erri guztiak ba-daki-ta. Karabinero bal il dutela...

—Ene, bada! Ori ere bai! Ta nun egin olakorik?

—Aidanean, Elurzulo'ko basoetan. Ta kontrabandistak omen dira.

—Kontrabandistak ez beñere gauz onik.

—Ta erritarrak omen iltzalleak...

—Zaude ixilik. Oiartzuarrak arkakosoak iltzen bestetan ez daki-gu-ta.

—Ezetz? Oraingo ontan, bada, erritarrak eta ezagunak txit izan bear dute.

—Gaitz det sinisten.

—Batzuen utsunea nabaitzen omen da. Iges egiñak izan bear dutela, diote, bañan laister eskuratuko omen. Arrituko omen gera jakitean...

—Setaz ez nazu ibiliko ezetzean. Baliteke. Bañan, dana dala, gorputza ekarri al dute?

—Itxuraz ez. Bañan laister bearko dute emen.

—Ez degu galdu bear olakorik.
 —Eltzekoa kixkaliko ba-da ere. Olako urixka paketsuan doi-doi ditugu onelako ikuskizunak.
 —Gauden, bada, itxoiñez, berriketan, Mikela.
 —Ederki eman ere, Joxepa.
 Pello'k eta Peru'k alkar topo egin dute kaletik etxera bidean.
 —Kaixo, Pello!
 —Kaixo, Peru!
 —Kalera bide?
 —Kaleko asmoetan, bai.
 —Or ez dituzu berri onik arkituko.
 —Ez? Orain ere bai al-dago zerbait esan bearra?
 —Elurzulo'ko pagadietan karabinero bat garbitu omen digute.
 —Gizona! Ori ez da eltxoaren egaketa.
 —Ez, noski. Ta okerrena, kontrabandistak izan bear omen dute erailleak.
 —Ta ori sinisten al dezu! Zu ta ni ibiliak geradelarik lan gogor ortan, ba-dakigu euzkal kontrabandistak odolez ez dala zikintzen.
 —Bai ala da. Bañan egun batez gertatzen ez dana bestean gerta leike. Nik al dakit egi edo gezur dan! Bañan ori baño aundiagoa badiote. Alegia, oiartzuarrak omen ditugu erailleak...
 —Ezin det sinistu, bada. Naspillaren bat ibiliko da or tartean.
 —Ba-liteke.
 —Mugaz bestaldera igesegin nai zuten arrotz gaizkillen batzuk, edo.
 —Ia egiarekin zauden?
 —Nik ala uste.
 —Nolanai ere laister jakitekoa izango da.
 —Ain zuzen ere.
 —Argi jarriko al dute. Urrunarte, bada.
 —Agur Pello, ongi bizi!
 —Agur Peru, beste ainbestean!
 Ta beste batzuek:
 —Orduan ildakoa lengo neguan etorritako karabinero gazte ori da?
 —Bai, ber-bera. Andre panpoxa orren senarra.
 —Negargarria orren gazte ta eder alargun gelditu bearra...

—Gutxi fia beste bat beriala ez billatzea.
 —Txoralda xamarra dezu, bai.
 —Nolanai ere guri ez dagokigu bere etorkizuna. Or-konpon. Bañan dana dala tamalgarria da iñori bizitza kentzea txakur zikin bat bai-litzakean. Ta, batpatean, alargunak artu bearko duan estualdi samingarria...
 Onelako beste zenbait jarduketetan ari zan jendea. Ziranak eta ez ziranak azpikoz-gora jiratzuaz. Egiak eta gezurak pil batian naasirik. Ba-zan zer esana ta zer ikusi naia. Batezere, karabineroen etxaurrean jendearen emana ez zan txantxetakoa. Olakotan bildu oi diran gizon ta emakume, ume mukisuk eta koxkortuak, atso ta agureak, batezere atsoak aspaldiko gertaerak itzulipurdikatuaz. Besteen esanak aditzeko baño arreta geiago jarriaz berak esan bearretara ta, batezere, ernai ta arretatsu urrutian iñor azaltzen zanean.
 —Bai al-datoz oraingoan?
 —Ez dira, bada, oraingoak ere.
 —Itxoin dezagun, bada, laister bear dute-ta.
 Ta berriro bere maxio jarduketan jartzen ziran.
 Azaldu ziran arte, goiko bidetik. Lau gisaseme gazteek zerraldoa erakarririk. Ixilik, ixilik zetzana ainbatean. Itun, biotz-zulaturik, begietan azaldurik negar malkoekin zerabilten burruka.
 —Gaxoa! —zioten batzuk— Orrenak egin du betirako!
 —Pakean dago onuzkeroz. Errukarriagoa da bakarrik gelditzen dan bere emaztetxo koitaoa.
 —Benetan, gaixoa, bai.
 Etxe barruan sartu zuten Quitol zoritxarrekoaren gorputz otza. Trujillo sarjentoak emanik zitun bere urratsak, eta egiñik zitun bere itzak alargunaren naigabeen txukatzeari buruz, txukatu ta gozatu al ba-ledi ezkontz lagunaren galtzeak damaiguken gogo-oñazea ta biotz-nekea. Batezere, oraingo ontan bezela batpateko eriotz ustegabeko ta arrun latza danean.
 Bañan Trujillo'ren itz onak ez ziran naiko Doña Lucila'ren naigabeak uxatzeko. Beñepein, sartzan ikusi ta karraxika ito bearrian asi, bat. ¡Ene senar! ¡Ene senar! deadartzen zuan, begietatik bera anpolaiak bezelako malkoak ixuriaz. Ta deadarrekin batetsu bere senarra eztaltzeko zekarren zapia kentzera joan zan azkar aski, otso gosetia sarraskira joaten dan bezela. Zapia altxa, arpegi zuri ark zeuzkan

espain moreak eta erdi-itxirik zeuden begiak ikusita, erotu bearrian asi zan oiuka ta zalapartan.

—Ainbeste maite zindudan ene senar! Ba-zoaz, bakarrik ni utzita! Zer egin bear nik orain, zer zu gaberik, zure maitasunaren beroa nabari gabetanik! Ene senar! Ene maite! Betiko galdu zaitut!

Goiko indarretara laguntza eskean ekiten zion ere, aldiz, karraxi batean.

—Jaungoiko altsua, erruki zaitez nitzaz! Ezazu nitzaz kupira! Lagundu zakida, arren ene Jainko!

Ta ekiten zion berriro oiuari, karraxiari ta zalapartari. Buruari eltzen zion bein ta milla bider, illeak ximatsu ipiñi arte. Gorritu zitu-tuan begiak, zapi txukatzallearen igurtziaz. Birika-bularrak auspo zar nekatuaren gixara biurtu zitzaizkion. Burua ta soin guztia minbera batera etorri zitzaizkion. Besoak, ubelduz beterik zeuzkan, ixkanbil ta abiada eroetan eltzen ziotenean ezarriak.

—Zer egin bear det orain, zer? Gurasorik gabe! Senarrarik gabe! Bakarrik...! Oi, oi, oi ene senar! Ene Jainko!

Olakotan olako tokitara joaten zale diranak ez zuten utsegin. Antxen zeuden auzokoak, gizon bat edo beste, soilki, emakumezkoak ugarian, zenbait errukitsu, zenbait jakinzale. Antxen zeuden batezere etxeko karabinero ta beren emazte ta umetxoak. Oñazetua konsolatzea Goiko, aren agindu. Ta agindu ori gogoz betetzea nor-bere lur legorarentzat Jaungoikoari aingeru intza eskatzea. Alargun gaixoa bearrian zegoan. Ba-zizkitzuten bai itz onak eta consejuak. Ba-zizkitzuten onelakoak:

—Lasai zaitez Doña Lucila. Ori ez dago zuzentzerik, ez dago gure eskuetan. Jaunaren naia izan ta berak eramana izango du bere altzora. Gu ere eramango gaitun bezela. Zer egin? Ziur egon gu baño pake obeagoan egongo dala. Bakarrik zaudela, ta zer? Jaunak ez du iñor goserik iltzen. Iñor ez du bazterrian lagatzen. Iñori bere laguntza ez dio uko egiten, fedez otoi dagiogunean. Gizakume, egazti, abere ta landareak bizi izateko ipiñi ba-ditu bear diranak, nolaz zu utzi orren errexki?

Bañan alargun berria beretik ez ateratzen.

—Ai, ai, ai! Ai, ene seenar, ene senar! —ta, aldiz— Ene Jainko, zuzentza, otoi dagizut, erailleentzat!

Ta, orduan, onelakoak ere esaten zizkioten:

—Zuzentza izango du Jainkoak, bai ziurki, onak zeruratzeko ta gaiztoak inpernuratzeko. Bañan ludi ontan ere, Doña Lucila, gaizkilleak izaten dute bere zigorra, zure senarra il dutenak izango duten bezelaxe...

—Bai, bai! Bañan nere senarra illik! Eta ni bakarrik...

Karraxia ta zalaparta berriro. Erotu bearra. Oiuak eta malkoak. Negar zotiñak eta makakorroak. Ixkanbilla. Ainbeste notin, gizon ta emakume, andrexo naigabetua baretu eziñik. Tartean ere, Torrechica, ixil-ixilik, bibote beltza arpegi zurian, tanto beltzak begi zuloe-tan, gudajantzian makur, txepela indartsu egin nairik edo azaldu nairik.

—Doña Lucila, arren, zaude lasai. Gauzak diraden bezela ar itzazu. Ez izan kezkek zu bezin une txarra ez detala igaro laguna odol ututzen ikusirik. Emen naukazu, bañan, konpondu ezin diran gauzak diradelarik, lasai...

Lasai, bai, zera! Barru-barruan zeraman ark prozezioa. Indar arrunt aundia zegin erraitako dardarikara axalean ez agertzeko. Bañan, egiz, ba-zekian ederki aski uraxe eztaltzen.

—Doña Lucila mintzatu zan, negar-iturri, kezka-mendi, onela:

—Lasai-diozu, lasai! Iñor gabetanik gelditu naizenean...

Gure karabinerotoxa egondu zan esateko bakarrik ez zala geldituko. Bera an zegoala edozertarako. Bere senarraren eriotza ikusi zuna, gertu zegoala alargunaren naigabeak txukatzeke. Iltzen ziran tokian piztutzen zirala. Bizitz baten ondoren bestea etorri zitekeala. Egondu zan esateko ere beste zenbait gauz.

Ixildu zan, baño. Beste une egokiagorarte. Jende asko zegoan aurrean. Ta ba-zun, bestela iduriagatik, lotsa ta begirune pixka bat. Bere alkarrizketa etentzeko egoki etorri ez ba-zitzaion, bada, an txokotxokoan zegoan emakume gazte aren eskea:

—Alperrik dirade emen negarrak. Onuzkeroz otoiak bear ditu onek. Errosariyoa esan dezagun. Neronek asiko det...

Auzoko Petratxo zan iztuna. Gaztea. Laister ezkontzeko gertaketetan ari zana. Ura jabetu ondoen, egizko maitasunpean zegoalarik, alargunaren oñazetzaz.

Ta errosariyoa asi zan.

“Gure Jaungoikoak bere altzoan euki dezan...”

Ura lasaitasuna Torrechica, rentzat! Ura pake zirrada Doña Lu-

cila'rentzat! Ta ura bere tokira biurtzea an zeuden beste entzuleentzat! Naigabe, oñaze, larritasun, eziñegona ta kezken lañoa etenik zan errosarioaren irakur beroaz...

Onen marmarra ez zan ixilduko gau guzian. Agortuko ez zan bezela alargunaren negar-iturria.

Egunberriak, bere txirripaz, zillartu zituan masailletatik-bera irrist zegioten malkoak, anpolariak bezin lodiak...

* * *

Ba-ziran ere besten batzuk oso lasai ez zeudenak. Eriotz izparrak sortu bai-zitun bere ixtilluak eta bi Oiartzun'go Apustu Elkarteko'en artean. Len izparrak entzun ta jaramon aundirik ez egin, bere mutillak itxuskeri ortan ezer ikusterik ez zutelako. Bañan, orduan joan ta orduak etorri ta Larreko ta Gautxori'ren aztarrenik ez. Beroiek ote ziran naspil ortan, galdetzen zioten batek besteari. Ez, iñolaz ere. Neurri artara iritxi bear asmotan ez ziran irten, ez ta gutxiago ere. Arazo paketsuago zeramaten. Bañan erritarrak, jendeen aotan, omen erailleak eta bere mutillak agertzeke. Zer gertatu ote zitzaien? Nundik-nora ote zebiltzan: Lesakarrak konturatu ote ziran bere ibilleratzaz? Au dala-ta artu ote zituzten? Ta arturik ere, zer ikusteko ote zuten karabineroaren eriotz artaz? Itxuraz ezer ez. Bañan berak ez etortzen gauzak argi ta garbi ipintzeko. Zer erabaki artuko? Zer egin? Nora joan? Zeñi galde? Egiarekin azaldu? Ixilkako arazo eraman zutelarik, zan bezela azaldu? Ta nori? Ta zer irixteko?

Gure gizonen kezkak conseju-etxeak esaten ba-leki! An egondu zan "Arrixabalaga" orain piztu ta gero koxk bere txokorrari. Bat jaurti ta beste bat aoratu. Larrialdia artan lagun zizkitzun betiko Itzaibeltz eta Letrax. Borbollo ere bai doi-doi. Guztiak jakin-izparra zerabilkiten aotan, guztiak adizkideen ez itzultzea. Bañan ezin ezer erabaki. Ez eta gero Muñoluzea aizkolaria etorririk ere. Gaua etorria zan ta ez zeuden ez zeru ez hurrerako.

Zerbait egin bear ta sakristauari otsegiteko erabaki artu zuten. Ia argi zirrinde bat bederen ba-zemaien kezkaren illuna alik eta zerbait urratzeko. Etorri zan bezela, leialki ta jator. Bañan, oni ere ez zitzaion gauz aundirik bururatu. Zedozer bai. Bearrezkoak ez zirala izango bañan neurri batzuk artzea on izango zala. Alegia, Gautxori kontrabandista izanik ba-zitekeala okerren batetik, bere utsegite batetik edo,

naspillean sar izatea edo. Ta on izango zala etxean zerbait baldin ba-zeukatzen gorderik, zeukatena izkututzea.

Ta ontan zeuden ez atzera ez aurrera.

Gaua zerbait aurreratzen zijoan. Zerua goibel zegoan ifarreko lañoak mendiak arturik. Artean gure gizonok apaltzeko. Ez gogo aundirik ere. Ura zoratu bearra! Ta betiko galdera: Nun dirala gure mutillak, esango zenuteke? Zerbait bai ote dakite eriotz dagon giza-jo orretzaz? Ta ala, kezka ontan zeudela, orduan nola dijoazten jakin gabetanik, oartzeke bere etxe ta bere buruen bearretara, ara nun sartzen zaien izardi-patzetan, arpegia beldur, ¡Xabiartxo, zortzi amar urteko mutil-kozkorra, Larreko'ren anai gazteena...

—Zer berrik dakarzik? —galdetzen diote dan-danak ao batez, irrikatzen ta beren exerlekuetatik altxarik— Anaiaren berririk bai-al-dituzute?

—Ez —erantzuten die mukitsuak, itz-totelez —Bañan etxe miaketetara polizikoak etorriak ditugu.

—Eeee?

—Bai, ta Gautxori'ren galde egin dute. Papertxo bi atera dituzte ta gure mutillaren izena lenen eman bearren arena eman.

—Zerbait bai-al-dezute etxean?

—Ez. Ba-dakizute gure anaia ez dala kontrabandoan ibiltzale.

—Egia dek. Azkar ibil gaitezen. Ua, beriala, Gautxori'nea ta esan gertatzen dana. Esaiotek laister joango natzaiela —esan zion, sakristauak— Eta gero ua beriala ire etxera ta etxekoei luzaarazi dezatela, edozer aitzakiz, miaketa. Ta agur Xabiartxo!

—Agur!

Ta mutil-koxkorra antxitxika joan zan. Erbia bezin bizkor.

Borbollo ere bai,gero, atzetik bere etxaldera, Epelde,n esanetara. Bai-bai-zekian, agian, ondakiñen batzuk izango zirala Borbollo'nean, ta bada-etzpada. Zegoan bezelaxe!

—Gautxori'nekoa neronek egingo det —esan zien, adizkidei, sakristauak— Zuek ba-zoazteke orain etxera, lasai...

—Lagundu al dezaizukegu zerbaitetan— —eskeñi zan Arrixabalaga.

—Ez. Anitz ezker; Ez dago astirik galdu bear. Agur!

—Agur! Onian ibili!

Irten zan. Oinkada laisterrean eleiz aldera jo zun. Sakristira sar-

turik, aspaldidanik beti zintzilik egoten izaten zan apaiz jantzi bat artu zuan. Soñian jarri ere azkar aski. Buruko txapela ken ta apaizginbela jarri ta irten zan eleizatik. Nork, ezezagunak, antz artu ari apaiza ez zala? Inortxok ere. Ta, berak, ba-zekian. Onegatik orduko bere buruaren jabetasuna. Gañera ez zan ez lenengoz egiña orrelakoak. Gizon jatorra gure eleiz-gizona! Lagun artekoa ta atsegiña sagardotegian. Zintzoa ta leiala eleiz-lanean. Itzal ta zentzu aundikoa bear zanian. Adizkide edozeiñekin. Laguntzalle beartsuenganako. Amaika aldiz, bai amaika, erritar kontrabandisten gordelaria. Zeraman jantziak eta kanpantorreko bazter-zokoak izketan egingo baluteke!

Laisterrari eman ta laister jo zun Gautxori'nea. Bertako biztanleak, sakristaua apaiz jantzin ikusirik parrari ekingo zioten, parra egiteko une larriak izan ez ba-lira.

Berriketa gutxirekin Epelde sartu zan etxean.

—Gabon! Amona onik al-daukazute?

—Bai!

—Oieratu dedilla, bañan azkar, ta gero etorriko diranak apaizatza galde ba-dagizute amona aitortu dedin etorri naizela. Aditu?

—Bai, ulertua dago.

—Zerbait izkutatu al-dezute?

—Zerbait eramana degu goiko arkitz zuloetara.

—Goazen bada. Al detana eleiz-torrera eramango det. Toki obeagorik edozer gordetzeko ez zenuteke arkituko.

Onela sartu ziran. France'tik erakarritako sendakai ta bestez patrikarak bete zitun. Gerrian bildu zituan zapiak edo ziruditenak. Galtza muturrak lotu zitun soka batez, eta galtzetan sartu zizkitzun ziranak eta ez ziranak. Eta ederki gizendurik, apaiz ginballa begietaraño sarturik, etxea utzi zuan.

Larreko'netik zaunka ots garbia zettorren. Ta, orduantxe, jendeen urrats otsa ote edo ez ote entzuten zan. Bai al-zetozten? Bai, ba-zetozten. Bañan Epelde jauna ez zuten ikusiko bidean. Obe. Galdetu bearririk ere ez Gautxori, nekoei. Ontan, zorionean zebillen. Bañan alkar topo egin-ba-zuten ere ba-zun gure gizonak arpegian azala gauzari itxura pixka bat eman al-izateko.

Sakristira sartu zanian ixpilluari begiratu zion. Ain ziur ere parragarri zegoan. Zearo gizenduta ta baldartuta. Ginballa sartu-sartua,

a zer nolako itxura zekarren! Par-algarari ekin zion. Bere algaren oiartzuna eleiz guztian dinbili-danbala ibili izan zan. Ta, gero, ipurdiak eragiñaz eta par eztia egiñaz, kanpantorreruntz jo zun, bere adizkide ta erritar bat galtzeko ziran gauzak bazter batian gordetzeko...

Trujillo ta bere lagunak Gautxori'nea etorri ziran. Len esan degu ez zala gure sarjentoa alper egon ta bere urratsak eman izan zitula. Donosti'ko polizikoak ekarriak zitun, beintzat. Oiekin eta erriko karabinero guztiak arturik, dakigunez, lenen Larreko'ren jaiotetxera joan ziran. Ez alperrik! Emen ez zuten deus arkitu. Bere aldi ederean miaketetan ibiliagatik. Bazter guztiak aztarrikatu ta itzulipurdikatu zituzten. Zeri eldu ez zegoan an. Bañan ez zuten etsi. Urrengo egunez, eguzkiaren argitara, zeatz-meatz begiratzeko gelditu ziran. Gelditu ziran bezelaxe, bere zaindariak utzirik. Bai Gautxori'nean ere. Urrengo egunian eraberean gelditu izan ziran. Kirten alenak! Antxen egongo zitzaien berari itxoiten!

Ortarako zegoan gure sakristaua! Gauzak ola-ola uzteko! Oraindik ere, lenen mezetara kanpai-joka zanean, par zegin! Ta bere algarak tilin otsarekin naasitzean ba-zirudian on-egillean eresia sortzen zutela barreiatzeko zeru lañotuatararuntz...

* * *

Ba-zijoazten erriko apaizak Quitol'en gorputz billa, aleizkizunak ta illobi eginkizunak egin zitzakien. Apaizarekin, gurutza zerrurantz, Epelde. Parregille arpegirik ez zeraman orain. Garrantzi aundiko ta garai artan bearreko arpegia zeraman. Zeiñek igarri gabean ibili zuan eginkizuna ta ia lorik egin gabe zebillela? Ta goiz-goiz, -oi bezela, jaiki izan zala? Ez det uste-iñor izan zitekenik.

Apaizok iritxi ziran etxe atadira. Gorputza kutxa batean sartuta, mai baten gañean etxeko eskaratzen zetzan. Apaizak bere aitorketak eta bere kantak egin ziokioten. Gorputza, bera lankideak bizkarrean artu zuten ta abitu ziran apaizen atzetik...

Orduantxe, berriro ez ezik txiki utziak izan ziran aurreguneko ixkanbillak. Gaueko otoiketak zirala-ta, batezere, logaleak, nekeak, pensamentuak, eta bestek makalduia, geldotuta utzia zuten Doña Lucila. Bañan, orduantxe, ba-zeramatala ikustean berriroto zitun bere karraxiak eta marruak. Irten zan kalera ximatsu, kolorerik gabe, zar-pildurik egitazko ero bizia zirudila. Unkigarria zegoan, gaxoa!

—Ene senar! Ene, senar! —oiukatzen asi zan, aspergarri, iturrian ur-tantatxoa bezela.

Berialaxe joan zitzaizkion batzun-batzuk etxeratu zedin, ixil zedin. Ura ixildu? Ez errex!

—Nere senarra da, nere-nerea! —makakorroka zion, begiak negartsu, arpegia senarrak bezin ori.

Karabineroari azken ibillera artan laguntzera joandako guztiak begiraka zitun, errukiaz, ain zegoan unkiagarria. Gero, berriz, aren oiua eta deadarrak, aren negarrak biotzik gogorrena biguntzeko naiko.

—Zoaz, gorde zaitte etxean. Eraman bearra dago, bere ta zure enerako.

Orduan zizkitzun zalaparta aundienak. Elduta zeukaten, ta soiñekoak etentzeko indarrak ba-zegizkin joan nairik gorputzaruntz. Ezin, bañan, aldegin. Orduan, indar guztiak eztarran ipiñiaz, bere senar izan zanari unkiagarritzko agurrak zuzentzen asi zan.

—Agur senar! Agur, agur, agur! Agur senar, laister arte! Bai, laister arte, ene senar!

Erritarrak, oiartzuarrak alegia, ez zeuden onelako ixkanbillak ikusten ta entzuten oituak. Eta gutxiago ildako baten aurrian. Malkotsu ta arriturik zeuden. Ezin sinisturik. Berak barrura malkoak ixurtzen oituak bai-zeuden. Ixilean eramaten naigabeak. Ta samintasun ots bakoitza ziñez agindutako ezkeintzetan biurtzen. Ez baldin bazekiten Doña Lucila'ren barrunbearen berri ta, bestalde, edukazio pixka bat izanik, ixilik zeuden. Neurritu zitzala berak bere itzak eta negarrak!

Bañan ikusmira ta maxiatzera joandako atso batzuen artean, baziran onela itzezin zutenak:

—Andre gaxoa! Erruki zionat!

—Ok ditun ok negarrak! ok ditun karraxiak!

—Egiazkoak baldin ba-dira, bai.

—Aizan! Agian, arrazoi paltik ez den izango. Teatroa egiten jakingo din orrek!

—Teatro egiten ari ba-den ez den teatrista txarra izango! Ez enetxoa!

Ez ordea oituta oiartzuarrak olakoak ikusten. Etxetik atera ga-beak. Eta ez-jakiñak. Jakin izan ba-zuten zenbait alderdietan onela-

ko oitura ba-daudela, ta “negartiak” deitzen dioten emakumeak ba-dirala ildakoen etxeetara, ta ildakoen azken ibillaldira joaten izaten diranak negar egitera ta, geiago oraindik, ortatik bizitzen izaten dirala, bost aldiz geiago esango zuten, aidanean. “Ez den teatrista makala!”. A zer nolako “negarti”, paregabea! Bañan, gure emakumeak, naiko itzeginda gero, onelatsu amaitu zuten:

—Ixil gaitezen, ixil gaitezen Jainkoogatik! Ez jakiñik ari gaitun izketan ta...

—Bai! Ta eztakigunala egiz edo gezurrez ari dan.

—Pin ba-dabilen edo itxuretan Goikoak jakingo din ongien. Berak barka gaitzala!

—Gure maxioa ta gure mingañaren luzea! Ene, bada, barka gaitzala!

—Urruna geldixeago itzegingo diñagu! Agur!

—Bai, bai geldixeago! Agur, bada lapikoko berririk arte!

* * *

Joxanton'ek Larreko'ri erakutsitako izparringia argi pirrin baten erakarle baizik ez zan izan oiartzuarrarentzat. Izparringiak zionetik ba-zekian jakin Quitol karabineroa eriotz utzi ta bere ta Gautxori'ren bizkarrera jaurtikitzen zutela errua. Au ta guzi, oraindik, bere ustetan, ez zuan gauza oso garbi ikusten. Eriotz batean bera iñoiz ez zala zikindu, nork jakin berak baño obetogo? Gautxori ote bada? Naiko lan.

Ez zeritzaion, beintzat, onelakorik. Gautxori'rekin jazan izan zuten estutasunean edozertara gerturik egon bear zutela asmorik ere ezba-zion aitatu. Ta au ez ba-zan, nor zitekean Quitol'en iltzallea? Ezin argitu zezakean arazoa zuan uraxe, milla bider jiragatik azpikoz-gora. Pensamentu auek erabat baztertu ta bere asmotan jarraitzeko erabakia indartzekotan zegoan. Asiera-asieratik asmo sendo-sendo bat burura bai-zitzaion. Ta ixilean, txingurria bezela bere lanean aurrera ba-zijoan. Ta egia esan, egun asko an ez zeramakila, bere altxorra azitzen zijoakiola zekusalarik pozik zegoan.

Eguna garbia irten zan goiz artan. Zerua urdin zan itsasoa bezenbatean. Ganbarako leioetatik eguzkia barra-barra sartzen zitzaion. Mendiko aizeak garo usaia ba-zekarkion, zugazti ta txillardegiena ere.

Etxurreko lizardi ta intxaurretan berritsuak zebiltzan txoriñuak bere txioak eresitan jaurtirik.

Larreko ere pozez zan. Baso mendietara begiratzen zuan eztiki. Negu asiera izaki ta oiana orriz jantzirik zeuden artean. Orri oek urre ziran mendietako orlegi bizian ozkaturik. Bai politikak zeudela alderdi orok! Bañan geienbatez oiartzuarrak Aia, 'ko Arri'etara begiratzen zuan, astiro begiratu. Aizearen garbiak bertago zekarren bere eba-kitzea. Antxen zegoan bai, erregin eder, bere burua zeru urdiñean sartu naiean; antxen zegoan eguzkiaren argi oro bereganatu nairik, urrezko koroi dizdirakorra bere buru eder izugarrian... Begira zegoan, bai! Zoraturik! Mendi arro aren atzean bere uria zegoan. Bere Oiar-tzun ederrean paregabe, bere zelaidi ikusgarriaz, bere bizitza guziko urixka, bere sendi ta adizkideak eman izan ziona! Ta, andik, urrutixeago, ura ta legorra batzen diradenean, antxen izango zan ere bere maitea... Ta bera berriz an giltzapean. Baña zer? Laister joango zan bedar usaitsuz betetako bidezketatik barna... Ez zitzaion ajolik orrek kaltea ekarriagatik. Bere asmoak aurrera eramango zitun kosta ala kosta, ta onetzaz zerbait egiñik zan. Onek alaitasun bat ba-zemaion! ura alakoa! Oartu gaberik, berez, barrenak eskatuta abesten ekin zion:

“Urrundik ikusten dut
ikusten mendia,
beraren gibelean
dago nere erria.
Yadanik dut aditzen
zorion aundiaz
exkilla maitearen
asperen ezta”.

Zapiaren solairu azpian ba-zan, berak ez ustearren, batedonbat entzuten ziona. Ez da pensatu ere ura an izango zanik. Bururatu ere ez. Bañan an zegoan Donosti'tik etorria. Ura Edurnetxo zan, bere maitea. Nolaz ordea etorria? Izkutuko indarren baten agindupean etorria? Siniskaitz deritzaigun pensamentu aldatzen batek eraginda?

Aspaldi izan gabetanik zan jaiotetxean. Ba-zun gogo bai bere guraso zaarrak eta senideak ikusteko ta besarkatzeko. Laister, berriz, Do-

nostian jende ugari itxoiten zuten zorioneko gure aizkora apustua zala-ta, ta batezere Edurnetxo neskame zegoan jantokin, ta pozik eman nagusiak eskatutako baimena egun bikorako, apustu egunian atsegiñago ta gogotsuago egingo zualako bere lana. Ontan ez zegoan oker ostalaria, bai-bai-zekian neskatxaren ontasuna ta baten ordaiñean bi emango zizkiola.

Ta ara nola etorri ta ara nolaz zegoan bere jaiotetxean. Laztandu zituan bere ama ta bere aita zaarrak, muxukatu zituan bere senideak. Aldatu zituan berengandik bestearengana ta oiengandik beregana aspaldian gertatu ta esanbearreko gauz asko. Beste zenbaitzuk, berriz, astirik izango zulako poliki-poliki esatekotan ziran. Bitartean, ezin geldirik egonda, alaba zerbaitetan laguntzen asi zan. Maindioan zeuden artaburu batzuk zuritzen...

Larreko'k abestiari ekin zion ordukoxe aulkia utzita zutitu zan. Abots ura! Abots ura! Ezaguna zitzaion txit! Nun entzuna baño? Ixilik gelditu zan obetogo artu ta igarriko ziolakoan. Abotsaren ezta! Bai sentimentuz kantatzen zula! Abots ura! Abots ura! Ezaguna zitzaion bai, ezaguna txit. Norena ote? Ba-zirudian... Ai, tuntu, tuntu-na! Lenago ez igarri! Ura bere maitearena zan! Bere Larreko'rena! Nun zegoan, bañan? Nun? Iakin ote zun bere etorrera ta lizardipera etorri ote zitzaion bere maite esanak kantetan azaltzera? Ba-zitekean! Bañan, bañan ez. Abots eztitsua zapai goitik zetorren, iñolaz ere! Izan zitekeana zan. Bañan, nola ordea?

Begiak urduritasunean urtutzen gurasoengana joan zan.

—Abots bat entzun det ganbaran! Nor daukazute izkutuan?

—Ire irudipenak izango ditun, neska.

—Ez, ez dira iduripenak! Ez orixe! ta abots ori ezaguna zaite-la esango nuke.

—Txoratu egin al zain? —jardetsi zion aitak, larri-kezkak berrotzen zitzaizkiola.

—Txoraturik'beraz'e? Atozte, atozte ta entzun...

“Dama gazte polit bat
ba-da Donostian
berdiñik ez dubena
zeruen azpian.

Biotza mugitzen zait
modu txit ez-tian
nere pentsamentua
beragan jartzian”.

Kenpandon'ek burua makurtu zuan, lotsaturik. Zer esan etzekian. Batetik, garbi zegoalako batedonbat ba-zala goien; bestetik egia ezin esan zezakealako osorik beintzat. Zarraren estuasuna orduan! Biotzeko zauria berririkitzen zitzaion! Burua milla oldozpenetan naasirik, ametsetan bezela, itz bakoitzak ezpataz zulatuko balu bezela, itzok zuzendu zizkion jakin gogoz ta eziñekonez zegoan bere alabari.

—Presondegi bat biurturik zeukanagu ganbara.

—Zer dala-ta bañan? Nor daukazute giltzapean?

—Oartzuar mutil gazte bat...

—Ba-nenkian, ba-nenkian! Bai neri iduritu! Ba-noa!

—Edurne! Ez olakorik! Entzun akidan lendabizi...

Etzegoan neskaxa aitaren berriketak entzuteko. Oreiña bezin leunki berialaxe zan zapaiara igotzen zan zurubitik barna. Biotza irten bearrian zeukan ateari ataka kentzen asi zanean. Zabaldu zuan aatea ta tximista bezela barruratu zan. Oraindik begira zegoan bertsolalaria, euzkal mendi orlegietara begira... Ikusi zuan neskaxak lenengo begiratuan, ta bere emozioari eutsi eziñean, biotza por-por, begiak ñor-ñor, otsegin zion:

—Larreko! Larreko!

Abotsaren ezagunaz, akullatu izan ba-lute bezela jiratu zan mutilla. Begiratu zion neskaxari, nola begiratu orde! Une batean bururaten diran gauzak oi dira. Neskaxaren abotsa entzun ordukoxe iñoiz ezagutu ez zuan kezka ta iñoiz ezagutzeke zuan naigabea etorri zitzaion. Inundik ere neskaxa an azaltzea zerbait garratz zekarkioloakoan jarri zan. Zer egiterik zeukan an ta zertara etorri? Mutillaren begiraturia eriotz edo gauz txarragoa erremediorik gabe etorri bear zaiola uste osoan dagonaren begiraturia zan. Idazlea, gogoratzen da, bein ibai bizi bat semetxo bizkarrean igarotzen ari zala, ikusi zuana. Uren indarrak sugea zekarren ta laister ba-zan ur-erortze aundixamar bat. Bere senak igarri eriotzara zijoala. Orduan ikusi niñun ta ur gañetik burua altxarrik neretzat zizkizun bere begi sukoiak, ikaragarriak. Al

izan ba-zun nere belaunetan bildu a zer ozka egingo zidana. Bañan ezin izan zun uren-indarra mendeartu ta bere eriotz-bear-zorian enegana bidaltzen zitun bere begiratu zorrotzak erakutsirik bere mizto pozoitua. Urak eramane zun bañan alako otzikara bat sartu zitzaidan ene baitan iñoiz aaztuko ez zaitana. Onelatsu begiratu zion mutillak.

—Zer dezu zuk emen egiterik, Edurne? —latz, esan zion.

—Nere etxean zaude...

Esan bearrean gera, Larreko'k etzekila auxe. Ba-zekian lesakarra zala bañan ez zein etxetakoa zan ta are ta gutxiago Joxanton'ekin sende egiten zala. Beraz ikustean arritu ba-zan, zesaionarekin arritua-goa. Ta gauzok jakitean barruan zerabilzkin kezka eta naigabeak aunditu baizik ez zitzaizkion egin.

—Zure etxean, beraz? Legeari tarratara egiñik giltzapean artu nautenetakoa!

—Larreko. Ez dakit zer gertatzen dan, bañan jakin, dizuten maitasunagatik zuzenduko ditutala gauzok —urduritasunaren zimikoak zulatzen asita, esan zion.

—Maite nazunagatik! Ia, ia zure anai Joxanton ez bezelakoa zerran...

—Larreko, ots! Zuk egin kezka-parrastadak biotza zartatzen. Lengoa nazu. Ta jakingo det, oraintxe, emen gertatzen dana. Ta maite zaitudan bezela, ziur zaitezke, joaten utziko zaituztela.

Oñazeturik joan zan neskaxa, egia. Bañan bere oñazealdian zerbait egingo zulako itxaropenetan. An gertatzen zana ulerkaitza zertzaion. Eziñeko gauza. Eroaldiren batean egindakoa. Bañan bera antxen zegoan gauzak zuzentzeko. Berak ongien ezagutzen zuan. Ta etxekoa izanik adituko al zioten. Ixilik eta izkutuan eramane nai zuan maitasuna ere gutxi fia ez azaltzea...

Len bezin kopetillun arkitu zituan gurasoak. Ama negar jario ez jario; aita ukalondoak mai gañean, eskuak buruan oldozpen garratzetan suntsitua.

—Zuek ez zaudete burutik ondo! —burrundara batean zuzendu zien gurasoei.

—Onik gatxin orain aldean. Bañan erotzeko zorian. Ire anaia Joxanton'en gauzak ditun. Betiko etxekalte...

—Azka zazute bañan zuek! Dijoala, dijoala pakean!

—Bai al-ba-genu! Bañan esaion ori ire anaiari... Lenago ilko uken!

—Ura al da etxenagusia?

—Bai, izateko. Egin berriak dizkiñagu paperak. Eta, gañera mutil gizajo orren kalterako izango unake azkatzea...

—Zer katramilla dabilkizute, baño? Dana-dala esaidazute garbi gertatzen dana! Irrika ontan ezin ninteke bizirik izan.

Ta dan-dana esan zioten. Basoan gertatutakoa. Elurzulo'ko eriotza ta izparringiak ziotena. Itz oietaz Edurnetxo'ren alaitasuna lur jota zan. Bere tokian oñazea, kezka, larria ta illuna. Maite zunez azkatasuna emango zion, bañan maitasun onek berak bestalderako asmotara bultzatzen zuan. Ta egiz, naiago zuan bere maiteak izen ona galdu zezan ta espetxea arkitzea baño, betiko maiterik gabe neskazar gelditzea...

—Esan zionagu apustua bukatu izango danean, geok izango gatzaiola Frantzirako lagun ta gidari...

—Ontzat ez al du artu zuen eskeintza?

—Ezetzean gogor zion. Gurerik ez omen din deus ere nai.

—Larreko! Maitea! Ene amets zoragarria! —irten zitzaion ustegabeen neskaxari.

—Ire maitea al dion? ezaguna al zain bada —galdetu zion arri-turik aitak.

—Maitasun batek lotu gaitu gaurdaño. Aurrerantzian, aal dakit; —erantzun zion, neskaxak, etsipenez beteta.

—Ara orain beste naspil bat! —otsegin zuan amak, emakumea zan aldetik zakonago sartzen zalako alabaren izatean, alabak izan itsaropen ta asmoetan bere emakume etorkizunerako— Gure Joxanton! —jarraitu zuan— Etxekalte! Etxea ta etxeko guztiak banan-bana ondatu bear gaituna! Edurne! Ator...

Ama-alabak besarkada luze batean bat egin zuten. Beren negarrak erreka bat egin ziran. Kepandon'ek ere bereak gorde nairik ikullura joana zan. Abereak elikatu zitezzen bazka jartzeko aitzakiz.

Oraindik ama-alabak begiak erreak zeuzkaten egin negarrez, Joxanton erritik itzulian etorri zanean. Zuzen-zuzen sukalderaño sartu zan.

—Egun on! Oi, Edurne! Emen al itzanan! Noiz etorri aiz?

—Ez dituk ordu asko...

—Bañan zer dezute? Negar egindakoen itxuran zaudete!

—Ire presoak Edurne'ren senargai omen duk —eskalearen begiratuaz, esan zion amak.

—Azke utzi zak... —arrebak, berriz, itxaropen aundirik gabe anaiaren betiko xima ezagutzen zulako, bai ongi.

—Esango ziiñatenan dan-dana? Ta ondorenak! Bai, lotsakizuna, beartsu biurtzea, jaiotetxetik aldendu bearra, erritarren izekak eta parrak jazan bearra, ire aita ta amaren, agian, erruki-etxeko bideak irikitzea...

—Ago ixilik! Ez zak itzegin geiago!

Egondu zan bai esateko, alegia, etxeko aberastasunak jokoan jarri baño lenago gauz oiei begiratzea obe izango zula. Bañan, zer aurreratzeko? Eztabaidatik ez datorke ezer, gutxiago ainbeste goraberrak tartean daudenean, neurri artara iritxi izan diradenian. Alperrik izango gañera anaia muker ura bidez aldarazitzea. Ixildu zan.

Une batzuk geroxeago Larreko, rengana joan zanean ez zeraman lenagoko alaitasuna. Guztik eroria zihoan. Zer esan bear zion, zer? Neurri artara irixtea baño ez ote obeagoa eriotza bera?

Gauzak nola izaten diran! Larreko'berriz, alaixeago zegoan. Bere barruan burruka latza zerabilkin maitasunak. Bere iritziak aldatu ziran bein baño geiagotan, andregaia ikusi ezkeroz. Edurne azaltzerakoan damuturik bezela zegoan maiteari egin zakarkeriaz. Ikusterik bai al-zun, bada, berak bere anaiaren eginkizunaz? Jarri ba-zezakean ere azkatasunean...

Arpegia ikusi urdukoxe antz artu zion berri onik ez zekarkiola. Ta, len bezela, ostera oldozpenak txarrera bide artu zioten.

—Ziurki ateak zabaltzera zatozela— izekari mintzatu zitzaion.

—Atsegiñez zabalduko nizkizuke. Guztia jakin detalarik bañan ezin ateak iriki. Ez nuke nai espetxe bideetan neronek jartzea...

—Zu ere ortan al zera? Nik ez dut iñor erail...

—Ba-dakit. Lau bizi ba-nituzke laurak jarriko nituzke ori egiztatzeko. Neretzat lengoa zaitut. Ain zaitut lengoa edozer egingo bainuke zure alde...

—Berriketak! Ateak zabaltzea edo irtetzeko laguntza pixka bat ematea naikoa. Itz goxo oietaz ez nazu xurizkatuko...

—Larreko! Zaitetz zentzudun! Zoaz ene etxekoekin atzerrira ta nunnaira zoazela zure maitea izango naiz. Biotzak dagit errugabea

zerala, bañan itxurak diranez gertakizun guztiak zure aurka dituzu. Ene anaiak artu zindudanian gaizki egin zula ezin ukatu dezaizuket, bañan zer izango zutzaz bestela? Esan, ene Larreko!

—Ene Larreko! Ene Larreko! Otso egintzak arkume egintzak dirala azaldu nai. Zure anaia ez zan ez iñor neri eltzeko. Ta orain zu artu zaituzte tarteko neri iruzur egin dezaidaten. Ez egiz maite izan ba-ninduzu! Ez emakume biotzbera ba-ziña; Ez egiaren lagun ba-ziña! Ez biotzik ba-zenu! Ez...

—Arren, Larreko! Zuretzako on ustetan nabilzu! Sinistu...

—Ez dizut ezer sinisten. Zu ere anaiaren antzekoa, odol batekoa. Etorkizunak zer dakarkidan ez dakit. Bañan jakin zazu nerekoak egin dituzula. Izanak gera geien, gaur ezer ez.

—Egunen batez jabetuko al zera zure obe bearrez ari izandu naizela. Ta jabetzen ez ba-zera ere jakin zazu len bezin maitasun sutsua izango dizutala zer-nai dagizula ta nun-nai zaudela. Zure esanetara zure emazte banazuke Txina'n bertan ere.

—Ipuiak, bai ipuiak! Ba-zoazke bein betirako.

Edurnetxo begira gelditu zitzaion, astiro begira. Ez zekian belaunikatu edo negarrari eman. Naigabearen geiegikeriak lo-zorroan jarri zizkion atsekabe-ixurki-iturriak. Geien maite zun gizonaren alde edozertarako bere egizko eskeintza egiten zionean, izeka ta zakarkeria besterik ez zion itzultzen. An, bere jaiotetxian urratzen zan maitasun garbi ta jator ura. Ta batek eta besteak menderatu ezin zuten gauzak ziralako bide. Onela bear zun gañera egiz maite zualako. Onela, maitasun opari bat bezela artuko zuan. Opari ixilla, egizkoa, neurrigabekoa, eriotzarañakoa. Negarra eskalea baldin ba-da ez zion negarrik egingo, ez zion otoi egingo. Joango zan ixilik; bere aldeko alegiñak ixilik egingo zituan bezela; ixilik maiteko zuan bezela iñoz ezagutu zan maitasun garbi, sendo ta zabala, ordañik gabeen. Ta bere aurrean ez, bañan bakardadean ixilik ere egingo zuan negar biotz-gogoak urtu arteraño opari beranean. Ta ba-zun gogo ontarako.

—Goietako Jaun altsua! Zatoz guri laguntzera! Egizu zerbait nere maitasunaren egia argitan jartzeko! —otoi egin zuan neskatxak, begiak goruntz.

Mututurik gelditu zan mutilla. Bestaldean begira. Min ematen zion izketaldia jarraitzeko gogorik ez. Berari ere izketaldi artaz bai-

-bai-zijoazkion bere bizitzan nabaitutako itxaropen zabalenak eta amets eztsuenak.

—Azkeneko aldiz, ene maite, agur!

Ez zion jaramon aundirik egin erantzunik artu zunik edo ez jakiteko. Jetxirik bere lo-gelara oe gañian arpegiz bera etzan zan negar iturri batean. Antzu gelditzen ez zan iturria uraxe. Zenbat orduetan onela egon zala ez zekianean ama etorri zitzaion atsekabeak eramaten laguntzera.

—Edurne, alaba nereea!

—Ama!

—Esan bearrik ez den. Maitasunaren arantzak zulatu aune. Ausia izango duzute zuen elkargoa, ez da?

—Bai!

—Dagigun otoi Goikoa'ri! Otoi ere Arantzazu'ko Erregiña'ri! Ama-Semeak dezaketena ez din neurririk! Otoi, bai, egiz, biotzez, gogoz, negarrez! Ene maiteno! Ene erraietako alabatxoa!

Ta negar-zotiñak eta otoi-esanak eresi bat osatu zuten Zeru goitaraño joan zedin; ta malkoak eta errosario pinportak batu ziran arri-pitxiak bezela lepoko apaingarri batean antzo, Andra Sinismenari eskeintzeko. Emakume ez-jakin bañan biotz-aundi bi aien opari apal eta zabala zan.

APUSTU-NAGUSIA

“Gipuzkoan dirau aizkolari txapeltza” (1).

“Apustu-nagusi egunez iñoiz baño bertago gelditu zan Donosti. Ura jendearen emana! Jende kidekoak eta jatorrak bai, urixka ta baserrietatik geienak etorriak, barreiatu ziran Donostian.

Txingurritegi bat zirudian Bretxa ta marmari-olatuak ba-zituzten ta esan bearrak ango giro goriarekin; iritziak marmatzen ziran bai eta markak eta galderak; zabaltzen ziran ixilkakoak ere. “Muño”k oxijeno botella bat dakarrela, esaten digute; Patxikorena iñoiz baño obeagoa omen; gaizki ibiliko dala gipuzkoarra, dioten bezela, ordu-betean bere lana bukatzen ez ba-du.

Ta onela milla txutxumutxuek, ixkanbilla ez baño bai zurrumurru ederrik osatzen zuten “Joxe Mari” ostatu ta inguruetan. Ta urruti gabe diran arandegietan ere itxura oneko ta jale obegoko jendez gañezka.

Uraldietan ura parratzadan dijoan bezela dijoa jendea xexen-plazaruntz. Orrelako betekarik iñoiz ezagutu ez du. Bertan, antola bearreko guziak antolatuak daude.

Amabiak ogei gutxiago dira ta aizkolariei otsegiten zaie amar gutxigotarako azaldu ditezten. Muñoluzea’k artu du bere praktikan-tearen eskutik azken igurtzia. “Oxijeno” ba-zalakoa edo ez zalakoa egi itxura artzen ari da. Antxen dago tresnen mai gañean. Au izaki gure “ixilkako” bat.

Patxikorena irten da lenen, bere betiko arpegi alai ta gorrixkaz.

(1) Luxia ta Gartziaarena’k jokaturako aizkora apustu sonatua zala-ta Bordari’k idatzitako zatiaz osatu degu atal au.

Berialaxe dator Muñoluzea. Argazkilari mordo batek erdin artzen du ta txalo-jotze gorgarriak oles dagio irabazle usten dutenari. Txaloak berritzen dira Patxikorena’ri eskeñiak orain, ta trumoi-otsa ez da nolanaikoa. Muño! Muño! Patxikorena!, deadar dagite. Jakin gogoia irakiten dago, erpin goiengan dago.

Iguaran jaunak soksetarako bost laurlekoko zillarra goitaratzen du, ta Muñoluzea da aukeratzen.

Anjelus otoi egiteko oitura kistarra atsegiñez ta otoizale artzen da. “Et verbum caro factum est!” Jaungoikoa aragi egin zan; laister gera Eguberritan. Otoiketaren ixillak toki dagio deadar ozenari: Muño! Muño! Patxikorena!

Sartu dira berotan aizkolari biak, oitura dan bezela, ortarako bereziki ekarritako enbor batzuetan. Apustu-tokia soka batek inguratzten du. Iru gizon bakarrik daude bertatik ibiltzeko eskubidekin. Iguaran jauna, Agiñeta ta Atxukarro, ok biak aizkolariaaren ordezkari bezela epai-maiean.

Pum! Ara asiera ematen duan dunbatekoa jo. Burruka asten da...

Ernaiago zegoan Muñoluzea, bera izan baita lenen aizkora sartzen. Azkar darraikio Patxikorenak eta burrukan leporaño sartuak dira. Larogei pulgadetako enborretara igoak ditugu aizkolari biak, enbor biak gipuzkoarrak ekarritakoak. Oi daneko asiera eman diote ta aizkolari biak ariketa ederra daramate. Patxikorena-ren ebakitzea estuxeagoa da, ezpal txikigo du, Muñoluzea’reanak baño, bañan xeetasun au aintzakotzarik gabe joaten da. Arnasa ongi artzen dute biak. Gallenago ari zaigu Muño bere ariketa sendoa dala bide. Bere zartakoak latzagoak eta azkarragoak dira. Patxikorena’renako baño. Minutu terdi ta aizkora aldatzen du. Patxikorena’k minutuan. Bi minutu ta iru laurdenen jiratu da Muño erdia egiñik eta ogeitamar segundo geroxeago naparra. Ustea zan bezela Muño’k aurea artzen dijoakio.

Ikusleak, edo ikusleetatik geienak, bere asarrea agertzen diote txistuka Agiñeta’ri Muño’rengana bertaratu dalako edo. Ikusleak badakite erakuslerik gabe jokatzeko apustua dala, ta iduriturik zerbait esaten diola edo esan nai diola naiko erakusteko asarre ori.

Sei minutu ez oraindik eta Muño’k bukatu bere lenengo enborra. Txalo jotze zabal eta zaratatsua entzuten du. Beste minutu t’erdia ta naparrak bukatuko du bere lenengoa. Orainartean guzia ondo dijoa. Auxe baita itxuranekoa ta uste genuna, uste ba-genun ere Pa-

txikorenak lenengotik sutsuago ta kementsuago ariko zala; itxura danez berak ba-dakarki ongi burututako asmo bat eta berari darraikio lasaitasun galtzeke, aurreko apustun bezela.

Muñoluzea'ren bigarrena txarretakoa da, gogorra dala ezagun du. Aitxa ta zart berdiñean dababilki aizkora, lan sendoa dagi bañan alazere erdiraño irixten lanak ba-ditu. Ezpal zabala artu ta ongi ari da. Patxikorena ere lan jatorra egiten ari zaio bere bigarrenari ta lenengoan galdutako alde moxten ari zaio. Bañan ez. Muño, txapeldun jatorrak oi lez, bigarrenaren erdia egin du ta alde ederra ba-daramakio. Bigarrena 9 m. ta 3 s. bukatzen du. Alde ederra ez ikusteko! Patxikorena'k bere bigarrenaren erdia egindakoan katagorriaren begiratuak egiten dizkio Muño'ri ikusirik irugarrena onek asia dula. Biguñetakoa da ta aurreratze beldurgarria artzen ari zaio.

Patxikorena eta lagunak zetatsu dira egur biurriak, gogorak eta txarrak ekartzen. Ta ikusi orain Patxikorena aurreratzeko alegiñetan ta larri ezin duanean. Zer gertatzen zaio? Ezin irten enborretik! Ai, ai! aizkora zart eta ezin aterarik! Zer du ordea? Begi ximatsu bat atera zaiola ta emen ari dala jokoa erabakitzen, besterik ez. Extu ebakitzeko oitura dula ta oitura txar ortaz akatsen bat ateratzen ba-zaio, ez zaiola tokirik gelditzen menderatzeko.

Ai, ai! au joana dago! Oar egizute bestela egin duan keñu naigabetuari! Ber-berak dio. Ta Muñoluzea'k ere bai bere aurrerakada izugarrian. Eman baitio Muño'k jira bere irugarrenari ta Patxikorena oraindik bigarrenean.

Oxijenoa artzen du onek.

Muño bere aurreraldia aunditzen dijoa. Orain bai ikusten dala gipuzkoarraren kemena! Ori ebakitzea ta oiek ezpalak! Oxijenoak on egin diola irudi.

Gutxi-gora-bera onelatsu bestetan iritxi dira zaspigarrenera. Auxe bukatzeko Patxikorena'k ez ditun tokitik aterako ditu indarrak, bañan bertan bukatuko du. Ondo egiña, Larogei pulgadako enbor bat gelditzen zaio ta berak ekarritako gogorretakoa. Grazirik gabe ta gogorik gabe ari dalarik, eta zorabiatutakoen igikerak ditualarik, beretarrak otoi dagiote lana utzi dezan. Egiten duan bezela, exeririk. Laguntzera ba-datozkio ta aldegiten du. Txalorik gabe ez da gelditu, merezi ere ba-zitun-ta.

Muñoluzea'k bere zazpigarrena amaiturik aoa busti zuan. Oxije-

noa ere, herrero artu zuan, bai egin ere onelako keñu bat esan nairik bezela: "txakurrak kanpora". Bere zortzigarrenean, Patxikorena'k bigarrena ta ondatu zuna, naparra baño zoriontsuagoa izan zan. Begi elkor ura, erro-zati-makur ura ez zitzaion agertu. Berdin izango bazan ere Muño'k zabalago artzen baitu bere ebakitzea.

Begizue, begizue bere aizkoratzea! Patxiko joan dala ikusi du ta gallenago dabil! Ikaragarritzko zartakoak dari ta azken minutuan txanpa ikaragarri bat ogeitamar zartako jura-alakoak! azkar ta errenkadan! Ta garaitza!

Xexen plaza erori ez erori zegoan ango trumoi antzeko txalotzeaz! Ba-genun txapelduna! Ta bukaerarik gabeko deadarretan ozenkiro aditzen zan Muñoluzea- Muñoluzea!"

ETXE ALDAKETA

Onuzkeroz, irakurlea, jakin-gogoz izango da jakiteko apustuaren xeetasunen batzuk. Eta batezere zer esan zion Agiñeta'k Muñoluzea'ri alako deadar burrundara altxatzeko. Jakin zazu, aurrenik, enbor trakets eta begitsu ura ezagaturik dezula lendidanik. Ura Larreko gordetzeko ta lesakarrak arrapatzeko izan zan zugaitz artatik kendua zala. Bigarrenez, on zaigu esatea ikusleak ez zutela izan arrazoirik alako ixkanbilla ta asarrea adierazteko. Ez bai-zan artutako erabakietatik irten ta ez bai zun ez zegokionik esan. Bañan zer esan zion, bada? Laister jakingo. Ortarako ba-zatozke idazlearekin Lesaka'raño ta Joxanto'nen jaiotetxean geldi...

Laño bai, laño ez dago zerua. Ozkirri giroa. Laño-eten-unetan bizitasun guztiz azaltzen dira oraindik izarrak. Ikulluan abereak goiztar dagite marru. Senti bai-dute oi baño lenago jabeen ibillerak. Apustu eguna da ta lanak eginda goiz joan nai Donosti alderuntz. Joxanton jetxi da ikullura. Gauzak txunkuntzen diardu; beiak jetzi; bazka eman; oiak garbi-legorraz aldatu ta abar. Oek lenen, ta gero bizarrarena egin, ur otzetan arpegi-soiñak garbitu, akeita bero-beroa artu ta-bijoa lenen mezetara. Galtzalle edo irabazle gau arteraño ez da itzuliko...

Aita ta ama larri daude ta azken oarrak ba-dagiote.

—Jainkoa, gatik! Zabiltze ongi! Naspil geiagotan ez sartu! Ta lagun dagizueta Goikoa'k ontatik ongi irten gaitezen! Ene bada! Bukatuko al duk gure ezinbizi extu au!

—Gaur eguzki zabala irtengo da guretzat-semeak darantzuie.

—Alaxe bedi! Otoi izango gaituk...

—Dagizute bai otoi! Alguztidunak gure nagusitza aurrera eramaten lagunduko al digu!

Ta agur esanaz, etxetik irten ta elizaruntz abia. Meza ondoren beribillean izango dira.

Goiz izan nai dute Donosti ederrean. Ez dute galdu nai goiz-goizetiko gertaketak. Patxikorena, Lekarotz eta Don Joxe bezperatik joanak dira. Ura atsedenean izan dedin ta ok azken eginbearrak antola ditzaten. Aspalditik darabilkien naastea garbitzeko egun berezia eldu bait-da! Aldi bateko aizkolarien arteko txapeltza lortuko duten egun zoragarria! Ainbat eta ainbat diru patrikaratzeko egun señalagarria! Itxaropentsu, baikor, barru-abeslari ba-dijoaz Bidasoa ibai lilluragarri ta bazter ernagarrietatik barna...

Bañan ba-da besteren bat Joxanton'en etxean lo ernai izan du-na. Joxanton'en jekitze ta igikera guztiak garbi nabari izan dituna. Zein izango Larreko izan ezik?

Beronen eguna eldu da ere. Ainbeste itxoindako eguna. Asmoak asmo ditu ta lenengotik ez da aldatu. Esanak egin datorrena datorrela, ara bere zioa. Onegatik orain zaindu egin bear Joxanton'en ibillerak, eta joanik izango dalarik berak ere berea egingo. Bitartean, lasai, itxoiñez agurra ematea etorri bai-bai-leike.

Etorri zan bezela. Arpegia alai, españak esankor.

—Gaur duk erabakitzeko eguna, bai al-dakik?

—Bai.

—Jakin onokotan itzik ez dugula jaten. Gaur etorriko danetik mugaz bestaldera joateko lagun izango gatzatik.

—Ba-dakizute ez detala zuen bearrik ortarako...

—Nolanai ere ateak zabalduko zaizkik ire gogo bidea ar dezaken. Ta astirik ez zeukat galtzerik orain. Agur, gaba arte!

Ta joan zan. Etzuan ikusi iñundik oiartzuarraren irripar maltzura. Atakaz atea sendotu zuan bezin laisterretik leio ondo jarri zan. Ezin bestez obetogo ikusten zuan etxera sartzeko ate-nagusia, ta sukaldeko leioa argia zeriola kanpo illuñera. Irtetzen ikusiko zun ordukoxe egiñetan jarriko zitun bai bere asmoak, Oiartzun'dik erakarritako asmo-berberak. Zertara irten zan? Naparraren aizkora saioa zenbatean zaneke jakitea. Beraz'ori egingo zuan. Ba-zekian bere zio ori aurrera eramaten ba-zuan espetxeko atetan jartzea zala. Ba-zekian ere nai izanik lenago igesegin zezakeala. Ez zitzaion, ordea, komeni. Egun au-

rretik oarturik bai-lira apustua atzeratu, ezegin edo-beste egin bai-zezaketeen. Onela, berriz, giltzapean zegoala uste osoenean zeudelarik, plazara joan ta ustegabeko latza eman bear zien batzuei ta beste.

Arrapatzen ba-zuten espetxea zetorkiola ba-zekian. Nork bañan egiztatu zezakion bera izan zala iltzallea, ziñez izan ez ba-zan? Ta gañera olakorik izatekotan ere, plazan bearko zuan. Bein atetik irten ezkeroz nork usaitu ta jarrai ain ezagunak zitzaizkion mendietatik barna, bere esku-txaplan zimurrak baño ongien ezagutzen zitun bazter, zokon eta zimurretatik?

Ez zuan utziko ez ola-ola bere itza betetzeke. Agiz setatsuak gera euzkaldunok. Edozeri edo edozeren alde jarri geralarik gogor ta zimatsu bere alde egingo degunak. Orrelakoak izateak iñoiz kalteak ekarri izan dizkigu, bañan geienbatean ludian degun ospea ekarri diguna ere. Leiatsuak, saiatsuak, gogorrak, nekaeziñekoak, begiratu zuzenekoak izan geradelako eldu da euzkalduna oraintxen dana izatea; abenda zar bat, langille purrkatu, leialtasunez betea, izate ta asmoz garbikoak, izen onekoak bezela ludi guzian ezagutzerano.

Onela Larreko ere. Ta bere asmoari buruz esan bai-dezakagu bein bere zioa bete ezkeroz mugaz bestaldera joateko asmoetan zegoala. Batikbat arrapatzen ba-zuten bere burua zuritzen naiko lanak izango zitula ba-zekialako. Ta, geienbat, azke izanik ere bere maitegozotasunak urtu ziralako nola oi azukrea uretan. Maitasunaren larros-usai ernagarria biotzak nabaitzen asi ordukoxe egin ziolako arantzza beltzak zulatu, minberatu ta odoletan jarri. Iñoiz maite izan ez ta bein maiteko ta lenen izan okerrean maitasunaren ederra gezurri gel-ditu bear. Emakume bat begiz jo; emakume bat biotzaratu; emakume bat berezi bere etorkizunean lagunkide izateko ta emakume ori, berbera etsai agertu, gezur ta abar bere kaltetan ibili, txapurdin bat bezela engañatuko zualakoan. Ez zun berak giltzapetu, egia bañan arrapalarien alde jarri bai. Joxanton balaxka, maltzur ta mukerra ba-zan ez gutxiago etxeakoak. Gurasoetatik asita alabarenganaño. Egondu zan zoratuta bere arpegia aingeruarena zirudilako. Ez zegoan toki txarrean! Oraintxe sinisten zuan, bai oraintxe, otsoak arkume jantziz ba-zebiltzala.

Ta alare gaitzerdi garaiz ezagutzen zulako. Okerrago izango zan olako jentillajea etxeratuta gero. Egia, bai aldi batean biotzean utzitako zauria ibili bearko zula lorrean, bañan egia ere denboraz zauria

itxitzen joango zitzaiola, minberak goxatuko zitzaizkiola ta itxaropen galduak berrituko zitzaizkiola beste emakumeren batekin. Mugaz bestaldetik ere bai-bai-ziran emakume panpox euzkaldunak...

Oldozpen oek guziak buruan zerabilzkin bitartean Joxanton'ek bere eginbearrak bukatu, eta dakigun bezela bere guraso zarrei agur egin ostean, etxetik irten zan. Larreko'k ikusi zuan izarren argietara plazaruntz artzen. Mezetarako tiliñak dei zegian. Iñundik ere Kristau legea betetzera zijoan. Orduantxe zuan oiartzuarrak egokiera ederra. Bañan ez, itxoingo zuan alik-eta meza bukatu zedin, etorri bai-zitekean ta txoriak alde egin zula jakin. Bere eginkizunaren garaitza geienik apustu tokira ustegabeaz azaltzea zan. Ba-zun beste-la ere naiko astirik...

Ordu erdi ura bai luze joan zitzaiola! Joxanton ez zetorren ez iñundik. Ba-zirudian erriko guziak beko zelaitaruntz jo zutela, ez bai-zan alderdi aietan txintik ere entzuten, ez bai-zan zantzo-ixpirik nabari, ez bai-zan lurtairik ere iñun ikusten. Ba-zirudian basamortu bat biurtu zala mendi alaia. Ixil-nagusi artan artan Kepandon ta bere emazte koitaoaren tirriki-tarrakak bakarrik entzuten ziran. Aidanean, ikulluko abereak ere, Joxanton'ek emandako bazkaz ongi elikaturik loaren goxoan ixilik bertan-goxo zeuden.

Itxoin garaia amaitu zala iduriturik leio utzi ta belar pillara joan zan. Atarrakatu zuan belar-ondur usaitsua ta gordeta zeukan soka luze bat atera zun. Ganbara artan igarotako egunetan antolatua zan, ango belar-izpiluzeenaz pixka-pixkanaka tajututako soka. Len egin ga-bea ez izanarren berritatu zuan eten zitekean edo ikusteko. Sendoa zegoan. Ostera leioraturik begiratu zuan gain-bera. Oro ixilik zan, oro geldi. Mutur bat tellatu abeari lotu ta beste muturra leiotik bera jeixten asi zan. Bere asmoak aurrera eramateko une eldua zan. "Aitarena" egin ta sokatik irrixtatuaz laister lurra jo zun. Orduntxe zan eguna zabaldian...

Ixil-ixilik, anka puntetan sukaldeko leio pareraño iritxi zan. Bearrezkoa zun bertatik igarotzea. Leioa zabalik zegoan argi-jario, ta mendiko ixil-nagusia sukaldetik zetorren otoi-marmarrak etentzen zuan. Otoiaren esate goxoak ba-zun zerbait adierazi ezin zeikena, bertsolariak ulertu ezin zezakeana, biotza dardarazitzen zuana, gogoaz zartarazi ta adimena jakinmiñara bultzatzen zuana. Zeletara eman zion.

Asmoa ba-zun, bere bideari jarraitzeko zaarrak zertan ziran jakin bear zualako, bañan geienik otoimarraren beroak eraginda.

Kokilduta gelditu zan begi aurrean zekusanarekin.

Sukaldeko arri otzetan belaunikaturik etxeko zaarrak otoi zegiten, begiak goruntz, Arantzazu'ko Ama'ren egutegi-irudiari begira, luze begira ta arrenka bizian, gutxi bai-lirakean gogo ta biotz erraie-tatik irtetzen zitzaizkien otoi beroak. Aiek, bai otoi beroak! Ura egiz nabaitutako eskea! Ura arrenka apal-eztitsua! Aiek begiratu xamur, otxan ta esankorrak! Otoiketa bakoitza lore pinport bat zan apal ta usaitu; ta errosarioaren ale bakoitza lore xorta apain ta ederrena, zerutar margoz, aingeru lilluraz, neskutzen usai-gogo-zoragarri neurrieziñekoaz.

Memelduta bezela zegoan oiartzuarra arrituaren-arrituz. Iñoiz ez zuan onelako sentieraz otoi egiten ikusi. Zaarren españetan errosarioak ba-zun alako berezitasun bat esaten asma eziñekoa. Aingeruen abesti alaia ote? Edo-ta santuen eskea? Zer zuten bada otoiak Larreko onela, joan bear une larri artan, berunezko belaunak ba-litu bezela joserik gelditzeko?

Beartsuen otoiketa larria zan. Ta maitasun egiazkoa dutenena. Lagun urkoari eskeñitako maitasunezko eresi erdiragarria...

“Jaunaren gogo ba-du lagundu gaitzan ontatik ongi irtetzen, ta batezere Larreko'ri ezer txarrik gertatu ez dakion, gure ta gure alaba Edurnetxo'ri poza ta zorionarako. Aita gurea...”

Estazio bakoitzean onelaxe. Ta errosario guzian, onela, malko garratzak ixurika sukaldeko arri otza bustitzeño...

Ta Larreko au ikusirik eta aditurik, konturatu gabe, izkutuko indar batek bultzatuta, belaunikatu ta otoi ixillean zan zaarrekin batusu. Ta oiek bezela, egiz zan otolari argitzen ari zan goi-zeruetara begira. Ta bere begietatik, etekiña bezela malko lodi-askoak ba-zetorkion bere arpegi marduletik beera. Nola zarrei ala gazteari ainbat mesede egin bear zien otoi ta malkoak...

Errosarioa bukatu zanean zutitu zan. Iratzar egin zan loaren magalean egon izan ba-litz bezela. Ta gorputzak atsedena ar oi dun bezela Larreko'ren gogoak atsedean osasungarria ta lasaitasun pozkirasua.

Betarik ez zuan galdu bear ta irten zan, zaarrak bere otoiketean ziardutelarik. Egun guzian etengo ez zuten otoiketa beroan. Leio ba-

tetik makurturik igaro ta mendi bidean zan berialaxe, zankoluze, kementsu...

Lengo asmoak zeramazkin, bañan zerbaitez geiagoturik. Napar sukalde artan ikusitakoak atsedena eman ezik begiak ere garbitu zizkion. Zearo aldatuta zegoan Kepandon ta bere jatorrizkoari buruz, eta batezere bere maiteño Edurnetxo'ri buruz. Onela otoi zegiten ta zekiten jendeak ezin txarrak izan. Otoiketetan ain xamurkiro bera oroi zutenak biotz zabalekoak bear. Ta, onela, zarrak otoi zegitenean bere biotz-zabala agertuaz, zer ez ote zun egingo aingeru itxurako zan bere maiteñoak? Aazturik izango zitun ziurki bai berak egin iraiñak eta purrustada zakarrak! Izan ere trakets egon zan, itxu. Ez zuan neskatzak onelakorik merezi, ez iñundik ere. Errugabe zalakoan zegoan, maite zuala egiz eta ludiko azken baztarraraño berarekin joango litzakela adierazi izan zionean, biotzez esan zion. Ta orain zer? Egin okerra zuzendu bear zun. Ta ala bearrrik barkazio eske ere joango zitzaion otxantasunez. Agertu bear zion bere maiteñoari bere maitasun berriztua. Itzaz baño obekigo, egintzaz...

Zer egintzaz? A! Buru-adimenean asi zitzaion zerbaite jaiotzen... Nolanai ere lenbizi Lesaka'ra erakarri zuan asmoa aurrera atera bear, Ta gero...

* * *

Donosti'ko zezenplazara zanean orduantxe aizkora jokoa asitzera. Urrats sendoak eta ibillera gartsuaz etorri zalarik izardi patzetan blai-blai zetorren, eguraldi otzantzekoa izanagatik,

Al zun izkutuan ibili bearrez Arritxulegi sakonetik igaro. Begiratu xamur bat egin urrutitik bere jaioterriari ta jaiotetxeari ta, Oiarzun alboan utziaz Zamalbide bide-gurutzera jo zun. Emendik, San Markos ta Txoritokieta guda-mendiak egiten duten sakonetik laister zan gipuzkoar uri nagusian.

Ugoldeka zan jendea sarbide txartelak ar eziñik. Berea artu zuan, sendoro ta ausarki barruratu zan. Muño ta Patxikorena, enboren gañean, aizkora gertu, asiera emango zuan dunbatekoari erne zeuden noiz jo...

Enparantzakurpillean ta aizkolarien ingurura bildua berealdiko jende moltzoa zegoan. Arritxabalaga aien tartean izango zala ba-ze-

kian. Axariaren begiaz an-emen begiratu zuan. Aizkolarien zirti-zar-takoak oiartzunka ziran ikusleen oiur ta marmarren lagun. Ikusi zu-nekoxe beragana joan ta deitu zion :

—Arritxabalaga!

—Larreko! Bañan i emen?

—Eman itza betetzera etorria naiz.

—Ez uken onelakorik egin bear. Espetxeko atean dei jo dek...

—Ez oraindik. Ala izanik ere ajola gutxi. Kontzientzi garbi degu-nok...

—Sinisten diat. Bañan egiztaterik izango al dek? Ire billa dituk.

—Jaungoikoa'k lagunduko al nau; Jakin bañan orain Muño'ren "markak" ez ditula naparrak berdintzen.

—Bai? Izpar ona dek, i tartean ez ba-agoke. Nolanai esango zioat gureari...

—Ta espetxera joan ez joan, joka nere izenean ogei milla duro arte.

—Ainbeste?

—Ainbeste! —kezkik gabe, esan zion Larreko'k— Egun edo biar edo beste edozein egunetan garbituko degu diru gauza. Agur!

—Agur! Ta onik ibili! Begiak zabaldu egiztik!

—Arritxabalaga'k bero naigabea agertzen zuan Larreko nola zi-joan begira zegoalarik. Jende artean ezkutuan jarri zanean Agiñeta'ri otsegin ta izan alkarrizketa berritu zion. Orduan zan joan zanean Agiñeta Muñoluzea, rengana, ta esan :

—Aupa Muño! Larreko emen diagu! I baño gutxigo omen dek ori ta jarrai lasai! Gurea dek garaitza!

Muño'k aizkora aldatzeko aitzakiaz begiratu alai bat zuzendu zion, dakigun zalaparta ikusleak ateratzen zutelarik. Bañan Agiñeta'k joko-legetik ez zan irten. Ta Muño, berriz, nagusi ikusten danaren aundita-sunaz gero ta alde geiago kentzen joan zitzaion joko-etsaiari.

Txalo-jotze ta deadarren artean jendea ugoldeko irtetzen asi zan. Tartean Larreko ere. Lau urrats ez zizkitsun emango plazatik-at ondo jantzitako gizon bi joan zitzaizkioenan, ta galde :

—Larreko?

—Bai jaunak.

—Polizikoak gaituzu; Zu lotu ta emateko agindua degu.

Onek ez zun arritu, itxoiten zualako. Arritu zuna zan antxen

ikustea Doña Lucila ondotik Torrechica zula. Aizkora jokoan izanak ziran ta Doña Lucila'ren begi ernaiak ez ziran alper egon. Jarri bai-zitzaion buruan apustua ikustera azalduko zala gure mutilla, bertara joan. Ta bai asmatu. Bera izan zan, plazatik irtenik polizikoei dei egin ziena. Bera izan zan beatzarekin berezitu zuna lotu zezaten. Ta ala izan ez ba-litz ere, berdinxamar izango zan, irteera guziak ongi zainduak bai-zeuden.

Alargunari begira bere adimena zerbait garbixeago ikusten asi zan. Emakume petral aren bengantza zan! Ez zuten besterik agertzen alargunaren par maltzurak. Nai zuna lorturik zeukan. Garaitza be-rea zan.

—Emakume purzil bat bezela zakarretaratu nazala, orain! —zion berekiko andretxoak.

Bitartean, mutillak beltzagoa ikusten zun bere etorkizuna. Ta etxe alaketaz galtzera zetorrena. Asarre izan zan Joxanton'ek eman zion espetxeaz, egun gutxigo espetxea izanagatik eta ezagun etxe ba-tean leio zabal-irikiak euzkal mendietaruntz. Ta orain zetorkiona es-petxe ezezaguna zitzaion, aldirik gabeko egoteaz burniz itxitako leioen artean ta gaizkille bat bezela gizon-izkilludunak gau ta egun zaindua.

Polizikoei ez zion itzik esan. Doña Lucila'ren par maltzurak ere ez zizkitzun itxuraz beintzat aintzakotzat artu, ta oni ia begiratu ga-be polizikoak luzatutako kateetan ezku-muturrak jarri zizkitzun. Ta Jaungoikoa, ganako itxaropen osoa bere gogo biotzean. Goizean otoi errosarioan sendotutako itxaropena.

EPAIKARIETAN

Ba-dira illabete batzuk Larreko espetxean sartu zutela.

Egun onetarako izendatuta dago epaiketa. Gipuzkoa osoan ainbeste otsa ateratako erailtzea zuritu bear dalako Zuzentza-etxe atadia notiñez betea arkitzen da. Oien tartean bat baño geiago irakurlearentzat txit ezagunak diranak.

Berebil bat eldu da ta bertatik, ertzain bik erdian arturik, oiartzuarra irten da. Ezagutzen degun bezin txairo ta lerdan, ez du ezagun espetxean egon danik ere, ez ba-da arpegia zurixago daukalako baizik. Jende moltzo artan ezagun batzuk ikusi ditualarik irripartsu ta buruz-agurka igaroaz dijoa arrizko malladitik goruntz. Epai-gela-ate aurrerako dagoan zabal-dian ere arpegi ezagun urduritsuak ba-dakuskegu. Epai-gela zabal-patxaratsura sartu dute, Aski luzatu gabe ate-zaia txiliña joaz, otsegin du: "Jaun-andreak; epaiketa badijoa asitzera". Berialaxe jendea sartu da tokirik egokiena artzeko asmoz. Lege-ikasle gaztedia zaratatsu ta gañerantzekoak ixilxamar, batezere Oiartzun'dik beriziki etorritakoak.

Larreko, zalatu-exerlekuan, ixilik. Aurrean epai-maia, artean utzik. Bañan, berialaxe, bere jantzi arrigarriaz, sartu dira ere epaikari jaunak ta zein bere tokietan jarri. Epaiketa ariketan da...

Izen-abizenak eta xeetasun beste galde ondoren, idazkaria zalakuntza irakurtzera eman dio. Ikasle-entzule orok ixilik, entzun leikela euliaren esaketa. Idazlariaren abotsa ez tentsu entzuten da, ikaragarritzko ixiltasunean. Esan bear gogorrek ditu. Bañan ez goaz irakurleari herritzera lendidanik badakilako zeintsuk utsegiteak ezarriko dizkioten. Larreko, berriz, bere tokian bekañik mugitzeke ikusten

degu. Ain dago lasai! Ba-dirudi bera litzakela zalataria ta ez zalatua. Idazkariaren ondoren zalatariaren edo fiskalaren txanda da. Kopetillun, asarre-antza, egurrezko bere maia ukabil itxiaz joaz bere galderai ekiten dion:

—Egia al da esandako gaban Elurzulo'ra joan ziñala?

—Bai jauna.

—Ta zure adizkide Gautxori ezizenez deitzen diotenarekin, alkarrekin joateko itz eman zenutela?

—Bai jauna.

—Egia ote ere bein Elurzulo'ra iritxirik ¡alto! eman zizutela?

—Alaxen.

—Ta geldi bearrean izkillua erabilli zenutela karabinero bat zaurituz?

—Ez jauna.

—Zuk ez al zenun Quita! jauna erail?

—Ez iñolaz.

—Ta Gautxorik?

—Ez ta ere.

—Bai al liteke kontrabandora joanik gal zorirako ez zenutela erabakirik artu, alegia edozertarako prest egoteko?

—Ez ginjoazen kontrabandora. Beraz ezin orrelako txarkeririk asma.

—Zergatik ez bada gelditu ontarako otsegin ezkeroz?

—Betarik ez zigutelako eman. "Alto" orduko dunbatekoa txistuka zan. Ez genikigularik nortzuk ziran, beldurrez igeseketari eman genion.

—Aoitsak eta zinkuriñak entzunagatik ez ziñaten gelditu, ez da ala?

—Ala da.

—Jakingo zenun nork jaurti zituan aiotsak?

—Ez.

—Zure lagun Gautxori'k jaurtiak izan zitezkean, bada?

—Ez nenkin. Laisterka ikusi nun ta nik ere ala egin.

—Adizkide biok alkarrekin egon al zerate izkutuan?

—Ez jauna. Geroztik ez det ikusi.

—Zuek ez ba-ziñaten erailleak zer dala-ta ez azaldu bear tokian?

—Beldurragatik. Pensatzen genun gure bizkar botako zutela errua.

—Zertara zinjoazen mendira?

—Ibillaldi bat egitera, eguraztera.

—Ta nun ziñan gorderik?

—Frantzian.

—Len esana dezu geroztik ez dezula Gautxori ikusi. Frantzian ere ez? Nun da bera?

—Ez det ikusi ta ez dakit nun litekean.

Azken galdera auei Larreko'k nola erantzungo larri egona ba-zan entzuleen artean. Berau Joxanton zan. Arriturik zegoan oso. Ba-zekian Larreko mutil trebea zala bañan ez uste ainbestekoa. Egia esan ba-zun bear bada bere burua zurituko zuan. Ta giltzapetuta egon zalako aria emanik bera gaizki ibili bearrian izango zan, bai bere aita Kepandon ere. Onegatik, egizko damutasun zirrara nabaitzen asi zan. Txoraska egon zala egun artan bururatu zitzaion. Mutillaren galpidea ezezik, berea, gurasoena ta bere arreba Edurne'rena ere ekarri zorian ipiñi zuan. Ta oiartzuarra, bestalde, egin kaltea zalakuntza batez ordaindu zezakeana ixilik, itz-jale egon zan. Egitera ontaz oiartzuarrak azaltzen zuan gizatasuna ta adorea Joxanton'en baitan Larreko, rengana berealdiko begirapena sortu. Gizonik itzal aundikoak ba-ziran ura bat! Ta, beragatik, bere arrebak gizon zintzo aren maitasuna gal! Zeri begira egon ote zan alako astakeria egiteko?

Letradu-aldezlearen txanda etorririk galdera batzuk ere egin zizkion.

—Mendizale al zera?

—Bai jauna, oso mendizalea.

—Egun ortan ibillaldi luze bat egitekotan irten al ziñaten?

—Asmo ori genun.

—Iñoiz kontrabandoan ibili al zera?

—Iñoiz.

—Zuk ori diozu. Zer uste du gai onetzaz Oiartzun'go erriak?

—Nere izen ona ezaguna da erritar guztiagatik.

—Gautxori kontrabandista al da?

—Ez dakit. Nik ez det ikusi onelakotan.

—Eman al zenituztén izkilluak?

—Zertarako eman asmo txarrik ez ba-genun?

—Zein iduritzen gaizkillea izan litekenik.

—Ez jakin. Guretakorik ez iñor beintzat.

—Ederki ta aski dezu. Exeri zintezke.

Atezaiak, gelatik-at tiliña jo ta testigotzarako deitutakoak banan-banan sartzen asi ziran. Lendabizi Torrechica ta gero Doña Lucila. Beroiek esango zutena irakurleak gutxi gora-bera ba-daki. Ez goaz, beraz, berrizera.

Itxaso-nagusi-zabal ta barearen erdian oi ixiltasuna zan epai-aretoan fiskal jauna zutiturik bere zigor-itzaldia esaten asi zanean.

Epaikari jaun agurgarriak-zion-Gure eginbear garratza betebearez, ortarako gaudelako ta Zuzentza ludian nagusi joan dedin, epaikari jaunak nerekin Aia'ko Arria'n Elurzulo'raño eraman nai ditut ta gizon gazte bat, bere eginbear onurakorra betetzeagatik zinkuriñez ta aiotska eriotzapean erortzen ikusi. Garbi dago sendagille jaunak eman gutunean: gaizkille batek botatako balaz biotza jo ta eriotz utzi zutela.

Gizon bi, gure aurrean dagoana ta bestea bere adizkide bat, eriotz bezperan erabaki artu zuten. Ixilkako eginbear bat bete bear zutela. Testigoak esana du ta or dagon zalatuak ez du ukatu. Lege austera, kontrabandoa egitera dijoazte ta testigoak agintariei zalatu. Gezurra al zion? Ez iñolaz ere. Izendatutako gizon biak eta esandako ordu ta xeetasun guziak bete izan zirala, aurrean daukagunak ere ez du gezurtatu. "Alto" eman izan ziotela, alde biak egiztatu dute. Ta orduan dunbateko batek mendiaren ixilla urratu ta Quitol jaunaren biotza tarrataratu.

Ezin sinistu dezakegu beldurrak eraginda aldegin zutela. Gaizkillea edozertara edo edozer egitera dijoa bere txar-ibilleretan. Arrapatu ta espexeko zorian ikusten dalarik ez da beldur izaten iñor iltzeko. Ara emen gertatukoa ta iñork gezurtatu ezin dezakeana. Zergatik ez ziran gelditu artarako otsegin ziotenean? Zergataik gorderik egon beren buruak agertu bearrean? Ta zertara zijoazten?

Egia da Larreko'k izen ona betidanik izandu dula bere alderdian. Bai egia ere bere lagun Gautxori txit ezaguna dala kontrabandista bezela. Sagar txarrak ona usteldu, ta iñoiz txarkeririk egin gabeak, lagun txarrakin maiz alkartzen ba-da, gaiztakeria egin. Ta ezin ukatu leikena auxe da: gau artan Larreko'k kontrabando bideari ekin ziola. Igeseketari eman ta izkutuan gordetzen danak bere zea dulako gordetzen da. Gizon onek ez du garbitu nai zergatik eta nun egona zan. Bere ixiltasuna da bere gaiztakeriaren agerkai indartsuena.

Beraz, epaikari jaunak, gaizkilleak bere zigorra bear du. Bere ordaintza izan dezan ta iñorentzat ikasbide izan dedin. Bañan zigortzean, otoi dagiet epaikari jaunei, gizonen okerra dan neurrian adimenean izan dezaten. Ez baita bakarrik gizon bat illik. Emakume alargun gaxo bat negarretan utzi dula gogora izan. Eta ildakoa ez zala gizon bat soilki. Ertzain bat zan, bere eginbearretan jausia, Larterria'ren legeak zuzen betetzearren bizia galdua.

Negarretan dagoen alargunaren izenean, bere zaindari bat galdu-tako Larterria'ren izenean, ta lege-zale ta zuzentzale guzien izenean eriotza eskatzen det zigortzarako bai berarentzat bai oraindik gorde-rik dagoan bere lagun Gautxori'rentzat. Esan det”.

Entzuleen arpegiaren illun-itunak alaitasun txirrip batez jantzi ziran letradu-aldezlea bere txanda etorririk altxa ta Larreko gizajoa-ren alde izketan asi zanean.

“Epaikari jaun agurgarriak: Illobian il bat datza, egia da. Ta emen, gure aurrean, kontzientzia garbi daukanaren lasaitusanarekin, gizon gazte bat eralketa orren egille bezela. Ongi aski entzuna dezute fiskal jaunaren itzaldi azkarra.

Bañan itzaldi orren mamiaz ezin izan gindezke baiezkor, ez iñolaz ere. Zalatuak ez du ukatu bere etxerako bide-gurutzean esandako itzak, ez eta itzotan esan bezela egin izan zuten ibillera ta xeetasun besteak. Ixilkako gauz batera zijoaztela, esan du testigoak. Orixe be-
ra dio nere mutillak. Bañan kontrabandora egitera ez dijoazte. Kon-
trabando itza ez esan ta testigoak dionez ez aditu ere. Ta orain diot: Kon-
trabandoak bakarrik al dira ixilkako gauzak? Ez iñolaz ere. Men-
di ta basoak ikusi bearrak? ez ote? Ez aaztu nekazariak dirala. Ez ote
ere maitasun ibillerak? Ezin ezetzik esan biok gazteak diralako.

Egi-egia da, baño, kontrabandora ez zijoaztela. Berak ukatu du ta iñork ez du egiztatu. Ta gañera, epaikari jaunak, nun dira kontra-
bandoak? Zerbait utzi al zuten bere igeseketan? Ez! Ta bere etxeetan
egin miaketan zerbait arkitu al zitzaien? Ez da ere! Beraz, ezin esan
ortara zijoaztenik. Eta ortara ez zijoaztelarik, zertarako izkilluak era-
man?

“Ta ¡alto! oiukatzean dunbateko bat entzun zan ta igeseketari eman”.

Epaikari jaunak oian itzal batean jarriko nituzke, gau beltz-be-
tean. Ta zergatik, eta norengandik eta nundik jakin gabetanik alto

otsa ta dunbatekoa entzun. Ontaz, epaikari jaunak ez dakite lapur-
azaldariak diran edo ertzaiñak. Zer egin? Ziurrena, Larreko'k eta
Gautxori'k egin zutena. Au onela dalarik errex ulertu leikena da ge-
ro izkutuan egotea. Zabalduko bai-zan karabinero bat il zutela ta bere
bizkarrera jaurtitzen zutela gaiztakeria. Errexagoa da ¡azaldu! esaten
bestek egin bear duanean.

Arrigarrikoko gertakizun batzuk toki txarrean lagatzen dutela ne-
re zaindupean dagon gaztea, egia. Arrigarriak dira auzi ontako xee-
tasun oro. Ta gauz arrigarriak ezin egiztatu. Itzlari motel onentzat ez
dira naiko emen esan itzak eginkizun zurrak ez ba-daude. Ta gauz
ziurrik, eriotza izan ezik, ez da emen badaezpadako esaera batzuk
baizik.

Onegatik, zuen biotz-ontasuna ta zuen zuzentza zaletasuna jaki-
ñik, otoi dagizuet erabaki artzeco unetan gogoan izan dezazuten.
Eriotz bat dago emen uka-eziña. Txit tamalgarria! Tamalgarriagoa
izan leiken beste oker bat egin leike. Errugabeko gizon gazte bat,
gazte ta sasoitsua, itzal ta ospe aundikoa bere errian ezagutzen dute-
nentzat, gauza garbigo ikusi gaberik zigortzea. Ta, nere uste mote-
lean, zigorrik merezi ez dunean.

Biotzatik irtetzen zaiten uste oso ontaz azke utzitzea eskatzen dio-
tet. Esan det”.

Itzaldiaren aria baieztu mar-marra azaldu ba-zuten entzuleak,
amaitzerakoan zirriborro ederrik sortu zan oiubatzuen artean. Txalo
jotzea ere egingo zutela beren arpegiaren alaiak ba-zerakusten. Gale-
razia izaki.

Batezere Joxanton'en arpegiaren aldatzea ez zan txantxetakoa. Po-
zaren-pozez, itxaropen bizigarritz, arpegia ler bearrean zeukan.

Erabaki-itza ematekotan gelditu ziran epaikariak.

Eta entzule orok arpegiaren alaitasunean ba-zerakusten oiartzua-
rrarengako kale txukunetan barreiatzeko, izkutatzeko...

MATAZAREN MUTUR BAT AZALDU

“Ogei urte ta egun bat Quitol’en eraillearentzat”.

Artean egun asko joanik ez zirala izparringiak albiste au izki aundiz zekartela, Donosti’ko Paseo Berri’tik barna bikote bat alai aski egurazten ba-zijoazten. Besotik elduta, usapalak antzean mokoka txor-txor, ezititan zijoazten.

Emakumearen soin bikaña, gizakumeen tankerako jantzi beltzez, txit nabarmen azaltzen zan, batezere itxasoaren urdin-argian ebakitzten zanean. Inork ez zezakean ezagutu emakume panpox eta arpegi alai artan, illabete batzuk lenago ainbeste negar-zotin, aantzi ta deadar minberagarriak egiñak zitula. Doña Lucila’ri —igarri du irakurleak— aaztu zitzaizkion senarraren eriotzak eman naigabe latzak, aaztu zitzaizkion bai aaztu ere negarti bikain bezin marrulari obegoa zala. Euri-zaparrada bezela, motx egon ziran bere aantzi ta malko tantoak lur aldapatsuan ta laister galdu ziran aaztutze itxaso zabalean.

Torrechica karabineroa zun bere ondoan. Bere lanbidean darabilkiten jantzia ate baztarreko zintzilikaioan utzirik, gizon danak darabilkigun jantzi ezaguna zeraman. Jantzi urdin-illuna nabarmendu ez zedin geiegi andretxoak zeramakinaz.

Onela etortzeak bere zea ba-zuan. Egun alai bat igaro ta ospatzera etorriak ziran. Alargundu ordukoxe andretxoarenganako bere maitasun ateak zabaldu zitzaizkiola iduritu zitzaion. Zan bezelaxe. Bat-batean antzu ta legor gelditu zitzaion negar iturria. Bestetik, Torrechica’reñ zaletasuna aazitzen joan zalarik, geienik senarraren eragozpena gaindua zeukatelako. Alargun zan ta alarguna ar zezakean, bere emaztetzako artu gañera. Esan bai dezakegu ezkongaietan aragi-

grña zana asmo zuzen ta sutsuan biurtu zala. Orren aldi laburrean maitasunak azaldu ta ezkon itza eman zuten alkarri. Laister, oso laister elizak alkartuko zitun. Ta biak, alkarrekin, sendi zoriontsu berri bati asiera emango zioten.

Bitartean eztiak ametstuko zituzten, itxaropenak bizi-gozo izango, naigabeak aaztuko. Alatsu zijoazten itxas-ertzetik, itxasoaren asarreari jaramon aundirik egin gabe, bere albotik igarotzen ziran notiñak aintzakotzat artu gaberik, aldiz itxasoaren parrastadari igesiten zuten ikusle-jakinzalei par egin gabetanik. Itxasoak etorrera zakarran jotzen zitun arkaitz eta arresiak eta burrundara bizi-ikaragarrian gañez egiten zuan eguraztokia garbituaz. Onelako ur-parrastada batek ia busti zun gure bikotea, bañan bizkor ibili zan Torrechica bizkarretik bultzatuaz ta andretxoa beldurgabeko tokira eramana.

—Larri ibili ez ba-gera gero —esan zion karabineroak.

—Bai larri.

—Itxasoa onelakoa da. Gaur asarre bazter orok txikitu bearrez, itxas-ontziak legorreraño eramane milla puzketa egiñik, aixtin osasun betean ziraden gizonak ondartzetan itorik utzirik, eta bestalde, legorreko arresi ta itxiturak birrindu ta bere sabel erraietaraño eramane betiko irentsitzeko. Bañan bai gero eder baretzen danean ta bere ur-gañak oial-ontziaz eta itxasontzi nolanaikoaz apaintzen danean. Gure izatea ere alaxen da. Lucilatxo! Eriotza, odola, naigabeak eta negar-zotiñak ondoren gure biotzeko itxasoa baretu da ta bertatik zoriontsu ta bikainkiro joango da gure Maiteduna’reñ ontzi jaioberria. Ekaitz beldurgarriak zorionaldi arrunt ametstua ba-dakarkigu.

—Ez dakizu bada nere zorionaren neurria. Ain da aundia!

Ta onelakoak españetan zituztelarik jarraikiz bere ibilalditxoa, arrantzale ontziz betetako Donosti’ko kaiatik barna Kontxa gañeko eguraztokiraño eldu ziran. Ondartza utzik zegoan eta iguin asarreak ugartean jo patz-aparrez lertzeko ta bigunxeago ondartzan illik etzateko.

Bazkal ordua etorria zanik ostaturantz jo zuten. Zorionez gañezka, nola oi usapalak ezkur billa zorion lurretara egalari dijoaztenean...

* * *

“Joxe Mari”, nean bazkaldar geienak otorduari azkenak ematen ari ziran. Edurne ontziak bildu ta sukalderaño eramaten, garbitu zitzen. Lan ontan buru-belarri ari zala gure bikotea sartu zan. Baztar-baztarreneko maia aukeraturik bertan toki artu zuten. Edurne'berak oi bezela, maitekiro joan zitzaien zer bear zuten galdezka.

—Bazkaria bear degu, bañan bazkaririk obena— Janari zerrenda bai al dezu? —esan zion Doña Lucila'k milla imintzio ta milla lokeri egiñaz, benetako ergeltasunaz.

—Ba-dakarkizuet oraintxe.

Berialaxe zan neskamea eskatutako zerrenda eskuan ta Doña Lucila'ri eman zion. Onek artu, ta milla sonsonkeri esan ondoren bere bazkaria berezitu zuan.

—Gaur egun aundia degu! —esan zion alargunak neskameari.

—Txit aundia! —alargunaren itza sendotzearren-edo-mintza zan Torrechica.

Ta “neri bost ajola zait” esateko egondu zan Edurne. Larreko epaiketan izan gabea zalako ez zituan ezagutzen. Bañan atetik aurrean azaldu orduko ez zitzaizkion begikoak izan. Izan ere bera ain apala ta ixilla izanik ez zitzaizkion atsegin aien txorakeriak eta ergelkeriak. Andretxoan ontarako ba-zegoan bere maitaleak ameto egin ezezik besteak eraman txoro bidetik bai-zijoan.

Onelatsu, bazkaria aurrera zijoan. Jan-gelan zeuden beste bazkaldarrak joanik ziran ta bikotea bakarrik gelditu zan.

—A! ba-nun gogo bazkaldar lotsagabe oiek joan zitezen. Nola begiratzen nindutela gero...

—Ez arritu orretzaz. Nork gauz ederren zale danik zuri ez begiratu? Bañan ba-nun neronek ere gogo aldegin zezaten. Onela, ene politatxo, oro begi egon nintzaizuke...

—Ez dago gaizki esana. Bañan begira egonik lo egoten da bat. Ta gu egun alai bat ospatzera etorriak gera. Txanpañaz esnatu ta bizitu gaitezen.

—Ori da ta! Txanpañaren txinpartetan bizia dan eder!

Ta txalo joaz neskameari:

—Gazte, dakarkiguzu txanpañā barra-barra...

Bai azkarki ere Edurne'k maiean ipiñi. Edanontziak beterik altxa zituzten milla zorioneko opak alkarri egiñik.

—Gure zorionarako!

—Urte askotan alkarrekin zorionean gaitezen!

—Zure edertasunagatik!

—Zure maitasunagatik!

Ta esan-opak maizetzen ziran ta maiz ziran ere uztutzen txanpan edanontziak maitale bien eztarri zulotik beera. Azkenaldera neurri gabe. Alargunaren masaillak irusta-lorea baño gorriago jartzen ari ziran. Margo oiek zetorren ekaitzaren aitzindari zintzoak ziran. Egu-raztokian emakumea ta itxasoa berdindu zituan gizonak. Itxasoa asarretik pakera etortzen zan. Izadia naigabetik zorionera. Zorionetik zoritxarrera ere bultza lezake txanpañaren indarrak, itxasoak baretasunetik asarrera bezela. Ene bada! Txanpañaren indarrak eraginda Doña Lucila' ren barrunbean alako laño beltz ekaitzkumeak ernetzen zijoazten...

—Edan zagon! Ta egun alai au gora dezagon! —esan zuan Torrechica'k.

—Edan zagon! Au itzaren ederra! Edan zagon bai, ugari!

Berriro ere uztu ziran edanontziak zintzurretik barna. Doña Lucila'ren begi beltzak sua zerioten txinparta bizian. Ta Edurnetxo, berriz, bere jardunean ari zan arrituaren-arrituz. Zerbait gertatu bear zula antxea ta beldur zan. Ura bikotea! Zein ote ziran gero? Alako ergelik iñoiz igarotzeke ziran jan-gela artatik!

—Luzilatxo! Zorionaz mozkortua naukazu! Gaur ospatzen ari geran eguna alai ba-da zer ez ote izango ezkontzen geraden egunekoa. Ez da ez gauz ederragorik atsegin ta maite dan emakumearekin ezkontzea baño! Iduritzen zait bizitz osoan iraungo duan mozkor zoragarria orduntzen arrapatzen dala. Zorionezko mozkor nazu!

—Ni ere alatsu nago bai, mozkorra. Txit mozkorra... Txanpañ geiago, maite!

—Tori! Ta jaso! Gure maitasun illezkorra, aupa! Aupa gaur-egun alai!

—Aupa, bai, ta ospatu dezagon eguna! Alaitasuna bizi danari!

—Ta lurra ildakoei!

—Ta espetxea daudenei kate lodiak! Kateak Larreko'ri!

Edurne'k itzok entzun zitularik dardarez ta eziñegonez jarri zan.

Zer ikustekorik ote zuten bere maitallearekin? Ontzi garbiketan ari-tuki belarriak luzatu zitun. Aurrean, ixpilluak bikotearen igitze ta arpegi aldatzeak ematen zizkion.

—Larreko'tzaz zenbat eta gutxiago itzegin obe —goxoro ta oarza-le esan zion gizakumeak.

—Zergatik? Mozkorturik nago bai mozkorturik. Txanpan mozko-rraz ordea, ez maitasun mozkorraz. Larreko ongi dago dagoan to-kian. Pozik naiz nere bengantza lortu detalako! Danak izan zerate nere eskuetan jostallu...

—Lucila! Eroa! Ez izan eroa! Onela itzegiten ba-dezu laister ge-ra galduak! Izan zentzu!

—Zer zentzu ta zer porru-azak! Zer maitasun ta zer abarketak! Baztatu nindun ta orain negarrez ordain dezala. Ta...

—Ixilik gero Lucila! Gure maitasunagatik!

—Ja Ja, ja, ja, ja! Gure maitasunagatik? Eroturik! ez zaitut maite ez! Ez da nere senarra ere ez nun maite! Maitasun bat izan det ludian ta ura Larreko'rentzat. Izeka ta parra egin zidan! Baztatu ta sakarreratu nindun gorotza ba-nintzakean! Dagoala orain! Nere ben-gantza lorturik zorionez naiz. Edan zagun! Nere garaitza eguna ospa zagun!

Torrechica geldirik gelditu zan, txunditurik. Etzekian zer egin ere. Memelduta zegoan bein txanpan botillari begira bein andretxo txoraskari.

—Ez al dezu ontzia bete nai? Obe! Neronek beteko ditut!

Kopa bete ta zurrut batean uztu zuan. Berriz ere bete zuan. Ta berriz...

—Ez zaitut maite ez! Zuretzako nengoalakoan al ziñan, argal-txo? Larreko maite nun! Ura bakarrik! Ondo dago dagoan tokian! Nere senarra ere ez nun maite ez! Ura ere dagon tokian dago! Ba-ñan ba-dakit zeñek il zun! Ja, ja, ja, ja, ja! Ba...

Txanpañ botillak igesegin zion eskuetatik, eta maieko edanon-tziak piririkatu araziaz heroietaz lurrera erori zan. Ontan Doña Lu-cila aurreratu zan ontziak erori ez zitezen ta bera mai gañera erori. Altxatzen asi ta lurrean jó zuan luze-luze.

Ordituta zegoan. Txanpañez bete-betea. Aotik bitsa zerion. Zen-tzumenak eta burujabetasunak ezarritako arresi ta itxiturak etenik, gañezka, itxasoa oi bezela...

* * *

Donostian Arantzate abogadu jaunak duan despatxoan gaude. Despatxo onek ez du alde aundirik bere ogibidea dutenak jarritakoe-tatik. Mai bat, ertz batean aldizkari batzuk ditula; liburutegi bat, liburu lodi batzuz, ormetan argazki bi soil-soillik.

Arantzate jauna Larreko'ren abogadua degu ta onetzaz gañera ba-du zaletasun pixka bat polizi lanetarako, ta iñoiz gai ontan garai-tzak ezagutu ditu.

Esku bat okotzean dauka ta idazluma bestean. Txit arreta aun-dienaz ta gogotsu aditzen du esaten ari zaiotena, iñoiz-iñoiz gogoanga-rri izateko zirriborro batzuk paperean egiñik.

—Orduan, Edurne —esaten dio— ziur zaude zure entzumena ez dala okertu?

—Ziur naiz, Arantzate jauna. Bere itzak oietxek dituzu: Nik ba-dakit zeñek il zun. Ta oietxek ere: Larreko bakarrik maite izan det-erantzuten dio neskatxak.

—Zerbait ba-dakigu orain ta ez da gutxi. Ez da ez aurrerapen makala korapilloa azkatzeko bidean. Itxuraz, andretxoak mutilla mai-te ta maitasuna agertu, bañan mutillak zaputz eman. Onela ikustean emakumearen arrokeria gorroto biurtuko zan. Ta bengantza gogoa jaiio. Bai. Orain jabetzen naiz oiartzuarraren ixilik egonbearra ema-kume orren asmo okerrak ez zabaltzeagatik izan dala.

—Ba-liteke, bañan besterik ere ba-da —zuzendu zion neskatxak— Ez ote egon ixilik beste onengatik?

Ta Edurne'k esan zizkion apustuari buruz gertatutakoak. Bere anai Joxanton'ek Lasaka'ko basoetan egin ta bere jaiotetxean gerta-tutakoak. Bai lendidanik nolaz maite zuten alkarrri ta artu izan zun naigabe latza preso bere etxe ber-beran ikustean. Ta gertakizun aiek zirala bide mutillaren asarrea ta maitasunaren urratzea...

Oituta egonagatik onelako gauzak entzuten ezin izan zun gorde ixilik kolkoan bere ustekabea ta arritzea. Tarteka, ukabildurik zeu-kan esku batekin beste eskuaren txapla jotzen zuan, ozenkiro otse-giñaz: ¡gutziz ederki! ¡gutziz ederki!

Ta neskatxak esanbearreko guziak esan zizkionean:

—Izugarria! Berealdikoa! Matazaren mutur bat azaldu zaigu.

—Arantzate jauna: Uste al dezu auzia azkabidean jarri dala?

—Nik ala uste. Mutur ontatik tira ezkeroz ba-liteke korapillo-naasiketa azkatzea.

—Ai ala balitz! Orduantxe bai pozik nintzakela! Etzait ajolik nitzageiago gogoratzen ez ba-da ere! Len ainbat maite det eta ene maitasunaren bultzadari amor eman diot bere alde egin nezakeana gogobiotzez egiñaz.

—Ta ez damutu. Larreko'k ziñez maite zaitu. Orain ikusten det garbi zure etxeakoak eta zu ez naigabetu ta ez aotan ibiltzeagatik ixilik egondu dala. Itzegin izan ba-lu bestelakoa izango bere egonera gaur. Ta zuentzat kaltea ba-zetorkean. Pozik egon zindezke. Onela jokutzen duan gizonak, gizon oso, biotzdun, zentzudun eta, geienbat, maitedun agertzen da. Ta onelako gizona artzen duan emakumeak zoriona berekin datorkio.

—Bañan txit asarre zan ta ez zait itzuliko...

—Itzuliko zaizu, bai, Edurne. Maitasuna agertu dizu bere joeran. Etzaio itzali zure maitasun surik biotzean. Ta bere azkatasuna lortzen ba-degu, zuk azkatasun orren alderako eman laguntz egintzaren aizeak austerreak altxa ta maitasun sua gar bizietan altxaraziko du.

—Jaunak entzun dagizula! Ta ba-noa Arantzate jauna. Ordu det.

—Agur Edurne. Eztai maiean toki egin bearko didazute.

—Alaxen ba-da pozik-esan zion neskatxak bere naiak garbiro azaldurik.

Ta despatxo atea itxi zan. Exkalleratetik beera Edurnetxo abogaduak itsatsitako itxaropen ezietan. Arantzate jauna, herriz, bazulako nun burua nekatu aixtin jakindako berriaz, oldozkor bere gelan. Leioara bertaratu zan ta kanpoko argira begiratu zuan, bere buruarentzat argi txirrip bat-edo artuko zulakoan. Une batzuk geroxeago maiean exeri zan. Eskuak buruan, jarraibide egokia nola asmatu pentsatzen gelditu zan.

XVIII

ZEIÑEK IL ZUN QUITOL JAUNA?

Arantzate jaunak bere buruari amaikatxo bider egindako galdera, auxe.

Gertakizun guztien ardatz Doña Lucila zala ikusten zuan. Bañan esku eraillea ez ain errex. Nor ote? Doña Lucila, bera? Ba-zitekeana zan, bañan itxurari begiratuki ez. Bera, emakume bat joan ote zan bada baso illun artara zein ta bere senarra iltzera? Eziñekoa ez, bañan zail xamarra iduritzen zitzaion. Torrechica ote iltzallea? “Nik badakit zein il zun” zionean alargunak bere zergatia ba-zuan. Gauzen mamiari begiratuaz Torrechica izango zala ustetan edozein jarri zitekean. Berau, beintzat, zebillen emakumearen atzetik, bere maitasunaren atzetik eta itxuraz aurreratu xamarrak zeuden ezkontz gauzetan. Beraz, onek izan zezakean zergatik il Quitol, maite zun andrea bereganatzeko eragozpen bat zanez. Alargunak berak esana zun ere Joxe Mari, nean: “danak nere jostallu izan zerate”. Bere atzetik zebillako bultzatu ote zun bada ortara, gero Larreko'ren bizkarrera errua jaurtitzeko? Zitekeana zan. Bañan ildakoaren il-gutuna egindako sendagilleak ikusiko zun fusillaren balak il zula. Ta itxurak ere ikusiko zuan oiartzuar gazteak fusillekin ez zirala joango. Sendagilleari jaramon egin ezkeroz pistolatik irtendako bala bear. Nor orde ote? Gautxori bera? Ixilik, lagunari ezer esan gabetanik onelakorik egin ote zun? “Nere jostallu izan zerate” artan adierazi zezakean ere alargunak asiera eman ta besteak, ustegabeen, bere gogo baño bukaera obeagoa ematea. Ta alare Gautxori iltzalle izateko eunetik izanpide bat...

Nolanai ere Oiartzun'en aztarrika egitekotan gelditu zan. Alar-

guna baldin ba-zan auziaren ardatz, Oiartzun errota. Bertan irindu, egosi ta opilla egin. Izango ziran urixkan zerbait argitu ta lagunduko ziotenak. Lendabizi, beintzat, gau artako ibillaldiaren mamia jakin bear zuan, Gautxori garbi zegoalako bere uste osoa sendotzeko. Ta bein au jakiñik ildakoari galdegingo zion. Ildakoak bai-ba-dakite itzegiten iñoiz...

Aizkora apustuari buruz itzezin zuten izparringiak begiztatu ziotuan. Arritxabalaga amerikanoaren izena maiz aitatzen zuten buruzagi bezela. Berarengana jo bear zuan, jo zuan bezela.

Neskamea, eskuan txartela, joan zitzaionean, diru kontari ari zan lenengo aldia ez ba-zuan ere. Larreko'rentzat jokatu ta irabazitako eun milla pesetak ziran. Egunak joan egunak etorri, auziak aurrera-biderik ez, ta etsita Donosti'ra joanik Banko batera eramateko gertaketan ari zan.

—Don Joxe. Atean zai daukazun kaballeroak txartel au eman dit. Donosti'ko abogadu bat omen da.

Arritxabalaga'k saltoa ere egin zuan. Ta berekiko onela itzezin:

—Arrayoa, arranoa ta zapelatzak! Abogadu bat nigana? Zertara baño? Jendetxo ori zakurra izaki ta Larreko'k emen dirua ba-dula usaitu ote? A zer porlasik atera bear ditutanak, oraintxe! Alazankoa, nigandik ez dik bada askorik jakingo...

Ta neskameari:

—Sartu zazu. Adituko diogu zer nai dun.

Arantzate jauna sartu zanean etxe nagusiak eskeñitako exerlekuan jarri zan.

—Zerk bultzatu zaitun onaño, esango didazu.

—Bai pozik. Larreko'ren abogadu naiz. Auzi ortan ixilpean badaude gauz batzuk eta...

—Nik ez det ezer, obetogo esan ez dakit ezer-esan zion etxe nagusiak larria ezin eztairik.

—Lasaitu zaituz. Dakarkidan guztia ta jakin nai detan guztia bere onerako da. Epaiketá izan ondoren zerbait jakin det eta zerbait onek mutilla laister azkatu lezake. Bañan zuen laguntza bear det.

—Ia, bada, ia esan. —baretxeago mintzatu zitzaion.

—Zertara joan ziran gau artan mendira?

—Naparrak zenbateko "marka" egiten zuten jakitera.

—Ongi da. Guztiok itz bat dezute, Larreko izan ezik. Orain esan. Uste al dezu Gautxori'k egin zezakeala eriotz ura?

—Ez eta ez. Ainbeste kostatako ene tripatzar au jarriko nuke aizkora pean bestelakorik ba-litz.

—Ez bat ez beste zirala jakin nai nun ziur. Orain, zein zenuten geiago zuen apustulari taldean?

—Itzaibeltz, Letrax, Epelde gure erriko sakristaua...

—Orixe bear det, orixe. Gizon jatorra ta ixilkako lana agindu lezaiokena al degu sakristau ori?

—Errexagoa arkituko dezu gari pillan olo alea ludian besterik ori bezin jatorrik. Ez ta eguzkiaren azpian ta belarraren gañian miaka jarriko baziñake ere. Zein ori baño ohea iñori laguntzeko?

—Ori bear degu bada, ori.

Orduan esan zizkion Arritxabalaga arrituari Edurne, gandik ikasitako guzti-guztia. Ta bai ere bere asmoak. Eta amaitu zuan:

—Beraz, Epelde egin dedilla kanposantuko giltzekin. Ta gabeko amabi-amabietan ate ondoan izkutuan dagoala zai. Nere beribilean oraintxe ba-noa Donosti'ra ta nere beribilean ere joango natzaio Astigarraga'ko Benta'tik barna. Zedorrek esan guztia, ez da komeni alkarrekin ikusi gaitzaten-ta. Ta esku artean darabilkigunaren otsa ez dedilla kalean zabaldu, oraingoz. Ia, bada, agur.

—Ongi da, Arantzate jauna. Zuk esana egingo da. ta beste edo-zertarako ere bear ezkeroz zure mendean naukazu. Agur.

* * *

Esan bezela, beribilla bide bazter batean zokoratuta utzirik, ordu laurden batean oñez egin zuan illerriraño. Oinkada otsa entzun ordukoxe illunpe batetik Epelde irten zan otsegiñaz:

—Arantzate jauna?

—Bai. Zu Epelde?

—Bai jauna. Gabon.

—Gabon. Dana gerturik?

—Dan-dana.

—Goazen bada.

Epelde'k sakeletik ateratako giltzak karraxk egin zuan morroilluan. Ateak ere, gau ixillean, aantzi meean negar egin zuan olio-eza.

Arantzate jaunak zeramazkin linterna indartsu bi aietatik bat emanik sakristauari zuzen-zuzen ta ibillera biziaz joaten asi ziran. Ez baitzitaion lan aundirik izan Quitol jaunaren gorputza nun zan jakitea. Quitol jaunaren izena ozkatuta marmol-arri zuria argipean erakutsirik, esan zion :

—Auxe degu!

—Goazen, bada, gurera.

Gerrian zintzilik Arantzate jaunak zeramazkin atxur koxkor bi artu ta lurra jirutzen asi ziran. Illobi eztalkia azaldu zanean, berau altxa ta il-kutxa begi aurrean zeukaten. Kutxatik gorputza atera ta ikusmiran asi ziran, sudurrak zapi batez eztaliak zeuzkatela.

—Ara emen zauria —esan zion legegizonak.

—Irteera ala sarrera?

—Au sarrera dezu. Irtetzekoan uste duan ezur printzak ez dauka. Begira zaiogun bestaldetik. Ara emen irteera. Au ez da ez pistolaren bala. Ikus bestela.

Patrikaratik atera zitun bala batzuk eta zuloan jarri. Aunditxoa zuloa. Fusillaren bala, berriz, neurrian zetorren. Gauza garbi zegoan...

—Fusillak egiña da. Ta ez oso urrutitik. Begira emen erre aztarrenak. Torrechica degu emen iltzallea. Ta Doña Lucila axaxalaria. Senarrarengandik azke izateko ta Larreko'ri errua jaurtitzeko. Bañan, begira, onek arritzen nau. Bala atzeko saiets-ezur beenetik sartu ta aurreko bular-ezur goinetik irten. Torrechica lurrean etzanda zegoala botako zion, iñundik ere...

—Ta orain zer? —galdetu zion sakristauak jakiteko irrikatzen.

—Orain kutxa itxi, al dan txukunean. Lurrak eta besteak len bezelatsu laga. Biar emango ditut nere urratsak lege-bideetatik barna.

Esan bezela, guztia egin zutenean irten ziran. Atea giltzaz itxi ta agur itxaropentsu ta xamur bat egiñik, bakoitzak etorritako bideetan izkutatu ziran.

* * *

Laister eman zuten bere arnaria Arantzate jaunaren ibillerak. Aztarren berriak billatzeko bideak iriki ziran. Sendagille forenseak baieztatu zuan fusillaren balak garbitu zula Quitol. Onuzkeroz, auzia laister garbitu ta bukatzekoa zan.

Gauzok txit ixilik ibili izan zituztelako ez zuan onelakorik uste. Trujillo sarjentoak, urrutizkiñetik otsegin ziotenean. Telefonoa eskuan onela mintzatu zan :

—Bai, bai... Trujillo sarjentoa naiz... Nor da or?... Ongi, ongi... Esan, esan... Zer, zer?... Larreko errugabea dala... Ta ori?... Nola, nola?... etxean daukatela eraillea?... Ezin liteke ori... Bueno, bueno, zuek diozutenean... Arrigarritzko berri orrek txundituta uzten nau... Ez da ez iñor emendik irtengo. Bai, bai, lasai egon... Gero arte, bai. Agur.

Berriok mangatuta utzi zuten Trujillo jauna. Oraindik sinistu eziñik bere soin eroria exerlekuan jarri zuan. Benetan bai berri garratzak!

Bai beste batentzat ere, ala izan ziran. Sarjentoa exeriaz batera batedonbat pasillotik igaro zan anka-punttetan. Torrechica karabine-roa zan. Etxeko ormarekin bat egiñik, bertan josirik, belarriak zabalzabal sarjentoak telefonotik itzegindako guztia entzuten egondua zan.

Doidoi ziran ordu bi polizikoak etorri ziradenian. Trujillo sarjentoarekin izkutuko itzalditxoa egin ondoren, Doña Lucila azaldu zedin otsegin zioten. Etorririk, onelakotan oitutzen diran galderak egin zizkioten. Etziran emakumearekin izketan luze egon ta, itxuraz, azkar aitortuak izango zitun aitortu bearrekoak. Beintzat, laister pres-tatu ziran Torrechica'ri deitzeko. Trujillo sarjentoa bera izan zan Torrechica'ren gelaraño joanik atean koxkox jo zuna. Ez alperrik! An, barruan, etzegoan bizi zantzorik. Atea bultzatu zuan ta itxia. Zer gertatu ote? Aldegiña edo? Polizikoei otsegiñaz, atea botatzea erabaki zuten. Bai egin ere. Bañan sartu ziradenian ta ango kuadroa ikusi txunditurik gelditu ziran. Torrechica, eskuan pistola, lurrean zerraldo zetzan odol uzturik, odol putzu batean. Ta, mai gañean, lore-ontzi batek zapaldu idazki bat ikus zitekean. Ara zer zion :

“Trujillo jaunari: Barkaidazu ene sarjentoa. Ez diot iñori opa egunotan igaro ditudan larri, estuasun ta buruausteak. Ene bizitza inpernu bizi izan da etorri dan eguna etorri bear zulako, beldurrez. Barkatu bai kobarde izuti bai izan naizelako auzi onen asiera-asieratik. Eta orain ere ene burua eriotz uzten detanian. Izan ere kobardea da bizitz garratzaren beldur eriotz errexa arkitzen duna.

Zuzentzari beldur naiz, errugabea baldin ba-naiz ere zerodozertan. Nik il nun Quitol jauna, egia, bañan ustegabean ta nere gogoa-

ren aurka. Ba-dakit ez didazutela sinistuko, batezere Doña Lucila'k aitortuko zizuena entzunda gero. Esango bai-zizuen bere maitasuna irixtearren egin nuala. Bañan gertakizunak onela jaso ziran.

Andretxo ori atsegin zitzaidan, dei dagiolako bere izaerak gizonen griñei. Bañan, gaiztekeri ori egiteko ainbatean ez. Ta zoritxarreko gaba etorri zanean ez nintzan gogoratzen ere emakume orrengana ta adizkide jator bezela neraman alboan bere senar zoritxarrekoa. Aginduak betetzearren "alto" otsegin genienean gertatu zan ezbearra. Mutillengana aurreratu giñanean. Quitol jauna aurretik nuan. Txillar adartxo bat nere fusillean sartu ta dunba egin. Ikaratu nintzan. Zer zetorkidakean beldur jarri nintzan ene laguna eriotz ikustean. Ta nere beldurra mutillen igeseketak aizetu ta indartu zuten. Emendik dator nere kaltea.

Gero, alargunaren negar ta deadarrak ikusita bururatuko zitzaidan neregianatu nezakeala. Arritzeko, bañan orduantxe nere griñak egizko maitasunean biurtu. Ain zoraturik nintzan ez bai-nintzan konturatzen biotzgabe ta emakume zital baten jabe egin nai nuala. Ta bere maitasunaren jabe egingo nintzalakoan gezur borobilla zakatu nion; alegia, berarengana maitasunak eraginda alargun utzi nuala. Parrez artu ez zidan bada nere esana ta nik ez igarri bere biotzaren gogorra!

Orain jabetzen naiz zein en oker egon naizen, onelako emakume txoraska baten lillurapean egoteko. Zein gauz on dan emakumea, emakumea ona danean! Bañan gaiztoa danean bai gaiztoa ere! Bere inguruan negarra ta samiña barreatuko du. Arantz gabeko larros itxuratia da, bañan pozoiez betia. Nere burutik ikasi det egi au ta neronek nozitu.

"Joxe Mari", nean laister bear genun ezkontza ospatzeko bazkarian bildurik, txanpañaz lepezintzurreraño beterik aitortu ta ezagun arazi zidan bere barruaren gaiztoa. Ez niñun maite. Maite ez zun bezela bere senarra. Ez zun penik bere eriotzagatik eta egin negar ta deadar guztiak gezurrezkoak ziran. Itxura danez, Larreko edo ori maite zuan ta onek zaputz egin. Ez dakit kontrabandora ote zijozten. Ezetz esango nuke. Bañan zaputz egin ziolako zalatu zuan, beste zeredozer adituta, noski. Bere bengantza zan. Grin gaiztoa besterik ez duan emakumearen bengantz zital ta maltzurra.

Auxe da dana. Larrekoa errugabea da.

Len egia aitortu ba-nu bestela nintzake gaur. Beranduegi da. Danak izan gera jostallu andretxo orren atzaparretan. Ta txanpañen txinpartak bete zuten bere burutxo ariña ta gañez egin zuten eriotz gabako gertakizunen xeetasun indartsuenak edonun barratuaz...

Beldur nintzan ta ala gertatu. Zalatuak izan gaituzu. Len errugabea errudun agertzen zuten gertakizunak. Ta zigortua izan. Gertakizun berak errudun azaltzen naute. Zigortua izango nintzake. Ta nik ez kemenik orretarako...

Damaiozue azkatasun Larreko'ri. Ta barkaidazute danok. Agur.

Torrechica".

Arantzate jaunengandik zekiellarik polizikoak gertakizun guztien berri, burua eragiñaz, Trujillo sarjentoari onela esan zioten:

—Iturrian ur txirripa baño garbigo dago!

—Zeiñek esan! —aopean, esan zuan sarjentoak.

Polizikoak, papertxo ondo-ondo tolestaturik eta patxara eztenkorrenean, patrikaran gorde zuten. Larreko'rentzat azkatasun-papergutuna zan.

GAZI-GEZAK

Azkatasuna aize muxukalariak eta kaleko argi gozagarriak Larreko'k berriro ezagutu zuan aste berean, Arantzate jaunaren despaxoan arkitzen zan, onek otseginda. Polizi jator ta legegizon jakintsu bezin oker-zuzentzalle on bazalako, otsegin.

Guri ezagun zaiguna txit, au da, Edurne'ri zor ziola geienbat bere azkatasuna, itz sarkorretan azaldu zion itzik eta pitzik jan gaberik ta berak zekian bezela ederki aski borobildu ta gorrituta. Agertu zion ere neskatak len ainbatean ez ba-zan, geiago maite zula. Larreko'k ere leialki azaldu zion bere biotz barrengo arra. Zeiñen zakarki egon zan eta zenbatez maite zuan; egundaño galdu ez zuan maitasuna barrenagotu, sakonduagotu ta sutu egin zitzaiola. Ta, noski, auek entzutean Arantzate jaunak antolatuta zuan ustegabekoa begi aurrean azaltzeko ordu egoki zala iduritirik, Larreko despatxoan bakarrik utzita etxe barruan sartu zan. Andik laister, txit berialaxe Edurne'rekin sartzen zan.

Orrelakorik ezer azaldu etziolako oiartzuarra txit arriturik gelditu zan, bere maiteñoa an ikusirik. Bañan arrituaren keñuak eta begiratuak baño indar geiago agertzen zuten bere begietan bere maitasunaren txinpartak eta itxaropen galdak. Beso batetik neskaxari eldu ta mutillari beste batetik eta alkartu arazi zituan, besarkatu zitezen.

Bai, ustegabe ta besarkada artaz legegizonak bikoteari ain ixilki zekarkiena zoriona zan. Zorion bete-betea. Maitasun garbienak maitalei lekarkien zorionik eztieta. Maitasuna bai-zan orduantxe erberriturik udaberrian gure mendietan xixa-xuria bezela, barratzen

bere usai-goxo zoragarria; xixa-xuria bezela biotz-mendizulo orokorretan ixil-ixilik berpizturik.

—Edurne!

—Larreko!

Itz besterik ez zuten egin. Euzkaldunak bezela adierazi zioten alkarri bere maitasun neurrigabekoa. Itz gutxiekin, ixilkor bañan bai adierazkor. Xixa-xuri ixillak, mendigorri ixillean bizi dala bere usai goxoz adierazten dun bezela. Bere maitasun ixillak zalatzen zuan bere usai liluragarriaz bai, urrutira bere maitasunaren emaitza nuntsu erne bear zuan bete-betea; antxen erriko eleizatxo aldare bazterrean...

Arantzate jaunak, berak baño zoriontsuago, irripar goxo batez begiratzen zien. Bañan bizitzan aritu bearra degu. Ta onegatik zorion ametsetan zeudenak esnarazi zituan. Ezkontza ta buzkantza berorik. Ta Arantzate jaunak ate aurrean gerturik zeukan bere beribil apaña bikotea Lesaka'raño eraman zitza. Ta bera zuzendari, uxu abitu ziran, mugaz ondoko bidezabaletatik.

* * *

Lesaka'ra eldurik beribilla enparantza erdian gelditu. Gure bikotea jetxi ta Arantzate jauna bertan geldi Udaletxean zerbait egin bear aitzaki. Lerdea zeriola begira gelditu zitzaien gazte bie txera bidean jarri ziradenian, ain pozkiraz ta zoriontsu zijoaztelarik neskaxaren gurasoengana beren zoria ta beren ezkontzeko asmoak azaltzera.

Ez ba-genekigu onelakotan maitasunak ez dagiola tokirik uzten usteari, esango genuke beren ustetan sasi ta zugaitz adarretan, emen ta or xalto zebiltzen txoriak beroientzat zituztela abesti txantxanak; eta bidebazter, baratz eta loretegiatan anitz margoz jantzita zeuden lora pinpiliñak bere bizitz berria apaintzeko jantzi izan zirala ta bere usai goxoak edatu zerutar biurtzeko berak igaro bear bazter orok.

Bañan zorionak aldean darabilki samiña, udazken xarmantak negu gorria ta larros usai-goxodunak arantz ez tentsua. Berak zorion eztieta zijoaztenean Edurne'ren jaiotetxean ba-zan zergatik negar egin, zergatik itun egon, zergatik itxaropenik galdu.

Egun artan jaso bai-zuten itxaro zuten berri txarra. Ba-dakigu lendidanik Joxanton'ek etxe ta lur ta xox guztiak jokatu izan zitula

aiskora apustuan. Ta, artzalleak, egunak joan eta egunak etorri aspertuak zeuden Joxanton'en ordaintzeko aginduekin. Ordain-dirua etzutelako artzen etxea amabost egun barruan uztutzeko epea zemaïoten. Ta basetxearen ordain balioa aurreratzeko legokenik arkitzen ez. Antzin-antziñako asabengandik artutako etxe maitea utzi egin bear, erbestekoak bertan sartu zitezzen. Ta dana, apustu lardaska bat zala bide. Egia, ez zan lendabizikoa. Lenago ere onelakoak ezagutu izan ditu Euzkal Erriak ain barrena sarturik daukagun apustu-gaitza erro sendoak gugan arturik dauzkalako. Ez zan ere izango azkenekoa, baldin sustarretik ateratzen ez ba-degu, beintzat, gaitza. Gizonen griñak zearo itotzen gauz zalla da, ia eziñezkoa. Apustua da euzkal errien birika gaitza, txit indartua ta, onegatik, zaila zearo sendatzen. Gure erria bizi dediño arpegian eramango degu ezaugarri apustu griñaren aztarrenak.

Etxe atadira eldu ordukoxe arritu ziran ango ixiltasunaz. "Agur Maria" alai bat otsegiñaz etxe barrura egin zuten. Berriz ere ixilla. Abegi on egitera iñor etortzeke artean, sukalderatu ziran. Begiratu batez konturatu ziran etxe artan zegoan ezbearraz, bien artean aitatu ez ba-zuten ere Joxanton'ek egin joera zoritxarrekoa. Edurne'n ama negar bizian zegoan sutoki ondoan. Joxanton, berriz, aulki batean exeririk, bere pentsamentu beltzetarako bakarrik zegoan. Edurne-txo'ren anai-arrebatxoak negarrez ere ta begi-zabal zeuden arriturik amari begira, ulertu eziñik lana ta poza ta pakea besterik ezagutu ez zan etxean ez lanerako ta ez pakerako baizik negarrarako bakarrik zeudela ikustean. Etxenagusia, izpar garratzaz gaixoturik, oiean zegoan itxaropen guztia galdu dunaren makaltasunaz.

—Egun on! Zer duzute baño orren naigabeturik egoteko? —esan zien, ozenki, etxalabak.

Orduan esnatu ziran bere naigabe lo-zorrotik. Ama izan zan ollaloka gal zorian dagoan txitoarengana joan oi bezela, joan zitzai-ona. Lepotik eldu ta muxu ta negarraz busti zuan alabaren arpegi eder borobilla.

—Ene alaba! Ene alaba! Galduak gaitun! Ire aitonon-aitonak ta ire senide guztiak jaiotzen ikusitako etxea betirako laga bear! Ara zoritxarreko apustu orrek ekarri diguna! Negar egin zan, bai negar ene alaba, baldin biotzik ba-dun iretarrakin! —esan zion amak, gauz guztiak zeatz egiñak daudela uste dunaren etsipenez.

—Negar dagit, bai, ama, zurekin! —muxukatuz esan zion— Ta zuekin ere!

Au entzutean, ama utzi ta bere senideengana besarkatu ta muxukatzerara joan zan. Ixilik egon izan ziran danok. Joxanton bakarrik izan zan, egizko damutasunaz, bere keñuetan biotza naigabez urtua erakutsirik, zuzendu ziona:

—Barka akidan, Edurne! Ni naun errudun! Ta ik eta ok nozitu bear nere okerra! Barka akidan, barka bai Edurne!

—Barkaturik ago. Geiago olakorik ez aitatu! Onuzkeroz gure negarrak ez ditek bigunduko gure lurra len gure izardiak bezela. Bañan kalean ere bizitzen da lana egin ezkeroz. Saiatu egin bear. Nik al dezakean neurrian nere laguntza izango duzute. Ta zuek...

—Errexa dun esaten, Edurne: kalera! Kalean zer? Itxura ederren azpian gezur maltzurra maiz egoten dun gordea. Ez diñagu bestela ere etsiko. Emen bizi izandu ditun zorionean lanean gure aurrekoak. Emen bizi izan gaitun, geiegikeririk gabe bañan zoriontsu, oraiñartean. Emen biziko unan gure ondorengo sendia gugana gogoratuaz. Ta, orain, dan-dana laga bear. Parregarri agertu bear erritarren ta ezagunen artean. Ta, lotsaz, jango ba-dugu ezezagunetara jo bear lanaren eske. Ori nigatik! Ori apustu txar bategatik; Lepoan arria loturik Bidasoa ibaira bota bear ninduzueke...

—Ago ixilik, olakorik esan gabe! Tamalgarria duk jaiotetxea utzitzea ta geiago itxura onetan. Ba-zekiat ongi basetxea dugula euzkaldunen jatorri gordelaria! Bañan... orain berandu negar egiteko.

—Bai, berandu dun! esan zion anaiak, etsipenez, arrebari-Mirari batek bakarrik salbatuko gatzion!

Orduan, sukalde ate ondoan ia izkutuan zegoan Larreko, sukalde barrura aurreraturik, itz ozenez mintzatu zan.

—Miraria izango da zuentzat!

Sor ta lor gelditu ziran, antxen, euki izan zuten presoan presondegian azaltzen ikustean. Bañan, barrundik indar al bezela atereaz. Joxanton izan zan lenen joan zitzai-ona apal ta umiltasunez, berak egin okerrarentzat barkazio eske:

—I emen Larreko? Arren, barkatuko al nauk egin izan nikan gaitza!

—Barkaturik ago!

Ta etxeandreak:

—Ez degu begirik izan zu emen ziñanik ikusteko gure naigabea. Barka gaitzazu etxe ontan egin zitzaizun iraiñagatik. Ez dugu merezi ez, zu onuntz etortzea... Gure joera kokorrek zuk merezi duzun abegi ona egiteko gauz ez gerala utzi gaitu. Zearo lur jota gaude. Ta gure etxean, iñoiz ez bezela, zer eskeñi ez daukagu...

—Utzi dagigun gauzok —erantzun zion mutillak, otxanki— Zure alabarekin neretzat zerbait on izango dalakuan etorriak gaituzu, ez da ala, Edurne?

—Bai, alaxen da, ene Larreko. Zorigaitza besterik ez dugu arkitu zori billa etorri geradenian. Ene jaiotetxea, ene sendia ondatuta dago. Miraririk izango ez dalako, aldi lakar auetan ene sendiarekin batuago egon bearrian naiz. Gure asmoak atzerapena naitanaiez bearko dute...

—Zergatik atzerapenak? Diruarengatik? Miraria etorria da. Ara emen...

Au esatean sakelean zekarren paketetxea atera zuan. Bilkuratzako zeukan papertxoa kendu ta guztion aurrean milla pesetako billete xorta polit bat azaldu zan.

Edurne'ren eskeñiaz, esan zion :

—Eun milla peseta dituzu, etxea ostera zuenganatzeko. Ara zeruak aditu ta miraria egin!

—Bañan diruak zureak dira, gorde itzazkezu. Naiko kalte egin genizugun lenago ere ta oraindik on egiñaz ba-zatozkiguzu. Ez dugu ezer egin zure biotzaren ona alde izateko. Ez, ez, gorde itzazu. Ta ezkerak anitez, ezkerak zure biotzaren zabalari.

—Ene diruak dira bai, bañan zuentzat aizkora apustuan irabaziak. Zuok bultzatu ninduzuten jokora. Zuegatik artu nun asmo. Zuek egin zenuten dei nere barruan bide ortatik jo nezan...

—Bañañ, guk? Nola? —galdetu zion arrituta Joxanton'ek.

—Bai, Joxanton, bai, zuek! Obetogo esan ire aitak eta amak. Ige-segin nuanean goiko ganbaratik ez neramakian onelako asmorik. Bañan orroko leio orretatik igarotzean ta ire ama ta aita otoi beroan, belaunikaturik, malko ixurkian Gipuzkoa'ko Zaindari degun Arantzazu'ko Ama'ren irudi orren oñetan arrenka bizi artan ikustean, garbiro ikusi nikan etxe ontako drama ikaragarria, lenik zerbait sumaturik ba-nengoaken ere. Ta oartu niñuken biotz zabaleko jendeak ziñatela etxe ontako guztiok, naiz eta eroaldiren batean nere kaltetan ibili ba-intzaken ere. Ta or, leio orren bestaldetik, otoi egin nikan

ere ire gurasoekin, berak bezela lur otzean pikotxian zeruko leio diraden izarretara begira, soin begiz eta gogoaren begiz. Eta orduan, zerutik jetxia iduritu zitzaidaken dirua jokatzeko asmoa. Zuen galarak nolabait txukatu nezan, ziur bai-nintzan Muñoluzea'k irabaziko zuala joko. Auxen dezute guzia. Auxe, ire gurasoak eskatutako mesede! Auxe zeruko miraria!

—Ori geiegia duzu, Larreko! Noiz ordainduko dizugu guzia? Zer eman dezaizukegu zuk merezi duzuna? —negar ta poza naasian, zuzendu zion etxeoandreak.

—Etxean dezun gauz bakarra nai det.

—Zurea izango da zer-nai eskatzen duzula ere.

—Zure alaba nai det, Edurne. Beti-betirako...

Españañak esandako baietzik ez zan antxen entzun. Bañan amak alabarengana joanik eman izan zizkion besarkadan eta muxukatzeak itz guztiak baño indar geiago zutela agertzen zuten. Txit euzkaldun modu jatorra da itzagabe itzegitia. Ez da itzen izkera baizik egin-tzena.

* * *

Ta etorri beingobatez egun alai ta zoriontsua.

Aldare aurrean gure bikotea apain ta eder agiri. Eleizako soñu-tresnak oi diran eresi xamurrak darabilzki. Apaizak, ezkontz itz bereziak zuzendu dizkie. Berriz ere eresi goitarrak...

Ta irten diradenian, sarreran bezela, eleiz-ate-arkupean ezpata-dantzariak bere ezpataz egiñik daukate onratzeko zubia. Azpitik igarotzean txistulariak "Agur jaunak" eresi goxoa jotzen ari dira.

Gero, ostatuan mai eder bat eta bazkaria ohea. Bertan ezagun zaizkgun oiartzuar ta lesakar oro, Arantzate jauna tartean dala. Es-ku-estutze ta zorion emateak. Kaixo ta eupadak. Euzkal abestiak. Bertsolariak. Txantxak eta ziriak...

—Ez dago garbi nor geran geiago, gipuzkoarrak ala naparrak —dio, zirikatzaile ta jostallu egun batzuk dirala Frantzi'tik etorritako Gautxori'k.

—Zuek, gipuzkoarrok, beti nagusi. Apustua galtzen ba-duzute diruarekin geldi. Ta irabazten ba-duzute, esan bearrik ere ez —erantzuten dio, tankera beran, Txokolo bertsolariak.

—Orain ere, ikus —esaten du Lekarotz'ek— Ba-daramikiguzute
erriko neskatxik eder ta maratzena.

—Ori Larreko'ri esan, ber-berari —ausartzen da Epelde sakristaua.

—Ongi merezia gañera! —dio Joxanton'ek— Neskatxaren anai
ta napar naizen aldetik aitortu bearra daukat. Bata bestearentzat
egiñak dirala dirudite. Mendi baten zimurretan jaio ta izkera berdiña
darabilkie. Emen ez baitago naparrrik edo gipuzkoarrrik, euzkaldunak
baizik. Ta euzkaldunak geradenez dana etxean gelditzen da.

—Bai, bai ala duk! Bañan gipuzkoarrok... ok bai ok trastetxok!

XX

AZKEN ONDORENAK

Amar urtean lorez pinportatu dira gure sagastiak. Eta bere emai-
tzak, sagar gorri gizenak lertu dira beste amar urtean kupel-sabel-
zabala bere salda txinpartatsu ederraz betetzeko ta sagardozaileen
kutisiak asetzeko. Zugaitz onak arnari onak. Egur onak ezpal onak
eta egur txarrak ezpal txarrak, berriz.

Ikusia dezute Patxikorena'k aukeratu egurrak zer ekarri zion.
Onetaz gañera au egi dala ikus dezakegu amar urteotan zertan diran
gure eleberriaren notin nagusienei begiraturik. Lenaz gañera ere, gar-
biago ta gardenago ikus dezakegu gure eleberriaren mimikoia.

Idazleak Barcelona'ko Barrio Chino'ra emango zinduzkea. Antxen
dago egur txarreko ezpala. Etzeniotekete antzik ere artuko. Oraingo
Doña Lucila ez da guk ezagutzen deguna, ezta alderako ere. Bere
senarraren eriotz-auzia zuritu zanekoxe bide txarragoari ekin zion,
geienetan gerta oi dan bezela. Ezin zizun inñolaz ere aaztu gertatutakoa.
Gizon bien eriotza maiz zetorkion adimenera. Ta Larreko'ren garai-
tzak geiagotu besterik etzun egin bere gorrotoa. Bere bengantza utsean
gelditu zala gogoratu utsak erremindurik jartzen zuan. Ain emakume
eder zanik orrela zapuztu zuan gizon ura, berarengatik edozer emango
zuan gizon ura, inñork ez bezela ta bera-bakarrik maite izan zuan
uraxe oroitu orduko biotz-barru guztiak jiratzen zizkion. Aaztu egin
nai zun betirako, aaztu Larreko, aaztu lurpean zeudenak eta bere
arrokeria zapaltzen ikusi zuten bazter eze aiek. Aaztu edariaz, aaztu
maitale berriekin...

Bai, asieran eder ta lirain izan zan artean izan zitun begiraleak.
Bañan aspertzen ere asi ziran. Besorik-beso ibili izan zan, dantzan,

KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan,
Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean
b) Kristau-pentsakera barruan
(ezi zabala) lan egiteko.

Bazkideak (gizon ala emakume) milla pta.
ordainduko dute sarrerako ta beste mi-
lla urtero. Diru oiekin ateratzen da
KARDABERAZ BILDUMA, bazki-
deentzako ezean.

Arpidedunak (bazkide nai ez dutenak) li-
buruak artzera beartzen dituzte beuren
buruak.

Bazkide nai arpidedun egiteko nora jo?
Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Donostian: Pedro Berrondo, c/ S. Martín,
57, etrlo.

Bilbon: José Antonio Retolaza, "Kili-Kili"
c/ Orueta, 1-3.º dcha. (Bilbao-9).

Gazteizen: Jose Zunzunegui, Seminario
Diocesano.

Amorebietan: S. Onaindia, Larrea.

Tolosan: Juan José Garmendia, Técnicas
de Difusión, c/ S. Francisco, 1.



EGILLEAREN IDAZLE-BIZITZ LABURRA

Tolosa'n 1909'gko. Azilla'ren 13'gnean. jaio zan. Comercio ikasketak egin zituan Eskolapio'etan.

Gazterik, doi-doi idazten asi zan orduko egunkari eta alderkori euskaldun guzietan. Geroztik, "Euzko-Gogoia", "Egan", "Aranzazu", "Zeruko Argia" eta azken onetan "Goi-Argi"n eta "Agur"en maiz azaltzen dira bere lanak.

Guda ondoren, lan ixil bati ekin zion. Erbestean, inoren argitasun eta laguntzik gabe, erri-miña pozkiratzearren, eleberririk idazten asi zan. Gero, ipuikiak, antzerkiak, bertsoak, olerkiak...

Berak asmatutako lanak auztekek dituzte; lau eleberririk edo nobela, ogeitabost antzerki, ipui-labur eta luzeak xorta ugari bat, olerkiak eta bertsoak saillean.

Onetaz gainera, beste izkuntzetatik artu ta euskeratuak ere ba-ditu: iru eleberririk: Simenon'en "La de pendu Saint-Pholien"; Edgar Wallace'ren "Iron Greep" eta, azkenik Kardaberaz Bilduman azaldutako "Sugegorri Korapilloa (Noeud de vipères)", François Mauriac'ena, Andreiev, Andersen eta Dickens'en ipui xorta xorta eder bat. Antzerkiak: Alvarez Quintero'ren "Doña Clarines"; Rabindranat Tagore'ren "Amal"; Mauricio Rosencof'en "La Calesita Rebelde" (Aur-antzerkia); J. Conty-G. Visant'en "Le hockey" eta Bernard Shaw'en "Pigmalion".

Bere ixil-lan au 1956 garrenean eten zuan lenengoz sariketa batera azalduaz, eta ain zuzen "Año Jubilar de Aranzazu"n itz-lauz edo prosan lenengo saria irabazirik bere "Zotaletxe"ko arziaia" ipuiaz. Gerogoz, jarraian, Donosti'ko CIT'ek eratutako "Olerki-Jokan" bigarren saria; Zarauz'ko CIT'en ipui sariketan, lenengo saria (erdibitua); Errenderri'ko ipui sariketan, bigarren saria; "Euskaltzaindia"ren Aur-Antzerki Sariketan, lenengoa (erdibitua); "Sabindiar Bazkunak" eratutako Sabin'en azterketa buruz (berak, euskeraz) bigarren saria; eta, azkenik, emen dijoakizuen "EZPALAK", "Agur",ek egin sariketan bigarren saria irabazitakoa.

"Agora"k egin sariketetan bigarren edo finalista, saririk gabe, gelditu zan bere "Xixorien gertaera" eleberriarekin, eta ainbat aldiz bere antzerki batzuekin. Aipamen bereziak sarri jaso oi ditu ere.

Bere antzerki batzuek, oi bezela "Biok... Jeolimo", "Neronek galdu nuen nere alaba", "Eskontzeko Deia", "Itzulera" eta euskeratutako "Zaldilaria" antzokiz-antzoki ibili dira Euskal-lerri zear.

Labur-zurrean azaldu dizuegun bere bizitzak gizon saiatu bat dala agertzen digu. Euskera goi-malla batera irixtea da bere naia. Euskalduna euskeraz jolastea nai luke. Eta asmo onekin dijoakizue "EZPALAK" aleixo au. Berak, liburu onen bitartez, eramango zaitue Oartzun alderdi zoragarrietara. Ziur gaude, irakurri eta bere esan-naia aztertzen ba-dezute, egillearen poza egingo dezutela... eta ongien saritua nabaituko dala. Eta zuek ere izango dituzutela amaika ordu zabarkiago alperrikalduak.